


Jose Azpiroz

Alkarrentzat jaioak



Alkarrentzat jaioak

SENDOA ARGITALDARIA

Ugaldetxo auzoa

Tels. (943) 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax (943) 49 35 48

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Jose Azpiroz

Alkarrentzat jaioak

Auspoa Liburutegia
(1997)

© SENDOA ARGITALDARIA

Fotokonposaketa eta inprimaketa: ITXAROPENA, S.A., Zarautz

ISBN: 84-89080-59-3

Legezko Gordailua: S.S. 1180/97

Izen-zerrenda

Beristain baserrian:

Miel, nagusia, aita.

Joxepa, etxekoandrea, ama.

Maritxu, alaba.

Egileor baserrian:

Joxinaxio, maiztarra, aita.

Paula, ama.

Joxe, semea.

Begoña, alaba.

Pello, semea.

Ixabel, alaba.

Inaxio, semea.

Andres, semea.

Joxepa, alaba.

Luis, semea.

Kristina, Joxinaxioren arreba, Donostiko *Hotel Londres*-en neskame zegoana.

Bekoetxe baserrian:

Praisku, nagusia, aita.

Kontxi, ama.

Bernardo, semea.

Martin, semea.

Izaskun, alaba.

Pako, semea.

Paulo, semea.

Goikoetxe baserrian:

Permin, nagusia, aita.
Martina, ama, Beristaingo Mielen arreba.
Mieltxo, semea.
Karmen, alaba.

Iturburu baserrian:

Miel Martin, aitona.
Joxe, nagusia, aita.
Maria, emaztea.
Kristina, alaba.
Inaxio, semea.
Teopillo, semea.

Etxeberri baserrian:

Paulo, nagusia, aita.
Iñaxio, semea.

Iturralde baserrian:

Antonia, etxekoandrea, ama.
Juan Jose, semea.
Ramona, alaba.
Felixia, alaba.

Gazpio baserrian:

Roman, bertako iru senideetako bat.
Anjeles, bertako iru senideetako bat.
Esteban, bertako iru senideetako bat.

Beste batzuk:

Don Inazio, erriko erretorea.
Petra
Jose, Tolosako arakiña.

Zelaiko baserrian

Martiuxe, nagusia, aita.
Joxe Mari, semea.

Gazteluko Azpikoetxe baserrian:

Austin, nagusia, aita.
Katalin, etxekoandrea, ama.
Antonio; aitona.

Anttoni, amona.

Isabel, Austiñen arreba, Lizartzara ezkondua.

Larte baserrian:

Inaxio, semea.

Izaskun, alaba.

Lizarreta baserrian:

Miel Anton, nagusia.

Garagarza baserrian:

Martin, semea.

Beste batzuk:

Don Juan erriko erretorea.

Pako. Gazteliko mutil bat.

Beristaingo Miel

A STELENA zan da goizetik jatenak egin. Miel perira joan asmotan zebillen. Bezpera-eguerdian, bazkaltzerakoan, bere emazte Joxepa eta alaba Maritxurekin jardun zuan izketan, nola txekorra ere saldu bearra zeukaten, da zer korritzen zuan jakin edo arakiñari esan edo zerbait ekarriz Tolosara joan nai zukeala; eta erabaki zuten egin bearra zegoala eta joateko.

Goiz bazkaldu ta prestatu zan. Etxekoak agurtu eta abiatzera zijoala, atarian pasa zan Egileorko Joxiñaxio, bere bruxa beltza jantzita. Deitu zion:

— E, Joxiñaxio! Nora zoaz orren apain jantzita?

— Perirako asmoan —erantzun zion.

— Ni ere banoa. Nai badezu, biok batean joango gera.

— Nik zer geiago nai det? Goazen.

Ala, bi gizonak alkarrekin jarri ziran Tolosara bidean.

Auek bizi ziran baillarak zortzi etxe zituan: Beristain, Iturralde, Gazpio, Etxeberri, Bekoetxe, Goikoetxe, Iturburu eta Egileor.

Beristaingoa zan Miel. Basarri bikaiña zuten. Goieneko etxea zan da berena zuten aspalditik.

Gizon jatorra eta bikaiña gaiñera. Bere musu gorriekin, berrogei ta bost urte zeuzkan, da langille gogorra.

Berrogeiren bat urte zeuzkala, katarro gogorra arrapatu zuan. Udaberria zan da, karobia egin naiean, gaztaiñak ipurditik ateratzen ari ziran. Karobia, bere koiñado Goikoetxeko Permiñekin batean, alkarri lagunduz egitea erabaki zuten. Orren etxe-atarian zegoan labea, eta egurra Beristaiñen zeukatzen.

Beti asmoa zuan Mielek gaztaiñadi ura atera ipurditik eta, nola zelai dezentea zan, belaze berria egitea; eta, Permiñek lagunduko ziola esan zionean, pozik ekin zion lanari. Egurra lasai bazegoan eta lantoki bikaiña, arririk gabea, lur mamia eta etxetik gertuan.

Martxoaren azkeneko eguna zan da garbi-garbi zegoan. Eguraldi zoroa. Permiñek, garaiz etorri ta Mieli esan zion noizbait arrobira ere joan bearra zeukatela; ez legokela eguraldi txarra.

— Motell, guk egin bearra dek gero ere eta etziok ajola.

— Eta otordua nola?

Eta Permiñek esan zion:

— Guretik zegok aldeena ta gure mutikoak astoan eramango dik. Arrobia, etxera bazkaltzera etortzeko, naiko urruti bazegok. Bideetan denbora ezin galduko diagu.

— Ez, ez. Bestela ere naikoa sortuko zaiguk — erantzun zion Mielek.

Ala, goizeko lanak egin da prest jarri ziranean, bildu otarrak, arrastailu, atxur, balenka, pikatxoi, maillu aundi, pistoleta, maza eta bearrezko zituzten trasteak, astoan artu ta arrobi zarrera joan ziran. Au, Permiñen etxetik ordu erdiren batera zegoan.

Astoari trasteak kendu eta mutilla etxera bialdu, ardietakoa egiteko esanda. Bi koiñadoak gogor ekin zioten lanari, otarra bete ta otarra ustu, arrobia garbitzen, arria atera al izateko. Kontu kontari biak, Mielek esan zion:

— Azkena zein ote uan, emendik arria eraman zuana?

— Ziur ez natxiok, baiña Iturburuko Joxe ta Etxeberriko Paulo izango dituk noski —erantzun zion Permiñek.

— Arraioa! Garbi uzten ez ituan asko saiatu — esan zion Mielek.

— Ik eta nik egingo deguna —Permiñek.

— Bai. Alaxe dek. Besterengatik ari nauk. Baiña arria aterea balitxiok, guk ere trasteak artu ta laister aldegingo genikek.

Bere garaia iritxi zanean, Mieltxok bazkaria eraman zien, eta arrobi-baztarreko lizar baten azpira bildu ziran bazkaltzeko. Kontu kontari ari ziran bazkaltzen, da Mieltxok:

— Aita, askari gorriak bi ume egin ditu.

— A bai? Begiratu al diek? Esnea edanda daude?

— Ez.

— Ba, begira zaiek etxerakoan, eta illuntzerako belarra ta lizar-ostoa jarri gauerako, eta bordan sartu. Nik etxerakoan begiratuko ziet.

Ala, bazkaldu zutenean, Mieltxo astoan ontziak jarri ta etxera bialdu, ta siestara Miel, burua aiñar-mordo batean jarri ta burua ez gaiñerakoa eguzkitan zuala etzan zan. Permiñek esan zion:

— Beidok, Miel, beidok. Jarri adi itzalean. Au martxoko eguzkia dek gero, ta izurratuko au.

— Ez, motell. Bikaiña zegok —erantzun da bere artan gelditu zan.

Permin ere, “nai dekena egin zak” esan da sies-tara. Baiña au itzalean jarri zan. Beren kuluxka egin zutenean, lanera; eta illunabartzean etxera.

Permiñek ardietakoa ere egin bear zuala ta, biak trasteak bildu ta abiatu ziran etxeruntz, eta Mielek esan zion:

— Etzekiat zer dedan, baiña burua pisutu egin zaidak.

— Ea eguzkiak egin diken. Martxoko eguzkia gaiztoa dala esaten ditek —erantzun zion Permiñek.

Ala, bide-gurutze batera iritxi ziranean, banatu ziran, “biar arte” alkarri esanda. Permin bordara eta Miel etxera.

Etxean sartu zanean, bere emazte Joxepa eta alaba Maritxu beiak jezten ari ziran. Ura ikusi zutenean, Joxepa sukaldera joan zan aparria prest jartzera; eta aita-alabak, lanak bukatu zituztenean, inguratu ziran apaltzera.

Garbitu eta, oitura zuten bezela, errosarioa esan da apaltzen asi ziran, da Mielek etzeukala gogorik. Buruko min piska bat zeukala ta oiera joan nai zuala.

— Zer dezu, ba —galdetu zion Joxepak—, bein ere etzaitut gaizki ikusi ta?

— Ez dakit, ba, Joxepa. Arratsaldean berandu jarri zait. Pentsatzen nago, eguzkitan siesta egin det eta orrek egin didan edo ez dakit. Permiñek armoni egin dit, baiña ain goxoa zegoan da...

— Ezin egon bazera —erantzun zion Joxepak—, zoaz oiera eta eramango dizut manzanillaren ura eta aspirina.

— Zaude, zaude, Joxepa. Ez nago orren gaixo —erantzun zion Mielek—. Apaldu zazute lasai, ta gero ere denbora dago.

Ala, apaldu zuten da katillu bat kafesne aspirina batekin onena izango zala ta alaxe artu zuan, da

etzan ziran. Lo etzuan ondo egin. Goizaldera ezkerro, ametsa ta zikiña ugari.

Bere garaian jeiki ta ikuilluko lanak egin zituzten, da Permin etorri zan berriz ere, idiak nai zituela esanez.

Mielek, jan zutenean, idiak uztartu eta jarri zituan, da esan zion etzegoala oso ondo ta naiago zuala etxe aldetik egon.

— Zer dek? —galdetu zion koiñadoak.

— Etzekiat, ba, motell. Etxera etortzerako sentituan. Atzo apaldu gabe joan niñuan oiera, kafesnea eta aspirina bat artuta, ta ez diat ondo lo egin da motel xamarra natxiok —erantzun zion.

— Pasako zaik. Egon adi lasai —esan da aldegin zuan Permiñek, idiak artuta.

Miel, sukaldera joan da eserita jarri zan su-bazterrean. Ama-alabak, biak kezkatuta zeuden, aita ala ikusita. Bein ere ez baizuten gaizki ikusi. Alabak esan zion:

— Zoaz oiera, aita. Kalentura artu nai nizuke.

Aitak:

— Utzi zaidazu pakean, umea, au ez da ezer eta.

— Ikusiko degu, aita, zer berotasun daukazun. Baiña, mesedez, ortarako zoaz oiera.

Ta besotik eldu ta tira egin zion. Aitak burua altxa ta begiratu zion alabari. Ikusi zuan begi aietan kezka zegoala ta oiñetakoak erantzitzen asi zan. Alabak alpargatak eman zizkion da oiera joan zan.

Ama-alabak, biak oso kezkatuta zeuden, sekula ezer izan etzuan gizona ain zurrun ikusita. Oieratu zanean, termometroa jarri asmoan joan zitzaion alaba, eta *kas-kas-kas* zegoan otzak. Azkar ekarri zioten botilla beroa eta medikuari deitu zioten. Ura etortzerako termometroa jarri ta ogei ta emezortzi ta erdi zeukan.

Sendagilleak, ondo aztertu ondoren, gripe izango zuala esan zien. Zerizkion botikak aginduta utzi zituan.

Pranko gaizki egon zan da asko kosta zitzaion bizkortzen astea, eta berriro erori zan. Sendagilleak, neumonia zeukala esan zion, ta larri ibili zan, Etsia egon zala esan izan zuan ondoren, xuxpertzanean. Baiña geiago etzan len bezela jarri. Beti erdi motel ibiltzen zan. Prankotan esan zuan:

— Ni eguzkiak izurratu nitxeuan.

Andik aurrera, lan-golpea zanean, auzotik ekartzzen zituan laguntzailleak. Baiña ala ere, bere emazte eta alabarentzat naiko lana bazuten. Au segan ere ondo ikasia zegoan. Baiña bizkorra izan arren, naikoa izaten zan gajoarentzat.

Alaba bakarra zan. Etzuten al izan besterik izaterik. Maritxu jaio zanean, gaizki ibili zan oso Joxepa; eta ortatik emakume-puska ura geiago aurrik izango etzuan moduan gelditu gaixoa. Sendagilleetan alegiñak egin zituzten, baiña etzuten al izan. Sasoi latza zeukan, da bearra ere bai.

Maritxu

ALABAK, berriz, ogei urte zeuzkan. Emakume aundia zan eta egokia. Gorputz altua, txuxena eta berdiña. Arrosa-koloreak eta begi zabal-zabalak. Malezi gabeko begiratu garbi-garbia. Bazirudian edertasun guziak berekin zituala. Eskolatua dexente, baserritarra izateko. Iztun ederra eta oso argia. Nola besterik ezin zezaketen izan, gurasoak dena ura zuten da ari zer egin etzekiten.

Txikitan, belarriko miñak eta anjinak ziralako, bi bider gaixo egon zan. Lenengoan eztaarritik. Kalentura aundiarekin zortzi bat egun egin zituan, da azkenerako oso moteldu ere bai. Zai beroa jarri ta zai beroa jarri, ango komeriak!

Ala zebiltzala, Egileorko Paulak enplastoak egingen zituala oso onak. Igandea zan. Errira goizeko mezetara joan zan da Joxinaxiori esan zion zer gertatzen zitzaien Mielek.

Erantzun zion:

— Bai, gizona, Gure Joxe olaxe, zuk diozunez, zegoan da gure Paulak enplastoak jarri zizkion, da arritzeko moduan sendatu zan.

Meza ondorena zan da oitura zeukaten kopa bana banatu eta ogi-puska bana jatea. Baiña Joxinaxiok:

— Goazen bereala —esan zion—. Ura sufritzen dago ta azkar astea da onena.

Mielek besterik etzuan nai, kezkatu baizegoan. Ordu erdia zeukaten erritik baillarara eta bereala erten ziran.

— Ni joaten naizenean, laister da gure Paula zuen etxean.

Bai usu etorri ere. Arropak aldatzeko denborarik ez dakit artu zuan. Eskuetan belar batzuk zituala, korri txikian an zan. Joxepari zartagia eta olio apur bat eskatu zizkion, eta ixtant batean egin zuan bere enplasto ori. Trapu batean bildu ta eztarrian jarri zion ume gaixoari.

Au moteldua zegoan da aita-amak ari begira oso kezkatu, beren izar bakarra galduko zitzaizkien bildurrez.

Paulak esan zien bazkalondoan bestea eta gauean bestea jarriko zizkiola.

— Gure Joseri ere olaxe jarri nizkion da irugarren egunean negar egiten asi zan gogor. Bildurtu giñan zer ote zuan negar egiñez. Ezpainetara odol zikiñak erten zioten. Nik uste nuan azkenak zituala, ta gure Joxinaxiok “Ume oni zerbait lertu zaio barrenean” esan zidan. Izutu nintzan azkena ote zuan. Baiña ez orregatik. Eguerdirako baretu zan da lo artu zuan. Lo goxoa gaiñera. Laurak inguru esnatu zan. Kafesne apur bat eman nion da poliki artu zuan. Egunak zeramazkian ia ezer artu gabe. Andik aurrera berealaxe bizkortu zan. Nunbait anjina lertu egin zitzaizkion.

Paulak eta Joxinaxiok famili aundia zuten: lau seme ta lau alaba. Lenengo laurak Maritxu baiño zarragoak. Bostgarrena zan, Begoña, onekin batekoa.

Maiztarrak ziran. Etxea, baillaran zan kaxkarrena zuten. Bekoetxeko Praisku zuten nagusia. Errenta, sei ontzurre eta ardi gizen bat. Beartsu xamarrak ziran, baiña famili jatorra ta ona, ta leialak berdin gabeak.

Paulak zintzo eguerdian jarri zion bere enplastoia, eta arratsean ere bai. Baiña aurra gaizki zegoan. Etzuan ezer artzen. Eztarrian ezin baizuan pasa.

Enplastoia, zartagira olio-ttiantto bat bakarria bota ta berbenak, pasmo-belarrak, manzanillak eta nik zer dakit zenbat belar-klase nastuta egiten zuan. Gaiñetik, azkenean, arrautz-zuringo bi tanto, gorputz artzeko. Ta trapu batean bilduta jartzen zion. Lenengo kejatzen zan beroa zegoala esanez. Baiña segituan bere onetara etortzen zan.

Urrengo goizean, jeiki ta txerriari jan ematen ari zan, da Joxiñaxiok armoni egin zion:

— Zoaz, emakumea, zoaz, enplasto ori jartzera. Ume orri alegiñak egin zaizkiozu. Ori galtzen bada, Mielek eta Joxepak ez dute geiago onik izango. Enplastoia ere, egunaren buruan al dan denbora berdiñenean jarrita ohea izango da ta.

Entzun zuanean, Paula, zegoana zegoan tokian utzi, garbitu, aldatu arropak eta txukun-txukun azkar joan zan Beristaiñera, bere lana egitera.

Miel ikuilluan ari zan, da Joxepa gelan, aurraren ondoan. Lorik etzuala egin da oso bero zegoala; ta ezagun zuan, gorri-gorri zegoan da.

Paulak esan zion:

— Gorri-gorria dago ta ez bildurtu. Txuritzen bada, orduan bai. Ez dago ain gaizki ere. Gure Joxe orrelaxe egon zan.

Zan apurrak poz eman zion Joxepari.

Eguerdian berriz eta apalondoan ere bai, jarri zizkion. Gau lenetik Mielek zaindu zuan alaba, eta goizaldera Joxepak.

Urrengo egunean ere berdin jarri zizkion Paulak. Gero ta motelago aurra. Berriz ere gau lenetik Miel gelditu zan. Ordubata aldera, alako ito larri bat etorri zitzaion aurrari, eta bota naiean asi zan. Usu

deitu zion Joxepari. Bota-keiñua egin zuan batean, odol zikiña irten zitzaion ezpaiñetara; da Joxepak, garbitu ta bere senarrari esan zion:

— Paulak esan zuana egin du. Lertu ote zaizkio?

Biak begiak ateratzen aurrari begira zeuden, da onek ura eskatu zien. Usu ekarri zion Joxepak, sukaldera joanda; eta aurrak, eziñean—eziñean baiña edan egin zuan. Poztu ziran gurasoak. Baiña an zeuden beren puskari begira. Goizeko laurak aldera, *xurra-xurra* lo gelditu zan. Ura poza biak ere!

Eguna argitzen ez al zuan asi, an zan Paula berriz ere. Baiña oraingoan lo arrapatu zuan.

— O, Joxepa! —esan zion amari—. Seguru da! Lo egiten utziko diogu. Orrentzat sendagairik onena ori baida. Ni etxera joango naiz eta, esnatzen danean, atariko soroaren erdian, ziri baten puntan, jar zazu trapu bat eta azkar etorriko naiz.

Amarrak alde arte etzan esnatu aurra. Gaixoak, ainbeste egun ala pasata, eukiko zuan premia. Esnea eman zion amak, eta dana artu zuan. Nunbait, kozkorra lertutakoan, eztarria iriki egin zitzaion.

Trapua jarri zuan esandako lekuan, da berealaxe an zan Paula. Berriz ipiñi zion, baiña esan zion:

— Ez det uste geiago bear duanik. Au azkar sendatuko da.

Bai sendatu ere.

Urrena, sei bat urte zituala, belarriko miñak gau batean goizaldera negarrez umea, ta larritu ziran. Katarrorik ordurarte ez baizuan arrapatu ia lau urtean. Ain ume sanoa zan.

Sendagilleari deitu zioten; da onek, belarriko miña zeukala: *otitis*. Gaitz gaiztoa zala; zerbait beroa jartzeko ta ondo zaintzeko. Egunean bi aspirina erdi emateko.

Ez al zuan sendagilleak aldegin, Joxepa zaia berotzen ari zan da Mielek esan zion:

— Ni Paularengana noa. Seguru asko, aren enplastoak obeak izango dira, zaia baiño. Len ere badakizu. Alegiñak egin bear ditugu.

— Zoaz, zoaz!

Miel laister zan Egileorren, Paularengana. Baiña Pello, seme zarrena, amaika urteko mutikoa, irten zitzaion atera.

— Ama nun dek, Pello? —esan zion.

— Oraintxe joan da iturrira garbiketarekin. Esango diot etortzeko, nai badezu —erantzun zion.

— Ez, ez. Neroni joango nauk.

Joan zan iturrira. Paula an ari zan, da une berean Joxinaxio iritxi zan. Agurtu zituan biak batean, da azkar esan zien zertara joan zan.

— Bukatutakoan-edo, joango baziña...

— Bukatutakoan ez. Segituan noa. Nik ez dakit zer egingo diodan, baiña alegiñak egin nai nituzke.

Aurre-mantalarekin eskuak legortu ta, zegoana zegoan tokian utzita, etxera joan zan. Otsailla zan, baiña eguraldi bikaiña zegoan.

Joxinaxiorekin gelditu zan izketan Miel. Arek esan zion bordatik zetorrela; Etxeberrikoei aarikoak aldegin da ardiak arrapatu zizkiela; eta emezortzi umatu zitzaizkiela ta barrutirik ez; belar ondua ere gutxi ta komeriak.

— Pikardiz ez dute egin, baiña gu izurratu gaituzte ederki.

Mielek esan zion:

— Gizona, gure zelai aundian barrutia badago, ta borda ta iturria ere an dauzkazu, nai badezu.

— Eskerrik asko, Miel. Orretxekin salbatu gindezke. Noiz arte utziko diguzu? Eta zenbat diru bear dezu?

— Ez dakit, ba, nik —esan zion Mielek—. Mar-
txoaren erdira arte ibili itzazu. Edo berdin apirilla
bitarte. Eta egiten duten gorotza, belazeari zabaldu,
ateratzen dituzunean. Dirurik bat ere ez. Len ere
Paulak sendatu zuan gure alaba, eta etzenduten
ezer kobratu nai izan. Orain ere beartu gera. Orren-
gatik guretzat ez da kalterik.

Joxinaxiori zerua iriki zitzaion.

— Ez degu orrenbeste merezi guk, Miel —esan
zion.

— Gurekin ain ondo konpondu zerate ta ixtima
zazu, Joxinaxio.

Binbitartean, Paula an zan Beristaiñen bere
enplastoekin. Iru egun barru, ez dakigu enplastoen-
gatik edo gaitzaren martxa ala zalako, baiña kalen-
tura jexten asi zitzaion da laister sendatu zan.

Eskolara

ANDIK aurrera eskola asi zuten. Urruti zegoan, ordu erdiko bidea, ta bildur ziran euri edo kazkabar otzen bat edo beroren bat artu ta gaixotuko ote zan. Baiña etzan orrelakorik gertatu.

Lagunak bazituan: lengusuz, Mieltxo; Iturburu-ko Inaxio, Kristina ta bere kidekoa Teopillo; Bekoetxeko Martin, kidekoa. Besteak zartxeagoak: Iturraldeko aurrak, Juan Jose, Ramona ta Felixia; Egileor'koak, Inaxio, Joxe, Begoña, Andres, Joxepa. Atzenerako, dozena bat ume alde izaten ziran. Batean etziran joaten beti, baiña askotan bai.

Lenengo aldiz, amak eskutik eramán zuan. Bazkaltzera besteekin batean etorri zan. Ordurako, ia zortzi urte zeuzkan. Nola urruti zegoan eskola, gurasoak etxean erakutsi zioten irakurtzen eta numeroak. Errez ikasten zuan. Lenengo eguerdi artean apenas ezer egin zuan, negarra besterik. Baiña berealaxe jarri zan besteak bezelaxe.

Bekoetxeko Bernardok, ia aundia zan da burla egiten zion, amona esanez. Gorputz aundia bai-zuan. Baiña etzizaion gustatzen.

Eguna joan da eguna etorri, oso trebetu zan eskolan. Maistra zar bat zuten, bere aitaren maistra izana, eta oso gogoko zuan Maritxu. Ikastun oso ona baizan, eta saiatua ere bai. Orregatik, batzuek

naiko inbiri bazioten. Baiña beste aldekoak ere bazituan.

Oso lagun egin zan Iturraldeko Ramona eta Egi-leorko Begoñarekin. Auek zituan benetako lagunak. Edadez ere berdiñak eta neskato onak.

Komunioa urte artan egin zuan. Dotriña baze-kian ederki, amarekin ikasita. Laguna, Egileorko Begoña zuan. Soiñeko apain bat ekarri zion amak eta etzan asarre. Gero, bazkari bikaiña, arkume ta guzi, ta mamia ere bai. Egileorko Paulak esnea bial-du baizien. Etxeko irurak, osaba-izebak eta lengusu Goikoetxeakoak zituzten. Egun bikaiña benetan.

Baiña eskolan jarraitzen zuan, egunik galdu gabe, egunero-egunero. Etzuten nai bere gurasoak ezjakin gelditzerik. Askotan gutxi izaten ziran. Danetatik iru edo lau berdin. Batzuek ardiak zituztela, besteko itulea zala-ta, izaten zan askotan zerbait. Eta zenbat eta geiago utsegin eskolara, orduan da gogo gutxiago joateko, eta orduan da atzeratuago.

Auek, iru lagunak, Maritxu, Begoña ta Ramona Iturraldekoa, geienezan batean izaten ziran; eta Joxe, Begoñaren anaia, ere bai. Au bi urte zarragoa zan eta, maistrak zionez, mutilletan ikaslerik onena, eta Maritxu nesketan, eskola artan.

Tartean-tartean, maistrak saio bereziak egin erazten zizkien. Duda gabe, besteetatik aurreratu egin ziran, eta bi edo iru burlaka asi zitzaizkien. Joxeri *Jakintsua* deitzen zioten, Begoñari *Tuntuna* eta Maritxuri *Otsa-putza*.

Auek zerbait baztarrera berezi zituzten, baiña denak ez. Iturraldeko Ramona, al zuan guzian, auengana biltzen zan. Auek etxerakoan, askotan eskolako lanak aztertuz joaten ziran, da Ramonak ere aurreratu egin zuan.

Okerrenak, Izaskun da Martin Bekoetxeakoak eta Iturburuko Kristina ziran. Beti zerbait bazuten.

Eskolara asko utsegiten zuten, beti atzeratzen ari ziran da inbiri gaiztoa sortu zitzaien barrenera. Bastante zakar zebiltzan.

Bein, arratsalde batean, Bekoetxeko Bernardok ia amabost urte izango zituan eta, etxera zijoazela, bidera irten zitzaien, da ea zer zuten besteekin batera ez etortzeko.

Joxek erantzun zion:

— Guk ezer ez. Berak aldegin digute.

— I, txatxu ederra! Dena dakikela uste deken arropuzta besterik ez!

— Zuek, berriz, nazkagarri utsak! Tonto lapikoak galantak! Eta bitartean ezer ez!

Ixilik utzi zioten, zarragoa eta mutil aundia bai-zan da zartakoren batzuk emango zizkien bildur-rak. Baiña barruan errabia sortu zitzaien, eta geroago eta obeto etzijoazten.

Urrengo egun batean, jaian, elizatik zetoztela, berriz asi zan Bernardo zitalkeriak botatzen, batez ere Maritxuri.

Egileorko Joxek esan zion mesedez uzteko pake-an; berak konponduko zirala eta Maritxuk etzuala aingeru batek ainbat kulpa.

— Ixilik egon adi. Bestela, ezpaiñak autsiko dizkiat.

Pello ta Mieltxo sartu ziran da Bernardori pake-an egoteko esan zioten. Ezer etzan tokian okasiorik ez jartzeko. Berak geiagorekin ekin zien, baiña geienak kontra, bere senideak ez gaiñerakoak, eta ixildu bear izan zuan.

Au, Bernardo, berez uste aundiko arropuz bat zan. Bere aitarengatik orixe esaten zuten zarrak: okasiantea, beti berea egin zuana eta toki pranko-tan itxusi gelditua. Neska batengandik besteengana ta iñork ondo ikusten etzuana. Atzenean, atzetik

egin bear ziranak aurretik egin da ezkondua. Gero ere etzuala ondo tratatzen emaztea otsa izaten zan. Beti ankazpian ibiltzen zuala.

Baserriz, baillaran zan bigarrena. Onena pran-koz Beristain. Baiña Bekoetxeakoak Egileor berena zuten, Joxinaxio ta Paula bizi ziran etxea. Aundia ez bazan ere, etxea beintzat. Esan bezela, urtero-urtero sei ontzurre errenta ta ardi gizona Eguberritarako. Ori, larogei ta amasei duro, diru asko zan orduan. Da, gaiñera, etzan gastatzaillea.

Praiskuren semea ere, Bernardo, bere antzekoa, okerragoa ez bazan ere. Geroztik gauzak etziran okerragotu. Eskolatik batzuk geratu ta txikiak asi, Bekoetxeako Pako ere joatetik gelditu eta gauzak baretu ziran.

Ia Maritxuk amaika urte zeuzkan, eta berez gazte azia eta aundia zan. Aita-amak eskola ikastea nai zuten:

— Gero ere denbora dauka lanerako. Orain ikasi ta prestatu.

Maistrak oso begikoa zeukan ura, eta Begoña ere bai. Joxe ere gelditu zan, baiña palta egiten zien. Ramonari geiena. Ala zion onek:

— Joxe gurekin balebil, nik geiago ikasiko nuke. Ark guk baiño geiago ulertzen baizion maistrari.

Ixilik zegoan Maritxu. Baiña, seguru asko, geien sentitzen zuana bera izango zan. Bernardok gaizki itzegin zien ezkerro, sailleko buru bezela zeukan, ain ona ere zan da.

Joxe, morroi

MORROI joan zan Joxe Gaztelura, Azpikoe-
-txera. An famili motza zegoan: senar-
emazteak lau aur txikirekin.

Astelen batean, Tolosara perira joan da Joxina-
xio topo egin zuan Azpikoetxeko nagusiak. Solda-
du-lagunak ziran eta kintoak. Kafea artu bear
zutela-ta, Agustiñenean eseri ziran; da, artzen ari
zirala, kontu kontari.

Austin Azpikoetxekoak esan zion nola gaizki
zebillen: aita zarra ta gaixo, lau ume ttiki, naiko
lanak. Mutil kozkor bat artuko lukela, urte betera-
ko bada ere.

Joxinaxiok, mutilla bazutela, baiña etxean bear
zuala: zarrena. Urrengoa morroi zegoala. Neska ere
neskame. Ta laugarrena, amalau urte orduan zitua-
na, eskolan zebillela.

— Nai izan ezkeru, uraxe bialduko nizuke.

Besteak, pozik, bialtzeko; ondo ordainduko
zuala.

Etxera etorri zanean, Joxinaxiok Paulari esan
zion. Onek, gaixoak, etzuan nai:

— Denetan onena bera ez ote degu?

— Denak onak ditugu, baiña zer nai dezu, ba,
Paula? Gure etxean borda bete bordari bagaude,

eta geroa asia dago. Pezta batzuk irabaz ditzatela, denen bearra izango dute ta.

Paula ixildu egin zan. Gauean, Joxeri esan zioten arekin zer asmo zeuzkaten. Onek burua makurtu ta "*Bueno!*" esan zien. Aitak esan zion maistrari esateko, eta igandean joango zirala biak.

Urrengo egunean, esan dio Joxek maistrari. Onek ezetz. Baiña igandea etorri zanean, pardela artu eta aita-sumeak Gaztelura, Tolosan meza entzunda.

Ara iritxi ziranean, Austin arrituta gelditu zan, alako mutilla ikusita.

Bazkaldu zutenean, semea an utzi begi bete-beteekin, da Joxinaxio etxera, bera ere naiko lane-kin. Etxeratu zanean, Paula ere triste zegoan. Baiña bazekian zerbait egin bearra zeukatela.

Eskolatik etxera zetoztela, Joxek Maritxuri esan zion aitak zer erabaki artu zuan eta nola zijoan Gaztelura.

— Ooo! —erantzun zion—. Nik zu eza asko sufrituko det, gure bigarren maixua zu ziñan da.

— Maritxu, ori ez. Azken aldera zu ziñan geiena. Zuk ez dezu nere bearrik. Nik, bai, zuen palta sentituko det. Asko gaiñera.

Udara zetorren. Arto ereiten ari ziran. Joxe bere morroi-lekuan gustora asi zan. Bere etxea eta lagunak asko oroitzen zitzaizkion. Baiña bazekian, len-txeago edo beranduxeago olako zerbait etorri bear zuala.

Etxekoandrea ona zan. Beiñepein, jaten ondo ematen zion, eta arropak garbitu ere bai. Nagusiak ere etzuan gaiztoa ematen. Lana, beintzat, etzan gogorregia, eta aurrekin oso gustora zegoan.

Goizean deitzen ziotenean, jeiki. Zazpirak aldean geienean. Ikuillura zuzenean. Azpiak atera eta txe-

korrentzat jan goxoa ekarri; ta, lanak egindakoan, gosaldu: urdaia, arrautz pare bat, taloarekin; eta taloa ta esnea, nai zuan ainbat. Nagusiarekin sukaldera joaten bazan, salda.

Ordubatean bazkaria: zopa, babarrunak, azak eta gaiñetik urdai-puska bat. Ondoren, siesta. Iru-retan jeiki ta lanera. Ateri bazan, kanpora: soro, belaze edo mendi. Euria bazan, geienean gorotz-atxurrera.

Geienean nagusia eta biak, seirak aldera, merienda: gazta eta ogia eta ardoa.

Eta, ikuilluko lanak bukatutakoan, aparia. Eguerdian babarruna sobratzen bazan, aiek zopak egin, ur piska bat bota, irakin arazi, olio errearekin goxatu ta maira. Au oso ederra izaten da. Eta gaiñetik taloa eta esnea naikoa. An etzegoan goserik. Ondoren, oiera. Etxean etzuan goserik izaten. Baiña ainbesteko aukerarik ere ez.

Jaia iritxi zanean, illaren bigarrenkoa, Luistarren Kongregazioko eguna. Joan zan eta lan denak egin zituan: konfesatu, Jauna artu ta meza entzun.

Andik irten zanean, erriko bere kidekoak zai zeuzkan paseorako, jolasteko edo egin bear zana egiteko, beren kuriosidadea ase naiean. Izketan asi ziran da esan zioten arratsaldean bezperetara etortzeko. Onek, etzekiala nagusiak zer aginduko zion. Uzten bazion, etorriko zala.

Etxera joan, ganaduak gobernatu eta bazkaldu zuten; da, siestara zijoala, nagusiak esan zion:

— Nai badek, bezperetara joan da meriendatzera etxera etorri, eta illunabarrean bere garaian apaltzera ere bai.

Pozik joan zan. Etzegoan siesta bearrik eta, elizatik atera ziranerako, artu zuten galdetu ta galdetu, nungoa zan, zenbat senide zituan, eskolan asko ikasi al zuan, da zeñiek esan beste zenbat gauza?

Joxek zuzen-zuzen, oitura zuan bezela, dena egi utsa esan zien. Ondoren, berak asi zitzaizkion beren alderdiak kontatzen. An asko ikasiak zeuden eta mutil bizkorrak ziran oso. Gutxiena egiten zuanak ere, azaiña latzak egiten zituan. Nola Joxe oso azkarra zan, antzematen zien zer egiten ari zitzaizkion. Baiña beren arira utzi zien, da segi atzetik.

Poliki jolastu ziran, baiña etzuan meriendatu. Larte aldera joan ziran. An beorrak zeuzkan Larteko Inaziok. Ala, errira jetxi ziran da Pakok esan zuan:

— Onoko trunko au kamioaren erdira atera bear diagu.

Batzuek baietz eta besteak ezetz, eta atzenean erabaki zuten Joxek esaten zuana egitea. Galdetu zioten da onek azkar ezetz. Ori egitea azio txarra zala ta berak beintzat etzuala nai.

Pakok esan zion:

— I ere apezkondoren bat al aiz?

— Ez —erantzun zion—. Bakarrik gauza itxusirik ez nitek egin nai, ta ori egitea gauza itxusia dek.

Illunabartzen ari zuan, da etxera joateko garaia zuala ta bazijoala esan zien.

— Ez adilla txoroa izan. Gaur dek aurreneko jaia eta ez adi joan ordurako —esan zion Pakok.

Par-irri batez esan zien:

— Gabon eta urrengora arte.

Eta etxera joan zan. Iritxi zanean, nagusia beiak jezten ari zan, da aldatu ta azkar etorri zan azpiak ateratzera. Bien artean lanak bukatu ta apaltzera joan ziran.

Etxekoandreak esan zion:

— Zergatik etzera meriendatzera etorri?

— Lartera joan gera Inaxioren beorretara ta ezin nuan.

Apaltzen asi ziran. Apari ederra zegoan da bapo apaldu zuten: porru-patatak, tortilla ta talo ta esnea. Gustora gelditu zan gure mutilla.

Nagusiak galdetu zion zer egin zuten, da onek Larten nola ibili ziran beorretan; gero arkaitzez arkaitz jolasean, eta Inaxiok zizak nola billatu zituan.

— Nun? —galdetu zion Austinek.

— Ez dakit —esan zion—. Gu arkaitzetan jolasean genbiltzala agertu da bere zizekin.

— Orixe bai ziziku ona!

Geiago galdetu zion. Etzuan esateko asmorik. Baiña galdetu baizion, esan egin zion dena.

— Ondo zegok —erantzun zion nagusiak—. Ondo egin dek. Ez nitek nai, gure etxean aizela, olako lanik egiterik. Oiek gauza itxusiak dituk. Ezagutuko dituk denborarekin, baiña or bazeudek bi bitxo, beti olakoak egin bear dituztenak. Argi ibili adi.

Aurrekin apur bat jolastu ta oiera. Austin lagunetara joan zan, kafe artzera.

Ia etxeko egin zan Joxe. Lana gustora egiten zuan.

Ortan, San Pedroak iritxi ziran, da Leaburuko festak. Mezetatik irten ziranean, Inaxiok esan zion arratsaldean Leaburura joango zirala eta bezperetarra etortzeko.

Etxera joan da nagusiak eta biak jatenak egin zituzten. Eguraldi bikaiña zegoan. Pare bat gurdi zeuzkaten ebakiak ontzeko ta bildur zan zabalduko ote zituan. “Adios, Leaburu, zabaltzen baditu!” esaten zuan Joxek berekiko. Baiña ixilik zegoan.

Bazkaltzera deitu zuan etxekoandreak. Maian eseri ziranean, nagusiak esan zion:

— Kataliñ, belarra zabaltzeko ere giro ederra zegoan, baiña ez degu zabaldu.

Bere aitak erantzun zion:

— Ondo zegok. Gaurko egunez jai egiten geniken len ere, eta orain ere bai. Belarrerako giroak gero ere egingo dizkik.

Joxe etzan asarre. Bazkaldu zutenean, baimena eskatu zion Leaburura joateko; eta Austiñek baietz esan zion. Pozik joan gelara eta oiaren gaiñean etzan zan. Bereala or datorkio aitona.

— Joxe —esan zion, lengoan entzun nizun Austiñekin zer itzegin zenduan, da kontu izan zer lagunekin zabiltzan. Txintxo etorri. Tori —esan da pezta eman zion.

Etzan asarre gelditu. Aitak emana duroa bazuan, da orain sei pezta.

Bezperetatik aterata, neska ta mutil Leaburura joan ziran. An dantzan ibili zan, al zuan bezela. Larteko Izaskun tokatu zitzaion da onek esaten zion:

— Ola egin zazu.

Illuntzen asterako poliki moldatu zan. Azken pandangoa egin da abiatu ziran etxera. Urruti baidago andik Gaztelu. Etorri bezelaxe, denak saillean joan ziran, kanta ta irrintzi, apetitu ederrarekin.

Etxeratzerako naiko berandu zan. Baiña etzion itzik esan Austiñek. Bai-baizekian olakotan zer gertatzen zan.

— Alda adi ta etorri apaltzera.

Bai usu etorri ere. Baratzuri-zopa gozoa zegoan aurrena, ta solomu-puska ederra arrautz batekin. Gero, talo ta esnea.

Ondorengo egunetan, bere dantza zeukan buruan. Naiz ikuilluan eta naiz ganbaran, proban zebillen, iñork ikusten etzuala uste zuanean, berak buruz kantatuz.

Batean ganbaran zebillen. Sukaldean ari zala, soiñua ganbaran, da Kataliñek, soiñu aiek zer ote

ziran ikusi naiez eskailleretan gora dijoala, ez du ikusi Joxe nola dabillen? Ezkutatu bere artan da parrez sukaldera, ostera bere lanetan jarraitzera.

Etorri zanean, senarrari esan zion zer ikusi zuan. Onek, par egin da:

— Ori geienok egingo genduan —esan zion—. Mutil ona da oso ta pozik egon gindezke.

Arta-jorrak egin zituzten. Belarrean asi ere bai. Gariak ia eldu ziran. Bazeukaten zer egiña. Nagusi-morroiak, alkarrekin zebiltzala, ondo zebiltzan. Austiñek ala zion bere emazteari:

— Bai zu ta bai ni, okerrago ibili gera, gure ama gaixo il da aita gaixotu zanetik. Aiek ondo izan bagenitu, ez genduan iñoren bearrik. Baiña ala ere eskerrak olako mutilla tokatu zaigun. Ordaintzeko garaian izango dira lanak. Baiña guk ez al degu balio?

— Zenbat eman bearko zaio? —galdetu zion emazteak.

— Ez dakit ori —erantzun zion Austiñek—. Bere aitarekin, Joxinaxiorekin, itzegin bearko degu. Ez nuke nai nere soldadu-lagunarekin nolanai utsegin. Gure aitak esan dit eun bat duro eman bearko dizkiogula, oso mutil ona dala ta.

— Gizona! —esan zion emazteak—. Orrenbeste? Gure zekor aundia orrentzat?

— Ez dakit, ba, nik, emakumea. Berriketan ezin ibiliko gera lagun on batekin. Bai segan da bai gainerakoetan, gizonak ainbat asi da egiten. Gure aurrekin ain gozoa da. Aitak ere begitik sartua dauka. Izan ere, orrelako mutillik ez dakit asko izango dan, da umekeririk ez degu egin bear. Gureak zerbait azi arte egongo balitz, utsa litzake. Ordainduko degu, bai.

Mutilla ere oso kontentu zegoan. Jan bere etxean baiño ere ia obeto. Aurrak bere senide txikiak

gogorazten zizkioten. Aiekin jolasten zan gozo asko. Aitonak ere oso maitea zeukan. Kanpora bizi billa etxetik irten da zer geiago eska zitekean? Suerte aundia izan zuala ta pozik saiatzen zan, al zuana egiten.

Eguraldi ederra zetorren. Santio bezpera zan. Lanak egin da gosaldu zutenean, pare bat gurdi zeuzkaten ebaki ta meta txorrotan jarriak eta aietxek zabaltzera joan ziran. Intza kendu zanean, zabaldu zituzten da, apur bat alboko lizarraren azpian eseri ta atsedean artzen zeudela, nagusiak esan zion Joxeri:

— Gariak ere eldu dituk eta etzi artan asi bearko diagu. Ikasia al ago itaian?

Erantzun zion:

— Ez dakit, ba. Ikasi ez, baiña zerbait jarduna naiz nere etxean.

— Ba, ez apuratu —esan zion Austiñek—. Erreza dek. Azkar ikasiko dek. Gerri onak dauzkak eta, borondatea jartzen badek, dena egiña zegok.

— Biar ez degu jardun bear? —galdetu zion Joxek.

— Ez, motell, ez. Biar ez. Jai egingo diagu. Biar jai aundia dek. Lan ez egiteko esaten ditek elizan, da neri etzaidak gustatzen egoskorkerian ibiltzea. Zer-nola dan ikusteko abildaderik etzeukagu iñork, baiña gure oso gaiñekoa zerbait badala, naiz ez ikusi, ziñez sinistuz bizi bearra zegok, eta ni ala bizi nauk. Baiña zergatik galdetu didak?

— Ez dakit, ba, nik —erdi lotsatuta erantzun zion Joxek—. Aita-amak eta senideak ez ditut aspaldian ikusi ta buelta bat gustora egingo nuke.

— Aaa! Ez diat pentsatu ere. Baiña gaizki etzaidak iruditzen. Umeak aita-amak maiteak izaten dizkik geienean, da ala bear dizkik. Ire ama onuzkero zaletua zegok ikusteko —erantzun zion Austiñek—.

Ea belar au etxeratu ta jatenak biarko egiten ditugun. Artara, biar goizean irtengo intzakek jeikitakotan. Baiña arratsean etorri, e? Etzi goiz asi bear diagu itaian, or egoaizeren bat atera ta soroan jalki gabe.

— Bai, bai! —pozik erantzun zion.

Eguraldia portatu zan. Arratsalde erdirako prest zegoan belarra etxeratzeko eta saiatu ziran. Bai egin ere. Belarrak ekarri, beiak jetzi ta azken orduan beiak eta gurdiarekin etxeratu zuten jatena. Saiatu zan, arraioak ez badu, Joxe, urrengo egunean etxera joan bear da.

Urrango goizean, beiak jezten ari zan nagusia ta, jeiki zanean, joan zitzaion laguntzera. Baiña nagusiak esan zion:

— Ez. Joan adi. Amarretan daukak meza San Frantziskon da entzun zak. Ezerengatik ez gelditu mezarik gabe. Eta esan nian: gauerako etorri. Orain gosaldu ta irten lenbailen.

Aldatu zan da katillukada kafesnea prest zeukan ogiarekin. Bapo zopa-jan bat egin da erteteko prest jarri zanean, etxekoandreak ogia eta gazta jarri zizkion, eta irten zan.

Jo zuan Tolosara. Esan bezela, meza entzun da amarretakoa egiñez ekin zion etxerakoari. Zijoala, ia iritxi zanean, topo egin zituan Bernardo ta bere arreba Izaskun.

— Egun on —esan zien Joxek.

— Berdin —Izaskunek.

Eta Bernardok:

— Bialdu al aute onera?

— Ez —erantzun zion—. Neroni natxetorrek.

— Bai —esan zion Bernardok—. Zuekin edozein fiatzen dek, ijitoak bezelakoak zerate ta.

Joxek erantzun zion:

— Ez diat eskatu ere fiatzeko, ez natxiok bearreran da. Ta ijitoak, berriz, gutxiago. Gu musu-gorriak gaituk, eta ijitoak beltz amorratuak dituk geienean.

Da aurrera segitu zuan. Bernardo atzetik begira egon zitzaion, da arrebak esan zion:

— Zertarako orrela itzegin, Bernardo? Zuk bada-kizu gure baillarako mutillik ederrena bera dala.

— Uste den ori? —esan zion Bernardok—. Nun eseri berenik ez dutenak ditun oiek. Gure tokian baleude, altxako likenea oiek burua.

— Ez, Bernardo, ez —esan zion arrebak—. Morroi dago, soldata irabazten ari da eta famili guzia oso txukunak dira. Begoña oso lagun ona da. Etzaitz arrotu. Pobre izatea ez da bajeza. Gu ainbat badira.

— Txotxoloa! Zer esaten ari aiz? Oiek gure maiz-tarrak ditun. Nik aitari esaten badiot bialtzeko, gerok bear degula, zer pasako da? Oiek zer egin bear dute?

— Ikusi egin bear, ba, Bernardo. Bizi egingo lira-ke. Badakizu: guk ez degu propinarik egiten. Erren-ta ordaintzen dute eta, ori egin ezkerro, etxeak egongo dira gaur ere, eta biziko dira. Ori ez dezazu-ke ukatu.

— Zakurraren putza ditun oiek eta ixildu adi. Orri begira jarria al ago, jaio ez ta? Belarrondoko bat emango niken, ematen didaken errabiarekin.

Gorri-gorri egin zan Izaskun da etzion erantzun arroputz ari.

Joxe etxera iritxi zanean, aita palta zan. Maia jarria zegoan bazkaltzeko. Etziran asarre senideak, eta ama batez ere. Txikiena, Luis, salta zitzaion lepora ta jan egin bear zuala. Aita laister etorri zan da bazkaltzen asi.

Galdezka asi zitzaizkion denak. Inazio palta zan. Etzeukaten aita-amak galdezka asi bearrik. An bazan zeñek galdetua. Zeatz eta meatz esan zituan denak.

Aitak esan zion:

— Beraz, ondo al ago?

— Bai, aita, bai. Ni zuekin bezelatsu, aintxen ondo. Berak ere uste det nerekin oso pozik daudela.

— Obe, Joxe. Pentsatzen nian ori Austiñekin. Len ere oso jatorra uan. Gauerako zintzo joan eta ondo portatu. Biar lotsatuko auen gauzik ez egin; da, ori egiten badek, or nunbait ibiliko aiz.

Aita-amak siestara joan ziran. Pello ere bai. Ixabel neskame joana zan Tolosara ordurako eta Pello zegoan etxean aita ta amarekin. Begoña artean eskolan, da Luis urrengo urtean asteko asmoan.

Begoña eta Beristaingo Maritxu oso lagunak ziran. Ain lagunak, alfabeto *morse* berri bat asmatua zeukaten. Trapuekin edo ez dakit nola, adierazi zion aren etxera etortzeko. Eta Maritxu gorakoan Ramonari kaso eginda, biak etorri ziran Egileorrera.

Begoña ta Joxe atariko sagarraren ondoan zeuden eserita eta, lengo eskola-lagunak alkar jo zuteanean, etziran asarre. Zer modu ta zer modu, kontu guziak batean jakin nai ta ezin, bazan naiko lan.

Berei zer gertatu zitzaizkien, ziran bezela, esan zizkioten, eta Joxek ere bai bereak: zer famili ona zan; nola ondo jaten zuten; aurrekin nola jolasten zan; San Pedro egunean nola Leaburun izan zan; aitonak propina nola eman zion; dantzan nola erakutsi zion neskatx batek; nola etxeratu zan... Dena esan zien, eta egun artan, etxera zetorrela, Bernardorekin zer gertatu zitzaion.

Guziak jakiñean jarri zituan, da Begoñak esan zion berak etziola kasorik egiten; beti desaideia bakarra egiten ziola ta nazka ematen ziola.

Ramonak, berriz, orain len baiño kaso geiago egiten ziola, baiña berak ere ez ikusi naiago zuala.

Maritxuk:

— Dantzan erakutsi zizun neska arek zer izen zuan?

— Izaskun —erantzun zion—. Oso neska polita da eta badaki dantzan. Beste arratsalde batean arekin tokatuko banintz, poliki moldatuko nintzake.

— Eta etxera nola joan ziñaten?

— Ba, pestara etorri giñan bezelaxe: denak batean. Baiña arunzkoan oiu ta irrintzi ugari egin zuten ango mutillak. Mutil onak, baiña ez dira denak santuak.

Maritxuk esan zion dantzan ikasten ari zirala aiek ere, eta San Martiñetan egingo zutela alkarrekin.

Amak deitu zien bezperetarako, ordua zala ta. Ara joan ziran. Atzenerako geienak bildu ziran eta, oitura zuten bezela, bukatu ziranean etxera zetoze-la, Begoñak esan zien nola joan bear zuan Joxek, eta:

— Lagunduko al diogu?

Baietzean gelditu ziran. Ala, meriendatu ta Begoña ta Joxe abiatu ziran. Ramona Beristaiñen zegoan zai. Bidean jarri ta laurak joan ziran aldi batean kontu kontari, aspertu eziñez. Urrutiratu ziran beren etxeetatik eta Joxek esan zien:

— Ni gustora noa zuekin, baiña urrutiratu zerate etxetik eta itzuli egin bearko dezute.

Alkar agurtu zuten da irukotea korrika etxera eta mutilla Gaztelura. Naiko berandu zuan da presaka gaiñera. Leaburuko San Sebastian ermitarako ia illundu zion, eta andik aurrera anak astindu zituan. Etxera iritxi zanean, izerditan iritxi zan da Austiñek esan zion:

— Alda adi eta apaltzeko zai gatxiok.

Oitura zuan bezela, Kataliñek arropa garbiak oiaren gaiñean jarrita zeuzkan. Azkar aldatu zan, da maira etorri eta apaltzen asi ziran.

— Aitak eta amak zer diote? —galdetu zion nagusiak.

— Zuei eskumiñak emateko esan dit aitak. Gustora itzegingo lukela zurekin.

— Bai nik ere arekin —erantzun zion—. Da esan al diok etortzeko?

— Ez. Nola esango nion, ba?

— Au arraioa! Neri entzun didak, ba, gure etxean ark ez duala bein ere enbarazorik egingo —esan zion Austiñek.

Apaldu zuten da biaramonaren bildurrez oiera. Gari ebakitzea lan gogorra baida.

Urrengo egunean jeiki egunsentian. Austin, itaia eta potoa artuta, sorora joan zan. Bezpera-illunabarean jatenak egin baizituan Kataliñekin. Joxeri ere goizexeago deitu zion etxekoandreak.

Ganaduaren lanak biak egin zituztenean, kafesnea eman zion da sorora joan zan nagusiarengana.

— Ea, ba, motell, asmatzen deken.

Len ere bere etxean zerbait jarduna zan da ekin zion gogoz.

— Ba, ba, moldatzen aiz poliki. Kontuz ari, eskurik ebaki gabe.

Laister Kataliñek semea bialdu zien billa ta gosaltzera. Nagusi-morroiak etortzerako, abarkak eta azpandarrak jazten ari zan aitona.

— Zer ari da, aita? —esan zion Austiñek.

— Etzekiagu, ba, motell. Baztarrak piska bat ebakita ere, bentaja izaten dek eta...

— Ez, aita, ez, zu etxean egon bear dezu ta.

— Ago beiñepein. Sobra ere ez diat geiegi egingo. Ezin badet, neroni etorriko nauk, motell.

Gosaldu zuten da Kataliñek aitari esan zion:

— Aita, zu etxean geldi zaitez suari begiratuz. Eltzeak egosiko dituzu ta ni joango naiz sorora.

Aitonak orixe egin zuan: aurrekin etxea zaindu eta bazkaria prestatu. Baiña ez gustora, itari purrukatua baizan.

Amonaren eriotza

AITONAREN emaztea, pulmoniak arrapatu ta iru urte ziran il zala, ogei ta amalau urte alkarrekin eginda. Katarroa arrapatu zuala, baiña nolanai pasatzen zitzaiola ta kaso pulamenturik egin ez. Bere senarrak armoni egin, baiña alperrik. Ark kasorik egin ez. Oieratu ere ez, gauza zan arte.

Goiz batean, ama oso kolore txarrekin sukaldean ikusita, Austiñek:

— Ama, zu etzaude ondo.

Ta amak:

— Ez. Ez natxiok oso ondo. Otzikara zeukeat.

— Zoaz oiera azkar —Austiñek.

— Ez. Ago lasa. Pasako dek —amak.

Austiñek:

— Bai. Pasako da, baiña zu oiera joanda.

Emazteari esan zion:

— Ama gaixo dago noski ta kaso egiozu.

Ta bera jatenaren billa joan zan, astoa artuta. Ordurako ebakita zeukan aitak. Astoa kargatzen ari zirala, esan zion aitari zer gertatzen zan, da onek:

— Iru demonioa! Jeiki al da? Oiean egoteko esan da utzi diat, kafea emanda. Sendatu-erreza izan dek bere denboran, baiña oraingoan luzatzen zio.

Etxera etorri zan Austin astoarekin, berriz azkar joateko asmoan. Baiña Katalin ikuillura jetxi zitzaion:

— Austin, ama gaizki dago. *Kas-kas-kas* dago eta kalentura aundia eukiko du noski. Medikua billa joan bearco dezu.

— Zaude ixilik —esan da lau poten amarengana joan zan.

— Zer dezu, ama? —esan zion.

— Etzekiat, motell. Otzak natxiok. Kataliñek iru botilla bero ekarri zizkidak, baiña ez nauk berotzen.

— Zaude lasai. Medikua ekarri bear degu —esan zion amari.

Onek:

— Ez gero! Beidok: sendatuko nauk.

— Ez, ama, ez —erantzun zion—. Zerbait pasako balitz, pena izango genduke, eta zuk ere gurea entzun. Medikua bear degu.

— Bueno, ba, nai dekena egin zak, olakorik ez nitek nai baiña.

Ikuillura jetxi zan da emazteari esan zion:

— Astoa aitari eramaiozu ta esan zer gertatzen dan. Ni Lizartzara noa mediku billa.

Usu joan zan. Amaren plantak bildurtu zuan. Ez baizuan gaizki ikusi bein ere.

Kataliñek astoa eraman da esan zion zer zegoan. Aita, astoa kargatu ta etxera etorri zan. Azkar andrearengana joan ere bai.

— Zer dezu, ba, Anttoni?

— Ez dakit, ba, nik, gizona. Otzak *kas-kas-kas* egon naiz. Orain asi naiz berotzen.

— Zertarako jeiki zera?

— Utzi zaidazu, okerrago bildurrez ez naiz jeiki ta. Orduan obeto nengoa. Jatenak egin al dituzu?

— Ez. Beste astokada bat palta.

— Zoaz eta ekar zazu. Ni bakarrik egongo naiz.

Ala egin zuan aitonak. Bitartean, Kataliñek oia aldatu ta amona ere bai, ta kamixoia bero-bero eginda jantzi zion, da amak oso bero zegoala esan.

Austin etorri zan da eguerdi aldera iritxi zan medikua. Termometroa jarri zion eta pultsua artzen ari zan. Katalin erne zegoan. Termometroa kendu ta begiratu zion, da mueka bat egin zuan.

— Ea, amona, altza. Petxu ori ikusi bear degu.

Artu bere tresnak eta asi zan miatzen, da esan:

— Etzan, etzan, amona. Oiean egon bearko dezu. Kalentura aundia daukazu. Bentosak jarri bearko zaizkio petxuaren atzean da aurrean bitan, edo enplasto berbenarekin, pasmo-belarrak, tipula ta baratzuria nastuta. Ura oso gutxi edan bear dezu, egarrituko zera baiña. Enplasto goizean da gauean jarri ta eukaliptoaren ostoe kin ur beroa nastu ta aren lurriña artu, erabat edo al dan geiena; eta tapatuta egon.

Biar arte esanda, gelatik irten zan medikua, eta atzetik erraiña. Aitona ta Austin zai zeuden zer esango ote zuan. Medikuak esan zien:

— Oso gaizki dago. Pulmoni doblea dauka. Berrogei beroa ta eun da ogei pultsu minutuan. Esandakoak zintzo egin. Biar goizean etorriko naiz —da joan zan.

Azpikoetxen gauza serio artu zuten. Laister moldatu zuten enplasto eta bizkarrean jarri zioten. Ura ostoe kin ere bai. Gaixoak egarri ta beroa zeukan, da gutxi edateko ta tapatuta egoteko, eta komeriak.

Aitonak Austiñeri esan zion:

— Nere aita olaxe asi uan da arek eraman zian. Artean berrogei ta lau urte zizkin. Onekin ere bildur

izan. Arraioa! Esan nitxeuan oiean egoteko ta alperrik. Izan ere, bein ere egon al dek gaizki? Orain dituk komeriak, orain!

— Aita, mesedez! —esan zion erraiñak—. Ortaraiño etsi bear al degu, ba?

— *Juuu!* Ojala ni deskuidatuko banintz. Baiña bildur izan.

Da, bete-bete eginda, amonaren ondora joan zan. Amona oso bero zegoan. Etzan egoten geldi.

Senarra zai, semea ere bai, erraiña zer esanik ez, etxe artan goibeltasuna sartu zan. Ia etzan lanik. Amona naikoa zan. Gau txarra pasa zuan eta goizean aitonari esan zion:

— Gaizki nago. Oi onek erre bear du. Egarriak ito bear nau ta urik ez didazute ekartzen. Antonio, nereak onenez aurrera izango dira noski ta asko trankilduko nintzake don Juan etorriko balitz. Konfesatu ta komorgatu eta Jainkoarekin adiskide jarrita, datorrela datorrena, lasai artuko det.

— Zaude ixilik, emakumea, ez da orrelakorik eta —esan zion senarrak. Baiña alperrik arekin.

— Antonio, nik sendatu bear badet ere, sakramentuak bezelako botikarik ez didazute emango.

Irten da semea eta erraiñari esan zien zer nai zuan amak, eta semeak:

— Olain gaizki ez dago oraindik ta ezin egingo degu orrelakorik.

Itzetik ortzera salta zitzaion andrea:

— Austin, amari gauz ori ez diteke ukatu: bera lasai jarri, datorrena datorrela.

Ala, izketan ari zirala, “eup!” esan da medikua sartu zan. Azkar esan zioten zer zebilkiten esku artean. Medikiak esan zien:

— Obe lenbailen artzea. Lasaitu egingo da.

Ikustera joan zan da okerrago arrapatu zuan. Galdera batzuk egin zizkion, da amonak ari berdin esan zion, eta sendagilleak:

— Oberena —esan zion—. Ez daukazu olako apurorik, baiña lasaiago egongo zera.

Irten zanean, etxekoei esan zien gaizki zegoala ta egiteko berak nai zuana. Illuntzean etorriko zala.

Austin erretore jaunari esatera joan zan eta Kattalin aldarea prestatzen asi zan. Auzoko gizonari deitu ta esan zion ea Lizartzako arrebari esango zion zer gertatzen zan. Zegoana zegoan tokian utzi ta etorri zan; da berak deituko ziela ta lasai egoteko.

Amonak Kataliñi, berak esan zion nun zeuden maindire arizkoak, liñoarekin egiñak, beren puntillekin, da zein mai jarri eta dena.

Apaiza etorri zan da konpesatu zan. Moduz gainera. Arrituta utzi zuala esan zuan.

Esan zion apaizari alaba Lizartzatik etorriko zala ta orduan artu nai zuala Jauna. “Konforme”, ta etxera joan zan don Juan. Ordubatean iritxi zan alaba, bere senarra eta semearekin batean. Ama ala ikusi zuanean, negarrari eman zion, da amak eskutik eldu ta:

— Au tuntuna! —esan zion—. Zer uste den dala ama? Egon adi lasai. Ni lasai natxion alde ortatik. Zer nai den, ba? Beti ondo? Ez, Isabel, ez. Onak eta txarrak guretzat zeuden, da artzen jakin bear diñagu. Orain Jauna artu ta gero estremauntzioa, ta neri ez kasorik egin. Aitari, aitari. Ni joaten banaiz, asko sufrituko din. Ain bat izan gaitun. Nere miñik aundiena ori den: aita, aita. Orri kaso egin.

Berealaxe Jauna ekarri zion da debozio osoz artu zuan; da erregutu zien bakarrik uzteko, Jaunari eskerrak emateko.

Argitu-itxura artu zuan ondorenean, baiña illuntzerako berriz pisutu zan. Beste lau egun iraun

zitian. Beti moteltzen ari zan. Sendagilleak esan zien, zazpi egun irauten bazitian, bazitekela buelta artzea; baiña oso gaizki zegoala.

Gaixoak bere senarrari eskerrak eman zizkion, ain ona izan zalako:

— Zure ondoan ni zorionekoa izan naiz. Senar leiala izan zera, baiña bai ni ere; gaurdaiño ala naiz, oso-osorik. Aurrera ez bildurtu. Lagundu digun Arek lagunduko digu.

Ondoan denak negarrez, baiña ark ez. Gero ta motelago. Ia ezin itzegin. Ikusi ere ez noski.

Ia irurak ziran. Eskubiko eskua luzatu zuan da Austiñek eskua eman zion. Baiña utzi ta berriz luzatu zuan. Orduan Katalin konturatu zan da gurutzea eman zion. Artu, beatzekin zuzendu ta musu batean bezela gelditu zan.

Ezkerra luzatu zuan, da aitona zegoan alde artatik eta onek eman zion eskua. Apur bat iraun zuan, da arnas luze bat iru bider artu ta betirako ixildu zan.

Denak negarrez zeuden. Don Juan, belauneko, errezoan ari zan. Altxa ta esan zuan:

— Bukatu da. Nai nuke neretzat orrelako eriotza. Baiña, ortarako, aurrena orrela bizi egin bear da. Guk sinisten degunez, au zeruan dago.

Azkar asi ziran ondoreko lanak prestatzen. Urrengo arratsaldean eliz-lurra eman zioten, da urrenagokoan eliz-puntzioa, ta aurrera berriz. Bizi egin bear, da triste asko, sinistu eziñik emakume ura orren azkar galdu zitekenik. Baiña ala zan. Ura il zan da etzegoan bueltarik.

Aitona zan geiena ezagun zuana. Arrunt txundituta gelditu zan. Ogei ta amalau urte alkarrekin da gauetik goizera akabo. Alabak erregutu zion, da suiak ere bai:

— Goazen gure etxera ta an errezago sendatuko zera.

Baiña ez; alperrik. Ark etzuan bere etxetik aldendu nai. An gelditu zan. Baiña ezin suspertu ta, ondorengo egun batean, baratzatik azekin etxera zettorrela, irristatu bare baten gainean anka jarrita, erori lurrera ta anka autsi zuan. Zintzarri-mingaiña bezela gelditu gaiñera.

Al zuten bezela etxeratu ta sendagillea ekarri zioten; da onek, Tolosako ospitalera eraman bearko zala. Ala eraman zuten. Sei illabete an egin zituan da etxera bialdu zuten, baiña ondo jarri gabe. Erren aundia zeukan eta bildur zan gerorako. Okerrago etzijoan, beti obeto, baiña gutxi argatik erraiñak esan zion etxean gelditzeko, bazkaria antolatuz. Ori bai, egingo zuan, da ondo gaiñera.

Garia

LENENGO, etxekoandrea etorri zan, da ondoren beste biak. Bazkaltzekoan galdetu zien:

— Zer moduzko garia dago?

— Gari polita ematen du, baiña naiko nastua.

— Igoal dik, ba. Arratsaldean proba egin bear diat zenbat naizen.

— Baiña, aita...

Etzion utzi jarraitzen.

— Asko dek! Umea ez nauk. Ezin badet, neroni geldituko nauk. Ik nere itaia pikatuta jar zak.

Ixilik utzi zioten. Baiña aiek sorora joan da laister, an zan bere itaiarekin. Oraindik sasoikoa zegoan. Erren aundia ta ezin ibili, ta onek izurratzen zuan. Baiña proba egiten asi zan da errenka-errenka an jardun. Zer esanik ez asko ebaki zuala. Berez itari osoa baizan.

Arratsaldekoa egin zutenean, etxeratu zan da patatak zuritu. Aurrei merienda eman da aparria prestatu zuan. Apaltzen ari zirala:

— Oraindik ere ebakitzen diat orratik garia — esan zuan.

Da Austiñek:

— Bai, aita. Asko gaiñera. Baiña okerragotu egingo zera ta etxean gelditu bear.

— Ez, arraioa! —erantzun zion—. Goizean bai, bazkaria jartzeagatik. Baiña arratsaldean joango nauk. Orrela bizkortu bear diat; ez egonda. Egonez usteldu egingo nauk.

Baita joan ere arratsaldean. Baiña laister ezindu.

Bukatu zituzten gariak. Etxean sartu ere bai. Urrengo, eguzkiarekin kanpora atera mandiora, eta berotu ta jo. Arriak jarri zituan Austiñek. Lau, baiña laugarrengoa, aitona, etzan igo. Nai bai, baiña ezin zuan.

Giroa zanean, lur baneatzen, arbia ereiteko, bazan lana. Arbiak Ama Birjiñetarako egin nai zituzten, al bazan. Ama Birjiñetan Gazteluko festak baiziran.

Austiñek abisoa bialdu zion Joxinaxiori, al bazuan, bere emaztearekin etortzeko bazkaltzera, eta gustatu zitzaion oni proportzioa.

Gariak jo zituzten. Alea garbitu ere bai. Auzoan zeukaten makina eta onek garbitu zizkien lastoak. Beren tokira izkutatzeko asmoa zuten urrengo egunean.

Belarra

EGURALDI garbia agertu zuan. Austin lo zegoan, baiña aitonak dei egin zion:

— Motell, garbi-garbi zegok. Ez al dek belarra ebaki bear?

Azkar jeiki zan, da emazteari esan zion:

— Eguraldi bikaiña dago ta ni belar ebakitzera joango nintzake, eta jatena andik ekarriko genduke. Zuk ikuillua zuzenduko al dezu?

— Bai, gizona, bai. Nik, emengo lanak egin da gosaria bialduko dizut Joxerekin; eta beiak eta gurdia ere bai jatenak ekartzeko. Ni gero joango naiz, aita jeikitzen bada.

Ala, joan zan Austin egunsentian. Bere garaian ekin zion Kataliñek ere etxeko lanari.

Baiña aita etzegoan lo. Jeiki, su egin da baratzuri-zopa egiten asi zan, gosaria semearentzat eta Joxerentzat bialtzeko. Oni ere deitu zion, da Kataliñek ikuillua bukatzerako prest zegoan gosaria.

Beiak uztartu, pertikan sartu, sarde ta eskubareak gurdian jarri ta “aida, beiak!” Joxe belazera. Nagusi-morroiak gosaldu, gurdia jatenekin kargatu, ta Joxe etxera ta bestea belar ebakitzera.

Joxe etxeratu zanean, gurdia ustu, beiak askatu, trasteak jaso ta ostera belazera belarra zabaltzera. Aitak Kataliñi esan zion:

— Zu ere joan, nai badezu. Nik jarriko det bazkaria. Bestetarako ez naiz eta au sikira egingo det.

— Da umeak, aita?

— Zu ez bildurtu, Katalin, umeak nerekin ondo egongo dira eta.

Katalin ere belazera joan zan. Bazkaltzera etorri ziranean, aita galdezka zan zertsu belar zan.

— Poliki dago erdiz atzetik. Beste aldean geiago egongo da noski.

— Bai. Beti orrela izaten dek. Arratsaldean saiatu, giro ederra zegok eta. Umeak nik zainduko dizkiat.

Siesta eginda, nagusi-morroiak joan ziran merienda artuta belazera, eta Katalin etxean gelditu zan, garbiketak egin edo baztarrak txukuntzeko. Bazegoan etxe ortan lana ere. Zortzi lagun ziran, lau larri ta lau aur.

Belarra biltzen asterako, meriendatzen ari zirala, Joxek nagusiari esan zion:

— Gaur illuntzean jatenak egin ezkerro, ni biar goizean zurekin etorriko nintzake, ba, belar ebakitzera.

— Bai! —esan zion Austiñek—. Etorriko al intzake?

Joxek:

— Bai pozik! Nolabait ere orrela ikasi bearko det nik ere. Zuk gure aitak baiño obeto egiten dezu ontan.

— Bejondaikela, motell! Artara, biar dena ebakiko diagu. Orduan belarra bil zagun lenbailen. Da ik, etxera joan da beiak eta gurdia ekarri. Benga, motell! Nik zer geiago nai diat, ba?

Esan da egin. Etxeratu ziranean, Joxek gurdia ustu ta Austin segak jartzen. Aitak patatak egosita zeuzkan, da aparria prest zegoan. Apaltzen ari zirala, esan diote zer asmo zuten, da aita etzan asarre.

Urrengo goizean, dei egin zion Austiñek Joxeri, ta kafesne-zopak jan da biak belazera. Joxe ere poliki

moldatzen zan. Austin, berriz, lan ortan maixua zan. Onekin Joxek belar ebakitzen ikasiko zuan.

Garaiz, gosaltzerako, bukatu zuten. Katalin joan zan gosaria eta ura edateko artuta. Onek ikuilluko lanak egiterako, aitak prest jarri baizion. Ala, gosaldu eta belarra zabaltzeari ekin zioten. Aurrena berriak eta, lurra eguzkiak berotu zuanean, zarrak. Bazkaltzera joaterako jira zituzten.

Etixeratu ziranean, aita zai zeukaten, maia prest jarrita. Ostera arratsaldean jiratzen. Baiña beiak eta gurdia artuta, eta merienda ere bai. Lenengo, zarra jira zuten, igartua baizegoan ia; eta ondoren berria. Egoa zebillen *pil-pil-pil*. Laister asi ziran kargatzen: Joxek bota, Austiñek jarri eta Kataliñek ondarrak bildu.

Meriendatzerako bi gurdi etxeratu zituzten; eta, merienda ondorenean, Kataliñ etxera ganaduaren lanak egitera, eta nagusi-morroiak gurdia kargatzen. Bukatu zutenean, egoaizea zegoan. Belarra etzuten bildu.

Urrengo goizean, laiño-izpi batzuk zeuden da bildur ziran eguraldiarekin. Jatenak eginda, belazera joan ziran nagusi-morroiak, eta jira zuten aizetarra. Errez, gaiñera.

— Joan adi etxera eta ekartzik beiak eta gurdia. Azkar asi bear diagu, arratsaldean euria igoal egingo dik eta.

Usu joan zan Joxe eta Katalin topo egin zuan. Aitak bai-baizekian lanaren berri, eta onek esan joateko beiekin. Gurdi galanta kargatu ta bazkaltzera. Bazkaldu ta siesta ttikia. Ez baiziran fio eguraldiarekin.

Meriendatzerako, irugarren gurdia kargatu zuten, da artean etzegoan olaiñeko euri-bildurrik. Etzan asarre Austin, iru egunean belazea garbituta ta zazpi gurdi belar alakoak etxeratuta. Aita zarra ere etzan asarre.

Beia umea egiten

BIARAMONA, arratsean euri eginda, laino-
tsu argitu zuan. Beiak jeizten ari zan
Austin. Joxe artean lo eta aita ere bai. Katalin
sukaldean, da alako batean *kas-kas-kas!* Ikuilluko
atea iriki zion Austiñek eta Lizarretako Miel Anton:
beia ume egiten asi zala eta lagunduko ote zion.

— Bai noski. Txekorrak berezi ametatik eta
berealaxe or gera.

Kas-kas! jo zion solairua Joxeri. Au esnatu ta
arrituta nola deitu ote zion era ortara. Bizkor joan
zan ikuillura, ta Austiñek esan zion:

— Mugi adi azkar. Miel Anton etorri dek, beiar
umea kentzera joateko esatera, ta joan bear diagu
usu.

Joan ziran da beia etzanda zegoan, da besoak
agiri zituan txekorrak.

— Ondo al dator? —galdetu zion Austiñek.

— Etzekiat —esan zion Miel Antonek.

Ordurako bere emaztea eta aita an zeuden.

— Miatu bearko diagu, ba, aurrena —Austiñek.

— Bein ere ez diat miatu —Miel Antonek.

— Nik miatuko diat —Austiñek.

Eskua sartu zion beiar eta besoak zirala antze-
man zion. Baiña bururik etzion billatu.

— Bururik etzegok emen —esan zuan.

— Eta orain zer egin bear degu? —Miel Antonek.

Bere aitak esan zuan:

— Deitu Antoniori. Ura aiñakorik ez dek emen olakoetarako.

Laisterka joan zan etxera Austin da aitari deitu zion. Bai au usu jeiki ere bere errenean, eta Austiñi esan zion:

— Ganbararen pillarean zintzilika an zegok zaku txiki batean soka me-me bat, eta ar zak eta goazik.

Iritxi ziranean, agurtu ondoren, Austiñi esan zion:

— Eskuak ondo garbi itzik jaboiarekin, eta eskubia sar zak poliki-poliki, beatzak ola bilduta; eta burua, seguru asko, barrura jirata eukiko dik.

Sartu zion eskua esan bezela ta laister esan zuan:

— Emen du.

Aitak esan zion:

— Nik zuzenduko nitxiokek, baiña ik ere asi bearko dek. Nereak onenez aurrera dituk.

Erakutsi zion nola:

— Soka au ar zak orrela, iru beatz auen gainean, da beatz aundiarekin da txikiarekin eutsi, atera ez dedin. Da eskua sartu ta muturra billatu. Billa-tzen diokenean, aoan sartu soka ortzen atzera; eta, sartzen diokenean, kokotzaren azpian bi beatzekin sokari kontu, ta guri esan soka biurritzeko. Guk biurritzen degunean, ateratzerik ez duala geldituko dek. Orduan guri esan tiratzeko. Ik agindu aiñean, tirako zioagu; da, mugitzen danean, ik lagundu eta errez jirako dek. Baiña eskua barrenean oso poliki ibili bear dek, miñik egin gabe beiari.

Sartu zion poliki-poliki ta denak ixil-ixilik zeuden. Noizbait esan zuan:

— Emen dauka muturra.

— Ea, motell, poliki-poliki sartzen dioken.

— Egon! Bai! Sartu diot aoan. Orain kokotz azpian.

— Kontu, atera gabe.

— Ekartzak, Miel Anton, soka ori.

— Nik biurrituko diat —Antoniok.

Asi zan biurritzen da semeari esan zion:

— Ik esan noiz biurritzen dan kokotz azpiraiño.

Austiñek:

— Naikoa da.

— Bueno! —esan zuan Antoniok.

Soka Miel Antonek, ta Austiñek “Asi!” esan zion. Miel Anton asi zan tiratzen.

— Ik lagundu ta zuzen. Kontu! Bazetorrek, bazetorrek!

Eta bereala sudur-mizpirak agertu ziran. Orduan besoetatik tira zioten da atera zan txekorra. Ondo, gaiñera. Etziran asarre.

— Orain nola ordaindu oinbeste mesede? —esan zuan Miel Antonek.

— Ik ez al uan egingo? —galdetu zion Antoniok.

— Bai, bai. Olakoetan bai —erantzun zion.

— Orregatik, ba, au baserritarren artean esparik gabe egin bear dan lana dek. Denak ondo atera dituk. San Antoniok bedeinka ditzala ganaduak eta suerte on dizuela —esan da etxera joan ziran, pozik gaiñera Austin beintzat, ikasi baizuan baserritarrentzat oso bearrezko zan lan bat.

Pagamuntegiko belazea

ARRATSEAN, apaltzekoan, aitak esan zion:

— Ni anka zar ontako miñak natxiok. Egoaizea etorriko dek noski. Pagamuntegiko belazea ebakitzeko ere etzekiat oso giro txarra ote dagoan.

Joxek esan zuan:

— Nagusia, biok ebakiko degu.

Eta Austiñek esan zion:

— Beti esateko ta bein ere ez diat esan. Baiña orain esango diat. Emendik aurrera Austin deitu bear didak neri. Emen nagusia aita dek.

— Neri aitona —esan zuan onek—, eta orri Austin emendik aurrera. Egokiagoa dek. I etxeko bat geiago bakarra aiz.

Egunsentian begiratu zuan Austiñek eta pranko garbi, ta Kataliñi esan zion:

— Gu belazera joan bearko degu.

Onek:

— Bai, bai. Joan lasai. Ni gosariarekin joango naiz.

Intzarik gutxi zegoan da ekin zioten biak gogotsu lanari. Bai ebaki ere ia dena, Katalin joan zanerako. Gosaldu zuten, da Joxek eta Kataliñek belaze barrena jatenetako kargatu, ta Austiñek ebakitez bukatu. Ondoren, iruren artean zabaldu ta Austiñek esan zuan:

— Zu etxera joatea komeni litzake. Baiña jiratze-ko ere sail aundia degu ta komeriak.

— Ez, ez —erantzun zion emazteak—. Denok jirako degu. Gu joaterako, aitak bazkaria jarrita eukiko du. Gosaria ere jarria zeukan, nik lanak egi-terako. Ez dakigu zein daukagun etxean.

— Ez, emakumea —erantzun zion.

Jira zuten irurak eta etxera. Aiek irixterako, aitona, maia jarri ta guziak eginda, zai zegoan. Bazkaltzen asi ziranean, semeari galdetu zion:

— Zer moduz zegok belarra?

— Ondo, aita, ondo, nik uste baiño geiago austu ere egin genduan da —erantzun zion.

— Bai. Lurrari aurrena eman egin bear zaiok, gero berak emango badu. Naiko lan izango dezute, arraioak ezik, biar ekartzeko, ona bada —aitak.

— Saiatuko gera ta, biar ezin bada, etzi —semeak.

Siesta apur bat eginda, jira zuten, da egoa *pil-pil* zebillen; da intza-bildurrik etzala ta etxera etorri ziran.

Biaramonean, alik goizena joan ziran. Egoa bai-zan, da garbi. Eguzkia gaiñeratu zanean, jira zuten.

Aldameneko belazean Larteko aita-semeak ari ziran, eta ama-alabak zabaltzen. Austiñek agurtu zituan da izketan asi ziran:

— Bai. Zuek nolabait ere asmatu zenduten. Guk gaurko utzi ta orain ere emen zegok au. Etzekiat ebakiko degun ere.

— Seg a bai al dek? —galdetu zion Austiñek.

— Bai. Alamoduzko bat badek lizarpean.

Artu zuan Austiñek eta, ao gaiñean kolpe batzuk txinguran emanda, ebakitzera joan zan. Bere potoa eman zion Lartekoak zorrozteko, ta esan:

— To. I gu baiño geiago aiz ontan, da gu, aita-semeak, batekin moldatuko gaituk.

Ala, irurak ebakitzen da Joxe zabaltzen laguntzen. Izaskunek, topo egitean, toriatu zuan, eta Katalin etxera etorri zan.

Amabi t'erdiak aldera bukatu zuten da, etxera zetorrela, Lartekoak esan zion:

— I, Austin: nai al dek gaur arratsaldean, guk jiratakoan, laguntzea? Guk, jira ezkerro, lanik ez diagu; eta, artara, gaur zuena sartuko diagu ta zuek biar arratsaldean guri lagundu, ta orrela biak sartuko dizkiagu.

— Oso ondo iruditzen zaidak. Alaxe egin bear diagu. Bejondaikela!

Lartekoak:

— Guk beiak ekarriko dizkiagu ta azkar sartuko diagu.

Ala, bazkaltzen ari zirala, aitari esan zioten zer itzegin zuten, da onek:

— Oso ondo zegok. Ori geiagotan egingo bagendu, obeto. Makiña batez obe genikek. Ori dek bidea. Zuek erne samar joan da lenengo aiena jira, alkarri lagunduz; ta gero ekartzeari ekin. Nere ustez, beiak lizarpean an egongo dituk.

Siesta apur bat egin, bi pare uztartu ta belazera joan ziran. Baiña Lartekoak an ari ziran. Aiek beiak lizarpean zeuzkaten, aitak esan bezela. Denen arte azkar jira zuten. Trago bana egin da karreatzeari ekin zioten sasoiz. Bai lana egin ere. Batzuek kargatu, besteak etxera eraman da ustu, garaiz bukatu zuten.

Etzan asarre aitona, ta ez gaiñerakoak ere. Izan ere, bi belaze era ortan sartzea euririk ikutu gabe, gure lurrean ez da noiznai egiten.

Urrengo egunean, euria asterako Lartekoa sartu ta denak pozik.

San Lorentzotan

IGANDEA iritxi zan, da San Lorentzo eguna, Berastegiko festak. Goizean, mezetatik ertean, Joxeri esan zioten arratsaldean joan bear zutela. Onek bazkaltzekoan esan zuan, da aitona okerrena: baietz, eta pezta bat eman zion. Joxe ere etzan asarre. Dantzan egin nai baizuan.

— Baiña kontuz —esan zion Austiñek—. Sail ortan badituk santu zuzenak ez diranak. Ez gero gauza aldrebesik egin. Inaxiok ez dik egingo. Arekin etorri adi.

Ala, abiatu ziran. Pakok ala nai zualako, Arramendin pasata joan ziran. Baatzurrera iritxi ziranean, arrituta gelditu zan Joxe:

— Au erri polita! Au zelaia!

Gustatu zitzaion. Garaiz iritxi ziran da artean soiñua asteko zegoan. Piparropil-errifatzaileak zeuden iru. Amar karta errenkan, ol me bati seguruak, batekotik erregera izaten ziran, da bakoitzari bost zentimokoa jartzen zitzaion, amarrekoan bi; da, karta guziei txanponak jartzen zitzaizkienean, txanponak bildu eta errifa ola egiten zan. Kartak berrogei izaten ziran, lau makil edo klase, oraingorak bezelaxe: urrea, kopa, bastua ta ezpata. Denak nastu ta gero, pikatu arazi begira zegoan bati, ta banaka-banaka botatzen zituan, esanez:

— Batari, biari, iruari, lauari, bostari...

Eta orrela, denak esan arte. Eta ark, adibidez, "seiari" esaten zuanean bateko urrea ateratzen bazan, arentzat zan piparropilla.

Gazteluarrak iritxi ziranean, azkar bete zituzten kartak, eta lenengo Pakori atera zitzaion. Eskatzen zioten puska, baiña etzion iñori eman. Ezta bere anai txikiagoari ere.

Soiñua asi arte, an jardun ziran. Joxeri, bost zakur aundi gastatu ta bi atera zitzaizkion. Azkene-rako, pranko berdindu ziran piparropillez.

Plazan lau kaiñuko iturri bikaiña zegoan. An ura edan da dantzarako prest jarri ziran. Berastegiko Ttikia zan soiñujolea: Pakito famatua. Usu ekin zio-ten lanari.

Izaskunek, Joxeri erakutsi bear ziola ta bakarrik ibili nai zuan. Baiña etzioten utzi. Joxek berak ere naiago zuan saillean. Bost sail baziran eta, erriko ta kanpoko, plaza erdi bete zan.

Joxe ta iru lagun ziran: Inaxio, Joxe ta Gara-gartzako Martin, oso mutil ona. Batean kentzen bazioten, nun zegoan beste irukotea eta ara. Bapo zebiltzan, lotsak bota zituzten da.

Alako ixilune batean, kontzejutik txistuaren soi-ñuan amairu dantzari atera ziran. Aguazillak, makilla eskuan zuala, tokia egin zuan plazan, da dantzari oiek antxe asi ziran txistuarekin beren dantzak egiten.

Iru lauuko ta aurrean kapitana zuten. Au ezpata-rekin. Galtzak eta alkandora zuriak, zapela ta gerri-koa gorriak, eta alpargatak ere zinta gorriekin apainduak. Belaunen azpian, zankoan, koillare gisako bat, dena koskabillo txikiz betea.

Galdezka asi ziran Joxe eta bere lagunak, eta San Juan dantzariak zirala esan zieten.

Asi ziran txistua ta danborra beren soiñua jotzen, da bai dantzariak ere bat-batean berena egiten. Asi beti denak egiten ziran; kapitana bakarrik urrena; eta gero lenengo laukoa, gero bigarrena ta gero irugarrena. Azkenean, denak dantza batean dantzatu.

Bat bazuten oso polita. Iru laukoak dantzatu zuten. Aurrena lenengoak, gero bigarrenak, gero irugarrenak, ondoren irurak, makilla bat eskuan da talo-olaren moduko ol-puska bat bestean. Ango klaskako-otsa, denak batean! Txoratuta egon ziran begira. Ura edertasuna!

Azkenengo, soka-dantza. Bai bikain! Eta, au bukatzean, pandango bat eta, txistuaren soiñuan dantzatzuz, ostera kontzejura sartu ziran.

Azkar asi zan Pakito soiñu jotzen, da gure gazteak ere bai dantzan. Lastima! Illunabartzen asi zuan da, ondoen-ondoena zebiltzanean, etxera joan bear.

Bildu ziran da abiatu ziran, etorri bezela. Baiña zartxeagoak mantxo zijoazten, da Joxe ta Martin korrika etxera joan ziran, naiko berandu. Onek zekian bidea ta usu joan ziran.

Etxean ordurako apalduta zeuden. Azkar eman zion Kataliñek. Jaten ari zala, galdetu zion Austiñek:

— Zer modu, motell, Berastegin?

Bazuan zer kontatua: piparropillak asi ta dantza, dantzariak eta soiñu-jolea, ain txikia eta bera baiño aundiagoko soiñua nola jotzen zuan.

Aitona parrez zegoan entzuten, da:

— Erria zer moduzkoa? -galdetu zion.

— Nik oraindik ikusi detan ederrena —erantzun zion—. Ura zelaia!

— Bai, baiña maldak ere badituk an ere. Ez dek dena arrosa —aitonak.

Gero Austiñek esan zion:

— Biar goizean txekorrak Tolosara eramán bear dizkiagu. Bat astoari erantsi ta bestea nik, eta eragin ik. Gaur proba egin diat eta errez eramango dizkiagu. Baiña goiz joan bear diagu.

— Nai dezunean —erantzun zion Joxek.

— Goazen, ba, oiera —Austiñek.

Txekorrak

URRENGO goizean deitu zion Austiñek. Segituan jantzi ta irten zan. Ordurako Austin ia prest zegoan: txekorrak sokak erantsita, astoa bere txalmarekin jarria, bi kartolak goien lotuak, eta txintxen gaiñean soka bat, lau edo bost bueltan lotua.

Kafesnea zopekin artu zuten da zekor bat astoari erantsi zion, txintxa ta soka bietan pasata.

Joxek astoa erremaletik artu zuan da “Arre!”. Txekorrak zalaparta batzuk atera zituan, baiña astoak eutsi egiten zion.

— Utzi astoari eta etorri onera. Ara emen maki-lla eragiteko —esan zion Austiñek.

Askatu zuan onek txekorra katetik eta bapo jarraitu zion atarira. Katalin ta aitona begira zeuden. Abiatu ziran Austin aurretik eta astoarekin Joxe atzetik. Aurreko txekorra ederki zijoan. Iñoiz eragin da kito. Baiña bestea teman jartzen zan, da urrena itxu-itxuan, edozein aldetara salta. Esker-rak astoari. Bai; onek beti nai zuan tokira eraman ten zuan.

Ia Leaburuko ermitan zirala, saltatzen da txekor ori. An festa, an! Batean batera ta bestean bestera, ta azkenean baztarraren kontra estutu ta ia-ia bota zuan astoa. Bai au azkar libratu ere. Ekiten dio

ostikoka. Sudur-mizpiretan jotzen zuan txekorra. Kendu zizkion berriketak ederki. Joxe bildurtu zan. Ez Austin:

— Eldu erremaletik eta segi. Txarrenak egin zetik.

Andik aurrera, astoak tiratzen zion tokira zuzen joaten zan. Eskolik ez dutela, baiña ikasi zuan lezioa. Sudur-mizpiretatik odola zeriola, ederki joan zan.

Tolosara ordurako nekatu egin ziran txekorrak, eta anketatik beratu. Luzatu zuten, baiña iritxi ziran.

Joxe arakiña zai zegoan eta azkar il zituan. Zintzilika jarri eta eguerdiko amabietan pisatu: lareun ta berrogei ta bi kilo ta erdi biak. Astoak ekarri zuan aundiena. Biak idiskoak ziran. Bikaiñak txekorrak. Bat aundiena beltz-beltza, eta bestea suiza. Gutxi ikusten diran bezelakoak. Azken aldera, amarenaz gaiñera, bi beiri kendutako esnea arta-iriña-rekin nastuta ematen zien, eta al zan janik gozoena.

Iru ziran batekoak. Bat urruxa. Au bei egiteko etxean utzi zuten, da txikiagoa zan. Kutizirik ere ez baiioten egiten oni.

Tolosako mataderan etzan alako txekorrik sartu. Jendea pranko egon zan begira, ta bat berastegia-rra ta Austiñen ezaguna. Ala esan zion Austiñi:

— Nere denboran ez diat olako bi txekorrik ikusi. Zenbatean dituk?

— Bi pezta ta iru zakur aundi kiloko —esan zion.

— Ño! Galesti dituk. Izan ere, alakoak dituk eta —erantzun zion:

Bentazabalera joan da astoa ikuilluan sartuta:

— Onezkero gosetu aiz —esan zion Joxeri.

— Bai.

Bazkaltzeko, barbantzua txorizoarekin da xerrak piperrekin. Biak ere gosetuak zeuden. Baiña bapo ase ziran. Gaiñean kafea ta kopa, ta Tolosara etorri ziran

txekorrak kobratzera, Zeru Txikira, Baldomeroenera. Ara joan zan Joxe arakiña eta Joxeri esan zion:

— Atera zak kontua: 442'50 kilo a 2'30.

Lapitza Joxek atera zuan da:

— 1017'75 pezta.

— Bai. Ala dek.

Ordaindu zion kontua ta esan zion Austiñeri:

— Kafea ordaindu bearko didak.

— Ez, gizona, ez. Bi txekor olakoak ekarri ezke-ro, ordainduko al dituzu.

— Ederrak dituk oso, ederrak! Berriz ere azi itzak eta deitu. Pozik ilko dizkiat. Nik ordainduko dizkiat eta au aitari emaiok. Txuleta bat dek. Ura gizon osoa izan dek beti.

Agurtu ta Baldomerorekin tildeka apur bat jardun da etxeruntzean, Bentazabalen Kataliñek esandakoak eta zaku bat baba artuta, itzuli ziran etxera, kontentu ta pozik.

Bai. Etzan berriketa. Larogei ta zortzi erralde eta erdi bi txekorrekin, erraldeko 11'50: 1017'75 pezta.

Gaiñerakoak ere, jakin zutenean, alaitu ziran. Batez ere aita:

— Motell, motell, nik uste baiño lau erralde geiago pisatu dizkitek. Ederki zegok. Milla peztara arri-matuko intzan?

— Pasa, aita: 1017'75 zan kontua.

— Kontentu geldituko uan arakiña?

— Bai; oso. Zuretzat eskumiñak eta txuleta eman dizkit, eta gizon osoa izan zerala esan.

— Bai. Gaiñerakoak bezela, batzuetan.

Apaldu, lo egin da berriro lengora.

Abuztuko Ama Birjiñetan

GOSALDU zutenean, Austiñek Joxeri onela esan zion:

— Giro polita zegok eta saiatu bear diagu sororan, Ama Birjiñetarako ea libratzen geran, festak ondo pasatzeko.

Aitak esan zion:

— Garoa ere ia bukatu dek. Or noizbait ekarri bearko dek.

Maniatzera joan ziran sorora ta arratsaldean gorotz-karraio asi ziran. Urrengo goizean ekarri zuten, ta gorotz-karraioa bukatu ta gustora ari ziran. Bazirudian portatuko zala eguraldia.

Prest-prest jarri zituzten soroak, eta Ama Birjiña bezperan goiz ekin zioten lanari. Denak biak bakarrik egin bearra zeukaten. Kataliñek bazuan naiko lan etxea txukuntzen.

Goizetik gauera eten gabe, arratsaldean bukatu zituzten. Oילו lumatzen lagundu zioten da jatenak jornada galanta ekarri. Ganaduaren lanak egin da illuntzerako prest jarri ziran.

Atarian zegoan Joxe ta Izaskun etorri zitzaion, da:

— Goazik errira —esan zion.

Austiñeri esan da onek:

— Joan intekek. Baiña apaltzera etorri.

Bakartu ziranean, Izaskunek esan zion:

— Lengoan zertarako aldegin zenduan Martiñekin?

— Bai al dakizu zer ordu zan? Garaiz etortzeko esan zidaten da ez nuan utsegin nai.

— Nik zurekin etortzeko asmoa nuan da...

Etzion erantzun. Ondo egiten zion: ezin obeto, baiña etzuan nai olako gauzik, orduan esnatzen ari zan da. Orrek baiño kezka geiago ematen zion, urrengo egunean aita-amak etzekian baiña uste zuan etorriko zirala.

Lizartzako Xakar omen zan txistu-jotzaillea, eta dantzaz zebiltzan, latz baiña. Ixilune batean Austiñek esan zion:

— Joango al gaituk etxera?

— Goazen —erantzun zion Joxek.

Izaskunek esan zion:

— Gu geroago joango gera.

Baiña Joxe, ez aditua egin da Austiñekin joan zan. Ondo apaldu zuten, festa-bezpera bezela, ta oiera joan ziran.

Urrengo eguna laiño argitu zuan. Austiñek etzion deitu Joxeri. Bakarrik egin zituan ikuillukoak. Zortzirak aldera jeiki zan Joxe, eta Kataliñek bazuan aren diña lan. Gosaria eman zien denei ta:

— Au ekatzu, Joxe. Ori egizu, Joxe. Egurrak ekartzitzu, Joxe.

Arek ere bazkaria jarri bear, gauzak zutik jarri nai, olakoetan emakumeak izaten dute naiko lan.

Naiko gonbidatu bazituzten: Lizartzako arreba bere senar da aurrekin; Kataliñen aizpa, soltera zegoana; eta Joxeren aita-amak, etortzen baziran.

Ama Birjin eguna zalako, bi meza zeuden: bat bederatzi ta erdietan da bestea amaiketean. Joxek

Austiñi esan zion joango litzakela bederatzietakora, aita-amen bidera erteteko.

— Joan adi, joan adi. Nik lagunduko zioat Kataliñi.

Ala, joan zan. Irten da laister atera zan bidera, baiña utsa. Egon, egon da egon, arkaitz-gain batean jarrita. Noiznai jendea bazetorren, baiña ark nai zituanak ez. Amaikak jo zuten da utsa. Aldian, etxean zanean ardiei egiten zien txistua egiten zuan:

— Uuiu...

Baiña etzuan iñork erantzuten. Kezkati zegoan. Amaika ta erdiak eta berdin. Etsi zuan da etxera abiatzera zijoan. Baiña ermitan jira ta bi lagun alde artara. Egin zuan txistua:

— Uuiu...

Ta laister erantzuna:

— Uuiu...

Laisterrean joan zitzairen bidera ta, irurak alkar jo zutenean, pozik.

— Zergatik etorri aiz, Joxe? —amak.

— Zuekin al dedan geiena egoteagatik —erantzun zien.

— Ixtimatzen diat. Ondo zegok.

Bazuan jakin bearra pranko: ango ardiak, ango Bernardo, Mieltxo, Karmen, aitona, Miel, Martin Iturburukoa... Denen berria eman zionean, amak esan zion:

— Beristaingo Maritxuk esan zidak goizean, eskumiñak emateko, ta noiz joan bear deken.

— Zuk ere emaizkiozu nereak —esan zion, ta pre-saka kontuak esanez: zeñen onak zituan etxean denak; aitona ez txarrena; aurrekin nola jolasten zan; anai ttikia oroitu erazten ziotela; bi pezta aitonak nola eman zizkion; nola txekorrak saldu zituzten; zenbat pisatu zuten... Denak kontatu zizkien gurasoei.

Etxera irixterako, denak zai zeuden bazkaltzen asteko. Etzan asarre Austin, Joxe Inaxio ikusi zuanen. Biak alkarren ondoan jarri ziran maian, da makiña bat kontu nastu zuten. Joxe Inaxiok semearen galdera egin zion, da erantzun:

— Gu oso pozik gatxeudek orrekin. Gaztea dek, baiña orrek aiña pulamentu dutenak edadekoak ere ez dituk asko. Ori emendik mugitzerik ez gero pentsatu!

— Ez, motell. Orain beintzat ondo zegok. Bera ere kontentu dagoala esan dik.

Ala, joan bear zutela ta joan bear zutela, ta berandutu zitzaien. Ondo bazkaldutakoan gustora egoten baida. Bostak aldera irten ziran eta Joxek lagundu zien. Amak esan zion:

— I, nai badek, geldi adi.

Baiña Joxek aiekin joan nai zuan. Ia beratxoraiño lagundu zien, da amari musu eman da agurtu ziran. Aiek etxera presaka ta au Gaztelura dantzara korrika.

Iritxi zanean, Berastegiko Ttikia an ari zan bere soiñu aundiarekin. Zer esanik ez gozatu zirala. Etzuten pandango bat ere utzi. Etxerakoan, Izaskunek eskutik eldu ta esan zion:

— Goazen etxera biok.

Joxe lotsatu egiten zan arekin bakarrik joatea. Baiña onek esan zion:

— Goazen, Joxe. Nik etzaitut jango. Zertan zera orren bildurtia?

Ala, dudan zegoala, beste mutil batek eskutik eldu ta tira zion.

— Goazen —esan zion da arekin joan zan Izaskun.

Pozik gelditu zan Joxe. Bazuan barruan zerbait galerazten ziona. Berak ezin zuan asmatu zergatik zitekean. Goizean amak esan zionean Maritxuk

eskumiñak bialdu zizkiola, alako dardar bat sentitu zuan barruan da lotsatu egin zan. Zergatik ote? Duda orrekin joan zan etxera.

Lizartzako arreba, bere senarra ta aurrak ziran, lengoaz gaiñera. Apalondoan senarra etxera joan da aitarekin gelditu zan arreba bere aurrekin. Etzan asarre aita bere alabarekin. Iru egunak pasa zituzten alkarrekin da au ere bere etxera joan zan.

Agorreko Ama Birjiñetan

BAKARRIK gelditu ziran eta lengo lanari ekin zioten: belarra ondu, arbiak ere jaio ziran da auek jorratu...

Eguraldiak ere etzuan berotu nai ta naiko lanak. Aste bat euri egin zuan da arbietan belarra azi zan gogotik, eta lanak atzeratuko ziran bildurrak jo zituan. Bibelarra ere bazeukaten da eguraldi ona nai, ta egiten ez. Basarrian lana zerbait bein ere ez da palta, baiña nai dana ezin egin. Or komeria.

Noizbait egoaidetu zuan. Baiña ordurako arbiak belar asko zeukaten da kosta egin zitzaien pasatzea. Landarea ere ugari ta azkenerako eskuz bakandu zuten.

Oartzera, Ama Birjin Agorrekoak etorri ziran. Iruren bat gurdi belar ia galdu zitzaizkien, da meta aundi batean jarri zuten, atarira ekarrita, astoak ere zerbait bear zuala ta.

Ama Birjin eguna, Lizartzako festak. Etxeko denak ziran gonbidatuak. Baiña aitonak esan zuan ura etzala joango; gaiñerakoak joateko.

Joxe lotsatu egiten zan. Kataliñek esan zuan:

— Ez. Ni aitarekin geldituko naiz.

— Guardako zera! —esan zion aitak—. Ni bakarririk egongo naiz. Zu besteekin batean joan, da Joxe ere zuekin.

Etzegoan aitari kontra egiterik eta joan ziran. Eguerdian bapo bazkaldu zuten; bazkari bikaiña bai. Arratsaldean Joxeri esan zion Austiñek:

— I illunabarrean berandu gabe joan adi etxera ta ganaduena egin. Amarretarako joatea naikoa dek. Ni apaldutakoan joango nauk. Katalin emen geldituko dek eta biar joango dek.

— Lasai, Austin. Nik denak zintzo egingo ditut.

Ala, denak agurtu ta plazara joan zan. Ordurako soiñua ari zuan da dantzan asi zan —ia ondo egiten zuan— bere lagunekin: Inaxio, Martin da irurak. Batean txanda kentzen al zioten? Beste batean eskatu, “*Benga!*” batean da “*Benga!*” bestean, kris-kitiñak joaz.

Illuntzen asi zuanean, lagunei esan zien zer egin bear zuan.

— Dagoaneko, motell? —esan zioten.

— Bai —erantzun zien—. Joan egin bear diat. Bein bakarra agindu zidatek eta zintzo joan bear diat. Aitona ere zai egongo dek. Biar arte —esan da utzi zituan.

Laister zan, malda aiek gora, etxean. Bai lanak zintzo egin ere. Aitonari, apaltzekoan, Lizartzako berri eman da oiera.

Urrengo egunean, beti bezela asi ziran. Baiña Katalin Lizartzan da sukaldeko lanak egin bear, bazkalduko bazan. Emakumeengatik errez itzegiten da. Baiña palta diranean oartzten da bat zer utsune uzten duten.

Orrela, arratsaldean joan ziran lizar-osto egitera. Illuntzean etorri ziranerako, Katalin da aurrak etxean zeuden. Ostera bildu ziran denak. Aitona egongo zan alaiena. Berri onak ekarri zituzten, da familia osatu. Pozik egotekoa zan. Alabak aitari oillaskoa bialdu zion, etxean jan zezan. Apaldondoan, Joxek aurrekin jolasaldi bat egin zuan da oiera.

Ondorengo egun batean, bibelarra ebaki zuten. Eguraldi motel samarrak eta kosta zitzaien. Lau egun egin zituzten jira ta bira, baiña atzenean busti gabe ta ondo igartua sartu zuten.

Lizar-ostoa ta arbiari beste pasada. Babarrun batzuk ere asi ziran. Aiek bilduta, garotan asteko prestatzen ari ziran.

Potxoloren ezbearra

ARRATSALDE batean, jatena egin da zeto-zela, Larretako Praisku oiuka azkar etortzeko, Potxolok min artu zuala. Bere artan beiak utzi ta laisterren joan ziran, da an zegoan eskaillera-barrenean antsika.

Bi anakak alde banatara jarrita, Praiskuk zuzendu zizkion anakak, eta esan zuan:

— Au zintzarri-mingaiña bezela zegok.

— Ta zer egin bear degu orain? —galdetu zion Austiñek.

— Anka lotuta jarri, min gutxiago artu dezan.

— Joan adi —esan zion Joxeri— ta beien aurrean egon adi, baten tokian bi oker egin gabe. Bear-tzen bagera, deituko diagu.

Joan Praisku ta andreari esan zion:

— Jospinaxi, ekatzu maindire zar bat.

Eta bera benda puska medar bat artuta etorri zan, da esan zuan:

— Nik olakoa len ikusi diat soldaduskan. Batek anka autsi ta ari egin ziotena egingo diagu.

Jospinaxik maindire zarra ekarri zuan, da Praiskuk, patrikako labana atera ta amabost bat zentimetroko tirak alderdi sanoenetik ebaki zizkion. Ordurakoxe iritxi zan Potxoloren semea.

Praiskuk ol bat, autsitako tokian, zankoaren azpitik, jarri zion. Bestea parean gainetik, eta beste bi saietsetatik, eta "Eutsi!" esan zion. Da berak, maindire-puskak bendak bezela bilduta, bueltan-bueltan lotzen zion, pranko estu gainera, beste biak lagunduz.

Potxolok orro ederrak egiten zituan, baiña etzegoan erremediorik. Egin egin bear. Lotzez bukatu zutenean, eskaillera bat ekarri ta bigungarria jarri. Aren gainean Potxolo jarri ta oiera eraman zuten.

— Orain zer egin bear degu? —galdetu zuan semeak.

Biak bakarrik bizi ziran. Praiskuk esan zion:

— Edo Tolosara ospitalera edo, etxean nai badezute, petrikilloa Betelun zegok eta ura ekarri.

Potxolo negarrez asi zan:

— Ni Tolosara ez. Naiago diat bertan il.

Pranko zartua baizan.

— Ta nola ekarri petrikilloa?

Praiskuk esan zion:

— Ik aita zain zak eta gure semeak ekarriko dik. Eta, datorrenean, deitu, bear bazerate.

Austiñek ori bera esanda, Joxerekin batean etxera joan zan. Apaltzekoan esan zuten etxean, da aitak esan zuan:

— Gizaixoa! Gorriak ikusteko zegok.

Menditik orduantxe iritxi ziran iru mutil eliza ainbatekoak, zein baiño zein ederragoak, kintora arrimatzen zana azkena, Praiskuren semea. Aitak:

— Potxolok anka autsi dik eta Betelura joan bearko dek Petrikilloren billa.

— Orain, aita? —esan zion semeak. Illunabarra baizan.

— Bai —erantzun zion—. Al deken azkarrena. Amak zerbait jarriko dik. Gaur dek illargi betea ta, Lizartzara ezkerro, azkar aiz an. Miñez zegok eta mugitu. Irixten aizenean, kamioaren azpiko aldetik ostatu bat zegok, an galde zak nun bizi dan da beatzarekin erakutsiko ditek. Bertan baidago. Dei zaiok eta usu etorriko dek. Eta i ere bai, seguru asko, joan baiño ere azkarrago. Patxiku dik izena. Oso bizkorra dek ibiltzen. Elizaldeko Praisku Mari orrek sendatu zin.

Usu jantzi arropak eta alpargatak, eta amak eman ziona janez ekin zion bideari. Laister zan Lizartzan. Ekin zion korrikari, sasoa ere alaxe zeukan da. Kilometro batzuk bai-baidaude. Dozenaren bat inguru. Azkar joan zan. Artean kalean norbait ikusten zan. Bati galdetu zion da:

— Ikusten duzu, zubi ortan pasa ta ikuilluan da goien argia dagoen etxea? Orixe duzu.

Ateak jo zituan da amon batek iriki zion; da, esan zuanean zer nai zuan, amonak:

— Patxiku! —deitu zuan—. Ator!

Etorri zan gizona. Altua eta mea, nerbio uts-utsa, kokotz zabala. Ta galdetu zion:

— Zer dugu?

Esan zionean zer gertatzen zan, “Baniak!” esan da gora igo zan. Momentuan jetxi zan, makilla me bat eskuan da bruxa beltz bat beste eskuan, da “Goazen!” esan zion.

Anka luze aiekin bi metro luzeko pausoa egiten zuan. Kontuak esan da segi. Zekizkian guziak atera arazi zizkion mutillari, eta gauerdirako arrimatu ziran. Iritxi ziran da ikusi zuanean:

— Gaixoa! Au zeñek jarri du orrela? —esan zuan—. Bai ondo jarri duela. Agitz ongi paatu du.

Ta laguntza eskatu zuan askatu ta bere lana egiteko. Praiskuri deitu zioten da azkar joan zan. Zai baizegoan. Askatu zuten da esan zien:

— Zuek eutsi emendik —etzanda luze-luze zegoan—, batzuek gerritik eta besteak besoetatik.

Aitona, min emango zioten beldurrak, antsika asia.

— Zu lasai egon bear duzu, deus ez duzu ta.

Esatearekin batera, bere jokoa egiten asi zitzaion: *krik-krak, krik-krak, krik-krak, krik-krak...*

— Paaturik dago —esan zion.

Aitonak ordurako egundoko orroak egin zituan, da petrikilloak len bezelaxe lotu zion, da esan zuan:

— Au len paatu duenak zerbait badaki.

Orduan Praiskuk esan zion nola, soldadu zegoa-la, ikusi zuan olako kaso, ta argatik egin zuala.

— Agitz ongi. Zu zerala medio, makiña bat min gutxiago ekusi du onek. Orain kafe piska bat eta kopa bat komeni litzaizkioke oni.

Praiskuk, etxera joan da ekarri zizkion. Bai pozik artu ere aitona. Oso zalea baizan.

Larreta lo egin da urrengo goizean joan zan petrikilloa Gaztelutik, andik amabost egunera etorriko zala esanda.

Egileorko Joxinaxio

JOXINAXIO, berriz, Egileorren bizi zan. Au, izenak dion bezela, baserri izugarria etzan; eta, gaiñera, maizterrak ziran. Nagusia Bekoetxekeko Praisku zuten. Errenta, len ere esan bezela, sei ontzako urre eta ardi gizen bat urtean.

Bost bei eta eun bat ardi izaten zituzten; eta, auek mantenduko bazituzten, Gazpioko belaze bat eta Etxeberriko labakia errentan ibiliz osatzen ziran.

Familia bai galanta: zortzi aur zein baiño zein ederragoak, bost seme eta iru alaba. Baillaran ziran beartsuenak, baiña esku garbi, jator eta leialak berdingabeak.

Miel ta bera Tolosara iritxi ziran da peria ikusi zuten. Ganaduen salneurrien berri jakin. Artara joan baiziran. Batek, Mielek, beia zeukan kendu bearra. Joxiñaxiok, berriz, txekorra. Zesario arakiñarekin itzegin zuten, da ikustera joango zitzaie la agindu zien. Eta batak besteari esan zion:

— Mugitu bearko diagu, motell. Oraindik urruti gatxiok etxetik.

Mielek baxoerdi bana atera zuan Agustiñenean; eta, Joxinaxio an utzi eta, Joxepak kilo bat aragi bularrekoa eramateko agindu baizion, ura eroatera joan zan, eta arakiñari esan zion:

— Meriendatzeko bi urdaiazpiko-puska jartzik. Auzotar bat eta biok gaituk, eta biontzat bana.

Labanarekin ogia erdibitu, urdaiazpikoa sartu, paperean bildu, ordaindu ta Joxinaxiori kaso egin-da abiatu ziran. Tolosatik irten ziranean, Mielek zakutik bi opillak atera zituan, da bat Joxinaxiori eskeiñi zion:

— Tori. Oraindik urruti gaude; eta, bidean goa-zela, arratsaldekoa egingo degula-ta, opillak bana artu ditut etxetik. Ixtima zazu bat. Etzaizkigu gaizki etorriko noski.

— Zu beti orrela, Miel. Nola ordaindu bear dizut?

— On egin deigula, eta kito!

Biak bapo zijoazen opillak janez; eta, Agin-iturri-ra iritxi ziranean, ur-trago bana egin da aurrera. Iritxi ziranerako, ia illargia gaiñean zegoan. Bide-gurutzean alkar agurtu ta nor bere etxera.

Beristaiñen aitaren zai zeuden apaltzeko, eta Egileorko Paula taloak erretzen ari zan. Iritxi ta agurtu zituanean, senarrari esan zion:

— Tira, Joxinaxio: aldatu eta apaltzera.

— Bai. Guzia bazeneki... —esan da gelara joan zan aldatzera.

Etorri zanean, katillu esnea jarri zioten aurrean bi talorekin.

— Bat naiko det —esan zien.

— Zuk talo bat bakarra? —esan zion Paulak.

— Bai —erantzun zion.

Bukatu zutenean:

— Beien lanak egiñak al daude? —galdetu zuan.

— Bai —esan zion emazteak—. Orain oiera.

Isabel etxean zan egun artan. Lau egun jai eman baizizkioten.

— Kamioa utzi ta laisterbidea artu degunean, zakutxotik bi opil atera ta bat neri eman dit, esanez biontzat bana artu duala ta ixtimatzeke. Itxura piska bat egin diot, baiña gustora ekin diot jaten, goseak bainengoan ia. Opilla bai, baiña taloa aiña-ko urdaiazpiko-puska barrenean duala. Bikaiña zegoan. Agin-iturrira iritxi geranean, an bina trago egin da bapo etorri naiz. Ara, Paula, nere gaitza. Barrutiak eskatu dizkiot eta agindu dizkit. Ez dakit zergatik, baiña gurekin oso ondo dabiltz. Begi onez ikusten gaituzte.

— Bai —erantzun zion Paulak—. Guk badegu oien bearra. Maritxu ikusi al dezu?

— Bai. Berak eman digu kopa, armariotik aterata.

— Sinisten dizut. Ez dakizu zer begiekin ikusten dedan. Ain txukuna da danean. Esan diteke edertasun guziak berekin dituala.

— Bai, Paula. Ala da. Orain lo egin dezagun. Biar goiza badator bere lanekin. Ondo lo egin.

— Jainkoak nai badu —erantzun da biak ixildu ziran.

Tolosara

ONDORENGO goiz batean larunbata zan. Lanak bukatu ta gosaldu zutenean, Gazpion garorik etzegoala ta aita-alabak idiak uztartu ta garo-eske joan ziran. Gurdia kargatu ta zetozela, bidera irten zitzaien Joxepa, da esan zien:

— Gure biga ere, isipua arro samar duala dabil. Umatzera joango da.

— Bai. Bereala or gera, Joxepa —erantzun zion senarrak.

Al zuten azkarrena gurdia Gazpion ustu ta etxeratu ziran. Joxepak esan bezela, asia zegoan. Kapritxoz Ernaniko Akarregitik Euxebiori erositako txekorra zan, suiza jatorra, eta ilusio aundia zeukan arekin Mielek. Errape ederra egin zuan, da txekorra ere urruxa. Koiñado Permin da Mieltxo ekarri arazi ta bosten artean kendu zioten.

— Txekor ederra! —Permiñek esan zion—. Bei onetxek merezi dik. Umea ere aurrerako bikaiña ta zaku bat baba ematen al diok.

— Zerbait ere egin bearko diagu —erantzun zion Mielek.

Bazkaldu zutenean, esan zuan:

— Maritxu, zuk, astoarekin joanda, zaku bat baba ekarriko zenduke, ba, illuntzerako Ezeizanetik? An egoten da baba ona.

— Bai —erantzun zion—. Ekarriko det.

— Zoaz ta prestatu —erantzun zion aitak. Nik astoa prest jarriko det.

Jarri zuan azkar albarda. Baita kako txikiak ta bi zaku ta lotzeko soka ere. Alabak, ikusi zuanean:

— Txalma bearrik etzuan. Soka bakarra asko zan, aita.

— Ez, Maritxu, ez. Zaku baba motza eta lodia izaten da; eta, astoari utsik jartzen bazaio, tripa azpira jira liteke, ta oso gaizki ibiliko ziñake zuzentzeko. Orrela, berriz, Ezeizaneko nagusiari esaiozu emen daramazkizula bi zaku, eta oetako batera erdia botatzeko, eta bi zakuak alde banatan kakoe-tan jarri ta lotu. Axal bat naikoa du. Etzaizkizu mugituko ere. Beste zakuarekin tapatu ta etxera ederki etorriko zera.

Erteerakoan, amak dirua eta merienda eman zizkion, da aupa! Maritxu azkar iritxi zan Tolosara. Ezeizanera joan da, aitak esan bezela, zakua erdibitu, astoa kargatu ta ordaindu, ta etxera.

Kamioa utzi ta laisterbidea artzen zuanean amak emandako merienda jateko asmoan bazijoan, arre ta arre. Uste gabe batean, *fu-fi!*, txistua.

— Oi! —pentsatu zuan—. Ori Egileorko Joxeren txistua dek.

Atzera begiratu zuan, da gazte bat korrika.

— Joxe ote da? Ez diteke —pentsatu zuan—, Gaztelun da ta.

Barruan alako kezka bat sortu zitzaion. Lotsatu egiten zan pentsatzea Joxerekin bakarrik etxeraiño joatea. Eta beste aldetik nai zuan; poza sentitzen zuan.

Begiratu zuan atzera eta laisterrean ia arrapatu zuan. Joxe zan. Bai ezagutu ere. Ezin aurrera pausorik egin. Itxogin egin zuan iritxi zan arte.

— Maritxu, au poza zu emen gertatua! Nik zu ikusteko eta itzegiteko neukan gogoarekin! Nolaz zabilta emen?

Begietara begiratzen zion. Lengo lagun jator ura zan. Bernardok iseka egin zionean, defenditu zuan mutil leial ura. Ia errezelo guziak joan zitzaizkion. Lasaitu zan. Etzeukan bildurrik.

— Egia esan al didazu, benetan pozten zerala?

— Bai, Maritxu, bai. Aurtzarotik ain bat izan gera: eskolara batean, etxera batean, askotan gaiñera. Zu, gure Begoña ta irurok berezita etortzen giñan, eskolako gaiak aztertuz. Uste dezu aztu dezakedala? Ez. Nere barruan daude. Beti gogoratzen naiz. Eta dana esango banizu, etzenidake sinistuko. Barkatu. Ustu naia neukan zurekin, ta bearbada astunegia izan naiz.

— Ez, Joxe, ez. Nik gustora entzun dizut. Askotan oroitzen naiz gauza aietaz; ta geien, Bernardo iseka egin naiez asi zanean nola nere alde atera ziñan eta defenditu ninduzun. Bein ere ez dizut bear ainbat eskertuko.

— Bai. Uraxe ere bazan asiera. Geroztik ez det begi onez ikusten. Arroputza da ura —erantzun zion.

— Bai. Ala izango da, baiña barkatzen jakin bear degu.

— Ez da erreza, baiña saiatuko naiz. Zuk beti orrelako kontsejuak. Maritxu, santu egingo zera.

— Ez, Joxe. Ni pekataria. Badaukat lana zuzentzen.

— Iñork ez bagendu geiago, ondo giñake.

Eta izketa aldatzeko:

— Zer dala ta nik suerte au? —esan zion.

— Ba, oni suertea deitzen badiozu, gutxirekin konforme zera. Gaur goizean, biga suiza bat badegu Ernanitik eramana ta txekorra egin du. Goikoetxe-

ko osaba ta lengusuei deitu diegu, eta boston artean kendu diogu. Ederki kostata, baiña ondo. Txekor urruxa eta aundia. Errape bikaiña egin du. Aita, ari begira, txoratuta dago, ta osabak esan dio: "Onek zaku bat baba merezi dik". Eta, bazkaldu degunean, aren eske bialdu nau Tolosara. Joxe, nik emen amak emandako merienda daukat. Eta, kamioa uzten dedanean eta bidelaisterrean sartutakoan, jateko asmoa nuan. Baiña zu txistuka asi zera ta gero kontuak, eta ia aztuta nengoan.

— On egin deizula —esan zion Joxek.

— Ez noski neri bakarrik, bioi baizik. Labana badezu? —galdetu zion.

— Ez. Nik ez.

— Tori ta eskuekin erdibana zazu. Biok jan bear degu.

— Ez, Maritxu. Jan zuk.

— Ez, Joxe, ez. Bestela ez det nai batere. Emaidazu erdia; beste erdia zuretzat.

— Ezin dezaket ukatu. Zure naia beteko det.

Eta erdibitu ta ogia eman zion, ta txokolatea osorik. Neskak, arkaitz-mutur baten gainean jarri ta, *kax!*, puskatu ta eman zion mutillari. Onek:

— Zerorrek jan zazu.

Ta neskak:

— Ez, ez! Gure alkar billatzeko suerte onek merezi du ta ixtima zazu.

— Tira, ba. Zure naia ala bada, aintzakotzat arzen det. Eta zer berri gure baillaran?

— Izugarrizko berririk ez dago. Gaiñera pentsatuko dezu: egunez lanean nekatu, apaldu eta oiera joaten naiz. Arropak erantzi, oian sartu eta lo, buruko miñik gabe.

— Gustora egongo nintzake, eranzten ari zeranean, zarrail-txulotik begira.

— Zertarako? —esan zion Maritxuk, oso serio jarrita.

— Ez dakit, ba —erantzun zion.

Maritxuk esan zion:

— Lotsa eman bear lizuke itz oiek esateak, beti anai-arrebak bezela ibili gera alkarrekin da. Ez nuan uste, Joxe, orrelako gauzarik zuri entzuterik. Nunbait Gaztelu alde ortan asko ikasi dezu. Orretarako al zeneukan ni ikusi gabe ezin etsia? Ba, oker zabilta. Nik ez det orrela pentsatzen.

— Arren barkatu, Maritxu. Min det gogotik zu orrela naigabetua. Zentzugabekeri bat egin det arrokeriz. Txarrena da esana ez dagoala aztutzerik. Baiña obretan agertuko dizut eta konbentzituko zaitut zurekin ez detela orrelako asmorik. Al baliteke, utzi zazu aztutzen. Barkatu, Maritxu!

Alditxo batean ixilik joan ziran. Agin iturrira iritxi ziranean, Maritxuk esan zuan:

— Nik trago bat egin nai nuke. Ogiak egarria eman dit.

— Neri ere bai —erantzun zion Joxek—. Biok edango degu.

Ostera abiatu ziranean, zakutxo bat zeramakian eskuan Joxek, eta Maritxuk esan zion:

— Nai badezu, astoaren gainean jar ezazu zakutxo ori. Errezago joango zera.

— Arrazoi dezu.

Ta ala ipiñi zuan. Berriro modua zeukaten izketan asteko. Biak zeuden damutuak alkarri esandako itzengatik. Mutilla, neska mindu arazi zualako; ta neska, ezer gutxirengatik ain gogor itzegin ziola. Joxe asi zan:

— Ez dizut galdetu ere zure aita-amen da nere etxeko berri.

— Bietan ere ez da okerragorik —esan zion Maritxuk—. Eta zureak ez al dezazket jakin?

— Bai, noski. Ni oso ondo nago. Len ere esan nizuten ondo jaten genduala. Aitona oso ona da. Nagusi-etxeakoandreak ere bai. Aurrak ere zoragarri. Apalondoan-da aiekin jolasten naiz. Lana jakiña dago. Egin egin bear. Ezer ez egiteko ez dute nere bearrik. Baiña au ere gure etxean baiño geiago ez. Berena banintz bezela naukate. Lagunak, berriz, len esan nizuten zuri eta Begoñari, aitonak berak esan zidan gaiztoenak zeintsu ziran, eta etzan deskuidatu. Bat oso ona da: Lartekoa. Arekin geien ibiltzen naiz. Bi edo iru daude txatxu samarrak. Gaiñontzekoak, naiko onak. Neskak ere, bat ez besteak, onak dirudite.

— Bazenduan ba bat —zion Maritxuk— festatik etxerakoan laguntzeko-ta esaten zizuna. Gogoratzten naiz nola esan zenigun Begoñari ta bioi.

— Bai —erantzun zion—. Larteko Izaskun. Neska ona ta jatorra ematen du. Gabiltzan tokian beti nere inguruan da, ta ni ezin arengana urbildu. Itzegin biok alkarri oso poxal. Baiña illunabarra datorrenean, nolabait moldatzen naiz mutil lagunen batekin gelditzeko. Lagunak esaten didate motela naizela; errian dan neskarik politenak kaso egiten da ni igesi. Baiña barruan badet zerbait galerazten didana. Gaur konturatu naiz zer izango dan, biok izan degun ixillune artan. Zu izango gera, eta nazkagarrikeri bat zentzu gabe esan da zu naigabetu zaitut. Berriro eskatzen dizut: barka zaidazu.

Ori esan da eskutik eldu zion. Maritxu begira jarri zitzaion, da beste eskua arenaren gaiñean jarri ta esan zion:

— Bai, Joxe. Ziñez gaiñera. Ni ere damutua nago ederki gauza gutxirengatik ain gogor itzegiña. Barka zaidazu, eta gu bion artean ez bedi berritu

gauza ori geiago. Aurrera kontu izan dezagun, da txukun ibili. Utzi zaidazu eskutik, eta goazen etxera lenbailen, illunabarra dator eta.

— Eskerrik asko, Maritxu. Lasaitu dezu nere barrena. Esaten ari nintzan ango pasadizoak. Jaietan, emengo modura. Bazkalondoan, Inaxio ta biok mendira. Aiek beorrak dauzkate. Andik etorri, meriendatu ta eliz inguruan neska ta mutil kontu kontari. Soiñu-legeren bat norbaitek ateratzen badu, aitzeki gutxirekin dantzara edo poteka ibiltzera. Abemarietan, anjelus errezatu ta batzuk neska laguntzera. Ni bein ere ez naiz joan. Lau urte daramazkit an. Aspalditxoan ez nintzan gurasoetan izan. Atzo txerria il genduan; da gaur nagusiak jornala eman da esan dit, nai badet, astelena arte etxera etortzeko. Ni pozik. Etxekoandreak odolkiak eman dizkit. Eta zurekin ola gertatzeko suertea izan det.

— Ni ere pozik noa, ba. Urte auetan etzaitut nai guzian ikusi. Askotan gogoratzen zait zer jardunak eskolatik etxerakoan izaten genituan Ramona, Begoña ta laurok. Biar emen bazera, berriz itzegingo degu. Neri Begoñak pasako dit abisoa noiz ta norako.

— Baiña ez didazu esan jaietan nola jolasten zeraten, Maritxu.

— Gure berri zuk lendik badakizu. Bezperetatik irten da paseatu. Gero, kontu jardun bat; eta illun-terako etxera. Geienean neskak bakarrik. Guk, Begoñak-eta, alkar ez degu uzten. Aurreko batean, Bernardok, kanpoko mutil batekin, gu biok banakatzea nai zuan. Ezetz; ta, beti bezela, goitik asi zan: “Neska, amazapi urte baditun, eta garaia baden banaka asteko”. “Ori guk pentsatuko degu” esan genion. Gaizki iruditu zitzaion, eta lagunari esan zion: “Ez badute nai, goazik”. “Zergatik?” erantzun zion—. Alkarrekin joan esan ditek eta joan gindezkek”. Ala, batean joan giñan izketan. Gure soroko

atakara iritxi giñanean, agurtu ginduan. Bein edo bein Begoñari norbait agertzen zaio, baiña orduan ere irurok etortzen gera. Neri gertatzen bazait, berdin. Baiña nik ez nuke nai iñor etortzerik. Zuri bezelakoko zerbait gertatzen zaidala uste det.

— Bernardo etorri zitzaizuenean, pozik izango ziñan zu —Joxek esan zion.

— Noski! Maite nuana etorri ta nola ez, ba, pozik gelditu? —erantzun zion, da biak algara egin zuten—. Ez dakizu: lengo udaran, aitak igande-illuntzean jatena ebaki ta urrengo goizean Tolosara joan zan, da ni idiekin ura ekartzera. Kargatzen ari nintzala, laguntzera etorri zan. Ari giñan zerbait itzegiñez, eta eskua sartzen gonapetik etzan, ba, asi? Ni erne nengoan da bultza nion. Balantz egin da ia erori zan. Esan nion: “Nik euliak kentzeko ez det iñoren bearrik. Ortara etorri bazera, zenbat lenago aldegitea obe. Ez dezu paltarik batere egi-ten”. Zalapartan asi zan: “Arro al aiz, arro? I bezelako batzuk ikutu dizkiñagu. I baiño ederragoak ere bai”. Ez nion itzik erantzun. Begira egon zan da aldegin zuan. A zer pakea utzi zuan! Olaxe, Joxe, gure komeriak. Iritxi gera, ta gau ona pasa ta biar arte.

— Agur, Maritxu.

Orrelaxe banatu zan gure bikotea, nor bere etxera. Illunduxea zegoan.

Jaia

JOXE ia etxera iritxi zanean, anai gazteenak, Luixek, ikusi zuan, da egundoko irrintzia egin zuan. Ama taloak egiten ari zan; da, entzun zuanean, irten zan atarira, bere eskuetan orre-kutsuak zituala. Ta ikustekoa: Joxepa ta Luix Joxeren lepotik zintzilik. Jan bearrean zebilkiten.

Ori ikusi ta une berean kezka sortu zitzaion:

— Au morroi-lekutik bialdu egin die!

Joxe, ikustean, anai-arrebak berezi ta amaren-gana joan zan. Bai mantsoagatik bi musu galantak matrailletan eman ere.

— Zer? I emen? Bialdu egin al auea?

— Ez, ama, ez. Ni maite naukate. Jaia etxean pasatzeko esan didate, eta odolkiak eman dizkidate, zuk ixtimatuko dituzula ta. Gaiñera, soldata ere bai.

— Alare, alare! Orrela bada, ondo zegok. Taloak egitera natxik. Aita-ta ikuilluan dituk. Kaso egiek.

Etxe artan poz ederra sartu zan. Apaltzera maira bildu ziran, da Joxek aitari soldata eman zion:

— Aurten ogei duro geiago.

Aitak ala zion:

— Motell, au diru asko dek.

— Eskatu gabe eman dit, ba, aita. Baiña esan dit beste urte betean edo bian andik ateratzerik ez

pentsatzeko. Asteko arropa ere egin didate, eta jaierako elastikoa erosiko didala etxekoandreak. Zer esan bear diet? —galdetu zuan.

— Zer egin bear da, Paula? —galdetu zion aitak amari.

— Ez dakit, ba, nik. An ondo al ago, Joxe?

— Bai, ama. Obeto ezin.

— Orduan, Joxinaxio, bertan jarraitzea aiñarik ba al da?

Aitak:

— Nik uste ezetz. Ori ik esan bear dek.

— Bai, bai! Ni an ondo nago.

— Bueno —esan zuan aitak—. Soldata ere bi illabete lenago eman die, ta urte beteko agindu zaiek. Aurrerako, gero pentsatuko dek. Orain patrikarako zenbat bear dek?

— Batere ez. Baditut amaika pezta. Aitonak iñoiz propina ematen dit. Geienezan pezta; baiña gaur, erterakoan, duroa.

Patrikatik atera ta erakutsi zizkien bi duro, pezta bat eta lau zakur aundi ta bostekoa. Luix eta Joxepa salta zitzaizkion lepora:

— Pezta ori guretzat, Joxe! Guk batere ez degu.

Aita-amak erritan asi zitzaizkien aurrei. Ez alpe-
rrik! Auek etzioten uzten. Berak ere pozik eman zien, da auek amari, festetarako jasotzeko esanda.

— Motell, guk baiño diru geiago daukak. Nik auek libretan sartuko dizkiat. Lengoak ere an zeudek. Diru-mordoa egiten ari aiz.

Talo bat bakarra jan zuan, da amak:

— Jan zak, Joxe.

— Ez, ama. Naikoa jan det. Natorrela, Tolosa pasa ta laister, neska bat zijoan astoarekin aurretik, eta Maritxu Beristaingoa iruditu zait. Ardietara-

ko txistua, *fui-fui!*, egin det, eta usu ezagutu du. Nik ziur ezagutu dedanean, korrika arrapatu det eta biok etorri gera. Amak emandako merienda zeukan: ogia ta txokolatea. Esan diot ezetz, baiña alperrik. Erdibitzera beartu nau dana. Egia esan, oso gustora jan det.

Begoñak ogei ta amaikaren keiñua egin zion.

— Orain ez daukat gogorik.

Kontu jardun bat egin zuten, da oiera. Luixekin burrukan saio bat egin zuan. Ura baizuan oieko laguna, ta gero lo urrengo goizera arte.

Begoñak, bakarrik arrapatu zuanean, ala esan zion:

— Ño! Gustora etorriko ziñaten biok.

— Bai —erantzun zion—. Ni beintzat bai.

— Bai ura ere —esan zion Begoñak—. Ta gaurko zertan geratu zerate?

— Irekin erabakiko zendutela esan ziñen. Nik etze kiñat nola demonio alkarren berri jakiten dezuten.

— Ago lasai. Nik sorotik begiratzen badet, eta ark neri, ia bazekiagu alkarren berri.

— Sorgin arraioak zuek!

Meza nagusira joan ziran. Gero bazkaltzera. Begoñak Joxeri esan zion:

— Gu bezperetara giatxezik. I ere, nai badek, joan adi; edo, bestela, gero joan. Alkarrekin egongo gaituk.

Bazkalondoan, Andres ta Joxe kontu kontari zeuden, da Etxeberriko Iñaxio joan zitzaien. Aspaldian ikusi gabeak eta pozik egon ziran izketan.

— Ni mendira natxik, nai badek etorri. Gero andik errira joateko asmoa diat.

— Goazemak, motell —Joxek—. Urte auetan ez gaituk maizegi alkarrekin egon.

Ibillaldi ederra egin zuten bi lagunak, kontu zarrak berrituz.

Gero errira joan ziran. An baillarako danak dantzan zebiltzan. Ostatuan bazkaria zuten batzuek soiñujolea eraman da ura ari zan jotzen. Etzan atsegin. Azkar asi ziran aiek ere. Iñaxio oso dantzaria zan. Joxe ere pranko.

Txandaka zebiltzala, Begoña ta Maritxurekin gertatu ziran, da asi ta bereala soiñua ixildu. Kontu kontari alkar tentatuz, ostera *benga!*, ler egin arte. Geldiune batean Iñaxiok esan zion Joxeri:

— Etxerakoan, auetara arrimatuko al gaituk? Ni zuen Begoñaren ondoan gustora joango niñukek.

— Neregatik bai —erantzun zion Joxek.

Berriz urbildu ziranean:

— Begoña, ni zure ondoan gustora joango nintzake, ba. Ta Joxe ere joango litzake Maritxurekin —Iñaxiok esan zion.

— Ez dakit, ba. Len esanak baditugu, baiña ezetz esan diegu, len itz emanak gaudela ta. Ondo zatozte. Zuekin joango gera. Baiña erne ibili.

Berriz soiñua asi zuanean, laister joan ziran txanda-eske. Bai besteak pozik eman ere. Bereala Maritxu, *tak!*, gelditu zan da esan zuan:

— Ni etxeratzeko garaia da.

— Auxe bukatu arte —esan zuan Begoñak.

— Naikoa degu —erantzun zion Maritxuk.

— Goazen, ba —Joxek.

Laurak abiatu ziran kontu kontari. Maritxuk Joxeri esan zion:

— Nunbait ere ikasi dezu dantzan.

— Onek daki —erantzun zion Joxek—. Zuk ere ederki.

— Nun ikasi dek? —galdetu zion Iñaxiok.

— Gaztelun. An bazegok Izaskun izena duan neska bat, sorgin utsa eta dantzari amorratua. Aretxek erakusten zidak. Baiña ni ez izan ontarako noski. Ezin nauk moldatu. Irekin bai, egingo likek arek. A zer astindua emango ioken!

— Zu neretzako modu-modukoa zera, Joxe. Nai-koa badakizu —esan zion Maritxuk.

Ordu erdiko bidea zeukaten etxera, baiña ia ordubete egin zuten. Noizbait Egileorko atarira iritxi ziranean, Maritxuk esan zion:

— Gau ona pasa ta etxera noa.

— Ez, ez, ez! —salta zan Joxe—. Orrenbeste denbora alkar ikusi gabe ta mesedez utzi zaidazu zurekin joaten.

Begietara begira jarri zitzaion da:

— Ori nai badezu, atoz, ba —erantzun zion.

Bai pozik joan ere. Bide motxa zan. Aientzat motxegia.

— Ai, Maritxu! Bazeneki zer naigabea ematen didan joan bearrak! Berriz noiz ikusiko zaitut?

— Begira, Joxe: ori komeni bazaigu, Jaungoikok erabakiko du noiz. Eta, ez bada komeni, zer egingo degu, ba? Eztenaren aurka ostikoka aritzea alperrik dala esaten dute.

— Nun edo nundik, al badet, billatuko zaitut —esan zion Joxek.

— Ongi etorria izango zera —erantzun zion—. Gaztelun ere an daukazu Izaskun. Denborarekin gustatu igoal egingo zaizu, eta orduan nitaz aztu egingo zera.

— Ez —erantzun zion—. Zutaz ez ninteke aztu. Nolabait denbora joango da. Ni Izaskunengana ez naiz arrimatuko. Atzo esan nizun zergatik.

— Joxe, gu orrela asteko gaztegiak gera. Zuk oraindik emezortzi urte, eta nik amasei. Denbora dago.

— Bai, bai. Ori orrela da. Iritxiko da eguna, berriz ere alkar ikusiko deguna.

— Atzo —esan zion Maritxuk— batere uste gabe ara nola alkar jo genduan. Ez etsi, Joxe.

— Bai. Egin nuana egiteko: zu mindu arazi. Begoñari esan al diozu, Maritxu?

— Ez. Nik ez iñori.

— Ez esan, ez. Nik ere ez diot iñori esango.

— Gertatu zan tokian utzi genduan, da aztu. Orain aurrera. Ni ere saiatuko naiz, da zu ere saia zaitte. Jatorrak izaten bagera, zerbait izango da guretzat ere. Ama leiotik begiraka dago. Agur, Joxe, beste bat arte —esan da eskua luzatu zion.

Mandioaren asieran, illargi bete-betean zeuden. Bere bi eskuekin artu zituan Joxek Maritxuren biak, eta:

— Agur, Maritxu, agur —esan zion.

Eta eskuak erretiratuz:

— Nai dezun arte —erantzun zion.

Auzia

A STELENEAN, eguna argitzean, prest zegoan Joxe Gaztelura abiatzeko. Amak taloa ta esnea naikoa eman zion. Anai txikia artean etzan esnatu. Patrikatik atera ta duro zillarra eman zion amari. Bi zituan, da aietatik bat.

— Ez, Joxe, ez. Jaso zuretzat.

— Zuri eman nai dizut, ama. Nik patrikarako geiegi det. Berriz ere aitonak propina emango dit.

Kabitu eziñez jarri zan amaren barrua. Eldu lepotik eta bi musu aundi eman zizkion.

— Zu orain ere lengoa, Joxe.

Altua zan, baiña bai gustora makurtu ere, amak musu emateko.

Irten zuan, da Beristaiñera begiratu. Baiña Maritxu etzan ageri. Izkutatzera zijoala, berriz begiratu zuan, eta etxe aurreko intxaurrondotik agurka ari zitzaion. Berak ere bizkor agur egin zuan, da neska etxera sartu zan.

Andik aurrerakoak usu egin zituan. Iritxi zanean, Austin orduantxe astokada janarekin etxera irixten.

— Etorri aiz, Joxe? Ondo etorri. Etxean zer berri? Aitak zer dio?

— An ondo daude. Aita-amak eskumiñak eman dizkidate zuentzat. Zer ari zera, Austin?

— Jatenak egiten ari niñuan. Oraindik bi astokada palta dizkiat.

— Utzi, Austin. Ekarriko ditut. Zu joan perira.

Katalin da aitona sukaldean zeuden. Pozik ziran Joxe berriz ikustean. Aitonak:

— Salda emaiozu, Katalin, ederra dago ta. Andik onera etorrita merezi du.

Salda eman zion. Gaiñetik odolki-puska ere bai. Aldatu, astoa artu ta jaten billa. Bazkaldu bapo naiko odolki janez, da arratsaldean zerbait egiteko ere etzan gaizki jarri.

Austin peritik illuntzean etorri zan, da Joxeri asarre ote zegoan iruditu zitzaion. Kopeta beltz samar ote zeukan beintzat, eta apaltzekoan aitari esan zion:

— Ostolatzako Juanek okasioa eman dit: Pagamunttuko garalekuan guk ez degula biderik, andik ibiltzen gerala baiña. Nik esan diot andik ibiltzen gerala nere gogoanean. Geiago ez pasatzeko andik, eta derizkion guziak esan dizkit.

— Ik zer esan diok?

— Uste badu galerazteko deretxoa duala, nai duan tokira jotzeko, eta jarraituko diogula.

— Ori dek ederki esana. Len bezela segi. Ikusiko diagu nundik ateratzen dan.

Ondorengo egun batean, maiz baserrian oi dan bezela, garoa bukatuxe zala ta garotara joan bearko zala esan zion aitak.

— Pagamunttura joan adi. Ikusiko diagu gizon ori nundik ateratzen dan.

Austiñek beiak lotu, gurdia artu ta nagusi-morroiak garotara joan ziran. Bide pamatu ortan pasa ta gurdia kargatuxe zutenean, oartu ziran iru gizon betik gora zijoazela. Abiatu ziran da, bide artaraiño iritxi ziranean, iru gizonak aurrera.

— Alto! —esan zion Ostolatzak.

Austiñek esan zion:

— Len ere esan nian, nai uanean bear dan tokira deitzeko. Ez dek testigu bearrik. Nik ez diat ukatuko. Baiña juzgaduak galerazi arte, ementxe pasako nauk.

Bi gizon oietako bat, *rau!*, aurrera atera zitzaion, burrukarako bezela, ta:

— Ez aiz emen pasako! —esan zion.

Austiñek:

— Zertara etorri aiz?

— Ni testigantzara.

— Orduan, galdetzen dienean, esan zak pasa naizen edo ez.

Ondoren, “Aida!” esan zien beiei. Bestea baztertu egin zan, da Austin aurrera. Aurreko aldera pasa irurok, eta Ostolatzak esan beste bie:

— Testigu izango zerate.

— Ooo! —esan zien Austiñek beiei, ta Ostolatzari—: Ez dek testigu bearrik. Len ere esan diat.

— Aida! —beiei esan da aurrera segitu zuan Joxerekin. Au bildurtuta zegoan.

Etixeratu ziranean, aita zai zegoan, da:

— Zer? —galdetu zion semeari.

— Utsa. Alto eman digute. Esan diot lengoa: nai duan tokira deitzeko ta jarraituko diogula. “Testigu izango zerate” esan die eraman dituan. Nik esan diot, juezak bestela agindu arte andik ibiliko gerala. Lentxeagotik entzunda nengoan tabernan-da, gaizki esaka-ta aritzen zala guregatik. Ez dakit inbiri-puskaren bat-edo. Baiña guri inbiria zergatik?

— Utsa —erantzun zion aita—. Orren aita orrelakoxea uan. Etxeberrikoekin eskandalo ederrak sortu zetin, da dana kaka eginda gelditu uan. Orain

ere orixe gertatuko zaiok. Ago lasai. Gizalegetik ez atera. Eskuekin kontu. Azkenean, besterik ezin egin dutenean, ortaratzen dituk oiek: nola-ala amorraziti ta burrukara beartu.

— Beartzen bagaitu, laister egingo ditut nik orrekikoak.

— Beidok gero! Orixe esan nai nian! Orduantxe egingo ukek kaka ere burua. Ez orrekin trukatu.

Baretu zan jenioz ta aurrera lanak. Segi bizimoduan. Baiña andik illabetera-edo, aguazillak:

— Datorren ostegunean zortzi, eguerdiko ama-bietan, juizioa daukazute, ta kontzejura zintzo joan. Ara emen papera. Au emen firmatu.

Irakurri zuan, da firmatu ere bai. Gauza serio zijoan. Aita-semeak alkarri begira zeuden.

— Zer egin bear degu? —esan zuan semeak.

— Lasai egon. Gu gure denbora guzian ortik ibili gaituk. Sekula iñork etziguk itzik esan. Orren aitak ere ez. Ta orain ume zikin ori pretentsio oiekin. Etzekiat zer naiko duan. Baiña alperrik ibiliko dek.

— Seguru al zaude, aita?

— Bai, seme, bai. Beartzen baaiz, ortxe zeudek Iturriko Miel ta Urriztiko Joan Krutz, oiek biak gure etxean morroi egonak. Ni Joan Krutzetzaz gogoratzan nauk.

— Biak ere larogei-ta urteak. Mielek amar ere alde. Itzegin zak.

— Orixe egingo det.

Ondorengo egun batean, Joan Krutzengana joan zan, da onek:

— Bai, motell. Gu bide ortatik ibiltzen giñuan. Nik iru urte egin nizkian, zuen aita txikia zala. Nere aurretik Iturriko Miel egondu uan zuen etxean.

— Joan Krutz, beartzen bagera, esango al zenuke ori juzgaduan?

— Esango ez diat, ba? Nai dekenean deitu.

Au agurtu ta Mielengana joan zan Austin. Bastoia ankartean zuala, atarian intxaurpean zegoan itzalean. Aiton polita bai. Agurtu ta izketan asi zanean:

— Ez aut ezagutzen —esan zion.

— Ni Azpikoetxeko Antonioren semea.

— Austin orduan. Ikusi ere gutxi egiten diat, eta ez aut ezagutu. Zer abil?

Adierazi zionean:

— Orain irurogei ta emezortzi urte andik aldegin nuala. Ni amabi urterekin joan niñuan morroi zuen etxera, ta orduan oraingo tokian uan bidea. Gu andik ibiltzen giñuan, da orduan ez uan oiena garaleku ori. Tolosan zian nagusia. Ni zuen etxean nengoala erosi zien. Zuen aitonak pena zian ez jakiña. Berak erosi nai zian. Gu or ibili giñuan bide ortan, da iñork etzigun kasorik egin. Nere ondoren, Urriztiko Joan Krutz egon uan zuen etxean. Ark ere ala esan bearko dik.

— Bai. Alaxé esan dit. Beartzen bagera, ori esango al dezu juzgaduan?

— Nik bai.

— Eskerrik asko, Miel.

— Aitari eskumiñak emaizkiok.

— Bai. Zure partetik.

Laister zan etxean. Ikuilluan ari ziran Joxe ta Katalin.

— Gabon.

— Etorri al zera?

— Bai. Zertan asi bear det?

— Alda zaitez. Ia bukatu ditugu.

— Aita nun dago?

— Goien. Zoaz.

Gora joan zan Austin, da sukaldean ikusi zuan aita.

— Gabon. Zer ari zera?

— Patatak zuritzen ari nauk biarko.

— Ez daukazu lan aundirik.

— Ez, orixe, ez. Zuek beti ola zerate. Auek biar Kataliñek zuritu bearko zizkian. Orain egiñak zeudek. Zer dek: ondo artu al aute?

— Bai, aita. Lenengo Joan Krutzengana joan naiz. Onek, andik ibiltzen zirala ta esango duala. Gero, Mielengana. Arritu nau. Ia larogei ta amabi edo amalau urte. Ez dakit zenbat esan didan. Baiña zimel-zimela dago. Atariko intxaurpean zegoan. Ez nau ezagutu. Esan diodanean, poztu egin da, da esan dit aiek andik ibiltzen zirala. Oiek, Miel gure aitonaren morroi zegoala erosi zutela. Gure aitonak edo zure aitak...

— Bai. Berdin dik.

— Erosi nai zuala; eta min eman ziola, ark jakin gabe, bestek erosteak. Gero, ura emen zan arte, andik ibili zirala.

— Oiek arrazoi aundiak dituk. Bejondaikela.

Eguna iritxi zanean, joan zan Miel esandako ordurako kontzejura. Ostolatza zai zegoan, gizon dotore batekin.

Iriki zuan juezak auzi ori. Irakurri zuan Ostolatzaren denuntzia: nola Azpikoetxeakoak beren garaiekura arenetik pasatzen zirala, eta etzutela andik biderik. Alto ematera joan eta etziola egin kasorik.

— Emen daude bi testigu.

Juezak auei galdetu zien:

— Egia al da andik pasa zala?

— Bai, jauna, bai —erantzun zioten—. Beiak ta zu, Austin.

— Egia al da onek esan duana?

— Dana ez —erantzun zion.

— Zer da, ba, egia ez dana?

— Orrek esan du orrenetik pasatzen generala, ta andik ez degula biderik. Juez jauna, aitarekin itze-
gin det, eta esan dit bere denbora guzian andik
pasa generala, eta egundaiño ez diola iñork altorik
eman. Neri ere ez orain arte.

— Eta orain zergatik eman dizu?

— Ori berak jakingo du.

Juezak galdetu zion Ostolatzari:

— Ta zergatik eman zenion alto?

— Orrek bide artatik ez duelako deretxorik, eta
nik ez detelako nai andik ibiltzea.

— Orrenbestez bukatzen degu. Bioi joango zai-
zute epaia.

Aldegin zuten salatik. Ostolatza bere gizonarekin
an gelditu zan, eta Austin etxera. Aita zai zegoan.
Semeak esan zizkion gorabera guziak, eta:

— Orain itxogin epaia eman arte. Amar egun
baiño len emango ditek.

Egun batzuetara, illunabarrean, menditik irixte-
an, aguazilla etxera sobre batekin, da:

— Ara emen zuen epaia. Emen firmatuko al
didazu nola eman dizudan?

Firmatu zuan Austiñek papera, ta besteak jaso.
Bai laister sukaldera joan da irakurri ere. Esaten
zuan:

“Orrenbeste urtean andik baldin badute bidea
iñork kontra egin gabe, deretxoa daukate andik
ibiltzeko, ta iñork ez dezaieke galerazi”.

Au irakurri zuanean, Austiñek salto egin zuan. Aitona ere su-baztarretik zutitu zan, bi besoak altxata:

— Irabazi diagu! Gaur apari ona egin bear diagu.

Austin ikuillura jetxi ta Kataliñi esan zion:

— Irabazi degu auzia! Aitak dio apari ohea egin bear degula.

— Zer jarriko det, ba, Austin?

— Ori aitak esango dizu.

Joan zan gora, ta aita sukaldean bueltaka zebillen, aldian besoak altxaz.

— Pozik zaude, aita.

— Bai orixel! Gaur apari ona egin bear degu.

— Zer jarriko det?

— Ez dakit, ba, nik.

— Patata prejituekin tortilla?

— Berdin.

— Bereala asiko naiz zuritzen.

— Or dauzkazu zurituta.

— Eskerrik asko.

Gau artan Azpikoetxen pozez zorutzen zeuden. Etzan beste munduko gauza: len zutena ez kentzea bakarrik.

Urrengo egunean, Ostolatza, suak artuta, Tolosara joan zan lege-gizonarengana, ea zer egin zezakean.

— Apelatu —esan zion—. Zortzi egun baiño len egin bear da.

— Ta aterako al degu ori?

— Aurretik ez dira jakiten gauzak. Baiña zuk neri esan bezela badira, larri ibiliko degu.

— Orduan, lertu arte segi!

Ala, apelatu zuan. Urrango auzia Tolosan izango zan. Eguna jarri zuan juezak noizko, ta lege-gizon billa joan zan Austin. Don Luis Castro pamatua zan. Oni agertu zion dana. Don Luisek esan zion:

— Irabazi edo galdu, zer egingo dezun jakiteko, neri egi utsa esan bear didazu.

Bai esan ere dana zeatz ta meatz. Bukatu zua-nean:

— Testigu oiekin itzegin nai nuke, juzgadura joan aurretik. Ordubete lenago ekartzea naikoa dezu. Zuk esan bezela badira gauzak, eunetatik larogei gure alde daude.

Iritxi zan eguna. Al zuan bezela, bi aitonekin joan zan Castroren etxera. Artu zituan galdezka, da len zekiana biak, eta noizbait Mielek:

— Oiek len etzuten berena garaleku ori. Ni auen etxean nengoala erosi zuten, da onen aitona atsekabetu zala gogoan daukat. Orduan ere gu andik ibiltzen, da ez det gogoan iñork galerazia.

— Zenbat urte dira?

— Irurogei ta amabitik amabostera.

— Oso ederki, aitona. Orrelaxe esan an ere.

Beren garaian joan ziran. Ordua irixtean, asi zan juizioa. Lenengo, Ostolatzaren testiguak itzegin zuten. Galdetu zioten ea bein ere len alto eman zioten, da baietz:

— Orain irurogei ta amalau urte.

— Gaztea izango ziñan?

— Bai. Bederatzi-amar urte.

Castrok galdetu zion:

— Ziur al zaude gauza orretzaz?

— Bai —erantzun zion.

Mielek belarrira Austiñeri esan zion:

— Gezurra esan du. Artean etzan oiena.

Lenengo, Joan Krutzi deitu zioten. Egia esango zuala zin eginda, galdetu zioten ea beti andik pasatzen al ziran.

— Bai, jauna.

— Galerazi al zizuten bein ere?

— Ez, jauna, ez. Bide ura konpontzen jarduna gogoan daukat.

— Zu nolaz?

— Ni an morroi nengoan.

Ostolatzaren lege-gizonak galdetu zion:

— Egia al da auen aitak galerazi nai izan ziola andik pasatzen?

— Ez, jauna.

— Zu Gaztelun etziñala gerta zitekean.

— Ez, jauna. Ni beti Gaztelun bizitu naiz, da orrelako gauzarik an ez diteke pasa danak jakin gabe.

— Soldaduskako garaian Gaztelun egon al ziñan?

— Bai, jauna.

— Nola liteke?

— Ikustea oso motza det eta inutil eman zidaten.

Gero, Mieli. Berdin: ziña ta galderak. Juezak:

— Azpikoetxeok andik ibiltzen al ziran?

— Bai, jauna. Ni ango morroi nintzan denboran bai beintzat.

— Noiz ziñan zu an morroi?

— Irurogei ta zortzi urtetik amaikera.

— Gaztea izango ziñan?

— Bai. Amabitik amabost urtera bitartean.

Ostolatzaren lege-gizon ori asi zitzaion galdezka:

— Testigu batek esan du, ba, galerazi ziotela. Egia da ori?

— Ez, jauna. Ez da egia. Eta, gaiñera, orrek esan dituan urteetan, oiek etziran Gaztelun bizi.

— Nun, ba?

— Leaburutik etorri ziran, ni ezkondu nintzan urtean. Antxe nintzan berekin karraioa egiten.

— Noiz zan ori?

— Orain berrogei ta amabost urte.

Gero, Castrok juez jaunari galdetu zion:

— Nolaz dan oiena argitasunik bai al dago?

— Bai. Ara emen eskritura. Erosi egin zuten.

— Noiz?

— Apirillaren 11'n, 1882 urtean. Furundarena jaunaren eskritura da.

— Orduan, testigu orrek esan duan urteetan etzan oiena, ta nola galerazi zezaioketen? Besterik ez, juez jauna.

Alako batean, Castrok abisatu zion Austiñi sententziak irten zuala, ta irabazi gaiñera.

Joan zan Castrorengana kontuak egin naiez, da esan zion deretxoa zeukala bide artan da sententzi ura jasotzeko gerorako; eta, beartzen bazan, berriz ere joateko.

Ea, ba, zenbat ordaindu bear zion, da batere ez: juezak bion gastuak ari erantsi zizkiola. Esker beroak emanez agurtu zuan.

Etxera bidean, kale-ertzean, sardiña-saltzaillea. Ari sardiñak erosi eta pozik joan zan etxera.

Aita zai zegoan. Gertatua jakin zuanean, poztu zan, da semeari ala esan zion:

— Aita olaxe ibiltzen uan. Au ere orrela zebillek. Maiz badabil, eskarmentatuko die.

Orrela bukatu zan fundamentu gabe asitako auzia.

Gazpioko Esteban

EGURALDI polita zegoan da Miel da Mari-txu, jatenak egin ondoren, belaze aundi-ra joan ziran bordan azpia jartzera, garoa sartzera alegia, Egileorko ardiak barrutira eramaten zituzte-nean, simaurra egin zezaten.

Garoa bordan zabaltzen ari zirala, Maritxu oartu zan norbaitek deitzen zuala. Irten zan bordatik, eta azpiko aldean berealdiko karraxiak emakume batek. Deitu zion aitari. Onek irten zuan eta, karraxiak entzutean, salta zan alde artara. Bai atzetik alaba ere, ta zer izango?

Gazpiokoak sua egiteko egurraren billa joan garalekura; an bost pago zituzten, da bat muarratua zeukaten surtarako ekartzeko. Roman gaixo samar, da ura etxean utzi ta Esteban da Anjeles biak joan beiak artuta, eta gurdia dexente kargatu dute; ta, nola pagoak ezetan pisu aundia duan, uste baiño pisu geiago jarri.

Abiatu dira etxera, Anjeles itzai eta Esteban azpiko aldetik eusten irauli gabe. Esaera zarra da dabillanak deskuidoa maiz izaten duala, ta orduan ere ala gertatu. Esteban apurren bat deskuidatu gurdiari eusten, da or etzaio, ba, gurdia oartu gabe gaiñera etorri? Ta ain suerte txarrarekin, bera azpian arrapatu, burua bakarrik kanpoan duala.

Orregatik Anjeles karraxika, zer egin etzekiala, anaia ala gertatu zanean.

Mielek ikusi zuanean, azkar jabetu zan zer egin bear zuan. Bizkarrarekin etzegoan gurdia altxatzerik. Karga askoz geiegia zan. Beiak pertikatik atera eta garai aldera eraman zituan. Burutako soka askatu, beien uztarriari kurtede-zulotik erantsi eta beste muturra gurdiari lotu zion, da Maritxuri esan:

— Erne! Nik beiei deitzean, or gora tira; ta, gurdia zutitzen danean, gelditu. Nik, bitartean, Esteban aterako det azpitik.

— Aida, beiak! —orro egin zuan.

Bai Maritxuk adarretatik artu ta akuilluarekin usu ziztatu ere. *Rau!*, gurdia altxatzen asi zan. Mielek eldu ta Esteban gurdipetik atera ere bai azkar.

— Bizi da! —esan zuan.

Ordurako gurdia zutik zegoan, eta Maritxuk beiak gelditu zituan. Aitak esan:

— Bei oiei soka askatu eta aurreko lizar orri soka orrekin lotu eta egon emen. Norbait etorriko da laguntzera. Gu etxera goaz Esteban artuta.

Eta Anjelesi:

— Etxera joan da oia prestatu. Nik eramango det Esteban.

Urte batzuk ere bai ta pranko gogortzen asia zegoan Anjeles. Baiña ala ere usu aldegin zuan.

Al zuan polikiena bizkarrean artu ta Gazpiora abiatu ziran. Etziran bereala iritxi. Gizona, berez gauza ez danean, zaila da eramaten.

Goikoetxeko bordara iritxi ziranean, poliki-poliki lizarpean utzi zuan. Itxogiteko, eta Mielek, bordara joan da eskaillera borda-ganbarara igotzeko zegoana ekarri zuan, eta aren gainean jarri. Bitartean Anjeles atzera etorri, eta berak eta Maritxuk aurretik, eta Mielek atzetik artuta, orduan bai pranko errez ekarri zuten, Esteban gizaixoa antsika zutela.

Noizbait iritxi ziran. Etxeko anaiak, sumatu zituanean, atera zitzaien.

— Zer da au, motellek? —galdetu zuan.

— Dabilenak deskuidoa —esan zion Mielek—. Gurdia kargatuta datozela, gure belaze-parean irauli egin zaie, eta Esteban azpian arrapatu du. Baiña orain ez da itzegiteko denbora. Medikua azkar!

Goikoetxeko Mieltxo bialdu zuten billa, alik azkarrena etortzeko medikuari esatera.

Anjeles gaixoa negarrez zebillen baztarrak txukuntzen, arrunt txundituta.

Ala zirala, Bekoetxe'ko Praisku pasaizoan, da zer zan galdetu zuan. Romanek esan zion dana zan bezela, da erantzun zion:

— Kulpak ik dituk, Roman. Zertan bialdu dituk bi txoro oiek beiekin egurretara? Ez al dakik zenbat juizio duten? Olaxe zuzendu bearrekoa aiz erorri ere. Ni presaka natxebillek eta etzeukat laguntzerik.

— Ez, ez —erantzun zion—. Moldatuko gaituk.

Min eman zion entzun zuan arrazoiak.

— Aluak eta arro gaizto fama dezute, baiña zerbait izango dek. Zuen bearrean bageunde, leku ederean gentxokek.

Maritxu Anjelesi laguntzen ari zan. Aitak deitu zion da esan:

— Zoaz Egileorrera. Osaba Permin ez da etxean, eta Joxinaxiori esan zaiozu zer gertatu zaigun, da ea beiak eta gurdia ekartzeko modua egiten duan. Aruntzean etxera zoaz, eta zerbait artu.

Ala, gorakoan Egileorrera joan zan, da Paulari esan zion zertara zetorren. Au etzegoan, Praisku bezela, presaka. Zegoana zegoan tokian utzi ta salta zan Joxinaxioren billa.

Iturri ondoko soroan zan au, arbi eske joana astoarekin. Onek berdin: zegoana zegoan tokian utzi ta:

— Goazen, Maritxu! —esan zion.

Da Paulak:

— Ez. Joaterako zerbait artu, gosetu egingo zerate ta.

Aza-salda zeukan da eman zien biei. Maritxuk, etxean artuko zuala. Baiña Paulak etzion utzi, "Ixtima zazu" esanez.

Ala, artu egin zuan. Gaiñetik gazta ta ogia eman zizkion. Bai ixtimatu ere. Gazta oso ona izaten baituzten.

Bidean zijoaztela, Maritxuk esan zizkion Joxinaxiori gertatutako denak, ta onek:

— Zuk diozun bezela bada, ea naiko min baduan Estebanek.

Iritxi ziranean, an zeuden bei-parea lizarrari lotuta; eta gurdia, utzi zuten bezela, zutik. Ikusi zuanean, Joxinaxiok ala zion:

— Au gurdi izugarria da. Geiegi kargatua. Ea lanak izaten ditugun zutik eramaten aurreko bide-gurutzeraiño. Andik aurrera bai, bide ona dago ta. Zuk nun dituzu idiak, Maritxu?

— Nik belaze aundiko borda-atarian, beren gurdiarekin, lizar bati lotuta, auek bezelaxe. Baiña aiei ez kasorik egin. Aien billa, au eramandakoan etorriko naiz.

— Ea, ba, Maritxu, sartu ditzagun pertikan.

Bien artean sartu zituzten.

— Orain, Maritxu, zuk itzaintza egiten badezu, ni saiaturko naiz gurdiari irauli gabe eusten. Iraul bildur aundia ikusten dezunean, deitu neri ernexego jartzeko. Alegiñak egingo ditut.

— Bai, Joxinaxio. Ea, ba, nai dezunean.

— Aida, aida, beiak! Emen erne! Orain lasai! Orain erne! Oso txarra dago. Mantxo joan, Maritxu! Orain lasai! Erne emen!

Orrelaxe, pazientziz iritxi ziran bide-gurutzeraiño.

— Bejondaizula, Maritxu! Etzaude itzai makala!

— Bai, zera! Zuk gurdiari zintzo eutsi diozulako, Joxinaxio.

— Arrazoi dezu. Biok alkarri lagundu diogulako. Onez aurrera bakarrik joan ninteke.

— Ea, ba, Joxinaxio. Ni, idiak artu ta berealaxe naiz atzetik. Gero arte.

— Bai; zoaz.

Goiko bordara igo, idiak artu ta laister zan neskatxa atzetik, Beristaiñera joan zan idiekin Maritxu, ta amari esan zion gertatu zan guzia: Joxinaxio gurdiarekin nola zijoan, da aita Gazpion gelditu zala; Mieltxo nola joan zan medikuaren billa.

— Aska itzazu idi auek uztarritik, eta gabelan lotu. Nik ere joan bear det azkar Anjelesi laguntzera. Orrelakoetan alkarri ez laguntzekeroz, arrizkoa bear du izan.

— Zoaz, ama, zoaz!

Erdi laisterrean joan zan. Anjeles gaixoak ixtimatu zuan. An zebillen erdi negarrez batetik bestera, zer egiten zuan etzekiala. Estebanek min asko zeukan. Roman ere arrunt jota zegoan, anaia orrela ikusita. Miel an zegoan prest bear zana egiteko.

Goikoetxeko Permin eta Etxeberriko Paulo esia egiten ari ziran, biak ardiak bai-baizituzten, eta Bekotxeko Praiskuk esan zien zer gertatu zan, onela:

— Roman erdi gaizki dagola-ta, Esteban da Anjeles egurretara joan. Pagoa muarratu berria, ta egurra pisua. Ta zer egin die? Geiegi kargatu. Eta, abiatu diranean, irauli ta Esteban azpian artu gur-

diak. Mielek nola-ala aterea izango dik guriaren azpitik. Roman bera, badakizute, erdi txoroa dek, eta geiago egin dik oiek beiak eman da bialtzea. Jakiña zegoan gauza onik etzutela egingo bi txoro oiek. Orain nozituko die merezi bezela, nazkagarri aulak, ez bestenak!

— Praisku, Praisku! —erantzun zion Permiñek—. Dabilenari gertatzen zaizkio gauza oiek. Ez dira orren eskasak ere. Pertsona onak dira.

— Onak dirala, onak, aul oiek? Proporzio ederra daukak, nai badek, eta lagundu zaiek. Neri Mielek esan zidak, baiña aldegin egin diat.

Gero arte esan da bere bidean jarraitu zuan.

Inpresio egin zien bie Periskuren mintzatzeko erak.

— Ori dek gizona, ori! Len ere banetxekian zelebrea zala, baiña ain alua zanik ez. Zer uste du: Jainkoa dala?

— Zer egin bear degu, Permin? —galdetu zion Paulok.

— Nik uste, ara joan. Bearbada, klinikaren batera joan bearra igoal izango dek; eta lagundu bear danean ez laguntzekeroz, kristau izatea ez dek. Zertarako elizara joan? —erantzun zion.

— Goazemak segituan, Permin.

Biak, aizkorak artu ta etxeruntz abiatu ziran presaka. Gazpioko atarira iritxi ziranean, medikua- ren zaldia ikusi zuten, da Miel da Joxinaxio mandioan. Arrimatu ziran da:

— Arratsalde on. Zer degu? —galdetu zuten.

— Gauza onik ez —erantzun zien Mielek.

— Zer moduz dago? —Permiñek.

— Nik etzekiat, baiña oso ondo ez —erantzun zion Mielek—. Medikua or dek barrenen. Ikusiko diagu zer esaten duan. Nola jakin dezute?

— Bekotxeko Praiskuk esan ziguk. Arrituta utzi gatxiok. Txoro ta alu ta aul aren marmarra, bera Jainkoa balitz bezela!

Orrela izketan ari zirala, irten zan medikua ta esan zien:

— Min asko dauka. Nik gutxi nezake. Esan diet Tolosako ospitalera eraman bearako dutela. An mediku oso ona dago ta nik uste ark senda dezake-la. Eraman egin bear.

Agur esan, zaldia artu eta alde egin zuan medikuak. Romanek irten zuan da esan zien zer egin bearra zeukaten. Negar egiten zuan:

— Lasai, Roman, lasai! Guk eramango degu kamiora, eta andik kotxeak eramango du —esan zuen Mielek—. Norbait bearako du ondoan zaintzeko.

— Ni joango naiz, Miel —esan zuan Romanek—. Norbaitek gure Anjelesi lagunduko al diozute?

— Zu lasai egon an, Roman! Emengo lanak nik egingo ditut.

— Nola eramango degu? —galdetu zuan Mielek.

— Nik etzekiat, ba —Paulok.

— Errezena ta ondoena eskailleran, nik uste —zian Mielek.

— Bueno, ola egin dezagun, ba.

— Gure etxean bazegok oso eskaillera polita, eta ura ekarriko diat nik —esan zuan Paulok.

— Ara emen —erantzun zian Mielek—. Au Permiñen bordatik artu diagu, ta onen gaiñean etorri dek.

— Ez —esan zian Paulok—. Au baiño politagoa ekarriko diat nik.

Baita ekarri ere. Ziri gaiñean bi bulko jarri zizkioten beragarritarako, eta Esteban gaiñean jarri zuten, al zan polikiena. Buru parean beste bulkoa.

Artara, laurak bizkarrean, aurrean Paulo ta Permin, atzean Joxinaxio ta Miel. Alik polikiena joanda ere, Esteban asko kejatzen zan, min artzen zuala ta, baiña eraman egin bear. Ara naiko komeri.

Roman aurrera joan zan automobilla bide-gurutzera ekartzera.

Ez nai orduko, baiña noizbait iritxi ziran, da alboko baserriko legorpean utzi zuten. Ura deskan-tsua! Ordu t'erdi ura bizkarrean zutela, ederki aspertu ziran. Baiña geiena Esteban, mugimentu bakoitzean min artzen baizuan.

Ia illunabartzen asi zuan, Roman automobillarekin etorri zanean. An sartu zuten, al zan modurik onenean, ta bi anaiak ospitalera eta lau gizonak etxera, eskaillera bizkarrean artuta.

— Gizaixoa! Gertatu zaiok, ba, orri ori —zion Joxinaxiok.

— Dabillena deskuidatzen da —erantzun zion Mielek.

Permiñek esan zuan:

— Beti Roman ibili izan dek aurrena, ta auek, anai-arrebak, ardiaren atzetik arkumea bezela aren atzetik, eta arduratu ez ta eskarmenturik ez.

- Ala izango dek, bai, Permin —zion Paulok—. *Ttur-ttur-ttur*, atzetik ibili nai, baiña eskarmentua palta.

— Nik uste —esan zuan Mielek— orrelako zerbait ere izango dala. Baiña baita ere egurra ezea, arakilla lodi antxa, ta uste gabe pisu geiegi jarri. Gurdia kargatu oso ondo egiña zegoan, bere leka biur eta guzi. Pentsa zazute: beiak burutako soka erantsi ta zuzendu edo zutitu diagu, ta gurdia dotore gelditu dek.

— Egia esan dezu, Miel: pisuarena seguru. Kargatu bai oso ondo. Baiña beiak ere oso biziak. Anjeles gaixoa itzai ibili gabea, berriz, ta toki txarrean

azkar ibiltzea txarra da. Maritxu zuena izan balitz itzai, ez det uste irauliko zanik. Nik esaten nion "Kontuz, Maritxu", ta berak esaten zidan nun dagoan iraul bildurra, eta oso errez ekarri degu biok Agiñetako bide-gurutzera. Dana dala, gertatua gertatu, ez dakit zer pentsatuko dezuten, baiña Anjeles gaixoa ez da ederki gelditu. Gau ona pasa ta biar arte —esan da banatu ziran.

Miel etxeratu zanean, ama-alabak apaltzen ari ziran, da Joxepak esan zion aitari Anjelesekin negarez erregutu ziola Maritxu bialtzeko gauerako. Bildurtu egiten zala bakarrik.

— Gaixoa! Ta zuk zer esan diozu?

— Zuri esango dizudala.

— Entzuten dezu, Maritxu —esan zion aitak—. Zuk nai dezu joan?

— Aita, nik zuen ondoan askoz naiago nuke. Baiña ala gertatuko banintz, naiko nuke laguntzea. Zuek ere nai badezute, joan berdin egingo naiz.

— Bai. Zoaz. Obra on bat egingo dezu. Orrek egunen batean ordaiña ekarriko dizu.

Ala, apaltzez bukatu zutenean, Maritxu zuzenean Gazpiora joan zan. Ateak jo zituan, da zein ote zan bildurrez dardar ateetara etorri zan Anjeles, eta:

— Zein da? —galdetu zuan.

— Maritxu naiz, Anjeles; Maritxu.

Rau!, atea iriki zuan.

— O, au poza! Esteban ola, Roman ondo ez eta kanpoan, bildurrak dardar nengoan bakarrik etxean. Sekula ez bainaiz gertatu.

Laister oieratu ziran biak. Gela batean egin bear zutela; aita-ama zanak egoten ziran gelan. Pranko txukuna zegoan: bi kutxa, kopre bat, bi mesanotxe, iru aulki ta bi oi. Baiña jergoiaren orde, lastaira zeukaten, ta tapatzeko koltxoia oi-azalean sartuta. Errezoak egin da oiean sartu ziran, biak banatan.

Lendabizitik, Maritxuri arrotz egin zitzaion, baiña bereala lo artu zuan, da urrengo goiza arte. Lengo jeiki-oiturara esnatu ta altxa zan. Ordurako Anjeles lanak egiten ari zan. Ari zerbait lagundu ta etxera joan zan aita-amengana, "Gero arte" Anjelesi esanda.

Bazkaltzen ari zirala, esan zizkien nolako oiean lo egin zuan da zein arrotz egin zitzaion.

— Asko dezu, Maritxu —esan zion amak—. Beste etxeko gauzak ez dira esan bear. Izen ona galdu dezaiezuke. Gaixoak oiak orrela dauzkatela eta beste gauza geiago ere ikusiko dituzu. Bear-tsuagoak dirala? Ori ez da lotsagarri. Oso jende onak dira. Zuk badakizu. Ori da gizakiok izan deza-kegun gauzarik ederrena. Gaiztoa izatea da gizakia-rentzat gauzarik txarrena. Aberatsa bada ere, iñork ez du konfiantzarik arekin. Iñori an zer dagoan ez esan. Ezta lagunik aundienari ere.

— Baiña, ama! Zuei ere ez?

— Bai. Guri bai. Guri dena. Guk zuri ere bai. Bakarra zaitugu, maite ori. Gu irurok bat gera, eta gure artean ez du bear gordekaitzik —erantzun zion aítak.

Lasaitu zan alaba. Betiko moduko bizitza egiñez jarraitu zuten. Baiña Gazpiokoak ere egin bear eta lan geiago. An ere ganaduak, eta aiei kaso egin. Anjeles artan oitu gabea baizan.

Laugarren egunean agertu zan Roman. Esteban naiko gaizki zegoala: anka autsia bat, bi kostilla-egur ere bai, ta naiko lanak.

Eguerdirako etorri zan, da arratserako osteratizuli bear. Mielengana joan zan. Onek lasai ibiltze-ko esan; ango lanak egingo zituztela.

Okerrago

BERRIZ ere, lau egunetara, Roman etorri zan eguerdi batean etxera notizi kaskarrekin: Esteban okerrago zegoala. Izan ere, erretzaille aundia ta eztul asko; kostillak autsiak eta, eztul egindakoa, oiñaze izugarria artzen, da anak ere min ematen. Kalentura ere bai. Apetitu guzia joan. Pixa ere ezin egin. Medikuak naiko bildur bazuala, ta esan ziola bere lanak egitea obe zuala, badaezbada ere,

Bazkaltzekoan Anjelesi gauza auek esan zizkion, da au ere kezkatu.

— Orain zer egin bear dek?

— Etzekiñat, ba, nik, neska, gauza auetan gu korritu gabeak gaitun da. Edo Beristaingo Mieli edo Bekoetxeko Praiskuri, baten bati esan bearko zionagu laguntzeko.

— Praiskuri ez. Ez diat nai ezergatik. Joan adi Mielengana, obe dek eta.

— Banatxin —esan da Roman Beristañera igo zan.

— Abe, Maria! —deitu zuan, da Maritxu bere musu gorriekin atera zitzaion.

— Kaixo, Roman! Zer modu? —esan zion maitekiro, irripar goxoarekin—. Atoz sukaldera.

Sartu zan, da:

— Eseri zaitez —esan zion.

— Zera —asi zan Roman—: Gure Esteban naiko gaizki dagoala, eta aitarekin itzegin nai nuke.

— Berealaxe etorriko da —esanda, aitarengana joan zan Maritxu.

Siestan zeuden ama eta biak. Esan zionean Romanek zer nai zuan, *rau!*, jeiki ta azkar sukaldetan zan.

— Siesta galeraziko nin.

— Ez, Roman. Egin det. Zer modu?

Azkar esan zion Romanek bere kezka, eta Mielek erantzun zion:

— Nik zerbait esan nezaizuke gauza orretan. Baiña ori ondo izateko, notarioak egin bear du; ta nola ondoena berak daki, arengana joan bear ko da.

— Lagunduko al didak?

— Zuk ala nai badezu, bai. Baiña ni alperrik nazu. Ark egin bear du, ta berak daki ondoen nola.

— Naiago nitek lagunduko baidake.

— Bai; nai dezunean. Noiz?

— Al dan lenena. Nola joan bear diagu edo zer eraman bear diagu?

— Aita zanaren testamentua noski, edo zuen izenera pasa zan eskritura.

— Nik erakutsiko dizkiat, eta erorrek bereziko dituk.

Ordurako, Maritxuk kafea aurrean jarri zien. Artu zuten, altxa ta Gazpiora joan ziran biak. Romanek azkar ekarri zizkion etxeko paperak. Jardun zuan ikusten, da aita-ama ziranen kontratoa bakarra zegoan. Romani galdetu zion:

— Ez al zuan testamenturik egin aitak?

— Ez. Etzuan denborarik izan. Derrepente il bai-
zan, ikuilluan ari zala.

— Au artu bear degu. Noiz joango gera? —galde-
tu zion Mielek.

— Nik gaur joan bearra daukat. Zu, nai dezune-
an. Ni ospitalean an egongo naiz Estebanen ondoan
—erantzun zion Romanek.

Pentsatzen egon zan Miel; da ola baziran gau-
zak, zenbat eta lenago egitea obe zala, ta esan zion
Romani:

— Au zuk eraman. Ni biar goizean joango naiz.

— Arratsalde on pasa —esan da etxeratu zan.

Mielek Joxepari danak esan zizkion, da biara-
monerako jatenak egin zituzten aita-alabak.

Urrengo goizean, garaiz irten zuan Mielek, eta
amarretarako Tolosako ospitalean zan. Gelan zeu-
den bi anaiak. *Kux-kux!*, atea jo ta sartu zan. An
zegoan Esteban gorri-gorri.

— Zer modu, Esteban?

— Ni gaizki, motell. Beti eztulka, ta petxuan
miña latz. Ankan ere bai. Gizajo ori, i aizelako bizi
nauk. Baiña martxa ontan laister ilko nauk. Emen
etzegok atsegin.

— Ez etsi, Esteban, sendatuko zera ta —esan
zion Mielek.

— Ni sendatu? Bai; laister ta betiko.

— Ez, gizon, ez! Lasai! —Mielek.

Romanek esan zion:

— Paperak zuzentzen laguntzeko ekarri arazi
diat Miel, ta piska bat joan egin bearko diagu.

— Bai, bai. Zoazte, zuzendu premia eukiko die
eta.

Andik irten da notarira joan ziran. Notarioak,
Salterain jaunak, ikusi zituanean:

— Ola, Beristaindarrak! Zer dakartzute?

Mielek agertu zion dana, ta:

— Lengo dokumentuak ekarri al dituzute?

— Bai. Au, aita ta amaren kontratua. Onen aitak ez omen zuan testamenturik egin.

— Zenbat senide zerate?

Zerizkion edo bearrezko ziran galderak egin ondoren, Salterainek esan zien:

— Zuek edadez ere ondo zaudete, eta alkarrekin bizi zerate?

— Bai, jauna.

— Eta alkarrekin bizitzen jarraitu nai dezute?

— Bai, jauna.

— Orduan, nere iritziz, nola irurok berdin dezuten gurasoen ondasunetan partea, oberena alkar eredatzea dezute. Ortara, bizi zeraten arte, irurok berdin zerate ondasun danetan. Bat iltzen danean, aren partea beste gabe bizi diran bientzat gelditzen da; ta, bi oietan bat iltzean, bizirik gelditzen dana da guzien jabe. Nere iritzirako, au da zuek egin beardezutena —esan zien notarioak.

— Zer iruditzen zaik, Miel? —galdetu zion Romanek.

— Nik pentsatzen nuan au len ere. Ez dizut zuri esan, onek geiago dakialako. Zerbaitegatik da notario. Au egin da ondo geratzen zerate irurok: berdin.

— Orduan esaiok egiteko.

Entzuten zegoan Salterain, da zeaztasunak eskatu zituan. Mielek eman zizkion izenak eta beste gaiñerakoak. *Cédula personala*-k palta. Orduan Mielek adierazi zion anaia nola zegoan ospitalean naiko gaizki, ta lenbailen egitea egoki litzakela.

— Aaa! Orrela bada, gaur bertan.

Bere langille zintzo Juanito Arsuagari esan zion:

— Au egin bearko dezu. Presa aundia dute. Arratsaldean firmatu bear degu.

— Amabiak dira. Ez al da berandu, don Lorentzo?

— Ez. Premizkoa da ta egin zazu.

— Bai, jauna. Prest egongo da.

— Arreba nun dezute? —galdetu zuan notarioak.

— Etxean. Baiña ni orain ara joango naiz, ta biok etorriko gera arratsaldean. Okerrik ez badegu, lauretarako ospitalean izango gera.

— Orduan ni lau t'erdietan agertuko naiz. Zein gelatan zaudete?

— Lasai joan. Ni atetan zai egongo natzaio. Gero arte! —esan da aldegin zuten.

Mielek Romani galdetu zion:

— *Cédula personala* nun dezu?

— Nere gelan, kutxako kutxatillan, galtzerdi artillezkoan zeudek iru senideenak. I orain, bazkaldu gabe joan bear al dek?

— Neri utzi geldirik. Zu lauretan ospitalean egon. Gaiñerakoa, nere kontu.

Bi anai ta arreba ziran. Aita gizarajoa zartu gabe il zan. Ama, Esteban jaio zanean, ondo zegoala ta une batetik bestera, *kaxka!*, ilda gelditu. Aita, ikui-lluko lanak egiten ari ziralta Roman da biak, etzegoala ondo Romani esan da gara-pillan eseri, ta antsi bat egin, atzeko aldera etzan da kito. Biotzekoa zuala esan omen zuten.

Aurrera nolana joaten diran oietakoak etziran. Baiña famili oso ona, esku garbiak eta laguntzeko leial purrukatuak.

Romanek irurogei ta bi urte zeuzkan. Anjelesek, berrogei ta emeretzi; eta Estebanek bi gutxiago. Oso alkar maiteak ziran.

Romanekin zeuzkaten kezkek. Gaixo samar bai-zebillen. Gero, uste gabeen, Estebanena. Erdi nas-

tuta zebillen Anjeles. Onek, gaixoak, etzuan azitze eta gazte denbora ederra izan. Bi urte zituala, ama il, da anaia jaio berria, ta Roman ere motikoa.

Aita gizarajoa, alargun. Arreba bat zeukan Iru-ran, baserri batean; da, ama il zanean, Esteban arek eraman, anaiari esanda:

— Aur au nik aziko diat. Lasai egon adi. Bularra ere bazeukat, eta nere alaba ta biak batean aziko dituk.

Etzion lasaitasun makala eman. Bost urteko semea eta bi urteko alaba zituan ala ere. Orregatik, Anjelesek, anken gaiñean jartzen ikasi zuanerako, asi bear izan zuan etxea txukuntzen da otordua jartzen. Roman, aitarekin batean, beti ere errezago.

Amarren bat urte zituala etorri zan Esteban erabat etxera, eta ezin etsia izan zuan. Bere lengusu bularkidea zuan ia dana. Mañoli zuan izena.

Roman langillea ta ona bai, baiña baserrian jarraitzeko buruzpide geiegi etzuan. Gazte denboran mutil egokia. Neskak arrera ona egiten omen zioten. Bat beintzat naiko nabarmen. Onek ere segitzen. Gustokoa izan bear zuan. Baiña beti itze-gin bakarra; erabakirik artzen ez. Neskari beste bat lata ematen asi zitzaion, eta arekin ezkondu. Orain Zizurkillen bizi da, famili bikaiña azita.

Anjeles, oso neska polita. Oni askok nai omen zioten. Bik ere dezente jarraitu omen zioten. Ziur ez dakigu zergatik: edo anaiak ez uzteagatik edo oso gustokoak etzitalako, bakarrik gelditu.

Esteban, berriz, lan oietarako naiko motza; ta irurak, oartu gabe, ia zartu.

Miel, Tolosatik irtenda, sasoia ere alakoxea zeukan da usu zan Beristaiñen. Ama-alabak bazkaldu-ta zeuden. Joxepak, berotu ta azkar eman zion jaten. Binbitartean, esan zien gertatutako dana, ta nola azkar berriz Tolosara joan bear zuan. Maritxu bialdu zuan Gazpiora, esanez:

— Esaiozu Anjelesi prestatzeko. Tolosara joateko esan dutela Romanek eta Estebanek. Lauretarako an egon bear degula.

Laister zan an Maritxu. Ta, aitaren enkargua esan zionean, Anjelesek erantzun:

— Neska, neska! Ni orain Tolosara? Prestatu egin bearko diñat orduan. Bazeukanat Esteban ikusteko gogoa ere.

Laister zan Miel ere. Artean etzan prest Anjeles. Mielek esan zion:

— *Cédula personala*-k zuen iruronak bear ditugu. Romanek esan du aren gelako kutxaren kutxatillaren barrenean artillezko galtzerdien azpian daudela.

Kutxa ortara Anjeles joan bitartean, Maritxuk aitari galdetu zion:

— Zer dira *cédula personal* oiek?

— Oiek —erantzun zion aitak— dokumentu bat bakoitzarena: zer izen-abizen, nun jaioa eta noiz esaten dituana. Bakoitzarenak numero bat izaten du. Itz batean, nortasun-agiria.

— Nik ba al det?

— Ez. Gaur gaztegia zera. Berealaxe izango dezu.

— Auek al dira? —galdetu zuan Anjelesek, atzera etorrita.

Begiratu zien Mielek eta:

— Bai. Auek dira. Goazen, naiko berandu degu ta.

Ateak itxita, Maritxu etxera ta beste biak Tolosara. Garaiz iritxi ziran. Anjeles pozik joan zan, anaia ikusi naiez. Baiña txasko ederra eraman zuan: Esteban gaizki zegoan. Bere buruari eutsi zion, baiña naiko lanak bazituan.

Zuzen joan zan notarioa.

— *Cédula*-k ekarri dituzu?

— Bai. Ona emen.

Artu zituan, numeroak dokumentuan ipiñi ta jasotzeko esan zion Mieli.

Bi testigu bear zituzten. Bat, Miel; bestea, aldameneko gaixo bat. Seirak ziran gelan. Notarioa asi zan presaka irakurtzen:

— *En la villa de Tolosa, ante mí, Lorenzo Salte-rain Mendialdua,...*

Aopean pasatzen zuan presaka. Romanek, *kaxk!*, ukalondoan joaz, esan zion Mieli:

— Latiñez ari al da?

— I ixo! —erantzun zion.

Dana irakurri zuanean, asi zitzaien dana agertzen. Romanek ondo ulertzen zuan. Lenago goizean entzun baizuan. Beste biei ere adierazi zien, eta galdetu:

— Zer: zuek nai bezela al dago?

— Bai —esan zuten.

— Orain nola gelditzen da gauza? —galdetu zuan notarioak.

Romanek erantzun zion:

— Orain irurona berdin: bat iltzean, bientzat; eta, bi iltzean, dana bizirik gelditzen danarentzat.

— Orixe da. Orain firmatuko al dezute?

— Bai.

Irurak firmatu zuten, baiña Estebanek naiko lan bazuen. Gero, bi testiguak. Atzena, notarioak.

— Emendik iru egunerako prest egongo da. Jasotzera joan.

Agurtu, Estebani lenbailen bizkortzeko esan da joan zan notarioa.

Mielek-eta ere, etxea urruti zeukaten eta abiatzeko prestatu ziran. Mielek agurtu zuan Esteban, da Anjelesek esan zion:

— Ea lenbailen suspertu ta joan. Nik bizkortuko aut an.

Bi musu eman zizkion.

— Bai, Anjeles. Eskerrik asko —esan zion—. Baliteken. Baiña ni emendik, ezagutu ez nuan ama aren ondora eramango natxionea.

Rau!, gelatik irten zan Anjeles. Miel ere bai.

— Gure Esteban bukatzera dijoa, Miel. Auek lanak! —esan da saminki negarrari eman zion.

— Ez da orretaraiño, Anjeles. Ez da orretaraiño. Oraindik bizkortu liteke.

— Ez, Miel, ez. Ark neri agur egin dit. Au lana! Zer egin genezake?

— Gure esku dagoana egiten ari gera. Onez aurrera, Jaunak nai duana izan dedilla.

Etixeruntz zijoazela, baretu zan, bere bolara pasata. Miel alaitzen alegintzen zan, baiña ark burua makur zekarren.

Eriotza

ETXERA iritxitzerako illundu zuan. Gazpio-ra joan ziran ordurako, Maritxu an ari zan ganaduak gobernatzan. Ia bukatu zituan. Aitak esan zion:

— Nolaz orrela?

— Amak esan du seguruenan berandu iritxiko zeratela; ta zuk, bi buelta eginda, nekatua etorriko zerala. Denbora neukan da ementxe ari naiz.

— Bejondaizula, Maritxu —esan zion aitak—. Orain apaltzera. Zu ere bai, Anjeles. Emen ezer jarzen ez asi.

— Etxean moldatuko naiz, gizona.

— Ez, ez. Zuk ez daukazu ezer jarririk. Goazen gurera, ta apalondoan Maritxurekin etorriko zera etxera.

— Ea, ba. Obeditu egin bearko dizut, Miel.

Ateak itxi ta Beristaiñera joan ziran. Joxepa zai zegoan. Aita aldatu zan da apaltzen asi ziran. Esteban aitatu zuten, da Anjelesek naiko lanak bazituan. Baiña gosetua eta jan zuan. Bukatu zutenean, Maritxu ta biak lotara joan ziran.

Bakarrik gelditu ziranean, Joxepak ango berriak jakin nai zituan. Bai Mielek esan ere:

— Ni bildurtuta etorri naiz. Oso arpegi txarra dauka. Min asko eztulka, ta kostilla-ezurrak au-

tsiak. Ez dakit zer gertatu bear duan. Anjelesek, bi musu eman da lenbailen suspertu ta etxera etortzeko esan dio; ark zainduko duala. Ta ba al dakizu zer erantzun dion? “Eskerrik asko, Anjeles. Baliteken. Baiña ni emendik, ezagutu ez nuan ama aren ondora eramango natxionea”.

— Ixilik zaude, Miel.

— Bai, bai. Orixe esan dio. Gaixoak negar-mordo bat egin du. Ez da bereala baretu. Roman bera ere naiko motel dago. Lanak ondo egin ditugu. Iruren izenean jarri dute etxea. Bat iltzen danean, bizi diran bientzat; eta, bi oietan bat iltzean, bakarrarentzat, notarioak esan duan bezela. Ark daki ondoren. Oieratuko al gera, Joxepa? Aspertua nago ni ere.

— Bai; segituan, babarruna beratzera botata. Zu, nai badezu, zoaz.

— Ez. Biok batera joango gera.

Biaramon-illuntzean emazteari esan zion:

— Biar goizean jatenak egin bearke ditugu bi etxeetarako, ta ni arratsaldean Tolosara joango naiz Estebanengana. Kezka daukat. Etzitzaidan gustatu aren egoera. Roman bera ere erdi gaixo joan zan, da ez det uste obeto dagoanik. Anaia okertzen bazaio, onera abisatzeko. Baiña an ari zeñek kaso egingo dio? Emen lana badago baiña.

— Miel, zuregana etorri zan laguntza-eske, ta etzazu utzi zuzendu arte. Lanak gero ere egingo dira. Gu ere saiatuko gera beintzat.

Bazkaldu zutenean, Tolosara joan zan. An zegoan Esteban bere anaiarekin. Roman ere triste zegoan. Miel ikustean, biak poztu ziran, da etxeke galderak egin zizkion Romanek.

— Atzo *Xordo* susa zan, da illuntzean nik eram nuan idiskotara. Gaiñerakoan, goizean jatenak egin ditugu. Gauerako Maritxu joaten zaio Anjelesi,

ta irauteko moduan daude. Zuk emengo lanak egin. An moldatuko gera.

Alditxo bat an egin da abiatzera zijoan, Esteban zerbait lasaituta. Romanek kanpora jarraitu zion, da esan:

— Oso kezkatu natxiok, Miel. Naiko lanak badi-tuala esan zidak medikuak: petxuan min asko daukala ta itxi egin zaiola. Etxera abisatzeko ere, alako lekuan gatxiok. I ere, aruntza ta onuntza endredatzen. Etzekiat nun bukatuko dan.

— Roman, asko dezu. Neri dagokidanez, bear dana egingo det. Etzaituztet utziko. Nai badezu, txanda egingo dizut. Bestela, noiz nai dezu etortzea?

— Txanda? Ez. Neroni egongo nauk. Etzi aldera buelta bat egin zak. Anjelesi ez esan okerrago dagoanik. Bestela, estutuko dek.

— Bale! Etzi arte! —esan da irten zan Miel etxe aldera. Iritxi zanean, Anjelesengana joan zan, da:

— Obeto ez du ematen, da okerrago ere ez. Bere artan dago.

— Bai, bai —erantzun zion—. Ark esan zuana egingo duala etzait burutik ateratzen.

— Baldinbetan, emakumea! —esan da etxeratu zan.

Agindu bezela, zintzo joan zan Miel esandako egunean berriz, da Esteban okerrago. Medikiak pulmonia zeukala esan zuala. Bederatzi egun irauten bazituan, senda zitekela. Notizi eskasak artuta joan zan etxera. Anjelesi dana ezin gorde ta esan zion Mielek.

— Bai, bai —erantzun zion—. Lengoan ere esan nizun, etzaitala burutik ateratzen arek esan zuana egingo duala. Berriz ikusi nai nuke, gizaixoa!

— Ni etzi joatekotan etorri naiz.

— Biziko al da?

— Bai, Anjeles, bai.

— Orduan, etzi zurekin joango naiz.

Iritxi zan ordua eta joan ziran. Esteban oso zurrin zegoan. Inpresio egin zion Anjelesi. Agurtzeko musu ematen asi zanean, lepotik eldu ta bereganatu zuan. Musukatu zuan arreba, ta:

— Agur! Amaren ondora arte! —esan zion.

Lertu zan arreba, ta anaiak esan zion:

— Ez negar egin. Laister ni, ta gero zuek. Au derrigorrekoa da.

Romani deitu zion kanpora Mielek, eta galdetu:

— Okerrago dago noski?

— Bai. Medikuak ala esan zidak. Kalentura aundia daukala ta ixten ari dala. Orain zer egin bear diat nik?

— Apaizik ez al dizu aipatu?

— Bai. Esan zidak. Baiña komeriak zeudek.

— Ez, Roman, ez. Emen egongo da apaiza. Lenbailen ekartzea obe, ori esan badizu medikuak.

— Ea biar goizean ekartzen dedan.

— Bai, Roman. Ez deskuidatu. Gu etxera goaz. Eta, zerbait gertatzen bada, telefonoz deitzerik badago. Nik itzegingo det ango andrearekin. Arek abisatuko dit neri, ta bi ordu baiño len emen naiz. Zu lasai edo al dezun lasaiena jarri, Roman. Etzi arte.

Estebani agur eginda, Anjeles ta biak etxeruntz abiatu ziran. Arreba gaixoa negar ta negar:

— Akabo gure anaia!

Etziran nai orduko iritxi. Beristaiñera joan ziran. Ia berandu baizan. Apaldu zuten, da lotara Maritxu ta Anjeles Gazpiora.

Joxepari esan zion Mielek Tolosako berri. Naita ere, etzekiala luzarorako ote zegoan. Zertan gelditu zan; da, abiso txarrik etortzen bazan, etxe ura zutik jartzeko ama-alaben artean.

— Lasai egon, Miel. Ori egingo degu guk.

Lotaratu ziran. Goizean, Mielek errira buelta egin da telefonoko andreari esan zion zer gertatzen zitzaion; da, abisorik bazan, alik lenen bialtzeko Beristaiñera; ark ordainduko zuala bear zana. Baietz agindu zion, da etxera itzuli zan.

Ezeren deirik etzan da esandako egunean Tolosaratu zan. Okerrago billatu zuan Esteban, da Roman urduri. Bere lanak egin omen zituan Estebanek. Medikua naiko kezkatua zegoala, luzarorako ez ote zan. Orrelako berriak eraman zituan etxeruntz.

Anjeles ia etsia zegoan. Joxepak ala zion:

— Orixe bada orregatik gizonaren paraderoa!

— Zer nai dezu, ba? Maritxu oartu ez balitz, antxe ilko zan, da azkar gaiñera.

Biaramon-goizean, amaikak aldera, mutiko bat korrika esatera Tolosatik deitu zutela, Esteban azkenetan zegoala. Joxepa azkar joan zan Mieli esatera. Aita-alabak jatenak egiten ari ziran. Ama-alabak utzi ta aldegin zuan aitak. Arropak aldatu ta Gazpiora Anjelesi esatera. Au gaixoa:

— Esaten nuan ez genduala gauza onik, eta ara nik bildurra nuana! Ni ez noa, Miel! Zoaz zu!

Au entzun zuanean, fite aldegin zuan. Laister zan Tolosan. Ura gelan sartzea eta iltzea bat. Juxtu-juxtuan iritxi zan azken arnasetarako.

— Joan dek gure anaia! —esan da negarrari eman zion Romanek.

— Bai. Min degu guk ere gauza au gertatua. Lagundu nai dizugu zure atsekabeen.

Piska bat baretu zanean, esan zion:

— Orain emen lanak daude. Etxera eramanean bearko degu, ba?

— Noski. Baiña nola?

— Nai dezu nik egitea?

— Al badek, egin zak.

Apur bat pentsatzen egon zan, da esan zion:

— Ni orain banoa, egin bear dana egitera. Begira, Roman: automobilla etorriko da kaja batekin. Berak moldatuko dira jazteko ta kajan sartzeko. Zu automobillak kajarekin batera eramango zaitu, onuntzean sartu genduan bide-gurutzera. Gu ara etorriko gera eske. Nai dezu orrela?

— Bai. Joan adi.

Joan zan etxe ortara. Kaja berezi zuan, da esan zien zer egin da gorputza nun zegoan.

— Zer ordu da?

— Ordu bi t'erdiak.

— Seiretarako joatea naikoa dezute.

— Ondo da. Guk ere denbora bear degu. Zeiñek ordainduko du?

— Noiz ordaindu bear da?

— Datorren astean.

— Zenbat?

— Ez dakigu.

— Ni etorriko naiz datorren astean ordaintzera.

— Ondo. Ordu ortarako an izango gera.

— Lenago ez joan. Ez nuke nai Roman, anaia kajan dagoala, ondoan zai egoterik kamio-baztarran.

— Zu lasai joan. Irixten bagera ere, ez degu bakarrik utziko.

— Gero arte —esan da abiatu zan.

Bai fite joan ere etxera. Iritxi zanean, Maritxu bakarra zegoan.

— Ama nun dezu?

— Bazkaldu degunean, Gazpiora joan da, baztarrak txukuntzen laguntzera, badaezbada ere.

— Bai. Il da Esteban. Oráin zu zoaz Goikoetxera, Etxeberrira eta Egileorrera, eta esaiezu zer gertatu dan; da, al badute, etortzeko bakarren bat, etxera ekarri bear degula ta. Gero errira joan bear dezu, eta erretoreari esan zer gertatu dan. Entierroa biarko jartzeko, al bada, ta ordua esateko.

Suaren ondoan an zegoan bazkaria. Bazkaldu zuan, da alabaren zai zegoan.

Lenengo, Joxinaxio etorri zan. Laister, Paulo ta Permin, biak berri triste oiek berrituz. Eramatekoan zuten eskaillera artuta, bide-gurutzera joan da zai jarri ziran.

Seiretarako iritxi zan automobilla. Jarri zuten kaja eskailleran, sokarekin lotu, bizkarrean artu eta etxe aldera, Roman atzetik zutela.

Iritxi ziranean, Gazpion zeuden Anjelesekin Joxepa, Paula ta Petra. Etxea zillarra bezela zegoan. Arritu zan Roman, baiña ixilik egon zan.

Orrelakoetan oi diran kontuekin ari ziran, Maritxu iritxi zanean. Onek, erretoreak esan ziola biaramonean amaika t'erdietan entierroa. Erabaki zuten amaketarako bidean jarri bear zala. Aideetara berria bialdu, Goikoetxeko Mieltxorekin da nor bere etxera.

Oso goibel zeuden anai-arrebak, orren denbora gutxian nola galdu zan anaia ezin sinistatuz.

Gaubelarako, Miel, Paulo, Iturburuko Joxe, Iturraldeko Antonia eta Maritxu zituzten.

Baillarako guziak samindu ziran ustegabeko eriotz orrekin; eta ordurako, lan danak utzi ta baillara osoa an zan zai, Gazpion.

Gauza ziranak, txandaturaz eraman zuten. Esan baiño minutu bi geroago iritxi ziran elizara. Erretoa zai zegoan. Bai erria ere. Nunbait maite zuten Esteban, ona zan da. Funtzio ondoren lurperatu ta nor bere etxeetara.

Ondoren ere, arrats batzuetan, lo Anjelesekin egin zuan Maritxuk, gaixoa arrunt jota gelditu baizan.

Gazte-kontuak

ESTEBANEN eliz-funtzioak bukatu ta Anjeles zerbait bere onetara etorri zanean, Maritxu lotan gauerako etxean gelditzen asi zan, eta bizimodua lengoratu zan ia.

Roman bizkortu eziñez zebillen, da jatenak egi-ten laguntzen zioten, al zutena egiñez, aita-alabak. Ondo moldatzen ziran etxeari eusteko.

Astean lana; jaian, goizean meza, arratsaldean bezperak, gero pasiatu, illuntzerako etxera.

Alako batean, aita-amak siestara joan da Maritxu sukaldea jaboi-urez eta zipilluz garbitzen ari zala, ia oartu gabe, sartu zitzaion Begoña.

— Neska, zer abil garai ontan?

— Irekin itzegin nai niñenan, da jaia arte ez aunatela ikusiko ta...

— Ondo egin den. Aurrena kafesnea artu bear diñagu biok.

Kazo batean esnea berotu zuan, da biak artu. Ondoren, *kux-kux* kontutan asi ziran.

— Amak esan zidan neskame joango ote naizen, gure Joxeparekin pasa litzakela ta. Baietz esan zionat. Emen zer egiten diñat, ba, ezer irabazi gabe? Ni joanda ere, gure etxean borda bete bordari gelditzen ditun.

— O! Nere aizpa i itzenan da pena ematen didan.

— Baiña bizi bearra badakin zer dan. Nik etzeukanat ik bezelako tokia, ta billatzen saia egin bear.

— Bai. Or etzegon bueltarik. Ala den.

— Beste gauza bat ere esan bear diñat. Neregan zein arrimatzen dan ba al dakin? Jaian, Joxe Marik eta ik aldegin zendutenean, esan zidanen ni maite niñula, eta nik ez al nion erantzun nai. Ezezkorik ez niola esango, baiña gerora ikusiko genduala esan nitxonan.

— Da nai al dion?

— Bai, noski. Baserria berena, ta sei bei omen zeuzkanea. Anai-arrebak omen ditun. Irurogei ta amar ardi ere bai. Zer iruditzen zain?

— Begoña, gauzak onak ditun. Baiña mutil ona ta maitasuna bearren.

— Ik badakin: mutil ona ematen din.

— Bai, bai.

— Ta i zertan aiz?

— Utsa. Orain ik aldegin da ia bakarrik gelditzen naun, iñor konfiantzako lagunik gabe. Ik badakin zein detan gustokoa, baiña aldean zegon.

— Maritxu, uste diñat ark ere asko sufritzen duala gauza orregatik. Ez niken esan bear, baiña berak esan zidanen, azkena izan zanean.

— Ala uste diñat. Baiña oraindik gazteak gaitun lan oietarako.

— Ez, neska. Amazazpi urte badizkiñagu.

— Bai; baiña oraindik umeak.

— Ez ortaraiño, ni beintzat.

— Ni ere i bezela. Ta ark zer joera egingo? Lais-ter soldadu. Ez pentsatu naiago diñat.

— Maritxu, gure Joxek iretzat besterentzat ez din begirik.

— Nik nai bai, baiña urruti zegon egun ura.

Ala ari zirala, ama jeiki zan.

— O! Zu ere emen, Begoña?

— Bai. Maritxurengana etorri naiz, neskame noala esatera.

— Nora zoaz?

— Tolosara, etzi arratsaldean, amarekin.

— Suerte on bat izan, Begoña.

— Eskerrik asko, Joxepa —esan da aldegin zuan.

Maritxu goibel zegoan. Amak esan zion:

— Ez goibeldu, Maritxu. Ama emen daukazu, denak baiño geiago nai dizuna.

— Ori bai, ama. Baiña ori nere aizpa bezela da.

— Gaixoa! Nik ez nuan, ba, al izan ori lortzerik. Badakizu.

— Ama, ez dizut orregatik esan. Zu orain arte neretzat dena zera. Baiña badira gauzak kideko bati errezago esaten zaizkanak.

— Zure oraingo kontuak nik izan nituan. Ez naiz arrituko entzutean. Berealaxe kideko egingo natzaizu.

— Ala izan dedilla.

Aita ere jeiki zan, da zer egiñetara joan ziran.

Begoñak aldegin zuan Tolosara.

Maritxuk astea ederki pasatzen zuan. Baiña igandea irixten zanean, batzuetan joaten zan errira, ta Joxe Mari an bazan ere, al zuala, alde egiten zuan; da arekin edo besteren batekin bazijoan, enbarazo egiten zioten ondoan.

Bein, Begoña zan etxera etorria, eta Maritxu eta biak joan ziran bezperetara. Bazuten zer itzegiña. Esan zion ia mutillarekin asi zala.

— Soldaduska egiña ta oso mutil formala. Gaur etorriko den. Batean abiatuko gaitun. Baiña iñor ez bada etortzen, bide-gurutzetik lenbailen joan.

— Ori ere bai, Begoña? —esan zion.

Arratsaldea errian pasa ta garaiz aldegin nai zuan Maritxuk.

Begoñaren lagun ori arrimatu zitzaien Joxe Marirekin, da:

— Etxera joango naiz ni —esan zuan Maritxuk.

— Utzi zadazu mesedez. Zurekin joan nai nuke.

Begoñak esan zuan:

— Goazen laurok.

Au zerbait asita zegoan mutilla bai-baizuan, da ori orrelako baillaretan gertakizun bat zan. Tatxa gabeko neska zan.

Abiatu ziran da, bide-gurutzera irixtean, “gabon” esan da Maritxu etxera abiatzean, ondoan zuan Joxe Mari:

— Zurekin itzegin nai nuke. Aurreko jaietan ere etorri naiz, baiña zu etzera jetxi. Ez dakit zergatik.

— Bai —erantzun zion—. Begoña joan zan da bakarrik ez joateagatik. Kidekorik ere ia iñor ez eta aparte bizi geranoi olako gauzak gertatzen zaizkigu.

— Zu noranai joan zindezke. Zuri denak begiratu tuko dizute, ni aurrena naizela. Ez daukazu lagun paltarik. Aspalditxoan zure atzetik nabil. Oartuko ziñan noski.

— Ortaraiño ez. Iñoiz biok etorri gera. Baiña nik ez det uste orrenbeste merezi dedanik. Geiago esango dizut: ez nuke nai iñorekin konpromisotan astea. Asi ezkerok, bete egin bear du. Ni oraindik gaztea naiz, ta libre nai det.

Etzuan ulertu, edo ulertu nai izan, neskaren esan naia.

— Zu gaztea bai, baiña eldua zaude.

— Zuk arritu egiten nazu onela erantzutea. Emen gabiltzan mutil geienak, zuri begira gaude. Zuk onuzkero antzeman didazu neri, zu nereganatu naian nabillela. Beste itz batzuekin, zurekin ezkondu nai nukela, jator ta garbi jokatu, zu konformatuko baziña. Nun bizimodua atera badaukagu, zuk badakizu, ta aitak esanda nago. Emaidazu baietza, eta zorioneko egiten aleginduko naiz.

Ixilik zegoan Maritxu. Itz bakoitzak naigabea sortzen zion barrenean.

— Esan zaldazu baietz, Maritxu.

— Ez, Joxe Mari. Ez nezake itz ori eman. Zu orain arte lagun on bat izan zera. Aurrera ere alaxe ikusiko zaitut. Baiña ortik aurrera ezer ez. Gau ona pasa, Joxe Mari —esan da utzi zuan.

Buru-makur gelditu zan mutilla. Etzuan uste orren motz uzterik. Oso etxe onekoa baizan.

Etixeratu zan Maritxu, ta oso goibel zegoan. Lanak bukatu ta apaldu zutenean, oiera joan bere pentsamentuak ausnartzera. Zalantza zeukan Joxekin. Nai ziola uste zuan, baiña besteren batek lortzen bazuan, bearbada Izaskunek, ain mutil ederra zan da?

Belauniko jarri ta aurrean zeukan Ama Birjiñari erreguka asi zan. Zer? Ori berak bakarrik zekian.

Beste proportzio bat

IGANDEA zan. Mezetatik atera ta etxera zijoa zela, Bekoetxeko Praiskuk esan zion Mieli:

— Gauza batzuk bazeuzkat buruan, da irekin itzegin nai nikek.

— Nai dezunean, Praisku. Ni noiznai prest nago.

— Bazkalondoan gure etxera etorri adi, ta an egongo gaituk.

— Ez, Praisku. Siesta egin da belaze aundira joateko asmoa det satorretara, lana badago ta. Zu zoaz aruntz, eta alkar billatuko degu.

Bazkalondoan Joxepari esan zion Praiskurekin zer itzegin zuan. Siesta egin ondoren, aitzurra bizkarrean artu ta joan zan belazera. Praisku ere laister arrimatu zitzaion. Borda aurrean eseri ta kontutan asi ziran.

— Aspaldi ontan banetxeukan deseo itzegiteko. Gure Bernardok ere ogei ta bost urte bete dizkik, eta etxean segira jarri nai. Lengoa ere an zegok. Ura ere geiegia ez diagu izan. Ik bezelako suerterik ez beintzat.

— Zuk —erantzun zion— geiago. Guk bat bakarra degu, baiña zuk lau. Alde ederra dago.

— Umez bai —esan zion—. Baiña andrea zuenak etxe guzia bakarrik ibiliko likek. Ba ire alabari begi-

ra jarria natxiok. Uraxe Bernardorekin ezkondu ta gu ondo giñukek.

— Bai zera! Gure alaba etxean bear degu.

— Motell, batak besteari laguntzeko ez dek urruti jarriko.

— Ez, Praisku. Ura etxean nai nuke, berak ez badu aldegiten beintzat.

— Ola nai badek, Paulo ere antxe zeukagu, ba, zuenerako nai badek. Gauzok gurasoak moldatu bear zetiagu; ez umeei utzi. Oiek etzekitek zer egi-ten duten.

— Ortaraiño? —esan zion Mielek—. Beren naia ere entzun bearko da. Nik beintzat bai.

— Nai dekena, ala iruditzen bazaik. Dote latza izango dik. Etzerate gaizki jarriko.

— Alkarren berri jakingo degu.

Nazka ematen zion Mieli, gizona zan da. Ala ere, pentsatzeko gauza zan. Dote ona, zenbat etzion esan baiña, semeari emango zion. Mutilla ere beste baiño berdiñagoa zan. Bazekian emazteak esana: alegia, Joxeri begiratzen ote zion errezeloa. Baiña Joxek zer dote zuan? Ezer ez. Ta dote onak gauzak asko konpontzen ditu.

Pentsamentu oietan etxeratu zan. Ama-alabak etxean zeuden. Zerbait artu zuan, da ikuilluko lanak egitera.

— Zer degu? —emazteak galdetu zion.

— Gero esango dizut.

Apalondoan oieratu ziranean, andrea jakin naian zegoan, da senarrak dana zana zan bezelaxe esan zion.

— Da zuk zer esan diozu?

— Gero erantzungo diogula.

— Zergatik ez dezu moztu?

— Aizu: pentsatzeko gauza da bigarren ori. Dote ona ez litzake gaizki etorriko.

— Ta atrebituko al zera alabari ori esatera?

— Zer, ba? Ez al naiz aita?

— Bai. Baiña poliki ta ondo pentsatuta esaten al diozu. Aize artzera bialduko zaitu.

— Bai?

— Larri ibili.

Ondorengo egun batean, siestatik jeiki zanean, alaba galtzerdiak konpontzen ari zan. Altxa ta aitari kafea eman zion, da ostera eseri.

Asi zan aita poliki-poliki, ta alaba errezelatu zan zerbait bazala. Nerbioak puntan zeuzkan. Bernardo izena entzun zuanean:

— Asko dezu —esan zion aitari.

— Itxogin, Maritxu, itxogin bukatu arte. Ezetz esan diot, zu gurekin bear zaitugula. Orduan Paulo zurekin gurerako esan dit. Dote aundia emango liokela. Zu orrekin ikusi izan zaitut. Mutil ona da noski.

— Aita, ez dakit nola esan; zer itzekin. Asmo onez ibiliko zera, baiña tratoan etzaitetz asi nerekin. Orain gaztegia naiz; eta, artarako beartzen nazuteanean, erantzungo dizut. Lenengo duda batzuk ditut, eta oiek argitu nai nituzke. Oraingoz ez det nai ezer ere Bekoetxeko iñorekin, da ezetza eman.

— Baiña, Maritxu, obeto pentsa ezazu, proportzio on bat da ta.

Rau!, altxa zan alaba.

— Esan dizut, aita, eta asko degu! —esanda, eskuan zuan galtzerdia sillara bota ta irten zan urduri.

Uste gabe, amarekin topo egin zuan. Au zelatan jarri baizan, zer zijoan oartu zanean. Ikuillutik eta

ataritik jira eman zuan, da ama topo egin zuan berriz.

— Zu aitaren asmoarekin bat al zatoz?

— Ez. Baiña zalantza apur batekin. Zure erabakia onartzen det. Lasaitu zaitez.

Aita apur bat kaskaillututa zegoan:

— Zer arraio! Gurasoak ez ote daukagu itza ateratzerik? Umeen mende jarri bear ote degu? Etzekiat orratik... —bere buruari esan da aitzurra artuta, aldegin zuan etxetik.

Etzan illunabarra arte etorri; ta, etorri zanean, kopeta beltzarekin ikuillura zuzendu, eta apaldu itzik egin gabe. Joxepa ezin zan egon. Lengo etxeko gozotasun ura nora joan zan? Bukatzean, aita oiera; eta alabak, altxa ta:

— Aita, barkatu. Gogorregi itzegin dizut. Ez det egoki zan itzik asmatu.

— Arraioa! Kopeta onarekin gaiñera! Gurasoak zertarako gera: umeen mende egoteko? Azi ta nai dutena egin bear al dute?

— Egundaiño ez dizut itzik jira, ta aurrera ez det asmorik, gai ortaz kanpora.

— Ortan ere, gurasoak esana egiten zan orain arte, ta zuk ere ala egin bear zenduke.

— Ez dakit zer erantzun gaur. Laister jakingo det.

Alaba ere beltz zegoan. Juxtu itzegiten zuan. Amak esan zion:

— Maritxu, zuk zer dezu nerekin?

— Ezer ez, ama. Min artu det eta ezin naiz bigundu. Biar arte.

Musu emanda utzi ama eta oiera joan zan. Ama Birjiñaren irudiaren aurrean belaunikatu ta errezoan jardun zuan. Gero, pentsatzen. Amak etzion bildurrik ematen. Aitak bai. Asarre jarri zan, ba. Esaten zuan:

— Ni ontaraiño azi ta orain nik nai ez diodan bati salduko ote naute? Joxek ziñez maite al nau? Edo Izaskun edo besteren batek losintxatu ta bereganatuko ote du? Nik, kristau bezela, beartua ote nago nere estadia artzekoan gurasoen esana egitera? Au nun jakin?

Galdera oiek zebilzkian buruan. Noizbait lo artu zuan.

Goizean amak deitu zion, da jeiki zan. Aita ikui-lluan ari zan. Egun onak eman zizkion, da ondo erantzun zion. Nor bere lanak egiten ia normal bezela asi ziran. Ekaitza baretu zan itxuraz.

Egun bi edo iru pasa ziran, da larunbata zan. Amari esan zion:

— Gaur konfesatzera joan nai nuke, biar Kongregazioa baida.

— Ta biar zergatik ez?

— Biar jende guzia izaten da, ta lasai konfesatu nai nuke.

— Joan zindezke. Dendatik ere azukrea, kafea ta olioia ekarri bearrak daude. Bidenabar ekarriko dituzu.

Ala, arratsaldean joan zan. Danak ere lau lagun zeuden elizan, da erretore jauna an ari zan konfesatzen. Au berrogei urte aietan an zegoan. Beraz, bataiatu, jaunartze ta gaiñerako guziak berarekin egiñak zituan. Bein ez gaiñerako guzietan berarekin konfesatu zan. Mixio batzuetan kanpokoarekin.

Txanda irixtean, asi zan da bere akatsak aitortu zituan.

— Ordaiñetan agurmari bat —esan zion apaizak. Gero asoluzioa eman, eta Maritxuk:

— Don Inazio, beste gauza bat berorrekin itzegin nai nuke.

— Alaba, esan zazu nai dezuna. Entzungo dizut.

Dana, aurrenetik atzenera, garbi agertu zion, eta galdetu:

— Beartua al nago aitaren naia betetzera?

Apur bat ixilik egon zan apaiza, ta esan zion:

— Luze itzegiteko gaia da. Besterik zai ba al dago?

— Ez, jauna.

— Zein zera?

— Beristaingo Maritxu.

— Pozik esango dizut dana garbi. Gauza auek ez jakiñean, ezkontza txarrak egin izan dira. Zu Jaungoikoak aske egin ziñun; da, zure estadua artzekoan, naiz soltero, naiz moja edo berdin ezkontza, iñork ezin zaitu beartu zein artu bear dezun. Zuk aukeratu. Eta, ezkontza bada, zeinekin ezkondu ere berdin. Argatik galdetzen zaio, ezkontza artzera dijoanari, ea bere nai utsez dijoan, eta ondoan daukana ea senartzat nai duan. Ori orrela da. Zu aske zera, nai dezunarekin ezkontzeko. Onek ez du esan nai aita-amak baztertu bear diranik. Oso ona da aiekin itzegitea. Geienean, gurasoak umea ondo ikusi nai izaten dute. Orain, dirua bada tartean, ori saldu-erosia da. Ezkontzeko maitasuna bear da, zoriontsu izateko. Ulertu didazu?

— Bai, jauna.

Agur esan, altxa, amak esanak artu ta etxeratu zan azkar. Pozik gaiñera. Zakartxo itzezin bai, baiña arrazoiz. Aitari pasako zitzaion zakarraldia.

Gauza bat zeukan jakin bearra: noiz bildu alkarrekin Joxe ta biak? Eguberriak zetozen, da poztu zan. Zaku babako orduan bezela bilduko balira...

Gauza auek buruan zituala iritxi zan etxera. Ama sukaldean ari zan. Ekarki zituanak utzi, xoxak sobreak bueltatu ta aldatzera zijoala, amak esan zion:

— Berandu etorri zera.

— Bai. Atzena nintzan, da gero dendara, naikoa luzatu zait. Luzetsita al zeunden?

— Bai. Ia kezkatzen asia nengoan. Atoz aldatu ta apaltzera.

Apaltzen ari ziralara, aitak esan zion:

— Damutu al zaizu esan zenidana?

— Zakartxo itzegiña bai. Gaiñerakoa, len baiño tinkoago. Zuk badakizu nik ez ditudala oiek gogoko. Zuk ere ala esaten zenduan.

— Bai; baiña dotea dago, ta ona gaiñera.

— Aita, len oiek gabe gozo bizitu gera. Oni euts dezaiogun; da Praiskuri, bere dote ta guzi, ezezkoa eman.

— Ea, ba. Egingo det zure naia. Ez nuke nai nerea egin da zu gaizki ikusterik.

Salta zan alaba ta, aurra zanean bezela lepotik eldu ta musu eman ez, magalean eseri zitzaion.

— Badakit, aita. Lenengo zakarraldia izan dezu, ta azkenekoa bedi. Zer uste dezu: oiekin ni ezkontzea? Ez, aita. Ederragoa ezetz esan berria det.

— Bai? Zein?

— Zelaitxoko Joxe Mari.

— Ez ote zabilta arrotxo?

— Arrokeria ez da, ez; barrungo naia. Ez nijoakizu dudako gauzak esatera. Baiña nik nai dedanak ni nai banau, nik jakiten dedanean laister jakingo dezu. Aita, sufritzen nengoan, zaputzaldia gure artean sortu arazi dutelako. Nere barrua zabaldu dizut. Dana badakizu. Orain pozik nago.

— Gaixoa zu, nere Maritxu! —eldu ta musukatu zuan.

Ama begira zegoan, malkoa zeriola.

Gelara joan zanean, belauniko erori zan Maritxu Ama Birjiñaren aurrean, da eskerrak eman zizkion. Ura poza ta lasaitasuna! Oraindik auzia zeukan Joxerena, baiña zuzenduko zan, Jainkoak nai bazuan. Lo artu zuan goxo-goxo, errezelo guziak uxatuta.

Len bezela bizi ziran, pake ederrean. Mielek, meza nagusitik zetoztela, esan zion Praiskuri notizia, ta:

— Ez nian uste orrelakorik. Arro al dago, arro? Makurtzeko etzegok mundu txarra. Ori baiño proportzio ohea espero al du? Kostako zaiok.

— Ezetz esan digu, ba, ta...

— Ta zer? Ume zikin oien mende jarri bear al degu gurasoak?

— Nik zer esango dizut, ba? Guk ori bakarra degu, ta alaxe bearko du. Gero arte, Praisku. Ondo bazkaldu —esan ta banatu ziran.

Praisku marmarrean zijoan, sermoi egiten bezela besoekin keiñuak egiñez.

Ustegabekoa

ESTEBAN il zanean, ezin sendatuz zebillen Roman. Gero, ospitalean pasa zuan alditxoa, anai elbarriaren ondoan sufritzen, jan Jainkoak dakian bezela, ta lorik ez, lenaz gaiñera moteldu egin zan. Ez, Anjeles gaixoak alegiñak egiten etzitua-lako; baiña kuxkur samar zebillen, da garoa palta.

Beristaiñera joan zan. Joxepa zegoan etxean, da oni kontatzen ari zan bere kezkek:

— Oneraiño ezin etorri, emakumea. Petxua betetzen. Ito egin bear. Komeria da, bai. Nai ta ezin. Ez dakit zer ikusi bearko degun. Esteban asi zan, da eskerrak Anjeles bizkor dagoan. Ikuillu ta sukalde bera dabil. Zuenak, jatenak egiñez. Ez dakit nola ordainduko ditugun zorrak.

— Lasai, gizona! Alkarri ez laguntzezkeru, zertarako gera gu?

— Ala da; baiña...

Ala ari zirala, Maritxu etorri.

— Aita nun da? —galdetu zion amak.

— Ementxe; trasteak jasotzen ari da.

Esaten ari zala, sukaldean sartu zan.

— Ola, Roman! Zu ere emen?

— Bai, gizona. Gu beti eske. Orain ere garoa palta.

— Arratsaldean ekarriko degu, Roman.

— Or besterik ere badiagu: aruntz-onuntzak, kaja ta gauza geiago badituk ik ordainduak. Aien kontuak ere egin bear zetiagu noizbait.

— Roman, gauza orrengatik ez estutu. Dirua suelto dezunean, egingo ditugu.

— Bai. Noiz izango ote degu?

— Bizi zaitetz patxaran, da bizkortu. Gu, Jainkoari graziak, ez gaude orren estu.

— Gugatik bearra!

Orrela etxeratu zan Roman. Besteak ere bazkaldu zuten, da siesta ondoren garotara joan ziran aita-alabak. Gazpiora eraman, an ustu, etxera aita idiekin, da Anjelesekin Maritxuri:

— Zuk etortzeari utzi ezkeru, ez det lo ondo egiten. Bildurtu egiten naiz.

— Roman etxean dezu, ba, Anjeles.

— Bai. Baiña ametsetan Esteban zanarekin, da asten naiz gurdipetik atera eziñez, da beti aren antsi triste ura entzuten det.

— Naiko lan badaukazu.

— Bai sobra ere.

— Orain Roman bizkortuko da, ta zere onetartuko zera.

— Bai. Okerragoa dagoala esaten dit. Iñora ezin dala joan. Malda apur bat badago, petxua betetzen zaiola. Ia itoan jartzen dala. Alderdi txarra! Len bat joan zaigu, ta orain bestea. Orrela bada, naiko komeri.

Noizbait banatu ziran, da Maritxu laisterka etxera joan zan.

— Umea —esan zion amak—, nun egon zera?

— Antxe Anjelesekin. Lotara joan bear nukela esan dit. Bildurtu egiten dala bakarrik.

— O, gaixoa! Naiko lan badauka. Roman ere keja kontari jardun zait, ba —esan zuan amak—. Gauzak, datozen bezela artu bear izaten dute.

Andik egun batzuetara, Roman medikuetara Tolosara joan bear zuala, ta Mielek lagunduko al zion. Baietz. Prestatu ta laister zan Gazpion.

— Zer degu, Roman? Zer pasatzen da?

— Ez nabillela ondo, ta medikuarengana joan niñun, da biotza ez daukadala ondo, ta Tolosara joateko biotzeko medikuarengana. Bakarrik joan nai ez, ta onek ere joan nai ez, ta beti iregana. Aspertu araziko aut noski.

— Aspertzen nazunean, neronek esango dizut. Bitartean segi.

— Goazik, motell, errira, ta automobilla ara ekarriko diagu. Ni Tolosara joateko ez nauk gauza.

Errira iritxi ziranean, deitu ta laister zan an automobilla. Sartu ziran, da Tolosara. Jo dute mediku orrengana. Txandan artu zituan da miatu ere bai. Belarrietako traste bat jarrita, ari zan pulstua artu ta nik dakit zenbat komeri. Bukatu zuan da esan zion:

— Jantzi.

Jantzi zanean:

— Biotzekoa daukazu. Obe zenduke ospitalean gelditu.

— Zer ba: operatu bear al nazu?

— Ez. Baiña zintzo zaindu bearra daukazu. Etxean ez dakit zainduko ziñaken. Nik botikak egingo dizkizut. Baiña zaintzen ez bazera, kontuz!

— Zainduz bizi liteke? Zer egin bear det?

— Lana arrunt utzi. Malda gora ez igo. Zelaian poliki-poliki paseatu. Zigarroa ta ardoa, kuidao! Jan koipetsurik ez jan. Berdura asko.

— Ba oiek egingo ditut etxean.

— Bueno! Baiña egin! Bestela, juuu! Beidozu!

— Zenbat da berorrena?

— Itxogin. Botika au goizean, da eguerdian beste au. Ostera arratsean goizekoa. Pastilla bana dene-tan. Zintzo egin, e? Ta nereea amar duro.

Ordaindu ta irten ziran.

— Nik baiño errezago irabazi dizkik, Miel. Ni ospitalera? Guardakok! Len ere Estebanekin ederki aspertu niñun an.

— Bai; baiña zintzo egin bearko dezu esan dizu-na. “Kontuz!” esan du.

— Ba egingo diagu.

Ala, kotxea artu ta irurak alderako etxera, nor bere tokira.

Arratsaldean, Miel joan zan Gazpiora. Roman oiean zegoala ta Anjelesi esan zizkion medikuak aginduak.

— Zaintze al dezu ondo. Bestela, ez da bear bezela ibiliko. Medikuak kontu izateko esan dio.

Ia bi urtean iraun zuan, batzuetan motelago, iñoiz gutxitan poliki. Baiña gertakariak gertatzen dira. Deskuidoa beti erne.

Bazkaldu dute ta siestara Roman, arreba artean sukaldean utzita. Lo betean dagoala, beia ez da ba makakorroka asi? Itxumustuan salta da Roman ikuillura, artu akuillua, eman dio beiari zartako bat, berezi ditu, bere ganbelan lotu ere bai, baiña naiko lanekin. Ateratzen asi danean kanpora, *kaxk!*, erori ta seko. Bertan il.

Arreba begira ta, kuadro ura ikusi duanean, karraxika asi omen zan, da Bekoetxeko Martin oartu. Joan zaio ta Anjeles oiuka, Miel etortzeko esateko.

Mutilla usu joan da Beristaiñera. Miel siestan. Alabak jeiki arazi du. Bai fite joan ere Gazpiora. Atzetik Joxepa ere bai.

Ura ikustekoa! Anaia lurrean ilda, ta arreba ondoan karraxika, bi eskuekin buruari elduta, tximak atereaz. Roman jira zuan ortzaz gora ta, arnasik etzuala ikusi zuanean, esan zuan:

— Au ilda dago! Au gizonaren bukatu bearra!

Joxepak Anjelesek in naiko lan bazuan. Goikoe-txera bialdu zuan Martin:

— Esaiek zer gertatu dan, da etortzeko.

Zer gertatu zan? Anjelesek beiak edatera eram, da bitartean Romanek artalorea eman. Anjeles lotzen katean, da deskuidatu ta bat lotu gabe utzi. Janak bukatu zituanean, aldamenekoari burrukan ekin bei arek. Makakorroka asi ta Roman esnatu, lo zegoala. Ta joan, biotzak faillatu ta il.

Etorri ziran Permin da Martina. Gora jaso zuten gorputza, ta jantzi, kaja, entierroa prestatzen asi bear. Anjeles sukaldean negarrez. Mielek esan zion:

— Ondorengo lanak prestatzen asi bearko degu, ba.

— Miel, ni ez naiz gauza. Zuk egin bearko dituzu, ondoena derizkiozun eran.

— Bai. Nere kontu.

Bazekian arrebak ezin zuala.

Bikarioari deitzera joan zan Mieltxo Goikoetxe-koa. Errian bazan kajak egiten zituana, ari ere esan bat egiteko. Maritxu ere etorri zan, da izeba Marti-nak eta berak gela zutik jarri zuten.

Anjelesek, marruka, anaiaren arropak atera zituan. Jantzi zuten, ta oi gaiñean jarri Roman giza-rajoa.

Auzo guzia bildu zan. Batzuk, senti zutelako; beste batzuk, ikusmenera edo kuskusera.

Don Inazio apaiza ere bere zarrean azkar etorri zan. Bere eginkizunak bete zituan, da zeudenei:

— Errosario santua esango al degu difuntuaren animaren alde?

Baietz. Belauniko jarri ta azkar asi zan. Esan zuan bukatu zanean:

— Gizaraixoa! Zer pasa zaió?

Esan zioten dana.

— Jainkoak zeruan eukiko du, ona zan da.

Mielek esan zion:

— Entierroak-eta nola?

— Biar amaiketan eliz-lurra ta entierroko meza. Kanposantuan utzi bearko da arratsaldera arte.

Etzegoala il da ogei ta lau ordu bete arte enteratzerik.

Gero Miel, don Inaziorekin batera, errira joan. Lenengo, medikuari esan zion gertatua. Onek bere papera bete zuan. Gero, juezarengana. Arek ere berea bete. Aitzenik, arotzarengana. Aita-sumeak kaja bukatu eziñik ari ziran. Prest jarri zutenean, Mielek aurretik eta arotzaren semeak atzetik bizkarrean artu ta Gazpiora. Sartu zuten kajan, da geienak etxeratu ziran ikuillu-lanak egitera.

Gaubelan, Miel, Permin, Paulo Bekoetxekoa eta Joxepa.

Urrengo egunean, bere garaian, auzo geiena an zan. Artu bizkarrean da, txandatus, eraman zuten errira. An bazan jendea, alajaiña. Orrelako eriotzak geienak mintzen ditu. Funtzio ondoren, kanposantura eraman, errespontsoa errezatu, zuloan sartu ta tapatu gabe illuntzean tapatzekotan utzi, ta nor bere etxera joan ziran.

Soldaduskara

AZPIKOETXEN jendea triste zan. Zazpi urte Joxe an zala. Ainbat lan egin zuten nagusi-morroiak. Austiñi etzitzaion gustatzen izen ori. "Joxe eta ni" esaten zuan.

Bi belaze berri egin zituzten. Borda berria ere bai. Ta, denetan bearrena, seme-alabak ere ia laguntzeko moduan zituzten. Baiña geiago nai. Kajan sartua zan, da bazekiten. Ala ere, ezin etsi. Joxe ere oso gustora zegoan.

Jai-eguerdi batean, Joxinaxio, soldadu-lagunarekin itzegiñez, semearen eske joan zan. Austiñek, ikusi zuanean, etsi zuan. Bazekian egun ura etorri bear zuala, baiña ez nai. Bazkaldu zuten, da soldaduskako paperak asi zitzaizkiola ta amak ere illabete bada ere semea ondoan nai zuala ta, Joxinaxio ezin esanez ari zan, da Austiñek erantzun zion:

— Arrazoizkoa dek, motell. Zazpi urte dituk etorri zala. Ez bera aurrean dagoalako; baiña au, gizarajoa, ona izan diagu. Morroia ez; etxeko bat geiago. Gure aurrak ikusten dituk. Gogortzen asiak zeudek, eta gure aldetik eskerrak ematen lan ederra bazeukagu. Etxea asko obetu diagu, asko. Onez aurrera jirako gaituk.

Soldata ordaindu zion. Aitonak duroa propina eman zion. Agurtu nagusi-etxekoandreak eta aito-

na. Iru aurrak, lepotik zintzilik negarrez. Etzuten nai aldegitetik. Alaxe banatu ziran. Aitonak:

— Joxe, berriz ikusi nai aut —esan da burua makur.

Bete-bete eginda irten zan. Alditxo batean ixilik joan ziran. Aitak esan zion:

— Onezkero, ia gutaz aztu aiz?

— Ori galdera, aita! Zer uste dezu. Zazpi urte zazpi urte dira. Aur gaixo oiek bete naute, baiña Luis ikusteko irrikitzen nago, ta ama, ooo!

— Laister gaituk an.

Bide zearrean gora zijoazela, Bekoetxeko Bernardo topo egin zuten.

— Zer? Etxera al ator?

— Bai.

— Ez dit uste palta aundirik egiten dekanik. Len ere borda bete bordari bazeudek an.

— Ez apuratu. Apaltzera ez nauk zuen etxera joango.

Aurrerago, Iturburuko Kristina:

— I, Joxe, etxera pardelarekin?

— Bai, ba.

— Ongi etorri. Askotan gogoratu zaitugu.

— Eskerrik asko.

Ta aurrera. Etxean zai zeuden ama, Luis eta Joxepa. Bazetoztela sumatu zutenean, irten ziran da etzuten jan, baiña alde. Ama ere etzan asarre. Kontu kontari saio bat eginda, apaldu ta oiera. Luis da biak oi batean, len bezela.

Pello lantegi batean zebillen. Ixabel ere bai. Inaxio, soldadu Afrikan, Alkazarkivir-en. Begoña, neskame. Andres, aitarekin. Joxepa ta Luis, eskolan artean.

Anai txikiak lo artu zuan, baiña ez Joxek. Bazeukan kezka. Begoña etxean zanean, Maritxu ta biak sorginkeriz bezela alkar ulertzen zuten. Ikusten zuan Maritxu, baiña azkeneko bi etorri-aldietan etzuan itzegin.

Lenengoan, arratsaldean itzuli bear ta etzuan iñon sumatu. Etxera joango ote zan? Baiña lotsagarria zala. Azkenekoan Eguberrietan berriz, ta Maritxu griperekin. Atari aiek zaindu zituan ederki, baiña alperrik. Aitarekin bai, itzegin zuan; baiña alabarekin ez. Etzan gustora joan.

Kezka galanta zeukan barruan. Ia urte ta erdi zan, burua eta biotza betetzen zizkion arekin ez ikusi ta ez itzegin etzuala.

“Ba disimuloan amari galdetuko ziot” bururatu zitzaion.

Bakarrik arrapatu zuanean, asi zitzaion galdezka. Amak bai esan ere Estebanen berriak, eta azkena Beristaingo Maritxurenak.

— Aristian itzegin diat. Ementxe joan dek erri aldera astoarekin, zerbaiten eske. Ondo zebillek. Len beti emen uan Begoñarengana edo gurera. Auek nik etzekiat nola ulertzen duten alkar. Arte gaiztoren bat bazeukea. Neska bikaiña zegok, bere musu gorriekin.

— Len ere ala zan.

Gero ta kezka geiago sortu zitzaion. Berak esanda zekian erriko mutil bat etortzen zitzaiola. Arekin itzegiteagatik joan ote zan? Etzitziaion bururatu aien ataritik ura ikusi naiez pasa zitekeanik, etorri zala jakinda. Ain itxu eta motz zegoan.

Zaindu zuan, lanean ari zan tokitik. Bazetorren Maritxu, baiña beko bidetik bide-gurutzean ezker aldeko bidea artu zuan. Arek etzuan pentsatzen, baiña bazekian etxeratu zala, ta ikusi zuan azkar. Parean pasatzekoan, oitura danez, agurtu zituan:

— Ari zerate gogotik.

— Bai —erantzun zion aitak.

— O! Maritxu! —esanda, salto batean soro-baztarrean konturatu gabe.

Neska paretaz azpitik karkaroan zetorren. Mutilla soroan pareta gainean. Putxixika jarri zan, da esan zion:

— Nik zurekin itzegin nai nuke, ba. Baiña nun da noiz entzungo didazu?

Arpegi eder ura, bi begi aundi aiekin, begira zegokion. Etzuan berdiñik.

— Zoaz gure atarira illuntzean. Ikusiko zaitut eta zerbaiten aitzekiarekin irtengo naiz, eta deika asi arte egongo gera. Gero arte! —esan da aldegin zuan.

Arrunt moztuta gelditu zan Joxe. Ezin zuan sinistu egia zanik. Ura, nai zualako pasa andik, arek ikusteagatik. Ura poza! Gutxienekoz, bere nala agertuko zion, da arek naiko zuan noski. Zerua iriki zitzaion.

— Orain ere neska ona izango da ori, nere eskola-lagun jatorra.

Aitak:

— Bai, motell! Orixe ona! Gure amak berea bezela artzen dik. Nik ere bai. Baiña orain gutxiago etortzen dek, gure Begoña joan zan ezkeru.

Bazkaldu zuten, da siestara joan ere bai, baiña lorik ez. Illuntzeak burua jaten zion. Zer esan bear zion? Nola? Pillaka zetozkion burura esan bearrekoak. Arratsaldean lanean jardun zuten, eta alako batean aitari esan zion:

— Aspaldian ardiak ez ditut ikusi, ta gustora joango nintzake.

— Motell, berandu ez al da?

— Usu joango nintzake.

— Ea, ba. Larogei ta amairu ardi dituk, ogei ta sei bildots eta bi aariko. Konta itzak. Borda ondoko belazearen atakan, ezkerretara, bi sator-zepo badi-tuk. Txotx bana baditek ondoan, da ikusi itzak.

Bai usu aldegin ere, aitzekia sortu zuanean. Ardiak ikusi ta zenbatu. Gero, bildots eta aariak. Aari bat palta zan.

Illunabartu zuanean, arrimatu zan esandako lekura, eta Maritxu zai zegoan. Laister irten da eto-rrri zitzaion, errats bat eskuan zuala.

— Zer moduz, Maritxu? —eskuak luzatuz esan zion.

Neskak ere, erratsa baztarraren kontra utzi ta eskuak luzatu zizkion.

— Ni ondo, Joxe.

Biak eskuak emanda zeuden. Baiña Maritxuk:

— Utzi egidazu eskutik, Joxe. Ez det nai amak onela ikusterik.

— Ez dezakezu sinistu, Maritxu, zenbat sufritu dedan. Urte t'erdi da alkar ikusi ez degula. Kezkaz betea egon naiz.

Neskak itzegin arazi nai zion, da galdetu:

— Zer, ba?

— Ara: ez dezu zuk kulparik. Dena nerea da. Badakizu: umetan eskolan asi giñanetik, beti batean ibili gera. Egia esan, ain ikasle ona ziñan. Nik berezi egiten ziñudan. Zu, gure Begoña ta ni, iñoiz Ramona ere bai. Nola burla egiten ziguten gogoraz-zen al zera? Bernardoren joera ura. Paulo bera ere etzan santua. Izaskun, berriz, inbiriosa.

— Gogoratuko ez naiz. ba? Dena oraintxe balitz bezela.

— Gero, Gaztelura morroi. Ordurako, ez nintzan konturatzen, baiña zureganako naia banuan. Artean zu gaztea ziñan, baiña neska ederra. Gazte azia

baiziñan. Gero, zazpi urte auetan, gutxitan ikusi zaitut. Zaku babako orduan, baiña orduan ere...

— Ixo, Joxe! Esan nizun gu bion artean geiago ez berritzeko.

— Barka zaidazu. Denak pillaka datozkit, eta ezin adierazi nai nukeana. Orain urte t'erdi ikusi gabe egonak, zer ondore ekarri ote dit? Lotsatu egiten naiz, baiña esan egingo dizut: beste guziak berezi ta zu bakarrik nere biotzaren erdian eukitzea ez naiz diña, ez det merezi, baiña argalkeri ori egin det.

— O, Joxe! Ortaraño merezi al det nik?

— Zu, Maritxu, berdingabea zera. Nai nuke jakin zenbat mintzatu zaizkizun orrela.

— Iñor ez, Joxe.

Orrela ari zirala, amak deitu zuan atetik:

— Maritxu, nun zera?

— Banoa, ama!

Eskua emanda:

— Eskerrik asko, Joxe. Billatuko degu tartea itzegiteko —esanda, erratsa artu ta amarengana joan zan.

Barrura sartu ziranean, amak matraillean ikutu ta galdetu zion:

— Zein zan ori?

— Gero esango dizut —erantzun zion.

Bereala apaldu zuten. Aita oiera joan zan, da ama-alabak sukaldean *kux-kux-kux*.

— Zein zan ura?

— Ño! Presa dezu jakiteko.

Amak imurtzi egin zion.

— Zein izango, ama? Joxe.

Bai; neska ere, mutilla bezela zegoan barruko kezka: zer gertatuko ote zitzaien? Azkar asi zan amarekin aitortzen:

— Egia esan, ni ere zaleturik nengoan itzegiteko. Ura jardun da. Ni ez. Zergatik? Azkarregi moztu gaituzulako.

— Ara orain zer esaten duan onek! Ez nekian da...

— Billatuko degula tartea itzegiteko esanda agurtu da.

— Ea, ba, zer esan dizun.

— Ara bere itzak: "Ainbeste denboran itzezin gabe naigabeak igaroz, da zer ondore ekarri didate? Beste guziak berezi eta zu bakarrik nere biotzaren erdian eukitzea merezi al det nik? Zu, Maritxu, berdingabea zera". Orrela erantzun dio nere galderari. Gero, zu azaldu zera, ta ondo dago. Samurtu naiz ni ere, ta auskalo zer esango nion.

— Kontuz gero, Maritxu! Zure izen onari begiratu.

— Ez, ama. Ez ortara beintzat. Maitasuna agertu bakarra. Egundo ez nau ortara zirikatu. Oso ona da. Ni zin eginda nago, iñork ez duala nerekin arremarik izango ezkondu arte.

— Ez bear beintzat. Eta zuk ala nai al diozu?

— Bai, ama. Nik ere ura bakarra nai det. Ez al zaizu gustatzen?

— Neri bai. Oso famili ona da, ta bera gorputzez liraiña, berdingabea.

— Orain soldadu joan bear du, ta beste iru urtean au sufritu bearra!

— Ba danak joaten dira. Zaude lasai. Aitak ez dakit onartuko duan. Orri, badakizu, bere dotearekin burua nastutzen zaio ta...

— Zuk ez gero itzik esan. Agindu nion, jakiten nuanean esango niola.

Igandean sortea, baiña Joxe etzan joan ikustera. Maritxurekin egon nai zuan.

Arratsaldean errian zebiltzan, da goiz aldegin zuan. Bazekian Joxe nun egongo zan. Etziran asarre.

— Gaizki mintzatuko dira lagunak, baiña denbora gutxi au alkarrekin pasa bear degu. Lengoan amak izurratu giñun.

— Ez, Joxe, ez. Utziozu amari.

— Esaten nizun, ni baiño aurreragokoak izango zenituala zuk. Esan zenidan nola etortzen zitzaizkizun.

— Bai; baiña aurreragokoak ziranik ez.

— Zein da, ba, zure biotz garbi orrentzat aurrenekoa?

— Zu, Joxe, aurrenekoa ta atzenekoa dan bakarra. Betirako zu neretzat.

— Bai, Maritxu, bai. Zu dena.

— Ta Izaskuni-ta zer egin bear diezu?

— Zuk egin dezuna. Iñor ez det izan zalantzan jarri naunik ere. Beti, ezagutu ziñudanetik, zu bakarra nere kuttuna.

Ori esan da eldu zion sorbaldatik, da bere kontra estutu ta musu eman zion.

— Ez, Joxe —esan.

Baiña, nola etzekiala, berak ere masaillean eman zion, da:

— Utzi, Joxe! —esan da banakatu ziran.

Atari-zelaian illargi betea izan zan bi gazte maitemindu aien lenengo musuaren testigu.

Gero, ondorengo pausoari begira, izketan asi zan Joxe:

— Zure aitak, ordea, ni ez nau naiko etxean.

Erantzun zion:

— Bururik ez autsi gauza oiekin. Fin ibili gaitzen, da beste danak gizatasunak ekarriko ditu.

— Ni, nabillen tokian, oraindaiño saiatu naiz. Orain, zor dizudanagatik, geiago.

Miel apaltzeko ia prest zegoan, da Joxepari esan zion:

— Nun da Maritxu?

— Atarian illargitan dago Joxerekin. Utzi zaiezu, orain soldadu dijoa ta, itzegiten.

Bikotea goxo zegoan, alkarri begira ezin asez eta aspaldiko goraberak alkarri esanez. Baiña Maritxu oartu zan aita-amak zai egongo zirala, ta:

— Joxe, gaurkoz buka dezagun. Urrengoa arte!

— Agur, ba, Maritxu! Baiña nerekin eramango zaitut.

— Baita nik ere zu —erantzun zion, eta etxera joan zan.

Sartu zan arte, atzetik begira egon zitzaion Joxe. Etzan asarre. Mundu osoa berea zuan. Zorion geiago etzitekean.

Mielek, ordea, Joxe entzun zuan ezkerro, kaskiallu-punta zeukan, eta:

— Zer zabilta, umea, garai ontan?

— Berandu al da, ba, aita?

— Bai. Oitura baiño beranduago. Ondo dago, illargi betea zegoan da.

Apaldu zuten, da alabak amari esan zion:

— Aitari kontuak esan nai dizkiot, eta zergatik kafea ere ez eman?

— Bai, umea.

Berotu ta atera zuan irurentzat.

— Aita, esan nizun, lengo zaputzaldi ura baretu genduanean, jakiten nuanean nik maite nuanak ni maite ninduala, azkar esango nizula. Orain badakit eta, nai badezu jakin, Joxe Egileorkoa da. Gu txikitandik alkarrekin berezi ibiltzen giñan. Orduan, nola

ez genekiala, maitemindu giñan. Gero, ura Gaztelura. Ni artean umea nintzan, baiña bakarrunea sentitu nuan. Geroztik, noizik bein, urtean bi aldiz bakarrik itzegin, da urte t'erdi ontan bat ere ez, ni Eguberrietan griperekin nintzalako. Ta orrek, denak banakatu bearrean, batu egin gaitu. Orain soldadu dijoa. Aguanta egin bear. Gustatzen zaizute?

Amaren berri bazekian.

— Neri bai —amak—. Mutil bikaiña, ona ta langillea izan bear du.

— Ala entzun det. Baiña zorioneko dotea!

— Gizona, nik aiña izango du. Zuk beartsua artu zenduan. Zorionekoak izan gera, ni beintzat.

— Bai. Ni ere zurekin ala izan naiz. Bueno; bizi-modua atera degu, ba. Auek ez ote dute aterako? Alaba zorioneko egin dezagun, bai noski, gauza guzien gaiñetik —sendo esan zuan—. Ordu onean betor!

— Eskerrik asko, aita. Ni zuek poztutzen aleginduko naiz.

— Len baiño geiago? —galdetu zion.

— Al badet, bai. Banekian, naiz nekez, zuzen jokatuکو zenduala.

Ezin zuan bestela ta musu eman zien bie Mari-txuk.

— O! Neretzat zerua munduan gaur zabaldu da.

Kontu kontari apur bat egon da oiera. Berriro belaunikatu, errezoan Ama Birjiñari eskerrak eman naiez, eta lo ametsetan.

Urrengo egunean, jaten-karraio zebillen astoarekin, da Bernardo topo egin zuan. Onak nunbait min eman nai, arro utsa baizan:

— Ire adiskide ori Afrikarako atera omen den.

— Nik adiskide denak ditut, ta ez dakit zein esaten dezun.

— Egileorko lepaluze ori. I orri begira ez ago, ba?

— Aizu: zu baiño naiago det.

— Neska, i baiño ederragoak bazeuzkanagu, nai izan ezkerro.

— Proportzio ona daukazu. Nik, beintzat, etzaitut nai —errabiz esan da aldegin zion.

Baiña min artu zuan. Len bi anai Afrikarako tokatu, ta orain irugarrena ere bai. Iru urte ikusi gabe. Min zeukan, baiña bai poza ere. Bazekian arentzat izango zala. Iritxi zanean, aitari esan zion gertatua dena.

— Oiek beti nundik min emango. Bazeneki zenbat aldiz gogoratzen naizen nola txoratu nintzan... Ederki erantzun diozu.

— Joxe gizaraixoa!

— Animo, Maritxu! Osasunarekin biziko gera. Segi fin. Etorriko da.

Illuntzean erne zegoan Maritxu. Amari esan zion:

— Gaur, seguruena, Joxe etorriko da berri ori ematera. Zu lasai, ama.

— Ez, Maritxu. Zabarregi ez asi. Pakea bear degu.

Errezeloa zuan bezela, joan zan Joxe. Azkar ikusi zuan, da irten ere bai. Asi ziran kontutan. Maritxu esaten ari zitzaion etxeko pasadizoa, ta:

— Ez liteke, Maritxu. Ni beartsua naiz.

— Nere begietan aberatsena. Lana egin bearko degu.

— Lana naiago nuke. Etorria banengo, kupira aundi gabe egingo nuke.

Une berean aita atera zan, da zuzen joan zan gaztearengana. Joxe dardar zegoan bildurrez, ta esan zuan aitak:

— Maritxu, ez al nizun esan ordu onean datorrela? Goazen etxera.

— Baiña... —esan zuan Joxek.

— Atoz —Maritxuk.

Aita jira zan, da:

— Ez al zatozte?

— Bai, aita.

Ta jarraitu zioten. Joxe arrunt txundituta zegoan, ezin sinistuz. Joxepak gozo asko artu zuan, da eseri ta porru-patatak atera zituan. Aiek jaterako, txorizo batzuk, eta arrautzak ere bai. Mielek esan baizion zerbait geiago jartzeko danetik.

Jan zuten. Mielek Gazteluko berriak galdetu zizkion, da Joxek esan bear, aurrenean lotsatuta, baiña atzenerako pasa zitzaion. Lasaitu zan. Gaiñean kafea. Afrika zeukaten min ematen ziena.

— Noiz joan bear dezute?

— Laister. Naiago nuke biar, lenbailen etortzeko.

Aita altxa, "gau ona pasa" esan da oiera joan zan. Joxek ere etzuan pisu izan nai; ta, altxa ta ama agurtuta, irten zan. Baiña Maritxuk ateetara lagundu zion, da:

— Agur, Joxe —esan zion.

Onek besarkatu egin nai zuan.

— Ez, Joxe —esan zion—. Txukun da garbi ibili bear degu, etorkizuna eskuetan daukagu ta. Zenbat eta txukunago gabiltzan, alkar geiago maiteko degu.

— Arrazoi dezu. Agur!

Ezin zuan sinistatu egia zanik. Ametsetan bezela joan zan etxera. Ama jantzi autsitakoak berritzen ari zan; da, nola ezin kabitu zan, dena esan zion. Poztu zan ama.

— Egon adi. Txukun ibili.

— Bearko arekin!

— Ez ori, ez. Ik jakin bear dek ura errespetatzen.

Andik egun batzuetara, Donostira deitu zituzten; da biaramonean trenean sartu ta Afrikara, Zeutara. Etzan alai irten. Bezperan agurtu Maritxu, alkarri idaztekotan.

Ala, geienak ezezagunak, Baiña errikoa ere bazuan bat: Krispin Agirre Saizar, mutil motz potolo bat.

Amabost egunerako iritxi zitzaion karta amari, eta urrengo egunean Maritxuri.

Illean bein idaztekotan gelditu ziran. Zer esanik ez, txukun asko beren goraberak agertuz, txintxo zebiltzan alkarrekin.

Anjelesen naia

ROMAN il ondorean, Anjeles zearo lur jota zebillen. Iru urte barru bi anai il, da bakarrik gertatu. Gutxiagotarako al da? Berez ere nerbiosa, ta gauean lotara Maritxu joaten zitzaion.

Bazekian luzaro orrela etzitekela. Zerbait pentsatu bearra zeukan. Egunero neska gaixoa, alaba bakarra gaiñera, arengana lotara. Jatenak aiek egin. Orain, udazkena zalako, garoak. Gero, arbia. Udaberrian, soro-lanak. Iñola etzitekeana ikusten zuan. Estebanen goraberetatik asita, ia lau milla pezta kontatzen zituan zorra zeukana. Baiña dirurik ez. Zer egin?

Ainbat pentsamentu ibili ondoren, gau batean oiean zeuden. Maritxu askotan ixilik egoten zan. Jakiña, Joxe Afrikan da ura buruan. Arrats batean, Anjelesek esan zion:

— Zu etzaude lengoa. Aspertzen ariko zera, arritzekoa ez da ta.

— Zer, ba?

— Orain ixilluneak egiten dituzu.

— Ez, Anjeles. Nere ixilluneak ez dira zuregatik. Nik etzaitut utziko. Zu lasai.

— Bai; baiña itxuak ikusten du onela ezin ditekela. Zerbait egin bearra daukagu.

— Zer, ba? Zu nerekin aspertu al zera?

— Zuekin aspertu ez. Bildurra ez ote nazuten naiko.

— Ez dizut ulertzen zer esan nai dezun.

— Garbiago esango dizut. Orrela ezin leike, eta nik ez nuke ospitalera joan nai. Ez nezake beste eratara zuzendu, ta erabaki au artu det: zuen etxera joan ni. Zuk orduan etxean lo egingo dezu. Nere diña jateko izango da. Lo-lekua ere bai. Osasun dedan artean, lanean aleginduko naiz. Eta Gazpio zuri utzi, dagoan bezelaxe. Zuek baliatu al dezute-na. Edo, zuek nai ez badezute, ospitalera. Besteekin ez det nai. Zurekin, Maritxu, ain ona zera ta, esan nezake, nere ume bati bezela nai dizudala. Zer esaten didazu?

— Zuretzat nere ondoan beti lo-tokia izango da, ta zu ospitalera, ezta pentsatu ere. Baiña gainerrako gauza oiek aitarekin itzegin bearako dira.

— Orain... —ari zan Anjeles bere naia agertzen, baiña Maritxu loak artu zuan. Gaztea izan, da gainerra nekatua.

Goizean esnatzean, erne zegoan Anjeles.

— Jeiki, Maritxu, joan-garaia dezu ta. Aitari esan itzegitera etortzeko.

— Gero arte —esan da etxera joan zan. Inpresio egin zion entzunak.

Aita, beiak jetzi ta amarekin sukaldean kafesnea artzen ari zan. Alako zurrumbilla zebilkian barruan, baiña zuzen esan zizkion aitari, buru oso argia bai-zuan. Aita, entzutean, serio jarri zan.

— Ori ez da bromako gauza, alaba. Ura emen bizitzeak guretzat ez du ajolik. Jan-edana eta lekua sobre daukagu. Pazientzi piska bat geiago; besterik ez. Ta Gazpio zuretzat? Ori ez da berriketa, egiten badu. Bai; joango naiz, baiña biak joan bear degu. Zuregana erori da txoria eskuetara. Datorrenean, iges egiten ez utzi.

Jatenak ekarri etxera, ta Gazpiokoak artu ta ara joan ziran. Gurdia ustu orduko, asi zan Anjeles izketan. Dena, bezperan alabari bezela, agertu zion. Da Mielek:

— Eskertzekoa da zure asmoa. Ospitalera ez. Erabakia badaukazu gurera joatea, nai dezunean. Oraintxe gurekin, nai badezu. Beste gauza oiek ez dira nolanai egitekoak. Nik ez det nai, biar edo etzi damutu ta neregatik gaizki pentsatzerik. Gurekin bizi, bai. Uste det ondo biziko zerala. Esan dizut len: nai dezunean.

— Azkar naiz. Atoz, Maritxu.

Onek lagundu zion zituan trapu ondarrak ar-tzen, da etxeko dokumentuak. Eta:

— Goazen.

Abiadakoan:

— Zerbait eraman nai badezu, artu, Miel.

— Ez, ez, ez. Utzi bertan.

Idiak eta gurdia artu, gurdi gaiñera Anjelesen pardela bota ta Beristaiñera igo ziran. Joxepa, Anjeles an ikustean bere pardelarekin, arritu egin zan.

— Egun on, Joxepa. Emen naiz, ba, ni, neska-merik bear ote dezun.

— Ona izan ezkerro, zergatik ez?

— Ona izateko zarregia naiz ni.

— Ondo etorri, Anjeles. Zai nengoan.

Bazkaltzeko bildu ziranean, asi ziran erreztatu ta bazkaltzen eta itzegiten. Anjelesek esan zion Miel:

— Paperak egin bear ditugu.

— Zaude, Anjeles. Konforme bizi bazera, gero egingo dituzu.

— Ez, Miel. Segituan egin bear ditugu, al bada. Aprensioa daukat, nere bi anai gaixoak orren denbora gutxian joan dirala ta ni ere ez nagoala luzarorako.

— Oiek burutapenak! Lasaitu zaitetz.

— Ez, Miel. Lenbailen. Zuk zuzendu bearko dituzu. Gauza alabari utzi nai diot.

— Orixe. Nik ere ori nai det.

— Ea, ba, lenbailen prestatzen dituzun. Nere etorkizuna seguratu nai det, eta lasai bizi izango ditugun egunak.

— Egingo degu, ba, zure naia.

Bazkalondoan eramán zuten, berea bear zuan gelara. Armariotik atera zituan Joxepak an zeuzkan gauzak, eta:

— Ara, Anjeles, zure gela. Orra armarioa, zure gauzak gordetzeko. Bi oi auetan, nai dezunean jarri. Maritxuk jantziko du. Aldameneko au da Maritxuren gela. Beste au, gurea. Ta ori, aita-
-amena izandua, orain utsik. Nai dezuna egin: sies-
ta edo bera jetxi, gogoratzen zaizuna. Zuk oia jantzi, Maritxu.

Urrengo goizean, Mielek goizexeago deitu zion alabari:

— Jeiki zaitetz, Maritxu. Atzo itzegiña egiteko, notarioarengana joan bearko det, eta ara goizean joan bear da.

— Zoaz, aita. Ni jeikiko naiz, ta bi etxeetako lanak egingo ditut. Joan zu lasai, gero etortzeko ere. Ta egin bear dezuna, egin.

— Orduan, prestatu ta banoa.

Alaxe joan zan. Notarioak ikusi zuanean:

— Gizona, zu emen? Zer dakarkizu?

Esan, zana zan bezela, dena, aurrenetik atzen-
raño.

— Ooo! Gauza auek ez dira maiz gertatzen. Egu-
berrietako loteria tokatu zaizu.

— Neri ez. Alabari.

— Berdin da. Orrelako azkar nai badu, biar garaiz zatozte ta egingo degu. Aren paperak ekarri bear dituzute.

— Emen dauzkat. Ara.

— Bai? Ekatzu.

Begiratu zien, da:

— Auek oraindik berriro egin genituan.

— Bai; ospitalean.

— Burura datorkit: ondo zegoan anai motz arek, irakurtzen ari nintzala, latinez ari ote nintzan galdetu zizun.

— Ori burua, don Lorentzo!

— Polita zan da gogoan artu. Biar arte.

Azkar zan etxean. Bazkaltzen ari ziran, da bera ere ala asi.

— Egin degu, ba, egin bearra. Biar garaiz joateko esan du.

— Orixe nai nuke. Orduan biar goiz irten bearko da —esan zuan Anjelesek.

— Bai; gero pentsatuko degu. Arratsaldean jateak egin, da prest jarri.

— Bai, bai. Zuek biok joan, da emengo lanak Maritxuk eta nik egingo ditugu.

— Ez. Maritxuk gurekin joan bear du.

— Zertara, aita?

— Ez dakit bearrezko zeran edo ez. Baietz uste det. Baiña ikusi egin bear dezu zer egiten duan Anjelesek, eta buruan sartu: zuri utziagatik, bizi dan arte, au da nagusi. Onek nai ez duanik, Gazpion ez egin.

Ixilik gelditu ziran.

Urrengo goizean, Miel Gazpioko buelta egin da prestatu zan ordurako, Anjeles eta Maritxu joan ziran. Mielek bidean arrapatu zituan; da goiz, iriki baiño len, an ziran.

Notarioa etorri zanean, aurrena artu zituan. Garbi azaldu zituan gauzak. Bi eratara egin zitekean: saldu-erosiz edo testamentuz. Galdetu zion Anjelesi, ta onek:

— Testamentuz.

— Ba biar edo etzi asarratzen bazerate, nola etxea, bizi zeran arte, zure izenean dagoan, auen etxetik aldegin da kito.

— Ez orixe! Nik an il bear det.

— Saldu-erosiak bentaja auentzat dauka. Dere-txo realak gutxiago ordaindu bear.

— Ortara egin orduan.

— Ori nai badezu, bi eratara egin liteke: bata, osorik utzi; bestea, usufrutua bizi zeran arte zure-tzat gordeta.

— Ez, ez. Nik ez det ezer nai.

— Begira, begira: nik naiago det usufrutua zuretzat dala.

— Bai, noski. Egitezkeru, ortara. Ez det nai kontzientzian kargarik, edozer gertatuta ere.

— Bai; ala da. Egokiena alde ortara da. Emendik ordu t'erdira etortzen bazerate, firmatuko degu, eta kito.

Irten ziran. Anjelesek elizara joan nai zuan. Santa Marira sartu zan. An konfesatu ta meza entzun. Miel eta Maritxu, enkarguak egin da ostera lengo lekura. Itxogin bearra izan zuten. Noizbait deitu zien notarioak. Irakurri, zer nola zan ondo adierazi, ta:

— Ulertu dezu ondo? —galdetu zion Anjelesi.

— Bai. Nik bai. Orain zer egin bear degu?

— Firmatu. Ea, ementxe. Orain zuk, neskatxa.

Ofiziniastari deitu zion:

— Zuek emen. Au ta Miel testigu. Orain nik: Lorentzo Salterain Mendialdua. Bukatu da. Badakizu zer eginkizun bete bear dezun.

— Bai, jauna.

— Zer?

— Au, bizi dan arte, ondo ta txukun zaindu. Egingo dezu?

— Bai, jauna, Jainkoak nai badu.

— Ala izan dedilla. Zu emendik illabete t'erdira etorri. Ordurako prest jarriko det.

Agur esan da banatu ziran. Santa Marin ama-
biak jotzen ari zuten. Alabak esan zion aitari:

— Goazen lenbailen. Berandutuko zaigu. Ni gosetzen asia nago.

— Ez, Maritxu. Aruntzean zakua artu ta emen bazkalduko degu. Ez dago presaka ibili bearrik.

Zakua dendatik artu ta ostatura joan ziran. Bazkaldu, kafea artu ta etxera bidean, Anjelesek esan zion Mieli:

— Nik zuri diru asko zor dizut, ta ez dakit nola ordaindu.

— O! Ez dizkiozu dituzun denak Maritxuri utzi?

— Bai.

— Orduan orrek ordainduko dizkit. Baldin badezu, jaso; ta, ez badezu ta beartzen bazera, esan. Guk degunetik etzaizu ezer paltako. Eginkizun ori artu degu, ta bete gabe ez degu utziko.

Miel gaizkitu

AZKENEKO gertakizun oiek pasa ondoren, Anjelesek ere laguntzen zien da baserria ondo zijoan. Baiña ara gauzak nola gertatzen diran, da datorrena artu egin bear.

Aita gaizkitu ta bizkortzen ez, ura zanarekin. Geroz, eziñean zebiltzan. Asitako karobia egiten, Egi-leorko Joxinaxiok laguntzen zien. Mielek esan zion:

— Gazpioko belazeak garbitu nai badituzu... Asi egin degu, baiña jarraitzeko ez naiz gauza karobiarri; eta pentsatu det, zuk lagunduko bazenigu, oietzek zuri eskeintzea.

— Bai, Miel. Pozik.

— Noiz arte?

— Ez dakit.

— Belarrean ere beartuko gera; ta, ortan ere lagunduko bazenigu datorren apirilla arte...

— Berdin. Pozik. Bai, Miel. Egingo ditugu denak. Zu lasai. Joxepa ta Luis ere kozkortu dira, ta lan asko egiten dute. Ardietan burua pranko badaukagu, ta jana bear; ta oiekin piztu egingo gera.

Joxinaxio asi zan Permiñeri laguntzen. Karraiorako, Beristaingo idiak eta Goikoetxeko beiak. Prankotan, Maritxu bera itzai ibili zan. Eguna joan, eguna etorri, erre zuten.

Miel an zebillen, gauza ez ta egon ezin. Alabak erregu:

— Aita, mesedez, zaindu zazu zere burua. Bizkortuko zera.

Joxepak, zer esanik ez, etzekian zer egin.

Soro-lanak asi zituzten da, karea ateratzeko prestatu ziranean, Joxinaxio etorri zitzaien. Maritxuk ere lagundu, ta lan asko egiten zuten. Joxepak Mieli esan zion:

— Zu zatoz sukaldera. Suari begiratu, ta ni joango naiz goizetik ere.

Arakiña ere bear zuten. Bi zekor zeuzkaten saltzeko. Bera ezin joan. Zerbait obeto zijoan, baiña asko ez. Bai; etzuan bromako zaparrada arrapatu, orrela kokildu zanerako.

Alabak zeukan sasoia latza. Bai; saiatu ere alaxe egiten zan.

Baiña barruan bazeukan naigabea. Joxeren kartarik etzan etorri bi illabete artan. Maritxuk zuzen idatzi zion, da bigarrena ere bai, esanez nola etzuan artu, ta egia zuzen alkarri esatekotan gelditu zirala ta mesedez idazteko. Asko sufritzen zuala. Amari esan zion gaitzestu ote zuen edo zer ote litekean. Amak aitari. Onek esan zion:

— Etzait iruditzen, Maritxu, orrelakorik Joxek egingo duanik. Beste zerbait izango da.

Ia urte t'erdi zeramazkian, da orain idazten ez, len orren gozo idazten zionak. Gero ta kezkatiago Maritxu, ta aitak antzematen zion.

— Ez apuratu. Etorriko da. Ta, olakorik egin balizu, zuk baiño geiago galduko luke. Besteren bat agertuko litzaizuke.

— Ez, aita. Ura edo bat ere ez. Ziur jakin nai det.

— Lasai, alaba, lasai, etorriko da ta. Ez estutu.

Baiña etzan agiri. Jatenak egiten ari zan Maritxu, ta Paula senarrarengana zijoan.

— Ari zera, Maritxu?

— Bai; ementxe ari naiz.

— Zurekin itz bi egin nai nituzke, ba, nik.

— Nai dezunean, Paula.

— Gurera etorriko baziña bazkalondoan...

— Bai. Joango naiz.

Paula joandakoan, Maritxuk onela esaten zion bere buruari: “Zer ote degu? Orri abisatu ote dio, bera ausartzen ez ta neri ezetza esateko?”

Ostera zentzurutzen zan, da:

— Jakin arte lasai ago.

Joan zan, agindu bezela, ta zai zegoan Paula bakar-bakarrik, ta onela esan zion:

— Gure Joxerekin zer gertatu zaizu? Ez omen diozu idazten.

Antzeman zion neskak dena zekiala, ta leial erantzun zion:

— Paula, nik, agindu bezela, zintzo idatzi diot. Baiña arenik ez det artu. Nola liteke?

— Ez dakit.

Paulak, patrikatik atera ta karta eman zion, esanez:

— Irakur zazu.

— Zurea da, ordea.

— Zurea ere piska bat bai. Irakurri.

Ala zion:

“Zuk dakizu Maritxuren da nere berri, ama. Esan bainizun genduan dena. Ia iru illabete dira erantzun ez didala. Nik beti zintzo idatzi diot. Etzenduke sinistuko zure semeak onekin zenbat sufritzen duan. Nere burua baiño maiteago baidet nik ura. Jakin zazu disimuluan, eta abisa zaidazu...”

Etzuan jarraitu. Paulari lepotik eldu ta negarrari eman zion. Paulak garbi ikusi zuan aren barruan etzegoala tranparik.

— Lasaitu, Maritxu, lasaitu. Maite dezu orduan?

— Bai nik, arek ni esaten dizun bezela.

— Sinisten dizut. Arek nereak artzen ditu. Nik lasaituko det ura.

Lasaitu zan.

— Zer gertatu ote da gure tartean?

— Pikaro inbiriosoren bat, seguru asko. Baiña zuk fin jokatu. Arek ala jokatu du. Ziur nago. Iritxiko da eguna alkarrekin egoteko.

— Bai, Paula. Iritxiko da eguna. Orain garbi ikusten det, eta etzait ajolik.

Besoak bular gainean ipiñita, gora begira esan zuan:

— Ni zure zai nago. Etorri lasai. Ez nau ezerk aldatuko.

Apur bat kontu kontari jardun da etxera joan zan. Aita-amak eta Anjeles siestan zeuden. Bera pentsatzen zegoan zer izan zitekean, baiña etzuan asmatzen. Sinisten ere lan zan gerta zitekeanik aien artean alakorik. Baiña zerbait gertatzen zan. Zana zala, bazekian bien artean etzala laiñorik; eta, sufritu bear bazan, sufritu. Iritxiko zan, bai, eguna. Lenago ere prankotan kezkatu zan, baiña etorri zan arengana.

Igandean, mezetatik etxerakoan, aitari Joxina-xiok esan urrengo egunean perira zijoala, ta Mielek arakiñari esateko.

— Bai. Esango diot. Len ere alkarrekin eraman izan ditugu, ta olako bat ea moldatzen dedan.

— Ez legoke gaizki.

— Bueltakoan kaso egingo dizut.

Ortan gelditu ziran.

Lana asko zegoan Beristaiñen. Orain Gazpio ere aiena, ta eskerrak aitak Joxinaxiorekin trattoa egin zuan da au asko zijoakion laguntzera.

Baillaran da errian jakin zanean, batzuek marmarra: engaiñatu egin zuala Anjeles, Gazpio bereganatzeagatik. Ezin eramana ta inbiria gauza ugariak baidira. Berak zekiten kontzientzi garbia zeukatela eta beteko zutela agindua. Jendeak etzekian alabari utzi zionik. Aitak manejatu zuala uste zan. Geien mintzatzen ziranak, Bekoetxen da errian beste bi. Auek izketan dezente jardunak.

Igande batez, mezetatik etxerakoan, Etxeberriko Paulo, Iturburuko Joxe ta Iturraldeko Antonio eta Praisku, Mielekin kontutan zetozten, da Mieli zirika asi zitzaizkion. Ala eta orrela, ta besteak ez esaten zan guzia. Antoniok esan omen zion Mieli:

— Zuk suerte izan dezu.

Mielek erantzuteko denborarik utzi gabe, Prais-kuk:

— Berak jakingo dik zer egin duan.

Mielek ziztakoa ulertu zuan:

— Bai. Neronek dakit.

— Ondo egin ez badituk —erantzun zion Prais-kuk—, Josefaten an agertuko zaizkik.

Min artu zuan Mielek, eta:

— Aizu: an ere zu ainbestean azaltzea espero det.

Andik aurrera ixilik joan ziran.

Joxinaxio, perikoa egin da oso pozik sartu zan Beristaiñera. Apaltzen ari ziran. Esan zioten jateko, baiña etzuan nai. Arakiñarekin itz egin zuala, ta nola iru ziran batera kendu naikoak; lagun batekin etorriko zala; ta Tolosan otsa zegoala soldaduska iru urtetik bira jetxi zutela. Egia ote?

Pozik zetorren. Bi seme baizituan soldadu. Bat, ia iru urte joan zala; ta besteak, urte t'erdi. Pozteko ainbat bazuan.

Baiña ez arek bakarrik. Denak poztu ziran. Maritxuk ura zirrara sentitu zuan sobra ere!

“Ea ez dan egia” —esan zuan bere barruan.

Apalondoan, lanak bukatu ziranean, oiera. Maritxuk bazebilkian barruan katramakil bat. Egia ote? Ezin sinistu zuan. Ala zegoala, ama joan zitzaion.

— Zer dezu, Maritxu?

Laister agertu zion bere kezka. Ta amak:

— Zaude lasai, umea. Lenago kartekin ibili ziñan ia erotuan, da orain orrengatik? Nik apur bat badakit zer dan min ori. Illabete batzuek ez dute ezer esan nai. Zaude lasai, etorriko da ta. Segi gogotik lanari, al dezun gutxiena nabarmenduz. Aita badakizu nola dagoan, da zu orrela ikusiarekin asko sufritzen du.

— O, ama! Eskerrik asko! Etzait bururatu bein ere orrelakorik. Alegiñak egingo ditut.

Bai egin ere. Aren joera asko aldatu zan. Andik aurrera, bereak barruan gordez, aitari alai jartzen zitzaion.

Goiz batean, jatenak egiteko idiak uztartu eta pertikan sartzera zijoala, aitak deitu zion, da esan:

— Paula amarekin da Anjelesekin sukaldean dago. Joxek urteak betetzen omen ditu, ta gazta bialtzeko Tolosara dioa.

— Bai, aita. Illaren ogei ta iruan, ogei ta iru.

— Bale! Zuk ez al diozu ezer bialdu nai?

Bi besoak bular gaiñean gurutzatu ta arnas aundi bat irten zitzaion barrundik.

— Nik nai bai. Baiña zer bialduko diot, aita?

— Nik dirua emango dizut. Gaiñerakoan, zuk pentsatu.

Aitak ogei duroko papera eman zion. Orduan diru asko zan. Bere ura eskuetan zuala, sukaldera joan zan. Paula agurtu ta amari:

— Guk ere txorizo bat-edo ez al diogu bialduko?

— Bai, umea. Pozik ala ere.

Amak, Paularen paketea deseginda, bi txorizo ta urdaiazpiko puska bat jarri ta berriro paketea osatu. Bitartean, Maritxuk, bi letra idatzi ta kartan dirua sartuta, ekarri zuan an sartzeko. Onela zion:

“Joxe, uste gabe izan det aukera au, tartean daukagun deabru orrek sufri arazi digunaren ordaiñez. Ar zazu zure zai oso-osorik dagoan onen biotza. Laister arte: Maritxu”.

Osatu zutenean, usu joan zan Paula Tolosara, semeari paketea bialtzera; da pozik gaiñera, alako esku-erakutsia aren semeari Beristaiñen egin ziotelako. Baiña etzekian kartaren barruan zer zijoan.

Aita Tolosako mediku batekin asi zan, da onek esan zion seguru sendatuko zala, nai bazuan.

Mielek galdetu zion:

— Zergatik esaten didazu “nai badet”?

— Ara: bronkioak dauzkazu zikinduak, eta nolainai berrizkatu zindezke. Zuk ezer gutxi daukazula uste ta asiko zera lanean; eta nolainai izerditu ta gero oztu, eta berrizkatu orrek ondorio oso txarrak ekar dezaizkizuke. Petxuko gaitza, *tuberculosis* deitzen zaiona, gertuan da; ta, au arrapatu ezker, gaurkoz ez da sendatzen. Orretxengatik esan dizut “nai badezu”. Kontu izugarria izan lanarekin, beroarekin, izerditu araziko zaituan edozein gauzekin, otzarekin, aize korrientearekin... Jan, al dezun ondoena. Asko zaindu. Ori egiten badezu, bizkortuko zera. Baiña nekez.

— Zenbat, ba: urte bete? —Mielek.

Medikuak:

— Bi igoal. Baiña poliki jarriko zera. Etzenduan berriketakoa, adiskidea.

Ala, senar-emazteak naiko goibel joan ziran etxera. Apaltzen ari zirala:

— Au dek marka, au! Alderdi ederra zeukagu!

Alabak, zutitu ta esan zion:

— Aita, gure etxean lenengoa zu zera. Ez etxea ta gauzak. Zu bazaitugu, denari eutsiko diogu. Eta, zu gabe, pentsatu ere ez det egin nai. Aita, zure lan bakarra: zure burua zaindu.

— Orixe bai —erantzun zion amak.

Aita zurrun gelditu zan, baiña etsita. Andik aurrera, aitari galdetzen zioten: “Au edo ura egingo al degu?”. Baiña egin, berak. Aita azaltzen bazan, ama-alabak etxera bialtzen zuten.

Arrats batean, lotara joan da kontu kontari ari ziran Joxinaxio ta Paula; ta onek senarrari esan zion:

— Ba al dakizu buruan zer darabilkidan, Joxinaxio?

— Esazu, emakumea, ta jakingo degu.

— Bai; esango dizut. Maritxu, aita gaizki daukako, or dabil jo ta ke. Sasoi latza dauka, baiña orrela ez dezake iraun. Bildur naiz urrena ori gaizkituko ote dan. Joxek eta biak asmoa dutena burutzean, gure errain biurtuko da.

— Bai; aldean daukazu, Paula! —erantzun zion Joxinaxiok.

— Ez du ajola. Guk ori pentsatzen joan bear degu. Zuk uste baiño alderago ea dagoan egun ori. Ala balitz bezela zaintzen asi bear degu.

— Ta zer egin bear degu, ba?

— Ara: Mielek nai badu, guk eta Maritxuk bi etxeetako lanak egingo genituzke. Belarrean asi bearra dago, ta Maritxuk belar guziak ez dezazke ebaki. Norbait bear ko luke. Zuk, berriz, Pellorekin, batak besteari lagunduz. Batean angoak eta beste-an gureak egin genezazke: belar, gari, garo ta denak. Egia da. Gu familia aundiagoa gaude, ta ango lanak askoz geiago dira. Baiña baita ere egia da guri beste iñork ez ainbat lagundu digutela. Oien bearra izan degu.

— Egia, Paula, orixe. Barruti, belar da gaiñerakoekin, amaika aldiz beartu gera aurten. Soroak ere oien kareari esker karetu ditugu, ta arrazoi dezu. Guk, asko da baiña orrenbeste egin dezakegu. Ta ziur nago ez giñakela galduan aterako. Naiko ote du Mielek?

— Esan egin bear —Paulak.

Senarrak:

— Biar obeto pentsatuko degu, baiña esan egin bear diogu, arrazoizkoa da ta. Semea tartean dala, geiago.

Ondorengo egunetan, askotan berritu zuten, da erabaki ere bai. Jai-arratsaldean joango ziran, eta esan ere bai Mieli berak erabaki zezala.

Siestatik jeiki ziranean, Joxinaxiok Paulari esan zion:

— Tira, ba: esatezkeroz, biok joan bear ko degu.

— Ez. Zoaz bakarrik —Paulak.

— Ez, ez. Biok, joatezkeroz.

— Tira, ba: presta zaitea. Galtz oiek aldatu, ta txukundu.

Paula ere apaindu zan, da biak abiatu ziran. Eguraldi goibel samarra zegoan. Ernioko gaiña agirian zegoan, baiña ezker aldera illunago. Donosti aldea argiago. Mendebal aizeak jotzen zuan. Etzego-

an batere otzik. Beristaiñera arrimatu ziranean, in-
txaur aundiaren azpian ala zioten:

— Norbaitek aldatu zuan, ba, au ere. Zenbat
urte ote ditu? Ta zenbat anea ale eman?

Ala ari zirala, Miel atera zan etxetik.

— Ara misteriozkoak! Ongi etorri!

— Guk i ikusi bear augula eta i bizkortuta!

— Bai. Orixe nai bai.

Aldeko kontuak zebilzkian eta Tolosako sendagi-
lleak esandako dena adierazi zien.

— Ortik kontuak atera zeinzen bizkorra egongo
naizen. Orrenbeste lan da kolperik ez egiteko. Zer-
bait asten banaiz, andrea ta alaba armonian. Olaxe
bizi naiz, ta orrenbestean ere pozik. Beste mundura
joateko etsian jarri nintzan. Zuzenduko omen naiz,
baiña luzera. Zer egingo degu? Saiatu egin bear.

— Bai, Miel, bai. Saia adi. Gaiñerako guziak
zuzenduko dituk, osasuna lortzen badek. Gu i ikusi
ta irekin itzegiteko asmoan gatzetozek, nai badek.

— Bai, motell. Esan lenbailen dakartzutena.

— Bai. Onen idea dek, eta berak esango dik —
Joxinaxiok.

— Ea, Paula, esan zaidazu.

Au apur bat moztu egin zan. Baiña asi zanean,
aria etorri zitzaion.

— Bai, Miel. Nik banekian zure berri. Lengoan,
iturrian Joxeparekin batean nintzan lixiba jotzen;
da zuk esan dezun dana esan zidan. Oni esaten jar-
dun nintzan: bein ere bazan, premia zuen etxean
oraintxe zala; ta, lotsarik bagenduan, zerbait
eskeintzera etortzeko garaia ere oraintxe zala; ez,
etorri izan geran bezela, eskatzera bakarrik.

— E, Paula! —esan zion Mielek—. Zuek ez dezu-
te batere zorrik gurekin.

— Ez orixe, ez! Makiña bat gauza bai, barrutietatik asita, musu truke artu ditugu. Berriz ere gu beartuko gera sobra ere aixa. Esan nion Joxinaxiori. Zuen etxean orain, gariak dirala, belarrak eta geiago ere bai, naiz bizkorra ziñez izan, Maritxurentzat lan gogorregia da; ta, zuek ala pentsatu ezkeru, gu indarra bagaude eta, batean gurea eta bestean zuena egin bearrean, aurrena dagoanari jarraituz, Maritxu guregana ta gu arengana joanez, danak egingo ditugu.

— Bai, emakumea! —Mielek.

Joxinaxiok:

— Orixen itzegin genin lengo gau batean. Oni bururatu zitzaioen. Nai badek beintzat, egin leikena dek. Gure Pellok eta nik belarrak laister moztuko dizkiagu. Gariak eta gaiñerakoak ere bai. Gu konforme gaituk. Ik daukak itza.

— Motell, motell! Zerua iriki didazute. Joxeparekin da Maritxurekin itzegin bearko dit. Baiña nerean beintzat bai.

Orrela ari zirala, alaba ikuillutik irten zan. Beien lanak egiten ari baizan. Ikustean, arritu egin zan. Baiña aitari esan zion:

— Zer, aita: atarian, eskazaleak bezela? Ez al dago gure etxean lekuri?

— Oraintxe ginjoazen —aitak, eta sukaldera sartu ziran.

Joxepa ta Anjeles an zeuden. Joxepa arritu egin zan biak an ikusteaz. Eseri arazi ta maian intxaurrak, ogia ta ardoa atera zituzten. Maritxu sukalderatu zanean, Mielek esan zuan zer eskeintzarekin zeuden Joxinaxio ta Paula, ta Maritxuri:

— Zer esan bear zaie, Maritxu?

— Aita, zuk badakizu zein anketatik erren egiten dedan.

— Da zuk, Joxepa?

— Neri zerua iriki zait. Orrenbeste lanarekin guk bakarrik ez genezaken; da, alkarri lagunduz, arrosa bezela egingo ditugu denak.

Miel etzan asarre:

— Gure arazoa zuek erabaki dezute. Onez aurre-ra alkarrekin. Eta, Joxepa, orain lokarri au estutze-ko, aparria jarri, ospatu bear degu ta.

Jus! Etxera joan bear zutela. Ezetz ta baietz ari zirala, Maritxuk Paulari:

— Geldi zaitetz, ama!

Ori entzutean zirrara bat pasa zitzaion gorputz guzian Paulari, da ez nai orduko erantzun zion. Beste iñor etzan oartu aien izketaz. Paulak Joxinaxiori:

— Gelditu egingo gera, guretzat egun aundia da ta.

Alaxe, goxo-goxo apaldu zuten. Kontu jardun ederra egin ere bai. Nola asi erabakitzen ari zirala, Joxinaxiok Mieli:

— Ik zuzendu nola egin, da guk egingo diagu. Ik nik baiño buru geiago dek.

Berriro kafea artu ta banatu ziran: Beristaiñen, poza ta etorkizunaren argia ikusiz; eta beste biak, *kuxixi-muxixi* alkarri kontuak esanez.

— Ba al dakizu? —zion Paulak—. “Geldi zaitetz, ama” esan dit Maritxuk. Ura zirrara pasa zait! Ez nai orduko erantzun diot. Orduantxe esan dizut gelditzeko. Pin dabil orduan neska.

Joxinaxiok:

— Bai mutilla ere.

Zeuta

JOXEK amarengandik bazekizkian etxeko eta Maritxuren berriak. Zein ote zan tartean zeukaten etsai ori? Jakin nai ta ezin bururatu. Bueltaka zebilkian buruan, baiña alperrik.

Ala zebilela, gaixotu egin zan da ospitalera eramane zuten, ogei ta emeretzi gradurekin. Zer ote zuan da gripe gaiztoa zuala. Goibel da motel zegoan. Ala zion berekiko: "Etxean banengo, gure amak berbenaren ura emanda xaingorriekin, da berbena ta baratzuri ta enplastoia petxuan jarrita, laister sendatuko nitxiokek. Baiña emen pastilla ta indizioa ugari, ta utsa!"

Asi zan suspertzen, baiña berritu etzaio, ba? Oraingoan, pulmonia zuala. Berotasun latza, arnasik artu ezin da naiko larri. Etxetik urruti, bazeukan naiko kezka.

Ala zegoala, goiz batean moja berria joan zitzaion. Emakume aundia ta ederra. Serio samarra. Agurtu, termometroa jarri ta aldegin zuan. Ostera itzuli zanean, termometroa kendu, irakurri eta buru gaiñeko paperean idatzi zuanean, nunbait izen-apellidoak irakurri zituan, da:

- Zu euskalduna al zera? —galdetu zion.
- Bai, andrea —erantzun zion.
- Nungoa?

— Tolosa ingurukoa.

— Ni, Arrasatekoa. Berorrika ez det nai, biok anai-arrebak baigera. Zuka ta naikoa da. Gero etorriko naiz.

Joan zan. Joxe poztu zan asko.

— Orain moja euskalduna badiat beintzat.

Ospital artan ez baizan euskaldunik. Kuartelean bai; bat bazuan nastekoa, donostiarra, erderaz bezela euskeraz mintzatzen zana, urte bat zarragoa. Zanak ere poz eman zion.

Andik laister etorri zitzaion berriz moja. Galdera asko egin zizkion: zertatik asi zan, zer botika artu zituan da, atzenean, baserrikoa ala kalekoa zan. Da:

— Lasai egon —esan zion—. Okerrena pasa dezu. Gaitz au, bein bederatzi egun egin ezkerro, onera ematen asten da. Baiña kontuz gero iñola oztu etzaitezen. Nik esanak zintzo egin, da onez laister zera jeikita.

Itz oiek entzunak bakarrik asko suspertu edo alaitu zuan, eta oiean bertan amari idatzi zion, baiña gaizki zegoala ipiñi gabe.

Ala zegoala, susmurra entzun zuan iru urtetik bira soldaduska jetxiko ote zan. Sinistu etzuan egiten. *Radio Macuto* soldaduak diran tokian an izaten baida. Ala zion:

— Egia balitz, gure Inaxio laister etxera, ta ni ere bateratsuan.

Beti buruan ura zebilkian. Amabost egun pasa ziran, da kalenturak utzi zion. Baiña mojak, azkarrago bizkortzearren, an euki nai ta medikuari tranpa egiten: gauean beti *décima* batzuk paperean jarri. Ia medikua ere kezkatzen asi zan:

— *¿Qué tendrá este chico?*

Ta mojak:

— *Como tiene recaída, tarda más en curarse.*

— *Esperemos, pues, un poco.*

Ia jaten ere poliki asia; ta mojak, amaikak alde-
ra, arrautz goringoekin pontxe bikaiña, ta arratsal-
dean merienda. Mutilla, zakurra baiño sanoagoa,
esaten dan bezela; ta, andik aurrera, egunetik egu-
nera bizkortu, ta *alta* artu ta lengo lekura.

Andik laister, bere urte betetzea. Berekiko ala
zion: “Etxean izan banintz, gure amak arroza ere
egingo zin da jan ederra egingo genin. Emen, berriz,
ezer ez, mendi gorri, legor, kolore gaiztoko auen
erdian beroak ito bearrean. Noiz aldegingo ote det?”

Urrengo goizean, guardian zegoala, donostiarra
joan zitzaion esatera furrielak esan zuala takillara
joateko. Zer ote zuan kezketan gelditu zan. Etzan
nai orduko erreleboa iritxi. Arma utzi ta takillara,
eta paketea eman zion furrielak.

Amaren letra ezagutu zuan azkar, ta bakartu ta
bai iriki ere: bi gazta, txorizoak beste bi ta urdaiaz-
pikoa; amak idatzitako paper bat eta beste sobre
bat itxia.

Amaren papera ia jan zuan: danak ondo zirala
ta zorionak denen partetik.

Beste sobre itxia an zeukan. Au anai txikiarena
izango zala pentsatu zuan. Iriki zuan da Jesus! Ura
uste gabea! Maritxuren letra ta ogei durokoa. Ia
erotu zan. Ezin zan iñon kabitu. Ain goxo idazten
zion. Irakurri, kolkoan gorde, osterira irakurri, ura
antsia sortu zitzaion barrenean! Ura erri-miña!
Arentzat, ondo bizkortzeko sendagairik onena iritxi
zitzaion.

Ez bereala, baiña baretu zan, da amari idatzi
zion, Maritxuri ere eskertzeko esanez. Berari idatzi-
ta ez baizuan artzen.

Inaxio etxera

GERO ta susmur aundiagoa zabaltzen ari zan soldaduska moztuko zutela; eta, ondo-rengo goiz batean, or dijoakio donostiarra, lizentzia eman ziela eta etxera zijoala esatera, pozez zoratzen. Bai Joxe ere poztu. Arentzat urtebete gutxiago baizan.

Laguntzera joan zan portura. An soldadu asko zebillen; da, ordu zai zeudela, paseoan zebillela, oartu edo gogoratu zitzaion:

— Ea gure Inaxio emen dan!

Mordoskaka zeuden soldaduak, ta erne asi denei begira. Bueltan zetorrela, ikusi zuan sail batean mutil altu bat.

— Auxe bear likek.

Beste aldera zegoan. Aurpegia ikusi naiaz zebillen, baiña anaiak lenago ezagutu zuan:

— Joxe! —esan zion.

Ia bi urte alkar ikusi gabe. Andik larogei kilometrora omen zan. Inaxiok zein erritan zan bazekian, alkarri idazten zioten da, baiña ikusterik ez. Aien ase eziña!

Oso mutil bikaiña zan Inaxio, eta oso ondo zegoan osasunez. Joxek, nola egon zan da zer gertatu zitzaion, baita Maritxukiko arazoa ere, agertu zion; nola paketea amak bialdu zion, da ogei durokoa ere bai.

— Au etzekiat, baiña Maritxuk bialdua izango dek. Arek idatzitako kartaren barrenean etorri uan.

— Orduan diruan ago.

— Bai. Ik ez al dek?

— Bi pezta auek naikoak badizkit etxera joateko.

— Ez, ez. Gutxi dek. To bost duro.

Etzuan nai, baiña anaiak artu arazi zion.

— Ik Maritxuri nere karta eramango al diok?

— Bai pozik.

Paperak eta lapitza erosi ta laister idatzi zuan, barruari ustu ederra emanaz. Sobrean sartu ta anaiari eman zion.

Bazkaria bi anaiak alkarrekin jan zuten. Lauretan zuan Inaxiok barkua. Bitartean alkarrekin egon ziran. Azken unean banatu ziran, bat etxera joateko pozez, eta bestea triste.

Baiña poz bat bazuan: ibili zan bezela ibili ta bizkortua zegoan. Lengo pisua, ta kolore gorri-gorriak. Ama, seguru asko, kezkatu egongo zan. Baiña Inaxiok zeramazkian berriekin lasaituko zan, da poztu ere bai.

Inaxio bigarren egunean iritxi zan Tolosara. Fite jo zuan etxe aldera. Zabal arnasa artu zuan. Bere lurreko aizea baizegoan an. Bazter guziak berde-berde zeuden; artoak bastante aziak, ia galdorra edo lorea erteten asiak; gariak orituak, laister ebaki bearrean.

Bere buru pentsatu zuan:

— Au lengoa zegok.

Belaze-baztarretan, sasietatik, zozoak, *ki-ki-ki-ki* egiñez erteten ziran. Lizar gaiñetan, pinpiñak *pin-pin* egiñez. Aruntzago, birigarro batek kantatzen zuan. Ezkerrera begiratu ta Ernialde, Anoeta, Billa-bona ta beste erri koxkorrak. Zoragarrizko ikuspe-

gia! Gelditu, begira jarri ta, bi urte t'erdi Afrikako lurralde legor aietan pasa ondoren, zerua iruditzen zitzaion.

Segi berriz ere aurrera. Agin-iturrira iritxi zan. *Bul-bul-bul* urak arkaitzetik erteten zuan, garbi-garbia ta presko-preskoa. Makurtu ta edan zuan.

Ia uste zuan gauza danen jabe egin zala. Lenaz gaiñera ziur zegoan munduak etzuala ain txoko politik besterik.

Berriz ere arin etxeruntz. Bekoetxeko atarian Bernardo topo egin.

— Ara, puñeta! Etorri al aiz? I azkar bialdu auea.

— Nik nai orduko ez.

Itz-otsera Izaskun irten zan atetik, eta eskua luzatu ta:

— O, Inaxio! Ongi etorri! Pozten naiz! Zer mutil ederra etorri zeran! Ondo, e?

Ondradu, merezi bezela, erantzun zion, da etxera, Egileorrera.

Bekoetxen, Praisku Kontxi bere emazteari latinez arrosarioa errezatzen ari zan.

Usu zan etxean. Ezeren susmurrik etzan. Atean gelditu zan zer soma, ta batek amari onela esan:

— Ama, babarrunak goxoak daude.

— Beti bezela —erantzun zion amak.

Inaxiok, disimuloan, *kux-kux* atea jo zuan. *Rau!* Luis irten zan. Ikustean, "Inaxio!" esan da lepotik eldu zitzaion.

"Inaxio!" entzutean, denak an ziran. Ama, eskuak aurreko mantalarekin legortuz, taloak erretzen ari baizan. Bi begietan anpolaiak aiñako malakoak zituala, lepotik eldu ta musukatu zuan.

— Jainkoari eskerrak, etorri aiz! Ta ondo, itxuraz.

— Bai, ama. Ta ez bakarrik. Joxerekin egon naiz onuntzean. Oso ondo dago. Zuri musuak emateko esan dit.

Eta ama musukatu zuan. Au, gaixoa, negarrez ari zan, da aitak:

— Paula, ez ortaraiño —esan zion.

— Ez? Zer uste dezuz? Oso kezkatu nengoan, ain urruti ta iñoren babesik gabe.

— Lasai, ama. Mutil bikaiña dago, ta ura ere laister emen da.

Barrura sartu, kutxarea eman zioten da bazkaldu.

— Au potajea! Emen ezkerotik, ez det orrelakorik jan. Auek taloak! Len ederrak, baiña orain ederragoak.

Amak gaiñetik katillu bat esne eman taloekin jateko.

Egun artan etzan siesta bearrik. Kontuak jakin bear ziran. Naiko lan izan zuan Inaxio denak esaten: anaia nola billatu zuan, nola alkarrekin bazkaldu zuten, bost duro nola eman zizkion...

Noizbait aitak esan zuan:

— Belarrera joan beariko diagu. Lizarretako belazea dena ebakita zegok. Atzo ta gaur Beristaingo belaze aundia erdia ebaki diagu, ta gurea orain ekarri bear. Zer trato degun gero esango diagu. Ni orain Beristaiñera natxik idiak uztartzera; eta, Pello, etxeko beiak eramantzik.

— Aita —esan zion Inaxiok—, nik Beristaiñera joan bearra daukat; eta, nai badezu, idiak nik eramango ditut belazera.

— Bale! Joan adi, eta idiak ekarri. Goazen, Joxepa ta Luis ta irurok, belarra jiratzera.

Arropak aldatu ta Beristaiñera. Maritxu, gurdia kanpora atera ta gain-aga edo leañoa jartzen ari

zan intxaurpean, da ikusi zuan mutilla etxe azpiko muiñoan gora. Joxe iruditu zitzaion. Barruan ura zirrara! Ote ziteken? Ez. Gerturatu zanean, ezagutu zuan zein zan. Eskua luzatu ta goxo agurtu zuan.

Azkar esan zion Joxe nola arkitu zuan.

— Zuri au emateko esan dit.

Gorri-gorri egin zan gaixoa. Une berean, Joxepa ta Anjeles irten ziran.

— Zuek lagundu, ama, oni —esan da bi pausoan bere gelan zan. Ura estuasuna eta larrialdia! Iriki zuan kontuz, ta ala irakurri zuan:

“Orain, ezeren bildur gabe esan dezaizuket senti dedana. Badakit zuk bakarra irakurriko dezula. Maite zaitut, naizen osoan, zeran guzia. Iñon ere laiño-izpirik gabe, zurea oso-osorik izan nai det. Laister arte”.

Oiaren ondoan, buru aldetik, Sortzez Garbiaren irudia zeukan, da erdi parean gurutze bat. Bien aurrean belauniko erori zan; eta, negarrez eskerrak barru-barrutik eman ondoren, sukaldera joan, musua garbitu ta irten zan, da amari esan zion:

— Inaxiori kafea emaiozu zuk. Ni idiekin abiatuko naiz.

Ala, Maritxu belazera zijoan, bere barruan ausnartuz Joxek idatzi ziona. Karta bular gaiñean, gorontzen tartean, zeraman. Aren barruan iñoiz sortu ziran laiño-izpiak ederki uxatu baizizkion.

Iñaxio sukaldean kafea artzen ari zan Joxeparekin da Anjelesekin; eta Mielek, siestatik jeiki zanean da Inaxio ikusi zuanean, arritu zan. Arek ere jakin nai ta Inaxiori luzatu zitzaion. Baiña bat geiago asko baida, ta sasoi artakoa geiago.

Apaltzekoan Inaxiori esan zioten zergatik ari ziran batean. Zer esanik ez, bai-baizekian irabaztekoa zutela ta pozik esan zion aitari:

— Eguraldi onak egingo balitu, ai zer lan mordoa azalduko litzaken!

Beristaiñen ere etziran asarre. Apalondoan, aita ta Anjeles oiera joan ziranean, amari usu eman zion Maritxuk kolkoan zeraman karta.

— Irakur zazu, ama.

— Ez, Maritxu. Ori zurea da —maitekiro eta emozioz esan zion amak—. Zuk esatea naiko da. Orain lasaituko al zera?

— Bai, ama. Pozik nago. Nor baida ere, sufritu arazi dit. Baiña Jainkoak barka dezaiola. Ni orain lasai egongo naiz.

Odol ematea

JOXERI kuartelean berriro tristura barruratu zitzaion. Baiña bazuan zerekin poztu ere. Ia seguru zekian bi urterekin libre zala, ta txukun-txukun jarraitu besterik etzeukan. Osasuna itzuli zitzaion. Arratsaldeetan etxeko gazta ta urdaiazpikoa janez bapo zebillen.

Alako goiz batean, goizxeago jeiki zituzten, ta formatu arazi. Ta tenienteak itzegin zien, esanez kapitanaren emaztea aur bearrean zala, ta erditzera klinikara eraman zutela; oso gaizki zegoala odol bearrean, ta ea aietan iñor bazan eman nai zuanik; bat bera izango zala; ta, aietan iñork eman nai bazuan, pausoa aurrera emateko, besoa altxata.

Iñor etzan mugitu, ta Joxek besoa altxa ta pausoa eman zuan; ta beste oiartzuar batek ere bai.

Azkar, automobil batean, teniente ta irurak eraman zituzten senda-etxe orretara. Eserita zeuden da tenienteak esplikatu zien zer gertatzen zan da zer egin bear zuten. Alegia, kapitanaren emaztea, erditze denboran odola galdu ta ia il zorian zegoala; ta, biziko bazan, besteren batek emandako odola bear zuala. Lenengo, zeiñena zan, gaixoak zeukan odol-klasea analizatzen zutela, eta ura zeukanari ateratzen ziotela. Baiña ez norbera gaixotzeko eta gutxiago ere. Naiago lukela arena balitz.

Gustora emango lukela. Ain ona zala kapitana ta merezi zuala noski.

Baietz erantzun zioten, ala baizan.

Urduri zegoan Joxe nora ote zijoazen. Ez baizan konturatu, besoa altxa zuanean, txarrik gerta lezaiokenik. Gero, *sakamantekas* bururatu zitzaion. Orduan kezkatu zan. Baiña tenienteak adierazi zionean, lasaitu zan. Gaiñera, bera ere an zijoan, da au etzan tontoa ta ezjakiña. Onela zion berekiko: "Zer arraiot! Gaztelun ankako zaiña ebaki nuanean aizkorarekin, odola *bur-bur-bur-bur* ugari joan uan, ta ez nian ezer izan. Au, gaiñera, beste bati bizia salbatzeko dek."

Lasaitu zan zearo. Azkar atera zieten apur bana, ta denbora gutxi barru Joxe deitu zuten. Kamilla-moduko mai baten gaiñean etzan arazi zuten, da baztarretan beso-ankak lotu. Orduan apuratu zan, Baiña medikuak:

— *¡Tranquilo, muchacho, que aquí no te hacemos nada malo!*

Besoa jira zion gora begira, ta:

— *¡Si no hace palta atarle con la goma! ¡Menudas venas tiene! ¡Qué muchacho!*

Rist!, orratz bat sartu zion zaiñean, soka luzea zintzilik zuana, ta matraillean jota:

— *Ya está. Ahora un minuto más y vale.*

Iñungo kontu guziak galdetzen zizkion: nungoa zan; amak zer izen; zenbat senide ziran; ea andre-gaia bazuan. Baiña au etzion erantzun. Par murritzea egin da ixilik gelditu.

— *¡Valiente chico! No has mentido, pero ya veo que la tienes. ¿Cuántos años tiene?*

— *Veinte.*

— *¿Es muy guapa?*

— *Sí, señor.*

— *¿Le quieres mucho?*

— *Todo.*

— *Bien, chico, bien. Si ella quiere, contigo será feliz. Eres un gran hombre. Estás haciendo lo mismo que Cristo en la cruz: dar tu sangre por el prójimo. Salvarás la vida de una mujer, y esto es lo más grande.*

Alako batean, rist!, atera zion orratza, ta algo doi puska batekin sekatu, ta an zegoan mojarri:

— *Hacedle caso* —esanda, bera botillarekin aldegin zuan.

Joxe atera zan tenientea eta laguna zeuden lekura, eta altxa ta "goazen" esan zuan tenienteak, ta ari jarraitu zioten. Jatetxe apain batera eramán zituan, da zer jan nai zuten galdetu zien. Amaikak ziran da artean baraurik baizeuden.

Arek nai zuana erantzun zioten, da txuleta bana ta bina arrautz ekarri zizkieten. A zer gosaria egin zuten! Tenedorearekin da labanarekin asko oitu gabeak zeuden, baiña bapo moldatu ziran. Gaiñetik kafea eman zien, da kontentu irten ziran.

Kuartelera joandakoan, oiean sartzeko esan zion Joxeri, ta siesta egiteko. Etzuala ezeren serbizio rik, eta lasai egoteko.

— Edozertarako ere ez gatxiok gaizki —zión oiartzuarrak—. Lenengo txuleta gaur jan diat nik. Esan ez balu, nik ez netxekian zer zan. Orain baze kiagu txuleta nolakoa dan.

— Ni ere berdín.

Ala zeudela, lo artu ta siesta egin zuten.

Ondorengo zortzi egunetan, Joxek etzuan serbizio rik izan, eta arrantxo espeziala eguerdian: gaiñetik xerra ederra. Eta, apaltzen, bi arrautz. Etzuan ezer sentitu.

Alako batean, tenienteak deitu zion, da esan andrea bizkortzen ari zala; ia seguru zala ta kapitana laister etorriko zala, ta ondo ordainduko zituala.

— Ikaragarriren bat egiña izango diagu, motell
—zioten alkarri.

Ori gertatu ta amar egunera, ofizinara deitu zituzten biak. Kapitana zegoan zai. Agurtu zituan, da lepotik elduta eskertu ta esan zien:

— *¿Sabéis lo que habéis hecho?*

— *Mi capitán, creo que salvar la vida de un semejante* —esan zion Joxek.

— *Sí. Y ese semejante era mi esposa, la madre de mi hijo. Vascos tenías que ser. Tenéis un corazón de oro y sois valientes hasta la temeridad. Lo he podido constatar en los distintos sitios que he tenido que prestar servicio. Se dicen muchas cosas de vosotros y habrá alguno malo. Pero la mayoría sois —¿por qué no decirlo?— hombres en todo el sentido de la palabra. Lo vuelvo a repetir: habéis salvado la vida de mi mujer. Y, dentro de lo que pueda, quiero agradeceróslo. ¿Qué puedo hacer: un permiso o dinero o traslado? Lo intentaré todo. Decidme lo que deseáis.*

Biak, alkarri begira, ixilik zeuden, ezin atrebituz.

— *¿Queréis ir a casa?* —berak galdetu zien.

— *Sí, señor* —duda aundi gabe erantzun zioten.

— *Bueno, lo intentaré y os llamaré* —esan da agurtu zituan.

Tarte artan, amaren karta artu zuan Joxek; da, amarenaren barruan, Maritxuk bialtzen zion bestea. Pozik, nolabait alkarren berri jakin zutenean. Ango berri dena agertzen zioten: zer ondo ari ziran alkarrekin, zein kontentu zegoan Miel, ama eta Maritxu berdintsu, zenbat laguntzen zioten, da aixa egiten zituztela lanak.

Inaxiok zer lasaitasun ekarri zion, onela idazten zuan Maritxuk:

“Sinistuko didazu, Joxe: zoratu ere ia. Ondoeza egiteraiño zirrara sartu zitzaidan, zure agurra

irakurtzean. Artutakoan, gelara joan nintzan, da an irakurri nuan. Baiña belarretara joan bear, da ezkerreko bularraren gainean, gorontza tartean, sartu nuan; da idien aurrean, irakurria ausnartuz, joan nintzan. Nik orduan baiño zorion geiago ezin zitekean. Geroztik, aspertu ere ez naiz egiten lanean, da jenio obea daukat. Baiña, etortzen zeranean, obeto ordainduko dizu zure zai dagoan: Maritxuk”.

Laister idatzi zuan Joxek ordaiña, gertakari guzia garbi agertuz, ta zer esperantza zeukan esanez. Bere buru onela zion: “A zer uste gabea artu bear duten, ondo ateratzen bazaigu!”

Oiartzuarrarekin egunero itzegiten zuan, naiz-ta biak gauza bera zeukaten buruan. Baiña onek andregairik etzuan.

Andik urrengo egun batean, ostiralean, goizetik ofizinara deitu zituzten. Kapitana zegoan zai. Agurtu ta:

— *Ya está —esan zien—. Tenéis permiso. A ti te nombro mi asistente; y a éste, asistente del teniente. Iréis con permiso y, hasta que no os llamen, no vendgáis. Seguramente, pronto os licenciaréis. Si puedo, os mandaré la licencia a vuestras casas; y, si no, os llamaré y tendréis que venir. Pero volveréis a los dos días. He hecho todo lo que puedo para demostraros mi agradecimiento. Dadme vuestras señas, por si acaso. Y ahora, a recoger vuestras cosas. Os espero en la puerta. Tenemos que ir a la clínica, porque mi esposa quiere conoceros.*

Iru demoniok ez baditu, usu ziran beren traste zarrak artu ta atean. Sartu kotxean da klinikara.

Andrea jeikita zegoan, abrigoa bezelako aundi bat jantzita. Ondoan, seaskan, semea, trapu tartean. Kapitanak esan zion:

— *Estos son los que te han devuelto la vida. Éste es el que dio su sangre.*

Raul!, lepotik zintzilika jarri ta musu eman zion, txikia baizan Joxeren ondoan.

— *Gracias, hermano, porque llevamos la misma sangre, ya que yo llevo la tuya. Nunca te podré agradecer como quisiera. Y a ti igual, porque quisiste hacer lo mismo. Jamás os olvidaré.*

Agurtu ta kapitanak portura eraman da utzi zituan. Militarra ta gogorra izango zan, baiña begiak bete-bete eginda aldegin zuan.

Barkuan sartu ta etxeruntz. Igande-eguerdian iritxi ziran Tolosara. An alkar agurtu ta usu etxe aldera, lengo parajetara. Ango maldak eta koskak errez gaintitzen zituan. Etzan asarre mutilla.

Anaia bezelaxe, bazkaltzen ari zirala iritxi. Txakurra atarian zebillen, da aurrena arek sumatu zuan. Isetsa dantzatzuz agertu zitzaion, bere burua biurrituz ongi etorria egiten ziola.

Ixil-ixilik, sukaldeko atearen erdian jarri zan. Zer esanik ez, etziran asarre an ikusi zutenean.

Gustora bazkaldu zuten. Komeriak ziran an: jan ere egin bear, da berriak jakin. Berak pentsatzen etzutela, mutilla etxera etorri! Ez baizekiten zer gertatu zitzaion Joxeri, karta artean artu gabe zeuden da. Bere gorabera denak kontatu zizkien, da amak esan zion:

— Orduan, erabateko etorri aiz.

— Bai. Nere ustez beintzat, bai.

— A, Joxe, Joxe! Lengo esaera zarra bete dek: egizak on, zeñi begiratu gabe —zion aitak.

Arroza esnearekin zeukaten gaiñerako, baiña amak surtan eltzea jarri zuan kafea egiteko:

— Gaur gure etxean egun aundia da.

Etxean

BAZKALONDOAN, etzegoan lasai Joxe; ta, aita-amak siestaratu ziranean, anaiari esan zion:

— Ni Beristaiñera natxik, arako enkargua badit eta.

— Bai. Ez aiz alperrik joango? Aiek orain siestan zeudek.

— Ez dik ajola. Ala badaude, etorriko nauk.

Berak ere lo premia bazeukan, aurreko bi gaue-tan kuluskaren bat besterik etzuan egin da. Baiña ala ere etzegoan logalerik. Bere txokoan baizegoan.

Al zuan ixillena arrimatu zan intxaurpera. Baiña txakurra an zegoan da armonian asi zan. Iru sanga egin zituan. Maritxu, siestara joaterako, sukaldea altxa ta beiei legorra ematera ikuillura joana; ta, zakurraren sangak entzutean:

— Zer du txoro onek? Eskaleren bat edo...

Ta atea iriki ta kanpora begiratu zuan, da antxe eskalea, eliza ainbateko mutilla, bere musu gorriekin, aurrean!

— Joxe! Joxe! Zu emen? Atoz, atoz!

Esku eman zioten alkarri; eta, nola etzekitela, lotu ziran da musu eman alkarri. Azkar askatu zan neska.

— Eskerrik asko —esan zion Joxek—. Bigarren musua eman didazu. Agurtzekoan intxaurpean esan zidazuna gogoratzen al zera?

— Bai noski, oraintxe balitz bezelaxe.

— Pena galanta utzi zenidan orduan ere, eman gabe.

— Ez dakit esan nizun edo ez. Baiña promesa bat daukat egiña Sortzez Garbiari, ta bete nai det. Lagunduko didazu?

— Bai, Maritxu, bai. Beteko degu.

— Da nolaz orren uste gabean etorri zera?

— Ara: karta idatzi nuan, denak garbi jartzen nituala. Baiña ez omen da iritxi. Denak esango dizkizut, baiña luzea da. Aspertuko zera entzuten.

— Ni aspertu? Ez det nai ordu entzun abots au. Esan, jakin nai det eta. Atoz sukaldera, kafea artuko dezu eta.

Goxo batzuk aurrena ta kafea atera zizkion. Aurreko aldean eserita, begiekin jan bear zuan.

— Ba olaxe gertatu da...

Aurrenetik asi ta azkeneraiño kontatzen asi ziztaion.

Ama, zerbait marmarra entzun da jeiki zan. Ikustean:

— O! Gutxiena pentsatzen genduana etxean!

— Bai —erantzun zion alabak—; eta geiena ikusi nai genduana.

— Egia, Maritxu. Aitari esan bear diot.

Amak, gelako atea iriki ta:

— Miel, atoz sukaldera —esan zion.

— Zer degu, ba?

— Atoz.

Etorri zan ta:

— Milla demonio! Zer modu, Joxe?

— Ondo, Miel. Ta zu?

— Lendabizi, ondo etorri. Ni, berriz, batez, Joxe, batez! Izurratu nauk.

— Ez, Miel, ez. Zu bizkortuko zera. Lasai egon. Oraindik gaztea zera.

— Ez dakit, ba. Alegiñak egiten ari dira: “Au ez dezu egin bear. Or korrientea dago. Busti egingo zera. Au jan zazu”. Dena badakite. Egia esan, motelago ere egon naiz. Baiña aurrera mantxo noa.

— Lasai, Miel, alimo!

— Zer erremedio! Ta zu, nolaz urteak bete gabe?

— Oraintxe nijoan esaten astera.

— Segi, ba.

— Onela gertatu dira gauzak...

Dena garbi ta zuzen adierazi zien. Meza erdikoan bezela, ixilik entzuten zioten. Nik uste, Maritxuren barrenean, euliak gozoan bezela sartzen zirala aren itzak. Dena bukatu zuanean, aitak:

— Zerbaitengatik lengo esaera zarra: egizak on, nori begiratu gabe. Baliatu zera, ondo egin dezulako. Neretzat asko esan nai du orrek. Ekatzu oiñeta-koak, Maritxu.

Abarkak eta azpandarrak ekarri zizkion.

— Nora joan bear dezu? —galdetu zion Maritxuk.

— Eguzkia atera du ta satorrak begiratzera, zepoak ikusiz.

— Aita, Joxe ta ni joango gera ta ikusiko ditugu.

— Ez al degu, ba, errira joan bear, Maritxu? — esan zion Joxek.

— Ez. Gaur ez. Beiak jeizterako jira egingo degu, nai badezu.

— Nik bai pozik, aspaldiko partez.

Maritxu, soiñekoa aldatzera gelara joan zan, da amak esan zion:

— Nik ikuillua zuzenduko det, eta abemariak arte lasai ibili.

— Ixtimatzen dizut, ama, gaur batez ere.

— Bai. Argatik esaten dizut: ni zu baiño lenago pasa nintzan ur oietan, da pantasiz esaten dizut: ni ala joan nintzan aldarera. Lagun bat, berriz, iru illabete aurdun zegoala ezkondu zan. Bere senarra-rena omen zuan. Makiña bat negar egin zuan orre-gatik, eta bera zan neri kontseju geiena ematen zizkidana, tristea.

— Zein zan, ama?

— Ez dizut esango.

Zer itzegiña

BIAK abiatu ziran, da Joxek onela esan zion Maritxuri:

— Zergatik etzenduan joan nai errira?

— Oi! Zurekin ibili nai dedalako. Ainbeste denbora zure antsian pasa det. Orrenbeste kezka ere bai. Au, tuntuna naizelako. Ta orain, alkar jo degunean, zertarako degu kuadrilla? Nik zu bakarra naikoa zaitut. Zergatik galdetzen didazu? Ez al da itxurazkoa?

— Bai, Maritxu. Alaxe da ta ori nai nuan. Baiña galdetu dizut, zere aotik itz oiek entzun nai nitualako.

— Onenbesteko naia zeukazun?

— Zer nai dezu, ba? Ia zazpi urte Gaztelun, urtean bein edo bitan bakarra alkar ikusiz. Gero, urte ta erdi pasea Afrikan, kartarik artu gabe aldi batean, norbaitek bereganatuko ziñun bildurrez. Zuk dakizu zureganako nere egarria zenbatekoa dan, orren errez asetzeko.

— Au poza nerea, zuri itz oiek entzutean! Jainkoak lagun, denbora izango degu. Orain asi ta gero, ezkontzen geranean, beti alkarrekin. Ni alare ez naiz aspertuko zurekin.

— Zorioneko egiten nazu itz oiekin, da ziur egon: erantzungo dizut. Baiña ezkonduko al gera?

— Zer, ba?

— Zu etxe oneko alaba bakarra, ta ni xoxik ez dedana. Zure gurasoak oraindik ere zalantzan jarriko dirala zer egin bildur naiz.

— Baiña, Joxe, zer esaten didazu? Mingarri zait zuri itz oiek entzutea. Zuk dakizu zer itz egin genituan, soldadu irten ziñanean, gure sukaldean da intxaurpean. Nik ez det jango itzik, eman nuanik. Eta aita-amak ere zer? Zeloak asi al zaizkizu?

— Ez, noski. Ain maite zaitut, dena neretzat zu baizera.

— Ala nai nuke. Zu beintzat neretzat ala zera. Gure etxean lana egingo degu, ta seme-alabak azi. Ez degu beste bearrik: osasuna ta pakea; ta gure gurasoak zeruan bezela biziko dira gurekin.

Bi usakumeak, aspaldiko partez, alkarrekin zoriontsu ziran. Oartu gabe, belaze aundira iritxi ziran. Borda atzeko atakatik sartu ta antxe zegoan zepoa. Ikusi zuten, da botata baiña utsik zegoan. Goraxeago jotzen ari zan satorra pillá berria. An zegoan.

— Zaude, Joxe. Nik atxurra ekarriko dizut, eta zain zazu ea jotzen duan berriz.

Ekarri zion, da:

— Or goien dira beste bi, eta ni aiek ikustera noa.

Joan zan, da ikusi ere bai. Lenengoak bazeukan. Kendu ta berriz jarri. Bestea bota gabe zegoan. Bazetorren Joxerengana, ta onek, *raul*, atxurkazoa; ta, zotalarekin batean, satorra ere bai. Zepoa berriz jarri ta atxurra bordan utzita abiatu ziranean, Maritxuk esan zion:

— Bazeneki zer datorkidan burura... Aita ondo zala, biok etorri giñan bordako azpia biltzera, ta ez dakit zertara irten; ta or, beko bidean, karraxika emakume bat. Aitari deitu nion, da azkar giñan an. Ori, zu joan baiño lenago noski, e?

— Bai —erantzun zion.

— Ta zergatik ez didazu ixiltzeko esan?

— Zure itzak entzuten gustora nengoan.

— Aspertuko zaitut.

— Asko mudatu bearko dezu. Ase ez nazu egingo.

— Ni tuntuna izan. Roman ere, zu soldadu joa-terako illa zan noski.

— Bai; aurre artan. Baita ere amak abisatu zidan Anjeles zuenera nola ekarri zenduten, da Gazpio aitari eman diola.

— Ez dakizu dan bezela. Roman il zanean, baka-rrik etxean bildurtu egiten zan, da aitari esan zion lekua emateko ari ta jana, ta Gazpio guk erabiltze-ko. Gure etxean lekua bazegoan, eta aitak kentzeko burutapen txarrak eta lasai bizitzeko. Gure etxean, etxeko bat geiago izango zala. Ala, gurekin gelditu. Gela jarri genion eta antxe dago. Oso ona da, eta ondo konpontzen gera. Gero, zerbait sentitzen zuala. Bera ere laister, Roman bezela, ilko zala sartu zitzaion buruan. Oso nerbiosoa jarri zan. Ale-ğiñak egin genituan, baiña ezin lasaitu. Lenago bururatu zitzaion guri etxea utzi bear zigula, bizi zala; bestela, inpernuko etsaiantzat izango zala ta. Guk lagundu geniola Estebanekin da Romanekin; lan guziak aitak egin zizkiola, ta dirua ere zor ziola, ta enteratzeko. Etzion pakean uzten, da egun batean joan zan zer egin zitekean jakitera. Urrengo egu- nean joateko, ta irurok joan giñan, da dana neri uztea erabaki zuan.

— Zuri, Maritxu?

— Bai. Neri. Zaude ta esango dizut. Dena uztea nai zuan. Baiña aitak ez; usufrutua, bizi zan arte, beretzat gelditzeko, zer gerta ere. Gogoaren kontra, baiña alaxe egin zuan. Bizi dan arte, bear duan guzia guk eman, da ordaiñetan, etxea neretzat. Ta agindua bete nai nuke.

— Ta, ala ere, ni berezi lagunetarako?

— Zein, ba? Mutiko-neskatoak giñanetik alkarren atzetik asiak gera, nola ez genekiala. Ortan jarraitzen degu, eta jarraitu bear. Gu, Joxe, zu ta ni, palak eta atxurak berezi bear gaituzte.

— Bai. Ez det besterik nai: biok bat izatea.

Oartu gabe zijoakien denbora. Eguraldia garbitzen. Ernioko muturra gorri-gorri zegoan. Laiño baten tartetik jotzen baizuan eguzkiak. Ezkerretara, ospel alderdiak illuntzen asiak zeuden; da eguterran, apurka-apurka, eguzkia gora zijoan.

— Zaude, Maritxu —esan zion—. Au zoragarria da, illunabarra, emen askotan bezela. Nik aspaldian ez det izan au ikusteko zorionik. Orroko arkaitz ortan eseriko al gera?

— Apur bat egon gindezke.

Biak alkarren gertu eseri ziran. Joxek esan zuan:

— Gure amak ez ditu jakingo gauza auek.

— Ez. Guk, etxeko laurok, bakarrik. Ez daukazu orain esan bearrik. Gero esango diegu.

Joxek, adarra jotzeko:

— Orduan nik Gazpiko etxekoandrearen senarra izan bear det?

Maritxuk, belarrondoko txiki bat eman da eskua luzatu zion, da:

— Bai. Zuk ala nai badezu, beste iñork ez du alko.

— Zu bakarra naikoa zera mundu ontako zoriontasuna billatzeko.

— Zu eta ni.

Orrela ari zirala ase eziñik, eguzkia joan zan, da illargiaren argia asi zuan Ernion bera jeixten. Maritxuk:

— Berandutu gabe goazen etxera, amak orrela esan dit eta.

— Ain zoragarria da zurekin egotea ta zuri entzutea... Bai ondo gaudela!

— Orain asi egin degu. Goazen.

Bazijoazen da, alako batean, Joxek:

— Begira zer illargi ederra dagoan! Guretzat gau zoragarria. Neretzat izan dan ederrena.

— Esan dizut, ba, orain asi dirala.

Oartzetako, atariko intxaurraren ondoan zeuden. Naiko berandu zan. Konturatu gabe, denbora joan zitzaien. Ama erne zegoan; da, somatu zituan, irten da esan zien:

— Sartu, apaltzeko zai gaude ta.

— Gau on pasa —esan zuan Joxek.

— Mesedez, zu onera etorri —Joxepak.

Etzegoan bi aldiz esan bearrik. Eldu eskutik Joxeri, tira ta:

— Zu onera —esan da ekarri.

Aita ta Anjeles zai zeuden. Eseri ziran da apaldu zuten ederki; ta, kontu-jardun galanta egin ondoren, Mielek Afrika aldeko berriak jakin nai zituan da denbora joan zitzaien.

Noizbait irten zan Joxe ere, baiña ez bakarrik, Maritxuk lagundu zion, da:

— Gu ez giñake aspertuko, ta biar arte, Joxe —esan da oieratu zan, bere errezoak zintzo egin ondoren.

Urrengo egunean bazan zer itzegiña: Joxe etorri zala; lagunartera etzala azaldu; Maritxu ere ez... Joxepak esan egin zuan, zakurkerian ez ibiltzeagatik, Joxe nola etorri zan. Jai arratsalde artan Beko-etxeko Izaskuni zerbaitek zirikatu zuan nunbait, eta Joxepari galdetu zion:

— Maritxu zergatik ez den etorri?

Joxepak:

— Nik zer zekiñat, ba? Ez datorrela esan zidan.

— Ba! Joxe joango zitzaionan.

— Ez. Bi gauotan ez duala lorik egin da gelara joan den beintzat, ainbeste lan zebilkin da. Lengo jaian ere ez unan etorri.

Izanez ere, Joxeren papera bular gainean jarri zuan ezkeru ez baizan atera.

Urrengo egunean, au ta ori ari ziran: baiña denak lanera. Ea zer erremedio!

Bazkaltzen ari zirala Bekoetxen, Praiskuk:

— Egileorko ankaluze ori etorri omen dek. Baten-bat ez dek asarre izango.

Bernardok:

— Bai. Ankaluze makal orri begira... Ori baiño mutil jatorragoak etorri zaizkio. Entzunda nagoenez, igualeko ezkontza egingo zuan. Beste dote bat. Joxek zer du, ba? Ezer ez. Ezta bera esertzeko aibat lur ere. Nai nuke jakin soldaduskatik zergatik bialdu duten: edo gaixotasunen bat edo balio ez dualako. Denborarekin jakingo degu.

Kontxi amak:

— Ala ere, ez dira gure etxera etorriko limosna billa.

Praiskuk:

— Ago ixilik, txorua! —orru egin zion—. Onek beti orrelako ateraldiak. Gurean bizi dituk, ba. Iku-siko genikek, neri arrautzetan jarriko balitzait bialtzea, zer egiten duten.

Erabakia

EGILEORREN, jakiña, semea etorri zitzaien; da ain bat ziran denak, ziñez pozik. Beristaiñen ere bai.

Arratsalde batean, etxean arratsaldekoa egiten ari ziran aita-amak eta Anjeles. Aitak zion:

— Gure alaba zeruraiño igo da noski. Joxe etorri bada, etorri, berpiztu egin da. Nunbait maite du.

— Esango nizuke! —esan zuan Anjelesek—. Sinistek ere lan du.

Amak:

— Ez naiz arritzen, Miel. Gu ere olatsu giñan. Gaiñera, urte ta erdi alkar ikusi gabe, ta aspaldian ezer etzekiala, ez naiz arritzen

Mielek:

— *Juuu!* Zerbait pentsatzen asi bearko degu.

Deabruak jo zuten ama. Gogor esan zion:

— Miel, neri ez gero asi emen dotea ta txorakeriekin. Alabaren zoriona bear degu. Arek egingo gaitu gu zorioneko.

— Emakumea, nik ez det orrelakorik esan. Zuk dakizu len zer egin nuan. Damua patrikan baneuka...

— Barkatu zizun, Miel.

— Bai; badakit. Baiña nere barrungo miña ez da sendatzen.

Apalondoan oieratu ziranean, Joxepak:

— Zertarako esan dituzu gauza oiek Anjelesen aurrean?

Mielek:

— Aizu: denak utzi ta etzan, ba, guregana etorri? Ta ez al genion etxeko bat izango zala agindu? Orain bete egin bear da. Edozeiñek artuko zuan pozik. Baiña ez; denak utzi ta gurera etorri zan. Da orain agindua zor. Pentsatzen nago ta esango dizut: Joxek norabait lanera joan naiko du, jakiña, pezta batzuk irabaztera, ta gu emen besteren bearrean. Asko, edo geiegi ere bai, laguntzen digute. Baiña gure alabarentzat lan geiegi dago, ta ez degu ondatu bear, dakigula. Zergatik ez galdetu ezkondu nai duan? Zer iruditzen zaizu?

Amak:

— Ni ez naiz pentsatzen egon, baiña gauza ego-kia litzake. Gure alabak mesede ederra baluke. Baiña gazte samarrak ez al dira?

— Edadez ondo daude, Joxepa. Zuk badakizu ori.

— Tira, ba; nai dezuna egizu.

— Zer kondizio jarri bear dizkiegu?

— Ara: ori zure esku. Len ere, geienak edo denak, ala egin dituzu, ta ez det ezeren kejarik.

— Eskerrik asko, Joxepa. Berriz ere al dedana egingo det, ba.

Urrengo egunean, bezperan bezela, euria egiten zuan. Ikuillua zuzendu ta gosaldu zuanean, idiak uztartu, sega ta eskoarea artu ta jatenetara joan zan Maritxu. Bein alkarrekin asi ziran ezkerro, geienetan, da orduan ere bai, Joxinaxiok lagundu zion.

Bustita etorri zan etxera. Gurdia ustu, idiak askatu, garbitu ta arropak aldatuta jarri zanean, aita ganbaran bankuan ari zan *xirriki-xarraka*, ta deitu zion alabari.

— Zer nai dezu, aita?

Bankuaren kontra jira zan, da bere gainean eserita:

— Begira, Maritxu. Zu gaizki zabilta, lan geiegi ta. Laguntzen dizute, baiña emakume batentzat askoz geiegi da gure etxeko lana. Ta zer iruditzen zaizu ezkonduko baziñate? Orduan, bien artean, errezago bizi ziñezke.

Argi-ındarrak jota bezelakoxe zirrara pasa zitzaion Maritxuri gorputzean; da, nola erantzun ezin asmatuz, bi begi eder aiek malkoz bete zitzaizkion, da aitari esan zion:

— Nik senargaia zein dedan badakizu. Au onartu nai badezu, zergatik ez?

— Guk lenago baieztu genduan, eta ez degu atzera egingo.

— Itzegingo al det, ba, Joxerekin?

— Bai. Itzegin zazu. Arek orain nunbait ere lana naiko du, ta iñorako konpromisorik egin baiño len ohea litzake; ta, konforme bazerate, gauean etortzeko esaiozu. Amak nai du, ta apari gozoa jarriko du. Nik, ortarako, guk nai ditugun kondizioak esango dizkizuet. Ta, ontzat artzen badituzute, aurrera. Naiago nuke, biar baiño, gaur. Sufritzen nago zu orrela ikusita, ta nik ezin lagundu.

— Aita, ni gustora ari naiz. Joxe bai; lanera joan naian dago pezta batzuk irabaztera. Atxupiagan ari diran basomutil oiek esana diote, baiña oraindik agindu gabea da.

— Obe —erantzun zion—. Onez aurrera zure kontu.

— Bai. Esango diot.

Erne zegoan Maritxu nola moldatu pentsatzen, da Pello ta Luis ikusi zituan borda aldetik bera zetoztela; ta bide-gurutzera irten da:

— Egun on. Joxe nun ote dezute?

— Batean giñan bordan, da ardiak gorago uxatzera joan da. Laister emen da. Zer nai dezu esatea?

Irripar egin da:

— Eskerrik asko —esan zien, da bakoitza beren aldetara banatu ziran.

Maritxu etxeko mandiotik begira zegoan, noiz ikusiko. Bazekian bide-gurutzean jiratzerako ara begiratuko zuala. Laister agertu zan. Bide-gurutzera irixtean, keiñua egin zion etortzeko. Bai bestiak ikusi ere. Zuzen-zuzen joan zitzaion. Ganbarara sartu arazi zuan, da:

— Joxe —esan zion—, ezin kabitu naiz pozez. Baiña kontu: amak zaindu igual egingo gaitu ta. Ba al dakizu aitak zer esan didan? Ezkondu nai dedan. Esan didan moduan, okerrena pentsatu det. Zirrara ederra pasa zait, eta esan diot: “Nik senargaia zein dedan badakizu, aita. Ura onartu nai badezu, bai”. Bildurrez esan diot. Eta zer erantzun didala uste dezu? “Guk lenago baieztu genduan, da ez degu atzera egingo. Esaiozu; ta, konforme bazerate, datorela apaltzera. Amak nai du, ta apari gozoa jarriko du. Nik, ortarako, guk nai ditugun kondizioak esango dizkizuet. Ta, ontzat artzen badituzute, aurrera.

— Maritxu, orren egun gutxian orrenbeste biozkada ausnartzen erreza al da?

— Zer, ba, Joxe? Lentxeago edo geroxeago irixtea nai genduan eguna da, ta atzera egingo al dezu?

— Ezin nezake ukatu.

Neska erne zegoan.

— Kontu, Joxe, gero denbora izango degu ta. Ez det nai amak ikusterik.

— Bai, Maritxu, bai. Etorriko naiz. Pozik gainerra. Zer ordutan nai dezu?

— Illuntzerako etorri. Eguraldia alamodukoa dago ta denbora bear degu itzegiteko.

— Gero arte —esan da banatu ziran.

Bazkaltzen asi ziran Beristaiñen.

— Itzegin det, ba, aita, ta baietzean gelditu gera. Etorriko da Joxe. Illunabartzerako esan diot, itzegiteko denbora ere bear degula ta.

— Oso ondo —erantzun zion aitak—. Badakizu, Joxepa: aparti gozoa jarri zuk, guretzat egun aundia da ta.

Anjeles zerbait errezelatu zan, da:

— Zuek zeren gauzak itzegin naiko dituzute, ta ni oiera joango naiz —esan zuan.

— Ez, Anjeles. Gureak eta zureak. Ez genduan itzegin gurea izango ziñala? Zu ementxe gurekin. Emengo kontuak emen euki bakarra, ta ori zuri esan bearrik dagoanik ez det uste.

— Ez, ez. Lasai egon.

Etzegoan lana agindu bearrik. Bein ere ez, baiña orduan geiago saiatu zan txukunketan Maritxu. Amak oilloa il zuan, da egosten jarri, saldarekin zopa egin da gero labetxoan piperrekin jartzeko.

Goiz egin zituan ikuilluko goraberak Maritxuk. Garbitu ta apaindu zan. Geienetan baiño ere musu gorriagoa zeukan. Nunbait barruko emozioak gorritu arazi zizkion. Aita gelan egon zan illunabarra arte. Aurretik sermoia prestatu naiko zuan. Abuztuaren 11'a zan; San Tiburtzio eguna. Maia jarri ta zai zegoan Maritxu. Aita jetxi zan.

Alako batean, Maritxu zintzo zaintzen bidea ta ikusi zuan Joxe nola zetorren. Ateetara irten zitzaion.

— Gabon, Maritxu.

— Baita zuri ere.

— Zai al zeunden?

— Oraintxe atera naiz.

— Berandu etorri ote naiz?

— Ez. Oso ordu onean. Goazen sukaldera.

Sartzean:

— Gabon Jaungoikoak dizuela.

— Baita zuri ere. Ongi etorri, Joxe —aitak.

— Eskerrik asko.

Miel maiburuan eserita zegoan.

— Jar zaitez ementxe, nere eskubitan. Zu, Maritxu, nere ezkerretan. Gaur, Anjeles, zu Maritxuren ondoan. Amak serbituko digu aparria.

Ama gaztetua zegoala ematen zuan, artean izan ere alaxe zan da.

Zopa ederra artuz izketan ari ziran. Aitak alai itzegiten zuan, berezko erreztasuna ere ortarako bazuan da. Bikain apaldu zuten: oilloa naikoa gozo askoa, ta gaiñetik *arroz con leche*. Gero kafea, eta patarra ere atera zuan. Joxek bai zuria ta bai gorria ere artu. Ondoren asi zan aita:

— Aspaldian amesten genduan eguna urbiltzen ari da, nere ustez. Nere aita zanak esandako itzak berdintsu esango dizkizuet. Amak-eta itzegiña degu, ta ara gure naia. Alaba au besterik izaterik ez degu al izan. Beraz, au da gure ondorengo gelditu bear duana. Nai dezu, Maritxu?

— Aita, zertarako galdetu ori neri, zuk badakizu ta?

— Bai. Badakit. Joxe, zu nai zaitu senartzat, eta guk ere bai suitzat. Zuek ezkontzen zeratenetik aurrera, gure etxeko zer egiñak zuek zuzendu. Artzekoak zuek kobratu, eta zorrak ordaindu ere bai. Zuen gain gorabera denak. Gu alegiña saiatuko gera laguntzen, ama beintzat. Nik enbarazoa geiago sobra ere.

— Ixo, aita! Ez orrelakorik esan. Zuk sekula nere ondoan ez dezu enbarazorik egingo —eskutik elduta esan zion alabak.

— Ez orixe! —esan zion Joxek.

— Ez dakit, ba. Eskasa nago ni.

— Bizkortzen ari zera.

— Obe, obe. Guri, al dezuten ondoena egin bear ditugun gauzetan edo premietan lagundu. Ordainez, dena zuentzat gelditzen da. Nai dezute?

— Bai, aita. Nai degu.

— Zuk, Joxe? —galdetu zion.

— Ni ez naiz inor emen kondizioak jartzeko. Zuk esan dezu dena. Gure kontu Maritxuk baietz esan du. Nik naiago nuke orain arte bezela, denak batean. Guk zuen kontsejua bear degu, ta nai nuke. Ez det ezer emen jartzeko. Bakarrik, egin dezakedan lana. Ori bai: leial da umil saiatuko naiz zuen ondusunak ondo zaintzen da ugaritzen, da Maritxu eta zuek irurok zorionekoak egiten.

— Orixen nai degu. Joxe. Eskerrik asko, eta Jainkoak ala nai dezala.

Denak mutu gelditu ziran. Ondoren, aita asizan:

— Zu etorri zifanean, zerua iriki zitzaigun. Au, gaixo au, gaizki zebillen, bakarrik askotan. Eskerrek zure aita, ama ta senideak laguntzen digutela.

— Gure amak zuei esker bizi gerala esaten du —esan zuan Joxek.

Ez. Ez da egia. Bestela, galde egiozu oni. Ala alda, Maritxu?

— Bai, aita, bai. Besteak ere bai, baiña zure aita beti neri laguntzen da.

— Esaten ari nintzan bezela, au gaizki. Morroi-rik ez genduan nai. Nola konpondu? Zu etorri zifan

bezin laister, asi giñan gauza au ausnartzen, eta ara zertara iritxi. Orain badakizute: ezkondu egin bearko dezute. Noiz? Zuek nai dezutenean. Gure baimena badezute, e, ama?

— Bai, bai. Zenbat eta lenago, obeto ta naiago.

— Ea, ba —jarraitu zuan aitak—: orretarako egun bat siñalatu. Eztaiak egin bearko dira. Nun? Guk egin genituan bezela, gure mandioan? Zein gonbidatu? Apaizari esan pregoiak egin ditzan. Arropak erosi ta josi zuen jantziak. Esan nai nuan eraztunak...

— Eraztunak? —esan zuan Joxepak—. Gureak ortxe daude alperrik. Ondo badituzte...

— Gauza auek denak zuek erabaki bear dituzute. Gurekin itzezin nai badezute, gu beti dakigun ainbestean laguntzeko prest egongo gera. Bear diran gastuak egiteko, guk emango dizuegu. Zuk, Joxe, zu uts-utsik, zure gurasoei ezer ez artu.

— Soldatak eta libretan asko ez, baiña apur bat badet nik ere —esan zuan Joxek.

— Ondo dago. Jaso.

— Au neretzat geiegi da —esan zuan Anjelesek—. Oiera noa.

— Baiña, Anjeles, zaude —esanda, belauna zapaldu zion Mielek.

— Ez. Geiegi da. Len baiño garbiago ikusten det orain zuzen jokatu dedala.

— Gero ta garbiago? —esan zuan Maritxuk.

— Ala bedi —esan da oiera joan zan.

— Ez det bukatu, Joxe. Zu uts-utsik esan dizut. Ez gaizki artu. Min bat daukat barruan, da aitortu bear dizut. Proportzio bat jarri zidaten etxe-ezkontza egiteko beste batekin. Luzea da ta Maritxuk esango dizu. Aitzakia jarri nuan zu beartsua ziñala ta besteak asko zuala. Au zapuztu egin zan.

— Ixo, aita! Aztu! —esanda, aoa tapatu zion alabak.

— Ez. Utzi zaidazu. Amak lotsa arazi niñun. “Zuk ala egin zendun, ba” —esan zidan—. “Aukera zenduan, baiña ni, ezer gabea, artu niñuzun, da bizimodua atera degu. Ta ez al gera zorionekoak izan?”. Arraioa! Txunditu niñun. Egia baida. Kaskillututa nengoan, da mututu egin nintzan. Badakit alabak barkatu zidala. Zuk ere barka zaidazu.

— Aztu, Miel, aztu, ta lasai bizi. Etzenduan pekaturik barkatzeko.

— Ea, ba —esan zuan Mielek: zuek asi lanean.

— Zein gonbidatu bear degu, ta nun egin eztaiak? —galdetu zuan Joxek.

— Ori guk biok pentsatuko degu, ta aita-amei agertuko diegu —Maritxuk.

— Ala bear du, bai. Ni oiera noa —aitak.

Amak beste kafea ekarri zien, da lasai egon ziran. Arrazoitu zuten: eztaiak mandioan. Noranai ibiltzeko urruti baizeuden. Gonbidatu, berriz, paper batean izenak jarriko zituzten, da aita-amak nai zituztenak erantsiko zitzaizkien. Baillarakoak, beintzat, denak. Pakea billatu bear zan.

Ama ia aspertu zan, da esan zuan:

— Oiera noa.

— Bai. Gu ere obe —Maritxuk.

Altxa ziran da ateetara eskutik elduta joan ziran. Ate ondoan Joxek:

— Esan zenidan ba nere papera bular gaiñean zeneukala. Ez al dezu kendu?

— Ez. Orain ere nerekin daukat.

— Nik kenduko dizut —esan da eskua altxatzen asi zan.

Ttak!, eldu zion Maritxuk eskutik, eta:

— Zer? Ez al nizun esan nola zin eginda nengon? Da lagunduko zenidala betetzen ez al zenduan agindu? Nora zeramakizun eskua? Fia al ninteke zurekin?

Arrunt lotsatu zan Joxe.

— Barkatu. Azkenekoa egin det.

— Ea, gabon, Joxe. Gero arte.

la ordubiak baiziran.

Andik aurrera maiz biltzen ziran. Zein gonbidatu zerrenda egin zuten, da noiz ezkondu ezin erabaki. Eztaietarako ta ondorerako patxara bear zuten, beren biziko egun ederrenak orduan espero baizituzten.

Joxek erabaki zuan:

— Azaroaren 24'a, Santa Katalina bezpera. Gaur iru illabete daude. Ordurako prestatuko gera.

Artan gelditu ziran. Aitari zerrenda, gonbidatu nai zituztenak, eman zioten, da onek:

— Baillarakoak denak jarri al dituzute?

— Bai.

— Orduan ondo dago. Gaiñerakoak, zuek nai dituzutenak.

Prestaketak

ANDIK aurrera, apaiza, arropak, etxeko obrak eta lanak, denak zuzentzen ari zan bikotea. Izaskunek, Joxeren arrebak, senargaia igeltseroa zuan, da oni esan zioten ikusteko. Igan-dean etorri ziran blak ikustera. Esan zioten zer egin nai zuten, da baietz.

— Urik ez al dezute etxean?

— Ez. Baillara ontan iñork ez. Beste etxeak beko iturrira joaten dira. Gu, bizkar au jirata.

— Ikusi al diteke?

— Bai. Geienaz berreun metro daude.

Joan da ikusi zuten.

— Au iturri ederra! Zergatik ez dezute eramaten etxera?

— Bai. Aldean zegok.

— Au, zanja iriki zak eta bi egunean bukatua.

Etxeratu ziran da dena aita-amei agertu zien.

— Zertsu kostako da: igeltseria, ura, arotzeria ta dena?

Aldi bat numeroak egiten pasa zuan; da gela, komuna, sukaldea ta iturria, gutxi gorabera, bederatzi milla pezeta.

— Ooo! —egin zuan Maritxuk—. Askok baida.

— Aizu —erantzun zion aitak—: egin gabe ez da izaten, da egin.

Lendabiziko, ura. Irten da markatu zuten nundik zanja egin.

— Zer bear dan, dena ire kontu.

— Bai. Egurra etxean badago. Datorrela arotza ikustera.

Aitak:

— Bale. Ik zanja iriki jaiarako.

Ala bukatu zuten. Presa zan. Usu ari ziran. Igandean, tubozale ta igeltsero. Tuboa jarri eta ura iritxi zuten etxera. Ura poza! Ura etxean gauzarik aundiena baida. Bizkor ari ziran, da illabeterako bukatu zuten. Norbaitek lana egin zuan. Sukalde berria, komuna, kuartoa, ura...

Auzoan bazan marmarra. Zorperatuko zirala, etzutela ordaintzeko dirurik izango, bazan zer esana. Baiña Beristaingo berri iñork etzekian.

— Galak eroatera joango ote geran ama ta irurok esan degu. Aita, dirua zuk emango al diguzu, edo Joxerenarekin egingo ditugu?

— Ez orixe. Zuretik.

— Nik batere ez det eta... —Maritxuk.

— Bai. Badezu. Atoz —esanda, gelara eraman zuan. Kutxa irikita, kutxatillatik atera ta Kaja Ahorroko libreta eman zion.

— Au zurea da. Emen badezu dirua, eta ortik atera, bear dezun dena.

Iriki zuan da 22.755 pezta zeuden.

— Aita, ez diteke —esan da lepotik elduta musu ematen zion—. Au geiegi da.

— Ez. Zuk dena merezi dezu.

— Guk nola ordaindu bear dizuegu?

— Guk zuregatik egin deguna egiten saiatuz.

Joxeri esan zionean, etzan giro, arraioak ezpadu.

— Saiatu bear degu orratik —zion.

Obrako kontua ekarri zien: 8.987'55 pezta. Galak erosi; berentzat bear zuten kuartoa erosi, jarri eta eztaietako sukaldari ta serbitzari, jan-edanak, ontziak, denak prest zeuden. Bi pregoi egiñak. Astean gariak erein da kito. Aitak esan zien:

— Eztai ondoren kanpora joan bear zenduteke, egun batzuetarako. Guk iru egun pasa genituan Zaragozan, da berriz joateko ametsetan etorri giñan. Baiña ez degu al izan. Denbora orain da, ta ez utzi. Bestela, gurea gertatuko zaizute.

— Bai; baiña au ta zuek...

— Ooo! Guk, nik golperik jo gabe zuzenduko degu dena. Zuek lasai joan da ondo pasa. Ta nai dezutenean etorri.

Maritxu, gaixo

A STEARTEA ta Maritxuk amari:

— Tripako miñak nago.

— Zer ote dezu ba? Atzo zer jan zenduan?

— Zuk jarri zenduana.

Komunera beartu zan. Berakoa eta miña. Bildurtu ziran.

— Zoaz oiera.

— Ez, ama. Oraindik ez.

— Ezer ez jan, pasako zaizu ta. Ura edan.

Arratsaldean ere miña. Zer ote zan bildurtu ziran.

— Eguna gaiñean da orain gaizkitu, marka izango dek orratik —zion Joxek.

Gauean amak buelta egin zion gelara. Zurrun-zurrun lo zegoan, da etzan esnatu. Goizean jeiki zan, joan zitzaion da esna zegoan.

— Lo egin al dezu, Maritxu?

— Bai. Oraintxe arte, ama.

— Ez jeiki, e? Or egon. Ura nai dezu? Ona dala esaten dute.

— Ekatzu.

Edan zuan, da:

— Zu or geldi.

— Ez, ama. Ta ikuillua?

— Nik. Ta zu or geldi.

Ikuillura joan zan, argia piztu zuan da atea
kux-kux!

— Oi! Zein da emen? —esan da iriki zuan, da
Joxe.

— Egun on. Zer moduz dago?

— Ondo. Baiña ez diot jeikitzen utzi.

— Ederki. Nik egingo ditut lanak. Ortara etorri
naiz. Nai badezu, zoaz sukaldera.

Oartu zan Maritxu norbait bazala, da pasadizo-
an amari deitu zion:

— Or zein zenduan?

— Joxe zure galdez dago. Lanak egiten asi da.
Nai al dezu deitzea?

— Ez. Gero, laister, jeikitzen naizenean, ikusiko
det.

Baraurik, ur utsarekin pasa zuan eguerdi artea.
Baiña amari esan zion goseak zegoala.

— Arroz zuria egosiko dizut. Onena dala esaten
dute. Komunera beartu al zera?

— Ez.

— Ta miña?

— Ez. Ao-gusto txarra bai.

— Obe.

Eguerdian sukaldera etorri zan. Denak ari begi-
ra. Arroza jan zuan.

— Arrautz urean pasea nai dezu? —amak.

— Ez dakit, ba.

— Ez bazendu jango, obe —Joxek.

— Ez det nai —Maritxuk.

Bazkalondoan, aita-amak siestara. Anjelesek sukaldea altxa zuan, da au ere siestara. Bakarrik gelditu ziranean, eskutik eldu zion Joxek Maritxuri.

— Ez bildurtu —esan zion—. Sendatu zera.

— Naiago nuke.

— Nik ere bai. Ni soldaduskan orrelaxe gertatu nintzan, da erremedio berbera: ura limoiarekin da arroz. Zu ere orrelaxe. Biar ez dezu ezer.

— Obe. Bildurtu naiz zer ote dedan. Bein ere ezer ez, ta orain kolpetik au.

— Bai ni ere, zu ez-ezik —ta eskuan musu eman zion—. Siesta komeniko zaizu ta zoaz, kuttuna.

— Ta zu? —galdetu zion.

— Neri ez kasorik egin. Nik badet zer egiña. Zoaz oiera.

Ta aldegin zuan. Esan bezela, ondo zijoan. Etzan komunera beartzen. Amak ikustaldi bat egin zion, da illuntzera arte etzan jeiki. Altxa zanean, ama sukaldean ari zan.

— Ikuilluan nor ari da? —Maritxuk.

Amak par egin da erantzun zion:

— Morroia.

— Morroia ere ba al degu?

Ikuillura jetxi zan Maritxu, da:

— Bakarrik ari al zera, Joxe?

— Pozik, zu orrela ikusita. Gero ere jardun bear-ko det noski.

Par egin da sukaldera aldegin zuan.

Urrengo eguna argitzen ari zuan, da euria. Ama jeiki zan. Zirrikitutik begiratu zion, atea irikita. Maritxu lo zegoan. Ixil aldegin zuan sukaldera. Andik ikuillura. Joxe an ari zan.

— Egun on, Joxe.

— Bai zuri ere. Zer moduz dago?

— Lo.

— Au poza! Sendatu da orduan.

Noizbait esnatu zan, da ama atean.

— Lo egin dezu, Maritxu?

— Bart artu ta orain arte.

— Jesus, umea! Sendatu zera orduan. Bai; askoz arpegi ohea daukazu.

— Jeikiko naiz ikuillurako.

— Ez gero! Ni bakarra naikoa naiz —esan zuan Joxek.

— Lan geiegi da batentzat.

— Zeiñek ez luke egingo, zu saritzat daukala jakinda? Jatenetara noa. Zu lasai.

Egoartea geiena bere gelan pasa zuan. Bazkaltzekoan, Maritxuk berriz ere arroza. Baiña musuak apur bat gorritu zitzaizkion.

Ostiralean ondo zegoan. Bildur apur bat bai. Aundiena, urrengo egunerako berriztatuko ote zan. Baiña ez. Lenago bezela, badaezbada ere, arin samar jan.

Eztaiak

MIELEN laguna zan erriko tabernakoa, ta onek agindua zeukan platerak ta bear ziran tresna denak berak jarriko zizkiola, ta emazteak sukaldaritza egingo zuala. Joxe zan enkargatua traste denak karreatzeko.

Ostiral eguerdirako gauza guziak Beristaiñen prest zeuden. Bai jateko ta bai dantzarako. Berastegiko Txikia zuten soiñujolea. Emakumeak, oilloak eta jan gauzak. Joxek, jatenak, garoak eta gaiñerakoak prest jarri zituan. Miel, mandioan maiekin. Arratsaldean Paula ta Joxepa etorri ziran, da bostetarako punta-puntan jarria zeukaten.

Maritxuri Begoñak esan zion:

— Neska, markes-etxea jarri dezute. Ez al didan gela berria erakutsi nai?

— Bai orixe.

— Au geiegi ez al da? Auen guzien etxekoandre izanda, gure Joxe baiño senargai ohea aukeratu ezakenan.

— Munduan ez den orren antzekorik ere besterik.

Illuntzean, aitortzera joan nai zuan Joxek, eta biak joan ziran. Ostera etxera, ta betiko lanak. Apalondoan amak Maritxuri:

— Zu oiera. Ondoezik egon zera ta kontu. Biar erruz nekatuko zera. Neri zuk ez esan ezetz. Nik pasa nuan da badakit. Eta biar, deitu arte oiean egon.

Armonian asi zitzaion Maritxu. Baiña Anjelesek, besotik tirata, gelara eraman zuan:

— Zu ixilik, eta amak esana egin, arek badaki ta. Berak pasa baizuan.

Beste oiaren gaiñean zeuden urrengo egunean jantzi bear zituan arropak denak, azpiko ta gaiñeko.

— Bazeneki zer ilusioa daukadan auek jantzita zu ikusteko...

— Laister, Anjeles, laister.

— Askotan pentsatzen det ni deskonfiaturen bat izango nintzala ez ontaratzeko, ta ez aukerarik ez nualako izan. Bostek nai niñuten.

— Zu deskonfiatua? Ez iñola ere. Gurekin fiatu ziñan, ba.

— Zuk edozein eskuratuko zenduke. Zuregana erori egin nintzan.

— Etzaizu damutuko. Erantzungo dizugu.

— Ni zoratzen nago zuekin.

Ala, oieratu ziran. Ama garaiz asi zan oilloak egosten jarri ta bazkari-martxa prestatzen. Sukaldaria eguna argitzerako an zan.

Bere garaian, amak Maritxuri deitu zion. Etzegan deitu bearrik. Jeiki, garbitu zan, da:

— Jaztera noa —esan da gelara joan zan, da ama ta Begoña laguntzera.

Ama etzan sartu gelara; Begoña bakarra. Arropak eranzten asi zanean, Maritxuk esan zion:

— Irten adi apur bat. Gero deituko diñat.

— Jesus! —esan da irten zuan.

Etzuan nai Maritxuk erdi billutsik iñork ikustetik. Amak txikitan bestek ez baizuan ikusi. Azpiko arropak jantzi zituanean deitu zion. Jantzi zuan soiñekoa eta gaiñerakoa.

Zoragarria zegoan. Zapata beltzak. Galtzerdi ta soiñeko beltzak. Lepoan urrezko katea Karmengoaren medaillarekin. Belarritako apaiñak. Aurpegi zoragarria, arrosa zirudiena.

Irten zan. Joxe, ama ondoan zuala, zai zegoan. Ertetean, Begoñak:

— Itxogin zan.

Da buruan koroï gisako lore txiki txuri batzuk jarri zizkion, da kartutxoa bezelako gorri bat artu ta ezpaiñak gorritzera zijoakion.

— Ori ez, Begoña —esan zion Joxek—. Ori, orain dagoan baiño ederragorik Jaungoikoak ez din egin, bere Ama ez bada.

— Ez al den nai? —galdetu zion Begoñak.

— Ez.

Joxeri begira zegoan. *Traje azul marino* bat zuan. Zapata ta galtzerdi beltzak. Alkandora txuria. Berez ain egokia zan, kaballero bat ematen zuan. Ezin ezagutu zuan, ala jantzita. Ura gizasemea! Altua, berdiña, lerdena, ura aurpegia!

Aita etorri zitzaion ondora:

— Ooo, Maritxu! Zeiñen ederra zauden!

Etzan lore-botazalea, oso serioa baizik. Baiña uraxe irten zitzaion.

— Prest gaude?

— Bai.

— Goazen orduan, garaia da ta.

Amarretan zuten ezkontza. Zuzen joan ziran ordurako. Lenengo, Joxe ta Paula. Gero, Maritxu aitarekin. Atzetik, Joxinaxio ta Joxepa ta gaiñerako

guziak. Baillara guzia an zan. Denak jai artu zuten.

Eguraldia, berriz, zoragarria atera. Garbi-garbia. Zerua urdin-urdin. Egoaizea *pul-pul-pul*, poliki-poliki.

Elizkizunean, apaizak galdetu zienean ea senar-emazte izan nai zuten, ausarditsu erantzun zioten. Bien baietza eliz guzian garbi entzun zan. Gero, arrunt murgildu zan Maritxu elizkizunaren mamian: meza erdia, jaunartzea, ura antsia! Bai; nai zuan. Ezta lenengo jaunartzean ere, etzuan orrenbeste nai izan. Ia zentzua joanean esaten zion Jainkoari:

— Zure naia bete bedi!

Meza bukatzean, lenengo, sakristian paperak firmatu zituzten. Erteerakoan, besoan zeraman lore sorta Sortzez Garbiaren oiñetan utzita, burua makur otoitz egin zuan. Gero atarira. An denak agurtu nai: gizonak eskua ta emakumeak musua, denekin ezin kunplituz.

Aitak esan zuan:

— Abiatuko al gera, bere garaian bazkaltzeko?

— Bai. Goazen.

Ala, bideari ekin zioten. Lenengo, Joxe ta Maritxu, ta atzetik beste denak. Andre batek besteari ala zion:

— Au den bikotea, au!

— Bai, neska. Orren liraiñak ziranik ere ez niñenan uste.

— Len ere oiek olakoak itunen, bai. Gu ez giñala fijatzen.

Bi usakumeak etzuten kontu paltarik. Alako batean, Maritxuk besotik eldu zion, da Joxek:

— Au poza! Besotik eltzen asi zera.

— Zer, ba, Joxe?

— Ta ziña?

— Ooo! Dena bete det. Eta gaur bestea egin det.

— Zuk? Nik aurrenengoa gaur. Betetzeko, zure laguntza bear det. Esango al det?

— Bai, Joxe. Zin orixe egin degu; ta, neri dagokidanez, prest nago zure serbitzari izateko, eta uste det zu ere nerekin bai. Amaika bider nai izan zaitut ondoran, eta sufritu ere bai, galduko zaitudan bildurrez, tuntuna naizelako. Orain nerea zera, ta ni zurea. Azkeneko ondarreraíño bete nai det egin dedan ziña.

— O, Maritxu! Berdin pasa zaigu bioi. Nik ere penak pasa ditut, batez ere Zeutan, zure kartak bukatu ziranean. Ni ere tuntuna naizelako. Banekian zu zein ziñan lasaiago egoteko ere. Baiña aita mudatu ote zan, da zu ain urruti itzegiteko...

— Gixaixoa! Ta ni ere emen berdin. Asko degu, Joxe. Zertarako tristetu gauza auekin, poza besterik bear ez degun egunean, orain alkarrenak gera ta? Jainkoak barka zaiola!

Ontan iritxi ziran etxera, ta gelara abiatu zan Maritxu.

— Nora zoaz? —Joxek.

— Gelara. Oiñetakoak aldatu nai nituzke, auek estu antxean daude ta anakak minberatu gabe. Atoz.

Atea iriki ta sartu zan Maritxu; ta, bera baztarreratu ta Joxe sartu zanean, *kaxk!*, atea itxi zuan.

— Joxe —esan zion—, lenago eman nai ta ukatu nizun musu ura eman nai dizut.

Rau!, lotu ziran.

— Kontuz, Joxe, illea banatu gabe.

Zapatak aldatu ta irten ziran. Sukaldaria esaten ari zitzaion Mieli:

— Komeni litzake astea. Jana ia prest dago ta puntua pasako zaio.

Etzegoan, ez, asko erregutu bearrik, bazkalordua baizan. Baillara dena an zan. Kanpokoak ere bai. Lengusu, Gazteluko Austin da emaztea ta abar, eunen bat lagun bildu ziran. Mandio aundia zuten da errez moldatu zitezkean. Dantzarako ere lekua bazan. Oso ondo bazkaldu zuten, eta ondoren Berastegiko Txikia zuten soiñua jotzeko. Oso jole ona zan.

Onek bere lanari ekin zion. Lenengo, Joxe ta Maritxu, bikote bikaiña, zein baiño zein. Meza erdia ematen zuan. Soiñua ta dantzariak, beste txintik etzan entzuten. Gelditzean, txalotu zituzten gogotik.

Ondoren, nai zuana. Mutil da gizon, Maritxurekin nai; ta emakumeak, berriz, Joxerekin.

Urrena, arrea zabaldu zuten. Bazan txistea. Zabaltzailleak, Joxinaxioren arreba soltera eta Iturburuko aitona Miel Martin. Au elementua. Edadeta, baiña bai alai.

Koltxoia jarri zuten lenengo. Ondoren, maindireak: bat etzegoala plantxatua, bestea txuriegia zegoala, manta bearrik etzutela, ez; bestela ere berotuko zirala ezkonberriak.

Kristina zan Joxinaxioren arreba ezkondu gabea, ta alai. Onek zirikatu egiten zuan Miel Martin, da onek bota:

— Ni, ezkonberrian, oztu ere ez nintzan egiten.

Ala ari zirala, oi gaiñekoa jarri zioten, oraingo erara bulkoa koska bezela tapatzen ziola dotore asko, Kristina neskame baizebillen *Hotel Londres*-en. Miel Martiñek galdetu zion:

— Kristina, oiek zer egingo ote dute emen?

Oi gaiñekoa altxa ta:

— Tarte ontan sartu ta nik bein ere egin ez dedan zerbait.

— Nun ibili zera, ba? —Miel Martiñek.

— Zeran: illargian.

— Aldeko muturrean zeunden, zerbait egitea pentsatuta ere.

Orrelaxe denekin.

Bakoitzak bere esku-erakutsia bota zuten emakumeak. Azkenean, bandeja jarri zuten, da gizonezkoak dirua.

Bukatu zanean, berriz dantza, gauza guziak jasota. Soiñua ixilik zegoan, da Maritxu ondoan pasatzean:

— Urrengoa biok dantzatuko al degu, Maritxu? —esan zion Bernardok.

— Bai pozik.

Ala dantzatu ziran biak, eta fandangoa ixildu ta pasodoblea asi zuan.

— Au ere bai —esan zion Bernardok.

— Ez dakit, ordea.

— Egingo degu.

Ta eldu zion da an ibili ziran, naiz gogo txarretik Maritxu. Bukatu zanean:

— Eskerrik asko, Bernardo —esan zion.

— Zuk neri eskerrik asko? Ez dakizu zenbat ixtimatu dedan. Nik zuri eskerrik asko, ta ziñez gainerra —erantzun zion.

Ia jendea nekatzen ere asi zan da maira. Apaldu zuten da benga dantzara. Bi eratara asi zan soiñua jotzen: bat fandangoa eta bestea lotua. Maritxuk, ler egin zuala ta etzuan nai. Eseri egin zan. Asper-tuxe ziranean, denak, aleka-aleka, ezkonberriak agurtuz beren etxeetara joan.

Maritxu ta Joxe alkarren ondoan zeuden denak agurtzeko, ta Austin etorri zitzaien, bazijoaztela esatera.

— Ez, Austin, ez. Zuek ez. Biar joango zerate — Joxek.

— Eta etxea? —Austiñek.

— Goiz bateko lana egin araziko die aitag zuen semeei, gaur arratsekoa bezelaxe. Gela gordea dago zuentzat.

— Bai, bai. Pozik. Ura urruti dago orain joateko —salta zan emaztea.

— Bai, baiña... —Austiñek.

Etzion utzi Maritxuk:

— Austin, geldi zaitezte. Gusto ori emaiozute Joxeri.

Emazteari begiratu zion Austiñek, da:

— Ondo. Geldituko gera, ba.

Dena bukatu zanean, bakoitza bere gelara erretiratu ziran. Zer esanik ez, Joxe ta Maritxu gela berria estrenatzera. Bazuten zer esan ugari, baiña loak menderatu zituan da lo artu.

Urrengo egunean, Joxe esnatu zan —biak oi batean zeuden—, baiña Maritxu ez. Jeiki nai zuan. Bezperan erantzitako arropak an zeuden, baiña besterik ez. Nun ote ziran? Jeikitzerik etzeukan, da Maritxu esnatzerik etzuan nai. Begira zegokion, begiekin jan bearrean. Noizbait arnas luze bat bota ta begiak zabaldu zituan, da Joxe alboan.

— Zeiñen ederki egin dedan lo zure ondoan! Zorionekoa ni, zu zaitudalako —Joxek.

— Bai. Ni zurea naiz, ta zu nerea. Urte askorako izan dedilla, Joxe.

— Jeiki bearko degu.

— Ez. Amak deituko zigula esan zidan. Orain kontuak esan. Ez dakizu. Bernardok “Urrengo ez al degu biok dantzatuko?” esan zidan. Esan zezakeala buruan pasea neukan, da “Bai pozik” esan nion. Ala, dantzatu genduan; ta, ixiltzearekin bat, lotukoa asi zuan. “Au ere bai” esan zidan. “Ez dakit, ordea” erantzun nion. “Egingo degu” esan da eldu

zidan. Ez nuan aren besoetan ibiltzerik nai, baiña ez. Oso txukun ibili giñan. Bukatzean, eskerrak eman nizkion. “Nik zuri. Ez dakizu zenbat ixtimatu dedan” erantzun zidan. Asmatu nuan.

— Ondo egin zenduan. Pakea billatu egin bear da.
Kux-kux-kux!, atea amak.

— Zein da?

— Ni. Jeikitzeke garaia dezute.

— Atoz —Maritxuk.

Sartu zan ama, ta:

— Gustora zaudete?

— Bai, ama.

Ta Joxeri eldu ta musu eman zion Maritxuk.
Amak:

— Ez da nai ordu etorri egun au?

— Ez, ama. Ori, zuk asko lagundu diguzula. Baiña eskertuko dizugu. Zorionekoak egingo zaituztegu.

— Bai, Maritxu. Arropak emen dauzkazute biotzak. Atzo Paulak Joxerenak ekarri zituan, eta nik or jarri nituan.

Jeiki, garbitu, jantzi, baraua autsi ta elizara Joxe ta Maritxu, Gazteluko nagusi-etxeoandreekin. Bazkalondoan alkarrekin jetxiko zirala Tolosara.

— Beraz, kanpora zoazte.

— Bai. Aitak ala nai du. Illabete esan digu gutxienez. Ogei egun lenago ez azaltzeko onera. Baiña etsiko al degu?

— Bai, bai. Errez —esan zuan Austiñek—. Ori da errezena.

Meza entzun da ostera etxeratu ziran. Bazkaldu. Aiek etortzerako, ama prest zegoan. Egileorkoak ere denak an ziran. Begoñaren senargaia ere bai.

Bazkalondoan, beren maletatxoa prestatu ta laurak atera ziran Tolosa aldera: Maritxu ta Joxe, ta Austin da emaztea. Tolosan Austiñek:

— Banatzerako, kafea artu bear diagu. Goazen.

Da Agustiñenera joan ziran. Ertetean alkar agurtu, ta batzuk Gaztelura ta bikotea geltokira.

Zaragoza

GELTOKIAN trena artu ta Donostira. Biara-moneko erteera noiz zan jakin, Donostia apur bat ikusi ta Kojoanera. An apaldu ta oiera. Gelan errezoak egin da oierako prestatzen asi zira-nean, emaztea kolore txarra zegoala oartu zan Joxe, ta esan zion:

— Etzaude ondo zu. Aurpegia zatartu zaizu.

— Ez da ezer. Ez bildurtu.

Baiña kezkatu zegoan Joxe. Bai antzeman ere Maritxuk:

— Zaude lasai. Esango dizut. Emakumeok jakingo dezu zer bolarak izaten ditugun. Orixe asi zait. Ez nituan orain bear, baiña egun auen senti-penengatik edo zerbaitegatik jetxi zaizkit. Orain ez daukat, zuri eman nai nizun atsegiña ematerik. Alde batera naiago det ontara. Aurretik ibiltzen giñala esaterik ez du izango iñork.

— Ori bakarra bada, ez du ajola.

— Lastima da, baiña ala bearko du.

— Egun bikaiña pasa degu, dana dala. Bai eguraldia, bai bazkaria. Baillara guzia batean an zan. Egunero ikusi bear ditugunekin ondo asi gera. Pozik giñezke.

— Bai noski.

Gau motxa zuten, da lo ere egin nai ta:

— Besoan nai zaitut, Maritxu.

— Ara ni emen, Joxe. Au ere nai genduan, da iritxi da.

Biak alkarri lotuta jarri ziran da lo artu zuten. Zortziretan zan Zaragozako tren. Etxekoandreak despertadorea eman zien, zazpitan jarrita.

— Azkar etorri. Ni emen egongo naiz.

Tirrin... Rau!, esnatu ziran. Azkar jeiki, prestatu ta jetxi ziran. Kafesnea eman zien. Artu, ordaindu, agurtu ta estaziora. Billeteak artu ta, tren etorri zanean, sartu ta aupa! Castejón-go estazioan bi bokadillo artu ta aurrera. Lau ta erdietan iritxi ziran Zaragozara.

Irten ziranean, zai bazeuden maleteroak. Batek olako otela, besteak olako, batek *El Sol*.

— Eguzkia ederra da ta ea bera degun onena. Orrera joango al gera?

— Bai. Nai dezuna.

Ta deitzen zuanarengana arrimatu ziran. Sartu kotxe batean da eraman zituan. Sarrerako paperak egin da gela erakutsi zien. Giltza artu, maleta utzi ta kalera. Erne, nundik nora zijoazen begiratur, galdu gabe. Uste gabe Pilarikara joan ziran. Baiña arrigarria: itxita zegoan.

Gertuan zan otela. Apari-legea egin da berriro oieratu ziran. Ia prexko zeuden, da kontutan saio bat egin zuten. Bazuten gaia ere: beren ezkontza-eguna zuten. Basarri baterako ondo. Mandio zabal artan lekua ere bai. Apaindu ere alaxe. Gero, beren gela, komuna urarekin, sukaldea ta, denetan bearrrenekoa, ura.

— Bai. Portatu zan gure koiñadogaia. Ostalaria. Ontziak, aiek oster a itzuli bearra.

— Bai, Joxe. Lasai egon. Aita lanerako ez da gauza, baiña buruz azkarra. Dena errenkan-erren-

kan pentsatua dauka nola egin. Neri dena agertu zidan, lasai ibiltzeagatik. Gerorako ere pentsatzen asia dago. Ez esateko esan zidan, da ez dizut esango. Ango kuidadorik ez euki. Arek, geldi dagoala, dena zuzenduko du.

— Esaidazu zer nai luken.

— Ez dizut esango.

— Nerekin ez al daukazu konfiantzarik?

— Nola zuk galdera ori? Dena zurekin, da bada-kizu. Baiña aitari errespetoa zor diot. Berak esan nai dizu, ta ez diot naigaberik eman nai.

— Onartzen dizut. Esaten ari giñana, ondo irten zan dena. Baiña, ni oartu nintzanez, geien ikusi nai zutena gure kabia zan. O, zoragarria! Ta gaiñera zurekin, sinistekoa al da?

— Au Joxe! —esan da matraillean ikuitu zuan Maritxuk—. Gure ama gaixoak, gu pozez ikusten giñulako ez bada, etzuan asko gozatu. Erne ibili bai, nunbait denekin konfiantza geiegi etzeukan da.

— Zuri ere begiratzen zizuten. Ain apaiña ta ederra zeunden, Ama Birjiña zirudizun.

— Aurrenekoa ez, baiña bigarrenkoa bai, agindu bezela. Loreak antxe utzi nizkion.

— Lagundu nizun, e?

— Bai, bai. Baiña ni erreztutzen asi banintz, zer egingo ote genduan?

— Bai. Ala da. Emakumeak eutsi bear. Gizonezkoak narratxak gera.

— Orain damutzen zaizu geiago ez iritxia?

— Dena beste aldera. Begira: amaren paketean biali zenidan karta ta ogei durokoa. Kosta zitzaidan baretzea. Ia erotu niñun. Ogei duroko arengatik bein ere ez dizkizut eskerrak eman. Baiña zure itzak? Etzan munduan sendagai oberik ni bizkor-

tzeko. Zuk nik ordaiñetan bialia bular gaiñean euki zenduala. Baiña nik ere, gerreraren poltxikoan biotz gaiñean euki ta etxean det gordeta.

— Berdintsu gertatu zitzaigun. Orduan belarretarako gurdia jartzen ari nintzan, da ikusi nuan norbait zetorrela. “Joxe ote da? Ez da posible”. Ain antzekoak zerate. Inaxio zan. “Au zuretzat Joxek eman dit”. Une artan ama ta Anjeles irten ziran. “Zuek lagundu” esan da ni usu gelara. Egia esaten dizut: zalantzan dardar iriki ta: “Maite zaitut, naitzen oso-osoa, zeran guzia. Inon ere laino-izpirik gabe, zurea oso-osorik izan nai det”. Nere kezka guziak, suak papera bezela desegin zituan.

— Nun gorde zenduan?

— Ementxe.

Kamisoiairen irikia altxa ta ezkerreko bular gaiña erakutsi zion.

— Utzi zaidazu musua ematen.

Musukatu zion, da bitartean Maritxuk burua igurtzitzen zion. Maitasunaren iturria dariola zegoan.

— Belarretara joan bear —jarraitu zuan Maritxuk—, eta antzemateko modukoa egongo nintzala ta, Inaxiori kafea emateko esan da idiak artuta aldegin nuan belazera. Baiña ama akordatu zan zerbait banuala; eta gauean, bakartu giñanean, galdetu egin zidan. Dena esan nion. Poztu zan benetan, da nik aingeruekin lo egin nuan. Zu etorri ziñanean, ia etzidan paltarik egiten da gorde nuan. Etxera itzultzean, bi paperak batean jasoko ditugu. Ia berandutzen ari du, ta loa ere naikoa egin bear degu.

— Bart zer moduz egin dezu?

— Ni, goizera arte, esnatu ere ez. Izanez ere, zure besoan nola ez?

— Atoz, atoz, maitea —esanda, Joxek besoan artu zuan, da lo.

Urrengo goizean berandu jeiki ziran. Amarretan zegoan azkeneko meza. Bazekiten da juxtu iritxi ziran. Beren naia bete zuten. Ertetean, inguruko bar batean kafesnea artu, inguru aiek ikusi ta bazkaltzera.

Ondoren, etxean bezelaxe, siesta. Ezin egongo ziran, beste lanik ez ta siestarik egin gabe.

Jeikitakoan, baztarrak ikusi. Apaldu ta oiera. Berriro kontuak. Jakiña, siesta galanta egin da logalerik ez. Au ta beste ari zirala, Joxek esan zion:

— Zeutan ere an egongo da, ba, nik odola eman nion andre ura. Gustora ikusiko nuke. Baiña ain urruti dago ta...

Maritxuk etzion erantzun. Apur bat ixilik egon ziran.

— Joxe, bein ere buruan pasa ez dedan gauza da. Baiña zergatik ez?

— Ez. Beaje luzea da, ta gastua latza.

— Beajeak ez nau bildurtzen, daukagun sasoiarekin. Dirua, berriz, badegu. Ogei ta bat eta ogei ta iru urte, esateko orain jaio gera. Laister, aurren bat degula, bestela ere gure etxetik erteterik ez degu izango. Aitak zer esan zigun badakizu: disfruta dezagun. Orain da gurea.

— Nai al dezu?

— Nik bai pozik.

Urrengo egunean, otel-sarreran zegoan gizonari galdetu zioten zer egin zezaketen. Onek itxogiteko esanda, telefonoan asi zan. Deitu zien gero, ta esplikazioa eman ere bai:

— Madrillera joan bear dezute. Trena artu ta andik Aljezirasera. An barkura igo ta Zeutara.

— Trenak Madrillera eramango gaitu —esan zuan Joxek—. Ara ezkerro, len ere izana bainaiz, ez gera galduko.

Iru egun egin zituzten Zaragozan, aita-amak bezela egiteagatik.

— Bai —esan zuan Joxek—. Baiña aita-amak seguru asko egin zuten zerbait egin gabe joango gera.

— Pikaroa —esan zion Maritxuk, eta bi musu eman—. Laister, laister, sendatzen ari naiz ta.

— Ni, ori gabe ere, zure ondoan ametsetan bizi naiz.

— Bai; baiña gogoratu zaizu.

— Arritzekoa al da?

— Ez, Joxe, ez.

Zeutara

URRENGO goizean, estaziora joan, zein tren zan galdetu, ta noiz ateratzen zan. Da, ordua irixtean, aupá Madrillera! An ere galdetu ta illuntzeko zortzietan zala. Apaldu ta biderako zerbait artu, ta gauean segi Aljeziras aldera.

— Len ere ementxe joan nintzan bide berean — esan zuan Joxek—. Baiña alde ederra dago: orduan zure kezkarakin, da orain zurekin. Sinistreak ere lan du.

— Orduan biok triste, ta orain biok alai. Goza dezagun bete-betea, geiago ez degu proportziorik izango ta.

— Au ere ez nuan uste nik. Zuk erabaki zenuan.

— Bai, arrazoizkoa zan da. Orain gastatzen ditugunak, ondo gastatuak, gero kontuz-kontuz biziz aurreratuko ditugu.

— Alaxe da.

Gauezko ibillaldia, ta Maritxu nekatu zan. Lorik ere kuluxkaka bakarra, ta etziran nai ordu iritxi. Urrengo goizeko bostetarako an ziran. Tren arek bazuan bidean gelditu bearra, arraioak ezik!

— Gu orrelaxe etorri giñan —zion Joxek—. Joan, askoz azkarrago.

Portura joan ziran, da an iñor gutxi zegoan. Eseralki batzuk zeuden an, da biak ere kuluxka batzuk egin zituzten. Zortziretan zan barkua. Billetea eskuratu, bertako jantokian kafesnea artu ta prest.

— Au ez da gure kafesnea —zion Joxek.

— Alde ederra dago. Angoa, joandakoan artuko degu.

Bere orduan zintzo abiatu zan barkua. Itxasoa naiko zakarra. Bildur zan Joxe Maritxu nastuko zala. Bai zera! Ango butaka batean eseri ziran, da lo artu zuan. Bazirudian, umeak seaskan bezela, zenbat eta barkuak balantza geiago, orduan da ederkiago egiten zuala lo. Esnatu zan noizbait. Joxe begira zegokion.

— Lo egin det, Joxe.

— Bai. Lo eta ederki. Bejondaizula. Ia iritxi gera. Mendiak agertzen asi dira. Ara nun dauden.

— Ernio dirudi.

— Puntak antza badu. Baiña kolorez gutxi. Ori marroia da; ta ura, berriz, berdea. Ertetezan azkar ibili bear degu, aien etxera lenbailen joateko; jaiera-ko aldegin igoal egingo dute ta etxean arrapatzeko.

— Billatzea kostako zaigu.

— Ez. Ni zuzen joango naiz aien etxera. Nik au gure baillara bezelatsu ezagutzen det. Zerbaiterako bertan pasa ditut ia bi urte.

Irten ziran, da zuzen otelera. An giltza artu ta betik gora. Goi samarrean baizan etxea.

— Auxe da —esan zuan Joxek.

Atea iriki, eskailleretan gora igo ta, *kux-kux!*, aldabarekin jo zuan. Neskaxa bat, uniformearekin jantzia, atera zitzaien:

— *¿Qué desean los señores?*

— *Querriamos ver al capitán Ibarlucea.*

- *No está en casa. Pero pudo decirselo a la señora. ¿De parte de...?*
- *José Ariztimuño.*
- *¿Será posible? —entzun zuten.*
- An azaldu zan emakume ori, andre apain bat. Joxeri eldu ta musu eman zion. Jira ta:
- *Perdone, señora. No he podido. A él le debo la vida. ¿Marido y mujer?*
- *Sí, señora.*
- *Eso no. Tenemos que tutearnos.*
- Beso banatatik eldu ta barrura sartu zituan. Eseri arazi ta gozo batzuk eta jereza atera zizkien.
- *¡Cuando se entere mi marido!* —esan da beste gela batera sartu zan, da izketan jardun nunbait telefonotik.
- Bereala etorri zan. Paper bat idatzi, botoi bat zapaldu ta, neskamea etorri zanean, ari eman zion. Larri zan andrea. Kontuak jakin nai. Zurrut bat artu ta gozoa janez zeuden. Ate-soiñua, ta:
- *Ya está aquí —andreak.*
- Rau!*, sartu zan kapitana. Ikusi zituan. Joxeri eldu ta berealdiko estutua eman zion. Maritxuri, eskua.
- *Uste det senar-emazteak zeratela.*
- *Bai.*
- *Nun billatu dezu pitxi au?*
- *Ardi galdua bezela an zebillen da...*
- *Bai. Sinisten dizut. Ta zer asmo dezute?*
- *Zuek ikustea; ta, bidenabar, ni egon nintzan lekua oni erakustea.*
- *Maleta izango dezute, ba.*
- *Bai. Otelean. Orain bazkaltzera joan bear degu laister.*
- *Iñola ere ez. Bazkaldu ta lo ere emen. Nik egingo det modua.*

— Bazkaria jartzeko agindu det —esan zion emazteak.

— Oso ondo —erantzun zion—. Zuek garbitu bat naiko dezute. Dutxatu ta presta zaitezte. Laister da maleta emen.

Da beste gelara sartu zan.

— Baiña... —Joxek.

— Naikoa dezu. Orrek esana egin zazute, kapitana da ta —emazteak.

Lotsatuta gelditu ziran, baiña ixilik. Laister iritxi zan maleta. Mandatariari Joxeren giltza eman zion.

— *Le dices en el hotel a Juan que pasaré mañana. Ésta va a ser vuestra habitación. Éste es el baño. Preparaos para comer.*

Moztuta gelditu ziran.

— Al liteke, Joxe?

— Ikusten dezu. Ixilik egon da kito.

Arropak artu, garbitu. Ertetean, zai zegoan bazkaria. Ederki bazkaldu. Ia bukatu zutenean, ume-negarra. Amak joan da ekarri zuan. Ume ederra. Lau-bost illabete zeuzkan. Naikoa egin da alai zegoan.

— *Chiquitín, éste es el hombre que salvó la vida de tu madre. Algún día lo sabrás todo.*

Kontu kontari egon ziran. Jakin nai zituzten aien berriak. Dena esan bear: baserritarrak nola ziran; alkarrekin eskolan nola ibili ziran; an, nola etzekitela, maitemindu zirala; ta geroztik Joxe nola morroi joan zan, da zazpi urte ta erdi pasa.

— Orduan ume tuntun inozente bat nintzan —esan zuan Maritxuk—; da, aldegin zuanean, konturatu nintzan maite nuala. Geroztik zenbat aldiz, soldadu joan arte, ikusi nuan, ba, nik? Bost-sei bider. An ere banekian beste neska batek maite zuala, ta kezka asko sufritzen. Baiña ara orain.

— Bai —Joxek—. Biok berdin-berdin, alkarren antsian. Nik uste, gauza onetaz auzoko mutil batengatik konturatu giñan. Arro arrandioso bat da. Au orduan ere ederra zan, da oni iseka egiten zion. Nik ezin eraman. Bein itz itxusiak esan zizkion, da defenditu nuan. Gero, Gaztelun, nik banuan neska apaña. Gaiñera, antzematen nion maite niñula. Baiña barruan au nuan, da ez nion ari erantzuten. Onek, ordea, mutil asko zituan atzetik, ta jakiten nuan arrebarengandik. Baiña baneikian etzuala iñor onartu nai. Orrelaxe, soldadu etortzekoan, agindu zidan neretzat izango zala, Baiña denbora asko alkar ikusi gabe. Dena igaro da, ordea, ta orain senar-emazte gera.

— *Increible. ¡Vaya historia de amar sincero! Como para escribir un libro* —kapitanak.

— *Ni que lo digas* —andreak.

Arratsaldean, laurak eta aurra irten ziran, da etxera noiz itzuli bear zuten galdetu zien kapitanak.

— Biar goizean.

— Ezta iñola ere. Denbora daukazute. Etxea zuena da ta lasai egon. Emengo baztarrak erakutsi oni. Ta, gaiñera, nik biar ta etzi jai ditut. Alkarrekin ibiliko gera. Ez nezake eskertu iñola zuk egin zenduana. Zu izan ez baziña, ni gaur semetxoarekin, baiña alargun nintzan. Da gu ere oso alkar maiteak gera.

Atzenean erabaki zuten astearte goizean irtengo zirala.

Astelenean ikusi zuten Zeuta. Kuartela ere bai. Baiña etziran sartu. Kapitanari esan zion:

— Zuk nereak esan dituzu. Baiña zu izan ez baziña, oiartzuarra ta ni oraindik emen giñan. Au eskertu bear dizuegu.

— Aintzakotzat artzen det. Goazen onera —esan zuan kapitanak.

Denda batera sartu ziran. Erlejuak ainbeste bazeuden, da bakoitzak beretzat nai zutena bereizteko.

Ezetz, ezetz iñola ere. Etzutela nai. Zearo lotsatu ziran. Bai besteak antzeman ere.

— Orduan nik bereziko ditut.

Bat eta bestea an ari ziran, da atzenean:

— *Éstos dos póngalos en sus cajitas. Haga la factura.*

— *El señor se la hará.*

Sillan eserita zegoan edadeko gizon bat.

— *¿Qué tal, Don Evaristo?*

— *Te estaba mirando. Bien, Perico, bien. ¿Qué andas?*

Esan zion zer zebillen, da Joxe zein zan. Lenengo aren emaztea ta gero auek agurtu zituan. Azkena, Joxeri eldu zion eskutik, eta:

— *No sé si habrás meditado sobre tu acción. Pero has hecho lo más que podías. Tú sabes, Perico, que en mi vida han pasado muchos vascos bajo mi mando. He tenido quejas de algún barrabás. Pero pocas. Casi todos han sido fieles cumplidores de su deber. Les apreciaba mucho y tú me lo confirmas. Señora, le felicito por casarse con este hombre. Será feliz. Y tú, Perico, pasa otro día y nos arreglaremos mientras charlamos.*

Artu paketea ta etxeratu ziran. An apalondoan ekarri zuan kajatxoa. Askatu ta:

— *A ver esa muñeca, José.*

Eskubiko besoa luzatu zion.

— *No. El izquierdo.*

Ta erleju apain bat jarri ta bestea eman zion, esanez:

— *Pónselo a tu esposa.*

— *Se lo tenemos que abonar. Tanto no puede ser.*

— *¡Chist! A callar, que soy tu capitán* —esan da matraillean maite-ikuitu bat egin zion.

Gero agertu zien gizon zar ura zein zan: koronel jubilatua, bere alabarekin, denda artako nagusia.

Biamamonean goiz jeiki bear zala, ta aurra lo egongo zala ta agurtu zuten. Maritxuk besoan zeukan. Musu eman da begira zegokion. Alako batean, Joxeri begietara begiratu zion da aurra amari eman, da oieratu ziran.

Urrengo goizean, jeiki ta gosaldtu. Emaztea agurtu ta portura. Kapitanak esan zien:

— *José, me tienes que dar tus señas. Si por casualidad llegamos allí, os visitaremos.*

— *Le costará encontrarnos.*

— *Aunque viváis en las entrañas de la tierra, os encontraré. Me sentiría feliz de veros en vuestra casa.*

Berak artu zizkien billeteak ere; eta barkuan sartu ta abiatzeko unea arte aiekin egon zan. Agurtu ta utzi zituanean:

— Ori familia! Pentsatzeak ere lan du. Nola alako kategoriko gizona gurekin? Da andre gaixoak zer soñekoak dauzkan! Erakutsi dit bere armarioa. Ta aurak txoratu nau.

— Zergatik begiratu didazu, eskuetan daukazula?

— Ez gaizki artu gero, Joxe. Nola ez dakidala, egin det. Uraxe atera zait. Emakumea naiz eta zuri eta gure gurasoei semea edo alaba eman nai diet.

— Denbora bear da ortarako.

— Bai, Joxe, bai. Lasai egon. Ni ustez ondo nago, ta zure paltarik ez det izango. Ikusi det: dena etorri da. Ni zoratzen nago zurekin. Etzaitut nai orduko nereaa egin.

— Au xoxokumea!

Ezkonberrien jarrera.

Madrillera joatea erabaki zuten; eta, barkutik ertetean, estaziora joan da orduen berri galdetu. Arratsaldeko lauretan erteten zan. An gertuan bazkaldu zuten. Ordua ere eskumuturrean. Maiz begiratzen zioten. •

— Gu traste auekin ikustean, zer esango ote da gure baillaran? —esan zuan Maritxuk—. Oraindik iñori ez diot ikusi.

— Etzaio ajola. Etxekoei esango diegu nola, ta gainontzekoak nai dutena.

— Asko egin zenduan. Baiña esker ona ere sinistu eziñezkoa da. Gizon ura, bere uniformearekin, gurekin kalez kale, soldadu guziak agurtzen dutela. Ta emazteak ia jan ziñun. Zer gozoa dan! Aiek ere, gu bezelaxe, zorionekoak.

— Da okerrena da, batere etzitzaidala kostu.

— Baiña biotzean zerbait lertu zan.

— Ori bai. Tenienteak adierazi zigunean, barruak su artu bezela, ta etzitekean iltzen utzi. Dana dala, ez nuan nai iñor iltzerik. Besoa altxatzearekin, pausoa eman aurrera. Oiartzuarrak ere bai. Eskumiñak emateko esan dit. Baiña nun bizi dan ez dakit. Gaiñerakoak esan nizekizun, da badakizkizu.

— Bai; baiña bein ere ez naiz aspertzen entzuten. Zure biotz aundiaren ezaugarriak baidira. Ta gu? O, Joxe!

Eskutik eldu zion da:

— O, nere senar kutuna!

Biak alkarri begira. Baten barrutik bestearenera zubia zegoan, da bi barruak izketan ari ziran. Zer esanez? Pentsa liteke.

Madrillen

MADRILLERA irixtean, estazioan galdezka asi ziran nora joan, da gizon batek:

— Atozte. Nik eramango zaituztet.

Eta *Metropol*-era eraman zituan. Toki ederrean zegoan: Montilla-ren ertzean, *Gran Vía* alboan. An egin zituzten bi egun. Komuna ederra zan, bere baiñu ta guzi. Maritxuri Zeutakoak inbiri eman zion.

— Zer baiñua artuko nuken!

— Aukera daukazu, nai badezu artu. Biok artu genezake. Zuk aurrena ar zazu, ta nik ondoren artuko det. Zu aurrena, apaltzerako illea txukatzeke.

Joxek artu zuan aurrena, ta prest utzi zion emazteari. Au sartu zan barrura, ta barrengo alde-tik maratilla eman da bañatu zan. Noizbait irten zan, da apaldu ta oiera.

— Zoragarria zegoan baiñu au. Gure etxeko on-tzietatik alde ederra dauka. Badakizu zer bururatu zaidan? Etxean jarri bear degula. Emen *mala mane-ra* dirua gatatzen ari gabe, joan da an jartzeko aurreratzen degu.

— Zer: aspertu al zera?

— Zurekin ez. Egunean baiño egunean gustora-go, Joxe. Ziñez esaten dizut. Baiña beste gauza ba-tzuk ere badarabilzkit buruan.

— Bai? Esan, ba. Entzun naian nago.

— Ara, ba: aita-amak begietara eman ziguten; da, aiek bezela egiteagatik, Zaragozara joan giñan. Gero, Zeuta. Zoragarrizko ibilia, Joxe. Baiña au etzait gustatzen. Emengo jendetza, emengo otsa... Gela bikaiña, baiña aspertzen asi naiz. Ta beti amets egin dedana: Arantzazu. Ainbeste bider belauniko erregutu diot zure ta nere alde, ta ara orain gu. Eskerrak emanez joan giñezke, nai bazendu. Bein ere ez naiz izan. Da gero ere izango al degu olako egokiera asko?

— Oso ondo. Arrazoia dezu ta joan bear degu. Gaiñera, Donostia ere an dago, ta politena dala esaten dutena ez degu ezagutzen. Zuk diozuna: gerora nork daki biok ibiltzeko olako aukerarik izango degun? Biak egin bear ditugu. Orain da gure denbora. Goazen emendik.

Ala, trenaren berri galdetu zuten, da arratsaldeko zazpietan zala. Prestatu ziran, ordaindu, tasi bat eskatu ta, iritxi zitzaientean, estaziora. Billetea artu, trenean sartu ta beren lurrera. Beste gau bat bidean, baiña etzion ajola.

Arantzazun eta Donostian

AMARRAK aldera ziran Zumarragan. An erabaki zuten tasisa artzea. Laister billatu zuten.

— Zenbat kostako zaigu?

— Lau duro ta erdi.

— Ea, ba: goazen.

Sartu ta Arantzazura. An, zuzenean elizara. Maritxu arrunt txundituta zegoan. Bururik etzuan altxatzen. Ala zeudela, fraile bat aitorlekura etorri zan.

— Laister da azkeneko meza gaurkoa. Bitartean, orrela etorri bazerate, ustu zuen barrena, Arantzazuko Amak lagunduko dizute ta.

Altxa ta Maritxu joan zan. Ura ertetean, Joxe. Aitortu ziran da Jauna noiz artuko zuten galdetu zuan Joxek.

Bazkaldu ostatuan, da baztar guzietara begira zebiltzan une artan. Arkaitz tartea azpian, da Maritxuk:

— Naiko itxusia dago, e, Joxe?

— Bai; baiña berdea. Ori orain. Da udaberrian, pago oiei ostoa ertetean, polita izango da.

Alako batean, atzeko aldean meza eman zuan frailleak:

— Arratsalde on Jainkoak.

— Berdin.

— Norabait joan naiko dezute, ba? Edo bertan gelditzeko asmoa?

— Ez, jauna. Donostira nai, baiña ez dakigu nola.

— Ni Zarautza naramate; ta, nai badezute, batean joan giñezke. Andik trenean edo automobillean joan ziñateke. Bertan dago.

Alkarri begiratu zioten, da:

— Pozik. Egon emen. Laister gatoz.

Maleta artu ta prest jarri ziran. Automobilla bereala etorri zan. Sartu ta Zarautza. Estazioan utzi zituzten.

— Emen galde zazute orduen berri, nik ez dakit eta —esan da joan zan.

Baiña eskerrak zintzo eman zizkioten. Maritxuk:

— Au suertea, Joxe, darabilkiguna!

— Ori, ori!

Galdezka asi ziran, da automobilla zala laister ta erdiragoan utziko zituala. Joan ziran esandako lekura. Etorri zanean, sartu ta Donostira. Galdetu zuten nun zan, da Kojoanera. Bai etxeakoandreak ezagutu ere:

— O! Ongi etorri! Zer moduz ibili zerate?

— Oso ondo.

— Pozten naiz. Gauza auek orain egin bear dira. Gerorako uzten bada, edo lanak edo aurrak, oso zail jartzen da. Guri ori pasa zaigu.

— Gela izango al degu?

— Bai, noski. Lengoa antxe daukazute. Ona gilitza. Ta, apaldu nai badezute, prest dago.

Gora igo, garbitu bat artu ta jetxi ziran.

— Zer nai dezute?

— Ematen diguzuna edo daukazuna.

— Zopa ona daukat, eta legatza saltsa berdean.

— Orixe, ori! —esan zioten.

Laister ziran jaten. Zopa ederra zegoan, baiña legatza bai ederra. Ura saltsa!

— Bein ere jan dezu, Maritxu?

— Oroitzen naizela ez.

— Ezta nik ere. Au ere probatu degu. Orain badakigu zer dan.

Bukatu zutenean, oiera. Nekatuak zeuden: gaua trenean ta loa palta. Kontutan asi ziran, baiña azkar lo artu zuten.

Goizean esnatu zan Maritxu, ta eskumuturrera begiratu bear, an baizeukan erlejua, ta bederatziak. Joxe, lenago esnatu ta begira zegokion.

— O! Ez nazu esnatu.

— Ez. Ain gozo zeunden. Gero etorriko dira egunak jeiki bearrekoak.

— Ez diet bildurrik. Gaiñera, zu ondoan zaitudala, gutxiago. Etzaigu nai ordu iritxi egun au.

Jeiki, gosaldu ta Donostia ezagutzera. Etorri, bazkaldu ta berriz irten, ta apaltzera. Etxekoandreak:

— Gaur bisigua daukazute

— Ekarri.

Joxek Maritxuri:

— Len jan al dezu?

— Bai prankotan. Amar aldiz bai. Baita angulak ere, aitak edo amak Tolosatik eramanda. Oso gozoa da au. Ikusiko dezu. Argatik esan diot ekartzeko.

Etzegoan oker. Ziñetan gozoa zegoan. Gaiñetik flana. Joxek:

— Auxe ere gozoa dago, ba.

— Bai.

Altxa ta oiera. An kontu kontari: ikusi zituzten baztarrak, Igeldotik eta Urguldik zegoan ikuspegia, *Buen Pastor*, Santa Maria... Au ederrena. Etzuten izan Donostia ikusterik lenago. Joxe bai; pasa zan, baiña pasa bakarra. Ta:

— Orduan kezka ematen zidana, gaur poztutzen nauana. Au da zoragarria!

— Sufritu egin degu, biok ere tuntunak generalako. Baiña ori ere bukatu da. Orain, au ere ikusi samartzen ari gera ta etxeratzeko pentsatzen asi al gindezke?

— Bai, Maritxu. Zuk nai dezunean. Bizimodu au ia ametsa da. Egiazkoa an daukagu. Pozik joango nintzake. Baiña badakizu aitak zer esan zigun.

— Ooo! —luze bat egin zuan Maritxuk—. Zu emen ikusten zaitudan bezin ziur nago, an denak gu ikusi naiean daudela.

— Ziur zaude?

— Oso ziur.

— Zuk nai dezunean, ni prest nago. Madrillen pentsatu genduanari ekin bear diogu. Udarako ea jartzen degun.

Oartu gabe, lo. Goizean, bezperan bezela, gosalduta ta aupa! Tranbean sartu ziran. *Tin-tin-tin* joaz, Donostian barrena, Antiguan jetxi ziran. An bueltak zebiltzala, erregiñaren palaziora iritxi ziran. Koskatik begira zeuden. Ura ikuspegia! Kontxak ura zintzurra itxas zabalera erteteko! Ura buelta!

— Kontxarena politena esaten dutela? Ez da oso gezurra izango.

Obeto ikusi naiez, gora igo ziran. Ase eziñik egon ziran begira. Andik, Aldapetan bera jetxi ta bazkaltzera. Joxek:

— Lastima izango zan, ibili geran tokietan ibili ta etxeko pitxia ikusi gabe gelditzea.

— Ez diozu gezurra. Orain ia badakigu Donostia nolakoa dan. Gauza bat gutxiesten det: zinea. Aინ-beste aldiz, erromerietara joanda, gu ezjakiñak gerala azaldu naiez esan dizkigute ango kontuak.

— Bai. Guk baiño mundu geiago daukate.

— Utzi. Zertarako? Ni begira nabil ta zure moduko gizasemeak oso banaka dabilta emen. Geienak, gu ez bezela aziak izango dira, ba. Ez dira ala ere ederragoak. Geiago dakitela? Ori ere batzuek. Geren txokoan bizimodua aterako degu guk gozo-gozo. Oiek ere, ortik gora noraiño joango dira? Emen, asko beintzat, itxuraz bakarra. Guk anak lurrean dauzkagu, Joxe. Zoriontsu izango gera geren guraso ta izan ditzazkegun aurrekin.

— Etzait bururatu ere egin zure ondoan zoritxarreko izango naizenik.

— Ez. Etzera izango. Ia antsia daukat etxerako.

— Nai al dezu gaur zinea ikusi ta biar joatea? Ortara, gogoratu zaigun guzia eginda joango gera.

— Bai. Ni pozik.

Arratsaldean, Lezotik buelta egin da Santo Kristo ikusita, zazpietan zinera. An ia bi ordu. Polita omen zala esaten zuten batzuek. Baiña aiei etzizaien geiegi gustatu. Joxek:

— Au ametsetakoa da. Guk ez daukagu ametsetan bizitzerik.

— Ez orixe. Neretzat, ori dena gezurra da. Guk anak lurrean bear ditugu.

Berandu iritxi ziran apaltzera. Etxekoandreak:

— Zer gertatu ote zaizuten kezketan nengoan.

Dena kontatu, apaldu ta esan zioten biaramonean etxera joateko asmoa zutela.

— Zer ordaindu bear degun jarri.

— Goizean prest egongo da.

Joxek:

— Arrandegiak noiz irikitzen dituzte?

— Zortzietarako bai.

— Orduantxe irtengo gera.

— Gau ona pasa —esan da oiera sartu ziran.

Maritxuk:

— Gure ametsa bukatu da, Joxe.

— Ez, Maritxu, ez. Biar asiko da. Ta, zuk esan dezun bezela, anakak lurrean ditugula. Oraindaiño-koa egia, baiña zinearen antzekoa.

— O, Joxe. Zer poza, zuri orrela entzutean! Da zergatik galdetu diozu arrandegiaren berri?

— Ara: ainbeste gustatu zitzaidan atzoko bisi-gua, berriz ere jan nai nuke; ta zure amak, jartzen badaki, jarriko digu.

— Amak bakarrik? Nik ere bai.

— Baiña zuk ikasi al dezu sukaldean?

— Orixel! Amak, dakiana erakutsi dit. Ikusiko dezu laister zer bazkari gozoak jarriko ditudan.

— Ikusten nago, uste nuan baiño andre ohea artu dedala.

— Aleginduko naiz ala izaten. Zure naia gustatzen zait. Zergatik ez geixeago artu? Zure senideak eta gurasoak gustora etorriko dira.

Xapla!, lo. Baiña goizean etzegoan logalerik. Maritxu esnatu zan lenengo. Baiña lotua zegoan, da etzuan mugitu nai. Joxek, ezkerreko beso gainean zeukan eskubiko besoarekin, bular gainean pasa ta galtzarbetik artuta bereganatua zeukan. Maritxuk esaten zuan:

— Zorion geiago ote leike? Ta au, geran arterako.

Eskerrak ematen asi zan. Laister esnatu zan Joxe ere.

— O, Maritxu! Zer ederki gauden!

— Bai, Joxe. Zeruan. Jeikiko al gera?

— Bai. Al badegu etxera eguerdirako irixteko obeko degu.

Etxean

ETZEGOAN bi bider esan bearrik. Usu pres-tatu, jetxi, gosaldu, ordaindu, agurtu ta Bretxara. Bazegoan aukera, ta iru bixigu artu zituzten. Garbitu ta ederki jarri zizkien.

Andik estaziora. Ia presa zuten. Trenean sartu eta Billabonan jetxi ziran. Amar ta erdiak ziran. Zituztenak artu ta etxeruntz, len zekizkiten bideetan gora. Ariztiko bide-gurutzean abiatzean, Maritxuk:

— Gogoratzen al zera, Joxe, ni babekin nentorrela, zuk atzetik arrapatu ta izketan nola joan giñan? Alkar maite genduala esan nai, ta esatera ezin ausartu.

— Ez dezaket aztu. Baiña nik zuri antzeman nizun maite niñuzula.

— Nik ere bai zuri.

Orrela zijoazela, etxe atzeko bizkarrera irixtean amabiak ziran. An zegoan beren kabia, utzi zuten bezelaxe. Etxe inguruan etzan iñor agiri. Beragoan, errita-soiñua entzuten zan. Aurreko bizkarrean ardi batzuk zebiltzan.

— Ez dira gureak —esan zuan Joxek.

— Ezagutzen al dituzu emendik?

— Bai zintzarriak.

Mandioko atera iritxi ziran, da aita bankuan ari zan. Etzan oartu.

— Egun on, aita.

Argi-ındarrak ziztatuta bezela jira zan.

— Ara! Ikusi gabe ez nuan sinistuko.

Ta alabari eldu zion.

— Zuk esan baiño len etorri gera baiña...

— Bai. Ez, ordea, ala ere nik nai baiño lenago. Joxe, Joxe, baneukan antsia zuek emen ikustekoa.

Joxek:

— Orra ba, aita. Etorri gera. Bukatu da gure festa.

Maritxuk:

— Ez, Joxe, ez. Orain asiko da egiakoa.

Oartu ziran sukaldean ere, ta amak eta Anjelesek jan bear zituzten.

Luis, aiek irixtean Beristaiñen baizegoan lanak egiteko, oartu zan etorri zirala, ta usu joan etxera ta amari esan. Bai osteraz azkar etorri ere. Bolara pasa zanean, arropak aldatu ta jarri ziran bazkaltzeko.

Maritxuk:

— Zure gurasoetara joan bearko degu lenbizi.

Luisek:

— Nik amari esan diot.

Maira bildu ziran. Amak:

— Bixigu eder auek nolaz ekarri dituzute?

Joxek esan zion zer asmoekin erosi zituzten.

— Ederki, Pozten naiz orrela pentsatzeaz —zion amak—. Len ere batzuk janak gera, baiña aurrera geiago.

Bazkaltzean ez al zuten bukatu, an ziran aita-amak eta Joxepa. Kafea artuz lasai egon ziran,

beren gorabera guziak kontatzen: erlejuak eta gain-
nerakoak. Aitak:

— Arraioa! Ori da gizonaren eskerra! Aurrena,
etxera bialdu; orain ola. Gizon aundia izango da.

Maritxuk:

— Aundia ez. Baiña ikusiko bazendu bere traje
ta zapelarekin, kalean dijoan tokian soldaduak
agur egiten diotela...

— Bai, bai! Zerbait bada. Alajainkoa! Aitak seku-
la ez du izan, ta semeak jaio orduko! Au diferentzia,
Miel! Ta gorriak dira. Ea urrezkoak diran. Dana
dala, eskertzekoa da.

Maritxuk:

— Andreak ikusi zuanean, au jango zuala uste
nuan. Zer egin etzekian. An egon geran denboran,
aien etxea izan degu ostatu. Mutikoa esnatu zane-
an, ala esan zion amak: “Au da, seme, zure amari
bizia eman ziona. Denborarekin jakingo dezu”. Ez
dauka aztua.

Aitak:

— Ez da aztutzekoa ere, baiña esker onekoak.

Joxek:

— Azkenean, kotxean jetxi giñun portura, ta
billeteak eman da barkuan gurekin egon zan. Sinis-
teak ere lan du.

Maritxuk:

— Ara zenbat balio duan daukadan senarrak!

Denak algara egin zuten, da Paulak:

— Ondo zaintzen al dezu!

Gustora zan jendea, etorri ziranean. Kontuak
kontu, etxean nai zituzten. Joxepak Paulari esan
zion gauean nola aparia zeukaten da etortzeko.
Banatu ziran nor bere lanetara.

Joxe ikuilluan zebillen, da Miel joan zitzaion.

— Seme, aoz eskatuta bezela etorri zerate. Asteazkenean txekorra eramateko abisoa degu, ta orain zuk eramango dezu.

— Bai pozik. Gure Maritxuk beste nai bat badauka.

— Bai? Zer du, ba?

Dena esan aurrenetik atzenera.

— Pentsatu al dezu nola egin?

— Bai.

Dena agertu zion zer pentsatu zuan.

— Zer iruditzen zaizu, aita?

— Ni ez naiz pentsatzen egon, baiña litekena izango da.

Irten da sukaldera joan zan. Alaba an ari zan aparía prestatzen. Amari esan zion:

— Gaur nik jarri bear det. Joxeri, uste ez duana erakutsi nai diot. Zer iruditzen zaizu babatxuri-zopa ta bixigua?

— Bai, bai. Apari bikaiña da. Gaiñerako, errezil-sagarrak or dauzkazu; ta, txortten-zuloan azukre apur bat botata, sukalde ortan zoragarriak ateratzen dira.

— Ondo, ama.

Aitak:

— Maritxu, Joxek esan dit zuk garbitzeko gela nai dezula.

— Bai, aita. Bein ere ikusi al dezu?

— Nik entzun bai, baiña ikusi ez.

— Arritzekoa da. Burutik bera txorroa ere bai. Edo, bestela, askan sartuta ur epeletan. Baldearen aldean beste gauza bat da. Ta guk, badakizu, zikintzeko lana degu geienean.

— Bai. Ta izardi-usaia txarrena. Egin bear bada, egin egin bearko da, ba.

— Zuk uzten badiguzu...

— Zuk nerekin beti nai dezuna egin dezu. Bein ia-ian ibili giñan. Baiña orduan ere...

— Baiña orduan ere nereea. Barkatu zenidan, ordea. Azkar pasa zitzaizun zaputza. Ikusiko dezu, aita, zer aparria jarriko dedan. Gure Joxek, uste ez duana ikusi bear du.

— Zer?

— Emazteak sukaldaritzan zerbait badakiala.

— Beste orretaz Joxerekin konpondu. Dirurik badegu. Eguberritarako naiago nuke.

— Bertara samar dira. Ez dakit.

Illunabarrean bildu ziran denak mai ingurura. Bai ederki apaldu ere. Joxinaxiok ala zion:

— Alajainkoa! Gradu aunditara igotzen asi gera. Sagar auek etzeukaten gure etxeakoak ainbat azal beztu ta ikatz.

Izanez ere, ekonomikan legun-legun erretzen baiziran. Ibillaldiko gauzak edo gertatuak berrituz joan zitzaien denbora. Goiza gerturatzen ari zala banatu ziran. Maritxuri aitak esan zion:

— Biar goizean ez jeiki lanak egitera. Moldatuko gera. Zuek nekatuak zaudete ta etxeo oia ederra egongo da. Gero naiko denbora izango dezute lanerako.

— Bai, aita...

— Esan dizut, eta onartu.

Oieratu ziran. Lenengo, errezoak aztu gabe, eskerrak emanez. Ondoren:

— Atoz nere besoetara, Maritxu. Irrikitzen nago zu artzeko.

Algara eginda sartu zan ondoan. Matrailla eskuarekin igurtziz:

— Zorionekoa zera, Joxe?

— Ni ziñetan bai. Pentsatzen nuan baiño geiago. Ta zu? —besoan estutuz.

Zeramazkiten egun guzietan egiten zuten alkarrekin lotu. Kontuak esan da edade ortan nolanai egiten da ta lo, goizera arte esnatu gabe.

— Nola ez ba, Joxe? Zu ziñan nere ametsa, emakume osatu nintzanetik. Orain nereea zera. Nik, zure nere ondoan zaitudala, ez det ezer palta. Dena det. Jainkoak osasuna deigula. Ori ez dago gure eskuetan. Gaiñerakoa bai. Nai izan bear degu, eta billatu. Len egin deguna ainbeste urtean, ain gutxitan alkar ikusiz. Gero tartean sortu zan deabru ura. Alkarganatzean ere, zer? Alkar maite genduala esateko bildurrez. Ain gutxi alkar asez. Esaten nizun: zenbat eta alkarren egarri geiago ase gabe utzi, alkar geiago maiteko genduala. Ara orain maitez alkarri lotuta. Denetik osatu gera. Nola ez, ba, zorionekoak izan? Gu eta gure ondokoak ere bai.

— Zinean Donostian ikusi genduan arek ez al zizun zer pentsaturik eman?

— Bai. Baiña inbiria ez; nazka. Ta zenbat eta geiagotan bururatu, ainbat geiago ematen dit. An ere diruduna eta beartsua ziran. Gure tartean ere nai zuten, baiña gure aita gizon burutsua da, ta ama ona ezin geiago, ta azkar konturatu zan nora zijoan.

— Ez al ziñan bildurtu galduko niñuzunik?

— Zu ez. Artaratu banintz, aita-amak utziko nituan. Zurekin joango nintzan. Senarra bizi guzarako da, ta ez nuan nai bestek ezarririk. Aita azkar konturatu zan. Amak ere gogor itzegin zion: “Zer, ba? Dirua al da, ba, dena? Ta zertarako?” Ez, Joxe, ez. Aldeko gaude gu biok emen, alkarrentzat garbi gorde geranak, alkarri lotuta. Aiek nai zuten guziaz balia gindezke. Sasoi betea daukagu. Zer geiago bear degu?

— Mundu ontan ez diteke. Nere pentsaera berbera daukazu. Baiña, arraioak ezik, saiatuko naiz orregatik erantzuten, ta ori sinistuta bizi naiz. Zuk esan dezuna: dirua ez da dena. Bearrezkoa bai, baiña dena ez. Etxean ikusi det ori. Bazkari batez ez naiz oroitzen, nere aita-amak alkarri itze-
gin gabe egiñik. Senide-sail galanta gera, baiña oso alkar maiteak. Gure amak denentzat naiko talo erre du. Gosea zer dan etxean ez genduan ikasi. Beartsuak dira ezin geiago, baiña gozo bizi dira. Zergatik? Dutenarekin konformatzen dakitelako. Guk ere orixe egin bear degu: konformidadea izan. Beste itz batean, zuk esan zenidana: ankak lurrean ditugula bizi.

— Bai orixe.

— Zaputzaldiren bat iñoiz izan dute, baiña txikia. Ori guri ere gerta litzaiguke.

— Bai. Bi ez da bein ere bat.

— Guri gertatzea ez da arritzekoa. Baiña artaritzen bagera, lepotik eldu ta musuka jango zaitut.

— Berdingabea zera.

Urrengo goizean esnatu ziran. Eguna argi zegoan. Bederatziak ziran. Joxek:

— Jeiki bearko degu.

— Ez orixe. Ederki gaude. Gure oia bezelakorik etzaigu iñun tokatu. Au gure bizia da. Nork daki orren egun lasaiak zenbat izango ditugun? Goza dezagun, Joxe. Zurrupatu dezagun azkeneraiño — esan da *uuu* eginda, zarkutzera sartu zitzaion.

— Xorgintzen ari zera, Maritxu.

— Ez, Joxe, ez. Len ere orrelakoxea nintzan. Ez degu lortu nai bezin azkar.

— Ala da. Bart esan genduan: gu zearo beartsuak eta ondo bizitu gera. Ta zuk dakizu: gure bail-laran bertan, gure aldean modu asko dutenak

gaizkiago bizi dira, beti iskanbilla ta festa, iñork ikusi nai ezik.

Kax-kax-kax!, atean. Usu banatu ziran.

— Aurrera! —ta ama sartu zitzairen. Biak oi batean zeuden, da amak:

— Goxo-goxo zaudete?

Alabak, *rau!*, gerritik eldu ta bereganatu zuan, da:

— Ama, munduan zorion geiago bai al da?

— Ez nik dakidanik. Au ere, orrenbeste, orain bakarra. Gerokoa badakizute, ikusi dezutelako. Kafea ekarriko dizuet. Onezkero premian zaudete.

Joxek:

— Ez orixe. Lotsagarria izango litzake.

Maritxuk:

— Zer, ba? Au ttonttoloa! Ez, ama, ez. Laister jeikiko gera.

— Zaudete eguerdia arte. Gero, lanak berak jeiki araziko zaituzte —esanda, amak utzi zituan.

Lan berriak

BAZKAL aurrean jeiki ziran, asteko arropak jantzi ta bizimoduari ekiteko prest. Bazkaltzen ari zirala, Joxek:

— Aita, arratsaldean zer asi bear det?

— Bazkalondoan siesta, ta jeikitakoan esango dizut, zerbait badabilkit buruan da.

— Bai, baiña berdin da gero izango degun eguneroko martxa.

Ama ta Anjeles siestara bialduta, Maritxuk altxa zuan sukaldea. Joxek ere lagundu zion. Bai gustora. Zeiñek zeukan alako sukaldea inguru aietan? Iñork ez. Gero, baiñua egitean, ura bizilekua! Pozik saia zitezken. Lanak bukatu zituanean, Joxeri kafea eman zion. Laister aita-amak an ziran, da:

— Goazen, Joxe —esan zion.

Ikuillura baztatu ziran, da esan:

— Gure belaze aundiaren da Gazpioko borda atzeko belazearen tartean mendi aundia dago, ta ixten pranko erreza; ta buruan darabilkit an edo larre-bei batek edo dozenaren bat ardik etekin ederra emango lutekela.

— Gure aita izurratuko degu.

— Ez. Arunzko belazeak eta borda ari eman. Lizar-osto utsetan ere jatena pranko badago. Guk

Gazpioko etxe inguruarekin naikoa degu noski oraindik. Gero or ikusiko dezute.

— Asko gustatzen zait. Maritxurekin itzegingo det.

— Len ere zerbait esan nion.

— Bai. Zerbait esaten asi zan, da galdetu nion. Baiña ezetz esan zidan. Zuk esatea nai zuala.

— Ara, ba, esan.

— Da, aurten bezela, batean lan gogorrenetan jarraitu bear al degu?

— Ori zuek pentsatu. Nere iritziz bai; zoragarria da. Alkarri lagunduz nola egin lana? Berriz esaten dizut: zoragarria. Gure Maritxu ala ez balitz, bildur nintzan. Baiña asi baziran asi, usu egin zituzten. Zuen aitarekin zorretan nago, baiña ordainduko diot. Makiña bat aldiz jatenetan lagundu zion gure alabari. Batasuna indarra dala da esaera, eta ez da gezurra. Ni ez nintzan ezertarako, ta komeriak.

— Zu bizkortu, aita.

— Bai. Apur bat zimeltzen asi naiz. Goazen goi ortara ta ikusiko degu.

— Zu joango al zera, ba?

— Bai, bai. Orrenbeste banaiz. Ta, gaiñera, mugarriak erakutsi nai dizkizut. Nere urrengoa zu baizera.

— Maritxu, aita.

— Bai. Baiña zu aren senarra.

Mantxo samar, baiña igo zan da bere naia agertu zion. Arkaitzean iturritxoa an zegoan, txikia baiña bein ere agortu gabea. Bera errez jetxi zan, da baiñua nola jarriko zuten itzegiten etorri ziran.

Asteazkenean, txekorra artu ta biak, Joxe ta Maritxu, Tolosara. Angoa egin da Begoñarengana. Onek, senargaia lanean nun zan esan zien, da ara. Beste iru lagunekin ari zan. Azaldu zioten zer asmo zuten, da arritu egin zan.

— Iñungo baserritan ez diagu jarri. Baiña orrek ez dik ezer esan nai. Iñun bearrezkoa bada, an dek. Egun guzia izerditan pasa ta garbitu bat, a zer preskatu ederra!

— Ta gari jotzen jardun da dena, begi-zuloak eta guziak, autsez beteta, zer?

— Egingo degu. Apur bat itxogin zazute.

Joxek:

— Onek Eguberrietarako nai likek.

— Bai? Errira joateko asmoan nauk gaur. Arek ere sukaldea ta baiñua bear omen dizkik, ostatukoak. Goizxeago joan da ikusiko diat, ba.

— Gurean apalduko dek.

— Gero arte.

Etxera joan ziran lenbailen. Aita-amak sukaldean zeuden. Amak:

— Etorri zerate?

Maritxuk:

— Bai, ama. Presa genduan. Igeltseroarekin itze gin degu baiñu orrengatik, eta gero etorriko dala esan digu.

— Bero zerate.

— Bai. Al bada, Eguberrietarako jarri bear degu.

Joxek:

— Ara, aita, txekorraren dirua. Ogei ta emeretzi erralde ta bi kilo pisatu ditu. Artu.

— Ez, Joxe. Noizbait esan genizuen, ezkondu ondoren zuek eraman bear zendutela etxea. Iritxi da. Aurreruntzean, bear dana zuek ekarri ta ordaindu, ta artzekoak zuek jaso; ta diru auek asiera. Esan genduan gaiñerako dena, eta ez noa berritzera.

— Aleginduko gera.

Illuntzean iritxi zan igeltseroa. Ikusi zuan lekua.

— Erreza zegok. Tabikea bota ta zabaldu ta kito. Oso erreza.

Miel begira zegoan ixilik, baiña noizbait esan zion:

— Da, ori bota gabe, emen orren kontra beste gela eginda, zer moduz?

— Ori lujo aundia da. Baiña bai ederra. Orduan bi komun. Zoragarria. Azpian ezin jarriko degu egurra. Busti egiten da zola ta ustelduko litzake. Atea ere bearko du.

— Egurra ganbaran dago bear dana egiteko.

Apaldu zuten, da esan zuan igeltseroak:

— Biar eramatekoak ditu egurrak ostalariak, eta arekin bialdu. Gaiñerakoa nere kontu.

Urrengo goizean, egunsentian, joan zan Joxe ostalariarekin itzegitera. Etxera etortzerako, aita-alabak egurrak prest zeuzkaten. Idiekin artu ta bide-gurutzera.

Andik egun batzuetara etorri ziran ate ta materialak. Joxek etxeratu zituan laister.

Gogor egiten zuan lana. Beretzat ari baizan. Burutapenak zerabilzkian: “Egileorko Joxe, lurrean ipurdia jartzeko lekurik ez ta gaur bizimoduan orrela jarria?”. Sasoa ere alakoxea, ta saiatzen zan.

Ondorengo goiz batean abisoa: tresnen eske jeixteko. Joxe joan zan idiekin. Gizon bat zegoan zai. Tresnak gurdian jarri ta etxera.

— Nagusia errira joan da, beste lagunei zer egin erakustera. Laister da emen.

— Ba al dakizu zer egin bear dezun?

— Bai. Neurriak eta denak eman dizkit.

Asi ziran. Joxek Maritxuri:

— Nik oni lagundu bearko diot, ba.

— Zu, bai, saia orri laguntzen, lenbailen bukatu dezaten. Beste lanak, denak nere kontu.

Eguerdi aldera iritxi zan bestea. Arratsaldean arratsaldekoa egitera deitu zituanean, Maritxuk esan zien:

— Gu zuenetik naiko urruti bizi gera; ta, nai badezute bertan gelditu, gela badegu.

Bata besteari begira jarri ziran.

— Nik ia naiago.

— Nik ere bai. Orduan ez degu arratsaldekorik bear, eguna oso motza da ta.

Ala, bertan gelditu ziran. Egun gutxian egin zuten. Iganderako etxeratu ziran. Astelenean linterneroa joanda, argi ta ate-kontu nagusiak egin zituan; da Santo Tomas egunean dena bukatu ta prest utzi zuten. Joxek esan zion:

— Eguberri-biaramona jaia dek eta etorri adi. Kontua ekarri onuntzean; da, al badek, Ixabel ere bai. Begoña emen izango diagu, nagusiak jai ematen ziek eta.

— Ez diat esango ezetz. Pozik etorriko nauk. Baiña Eguberri egunean, da kontua ekarriko diat pozik. Neri ere ordaindu bearrak azkar zetozkidak, eta artu gabe zail dek.

— Etorri, motell. Gu zai gatxiok ordaintzeko. Gurean lo egingo dek; eta, artara, bi egun pasako dituk.

Ala banatu ziran. Maritxu-ta oso pozik zeuden. Geiena, aita-amak eta Anjeles. Izanez ere, ain ederra gelditu zan: iru bat metro zabalean, iru ta erdi luzean; sarreran ate bikaiña, gaztaiñarekin egiña; ezkerretara, lengo komunaren ondoan, aska aundia zuri-zuria, buru aldetik kanillak zituala bero ta otzarentzat; buru gaiñean bestea, zutik garbitzeko; urrena, aurreko eskiñan, komuna lengoa bezela-

koa; beste alderdian, garbitzeko ontzia, bere bi kanillekin, anka zuri baten gainean; paretak, goraiño azulejo txuria, erdian lore urdiñekin; zolan, berrogei bat zentimetro zabal eta irurogei bat luzeko baldosa zuriak; eta erdian, marmol puska aundiekin; etxearen orman, leioa. Dizdiz egiten zuan denak. Pozik zeuden etxeoak.

Etorri ziran bazkaltzera Begoña ta senargaia. Ixabelek ala zion ikustean:

— Benetan ederra!

Ta senargariari:

— Badakizu nolakoa nai dedan nik: olakoa.

— Ea, ba —erantzun zion.

Joxek ordaindu egin nai zuan, da kontua galde-tu zion. Papera eman zion da ala esan zuan:

— Nunbait or. Oraindik ere apur bat sobratzen zaiguk.

Maritxuri esan zion, da onek:

— Ori zure lana da.

Ordaindu zion, da denak gustora. Bazkalondonan, kontu kontari zeudela:

— Oraindik ez det iñun jarri olako materialik. Komuna, aska ta palenkana *Roca* dira; gaur ezagutzen dan markarik onena.

Joxek:

— Ostatukoari oiek jarriko dizkiok?

— Ez. Ari, berak aukeratu dituanak. Zuek nere kontu esan zenidaten, da dakizkidan onenak ekarri dizkiat.

Maritxuk:

— Oso ondo. Bein egiten dira gauzak.

Mielek:

— Alaxe da. Ederki gelditu da.

Maritxu etzan gozatu, denak probatu zuten arte. Aita-amak, errez ta gustora ala zioten:

— Au gauza ederraren jabe egin geran! Baiña ni or erantzi ta sartu? Ez orixe.

Baiña atzenerako egin zuan, da andik aurrera bera okerrena.

Joxinaziok Mieli esan zion, aiek etzutela lagundu batere Joxeren-ta eztaietan, da:

— Pazkoak aldera arkume bat jan bear degu bi etxeetakoak alkarrekin. Gure Paulak ere ala nai du.

Mielek:

— Zuek ala nai badezute, zergatik ez? Zuek arkumea jarri, ta gaiñerakoa gure kontu. Nai dezu gure etxean egitea?

— Ni konforme. Zuena gurea ez bezelako etxea dago.

Bazijoazen egunak. Nor bere etxean ondo zebiltzan. Lana ta pakea ta osasuna, dena zeukaten. Egileorko sendia ere bikain, Joxez gaiñerakoak. Bi gazteenak ezik, lagunak bazituzten. Esaera bat bada: “Kontu larre motxean azitakoarekin”. Ura nunbait ere agertuko da. Langilleak, saiatuak, itz batean. Jende jatorrak eta ondo zijoazen.

Erramu egunean Joxinaxiok Mieli:

— Pazkoak dira ia. Arkume bikaiña dago. Noiz nai dezu ekartzea?

— Emakumeei esango diet, Joxinaxio, ta aiek erabakiko dute. Alkarren berri jakingo degu.

Etxean itzegin zuten da, eguraldia preskoa bazan, ostiralean.

— Bein jan bear, da puntuko arkumea jan bear degu.

Ia bazkaldu zutenean, Joxepak:

— Zergatik ez tripotxak egin?

Maritxuk:

— Zera: ostiral santua da. Bijili ta barau. Elizara nola?

Joxek:

— Miel, bakailleroa ekarria dago orduan jateko. Guk egingo ditugu tripotxak. Zu lasai egon.

Aurdun

ASTEAZKEN santu goiza zan. Denak jeikiak ziran. Anjeles bere gela egiten ari zan. Miel sukaldean oiñetakoak jazten. Gazteak ikuilluan, da ama sukaldean, bere eltze ta tresna. Tipula palta zuan babarrunei sartzeko, ta ganbarara abiatu zan eske.

Sukaldetik ertetean, eskail-buruan, barandari eldu ta burumakur, Maritxu ikusi zuan. Ikuste arek tximistak bezela ziztatu zuan. Joan da, *rau!*, gerritik eldu zion.

- Zer dezu, Maritxu? Gaizki al zaude?
- Ez dakit, ba. Mareatu egin naiz.
- Goazen, goazen gelara.

Joan da oi gaiñean etzan zan. Arek, ikuillura jeixterako, beren gela zutik jarria zeukan. An etzegoan trapu zarrrik tirata. Baztarrak txukun zeuden. Maritxuk:

- Ekatzu ontzi bat, goragurea daukat eta. Ekarri zion.
- Illerokoak jetxi al zaizkizu?
- Ez. Aurreko astean bear nituan, da etzaizkit jetxi.
- Seguruena aurdun egongo zera. Ni onelaxe asi nintzan, berdin-berdin, da ala gertatu zan.

— O, ama! Ez nuke besterik nai.

— Ta guk zorionak ditugu etxean.

Joxe oartu zan, da laister zan gelan. Amak esan zion. Ura poza! Oso lasaitu zan Maritxu, ta azkar altxa zan. Etxean denak jakin zuten, da alai zeuden. Joxepak, Egileorrera joan da Paulari esan zion. An ere pozik.

Arratsaldean amak esan zion Maritxuri; elizara ezin joango zala, nola mareatu egin ziteken, da bikarioak ez joateko esan ziola. Arriskutsua zala. Bazitekela erortzean min aundia artzea: kolpe txarren bat edo ezurren bat autsi. Edozer gerta leikela.

Maritxuk:

— Aste Santua da ta jendeak zer esan bear du?

Amak:

— Zuk ez kasorik egin jendeari. Aurra piztutzen danean, obeto ibiliko zera. Zuk zere burua zintzo zaindu, barruan dezuna ondo etorri dedin. Gaiñerako denak ez du ajolik. Ni berri onek arrunt bizkortzen nau. Zernai egiteko etzait ajola. Medikuarekin jakingo dezu seguru. Gure etxean orixe nai degu.

Ostiral santuz bazkalondoan arkumea ekarri zuan Joxinaxiok. Aita-sembleak il zuten. Paula ere etorri zan.

— Maritxu, zu zoaz mendira, tripa-usaia zuretzat txarra da ta —Paulak.

— Ta lanak?

— Lan bakarria daukazu zuk: ni lenbailen amon egin.

Parrez egon ziran. Maritxu ez besteak elizara joan ziran. Anjelesek etzuan joan nai: Maritxu zaindu bear zuala. Onek erregutu ziolako joan zan. Au len bezelatsu zegoan, goizekoa pasa zitzaion da.

Larunbat-goizean tripotxak egin da iganderako dena prest. Garaiz asi zan Joxepa gauzak presta-

tzen. Alabak uste zuan pasa zitzaiola; arintzen zijo-akiola nabaritzen zuan naigabe eta moteltasun ura. Onela zion:

— Kanpanak jo ta orain utsa bear nuke.

Joxe kezketan zegoan eta ez jeikitzeke agindu zion. Baiña nola egon, ezer etzeukan da? Jeiki zan da ikuillura. Senarrak armoni egin zion:

— Zertan zabilta pruebak egiten? Amak zuk baiño geiago daki, pasatu du ta. Ari kaso egiozu, obe degu ta.

— Ondo nago, Joxe.

Baiña laister mareoa, botagurea ta oiera. Joxe etzan oartu. Ama joan zitzaion, zerbait nai zuan galdetzera, ta arekin konfesatu zan.

— Etsi, Maritxu —erantzun zion—. Atzo esan nizun bezela gertatuko zaizu.

— Ama, ni ortarako prest nago ta pozez. Bildurra daukat utsarekin jo ote ditudan kanpanak.

— Ez, ez! Or dezu. Ez daukat dudarik. Ni, oiean egonda baiño, kanpoan obetoago ibiltzen nintzan.

Laister irten da proba egin zuan, da ezer ez balu bezelatsu. Denak elizara joan bear zuten, da sukaldera jetxi zan. Laister Joxe an armonian.

— Utzi zaidazu, Joxe, ni ez nago gaizki ta.

Joan ziran da etorri ere bai elizatik, eta bazkaltekeko prestatu ziran. Pellok andregaiia ekarri zuan. Palta ziran Begoña ta Andres. Au Estellan zegoan soldadu; ta Begoña, baimenik etzualako.

Ondo, oso ondo bazkaldu zuten. Bai kontu-jardun bikaiña egin ere, gerorako zeuzkaten asmoak nola bete; ta batera jo zuten: alkarri lagunduz aixago menderatuko zituzten lanak, eta Maritxu erreza-go jirako zan. Bai orixe. Asmo ona besterik etzan an.

Maritxuk Joxeri esan zion:

— Mendiruntz joango al gera? Amak kanpoan obetoago ibiliko naizela esan dit.

— Goazen, ba. Ni pozik.

Ala, irten ziran. Etzegoan eguraldia santu-santua. Zipotza; laiño beltzak Uzturren da Belabietan. Ernio aldean ere bai. Inguru guzian illun zan. Elur-bezpera zirudian. Badaezbada, arropa artu zuten.

Maritxu, ezer ez balu bezela zebillen. Belazetatik bueltan, borda buruko iturri ondoan eseri zan. Bai Joxe ere ondoan. Da gerritik eldu ta esan zion:

— Maritxu, zorionekoak gera.

— Bai, benetan. Oroitzen zera, zu soldaduskatik etorritakoan, arri onen gaiñean, gaur bezelaxe, eserita nola egon giñan, geroaz itzegiten?

— Itzak eta guziak. Zuk ni nolaz berezi niñuzun, ta arritzekoa: zu olako maiorazkoa, ta ain ederra. Denak nai ta ala ere Egileorko Joxe, zerua goien, lurra bean beste alderdirik ez duana...

— Ixo! —Maritxuk esan da bere ezpaiñekin aoa itxi zion, musu luze bat emanetz.

Lotu ziran da etzan. Itzik ezin zuten. Banatu ziranean, Maritxuk:

— Bernardori eskerrak emaizkiozu, ez dezu zorrik baiña. Zure atzetik, eskolastiko ona ziñan da ikasi naian biltzen nintzan. Gero, ura beti desaez, ta zuk babestu ta zuregana nai. Zuk badakizu orduan gauza auék etzirala gure buruan. Gero negar eragiñazi zidan. Orduan zuk arpegi nola eman zenion. Denak zuregana neramaten. Gero, emakume egin nintzanean, ni zuregana, zu neregana, biok alkarren billa, ain gutxitan billatuz. Ta, gutxiena ez, Egilleak besterik ez bezelakoa egin ziñun onean eta ederrean. Nola ez, ba, zu berezi, orrelako ederra ta gaiñera babesa?

Joxek ezin zuan itzegin. Ain barrenera sartu zitzaizkion emaztearen itzak. Begira zegokion, zentzu gabe bezela.

Maritxuk:

— Lenago bat babesten zenduan, da orain bigera zure bearrean: ni ta gure aurra.

— Jaungoikoak nai dezala emandako itza azkeneraíño betetzea.

Auzoko kontuak

AUZOAN ere bazan, ezkonberriak irten ziranean ibillaldira, zer itzegiña.

Zerbait obran ari zirala bazekiten. Ura ekarri zutela ere bai. Baiña eztaietan izan ziranean, sukalde berria ikusi zuten, bere arraska berriarekin da, erdiko parean, metro erdia gorago, bi kanilla alde banatan, bat beroarentzat eta bestea otzarentzat. Aurreko alde guzia azulejatua. Aruntzaxeago komuna, urak garbitzen zituala eginkaiak. Gero, kuarto berria, naiz zarra, aritz-ol bikaiñez ezarria, lustre latza aterata, dizdiz egiten zuala, gaiñean zielo rasoa emanda. Atea sartu ta eskubitara, bi oi alkarren ondoan. Ezkerretara, armario ederra.

Aurrean leioa, zoragarrizko ikuspegiarekin: Erniotik asi ta bueltan Asteasuko, Andoaingo, Urnietako, ta Donostiko muga Ontton. Arritzeko dan moduan, eguzkia, ia arteeran jo ta berandu arte itzaltzen etzana. Paraje ederra amets egiteko.

Oiaren bi aldeetan, buru aldetik, bi mesilla; ta saietsean bi silla. Armarioak iru ate zituan, eta erdikoak barrungo aldetik dena ixpillua. Solairuaren kolorea zeukaten denak.

Emakumeak, batez ere, ondo ikusi zuten. Auei etzegoan iritzia galdetu bearrik. Bestela ere esaten zuten. Denak bat jotzen da pentsatzen zuten: ura

baserri baterako lujo geiegi zala; andik irten da lanera joan bearko zutela; askotan, ikuillutik Jainkoak daki zer txukundadea ekarri; ta orain dizdiz, baiña laister aldatuko ziralala...

— Ta, apur bat mantxatzean, gureak baiño ere okerrago.

Goikoetxeko Martinak ala zion:

— Guk ainbesteko aukera bazeukenean garbi ibiltzeko ere. Arraska ori, ta ura beroa ta otza, biak, eta komon ori. Orrek inbiria ematen zidan neri. Gure Miel kapritxosoa baida, ta alaba ere argia, bizia, elemento ona.

Iturburuko Mariak:

— Nunbait ere dirua baziñenan, alajaiñena!

— Ez den arritzekoa. Ba al dakin zenbat aritz saldu duan? Gaiñera, ganadua ere asko, ta suerte latza: famili txikia. Atzenerako, denak bat jotzen diñea.

— Ni arritzen nauan gauza bazegon, ba, or.

— Zer, ba?

— Orain etorri ta orren azkar ezkondu itxu-itxuan, alkar geiago ezagutu gabe. Ez ote da or zer-bait geiago izango?

— Zer?

— Etzekiñat, ba, nik. Neri esan egin zidanean. Ez den nerea.

— Faborez esan. Jakin nai niken zer dan.

— Ez den segurua, e? Ea, Joxe etorri zanean, pixkaren bat zabartu ta leporaiño betea dagoan Maritxu; ta orain, disimulatzeko, azkar ezkondu.

— Zeiñek esan din?

— Etzekiñat. Pekatua esatea libre den, baiña pekataria ez.

Sua bezela gorritu zan Martina, ta:

— Ez iñola ere. Ori gaizki itzegin naia den, da inbiriak atera arazten dituan gauzak. Maritxu kristala baiño garbiago joan dala ezkontzera, dudarik txikiena ere etzeukanat.

— Etzekiñat, ba, neska. Neri esan egin zidanea, ta malizi gabe bota diñat.

— Gaitz-pentsu geiago bear din. Nik bazekiñat zergatik ezkondu diran azkar. Alkar ezagutu gabe ez. Umetatik alkarren atzetik asi zirala badakizute, ta gerozkoa ere pranko bai: Miel gaizki, Maritxu bakarrik, daukaten ikuillu aldea, nola amak eta alabak lanak egin? Eziñezkoa. Suertez, mutilla orduantxe etorri. Zer egin bear ziñenan? Ara or motiboa. Nik uste ondo egin dutela. Ori garbi zegon.

— Bai, bai. Ala ematen din, i seguru ago ta.

— Bai. Nik ango berri geiena bazekiñat. Miel ta Joxepa gurekin garbiak ditun, da alkarren berri geiena bazekiñagu.

— Gazpioko kontuak esan al dizkizute?

— Bai.

— Esantzin.

— Ez. Berak, nai badu, esan ditzala.

— Nolabait ere engaiñatu ziñenan Anjeles, etxea kentzeko.

— Maria, gaitz-pentsu oiek oso txarrak ditun. Len esan diñat zein iturritako ura dan. Zuek dakizute: gure Miel gizalegez ibili izana den geienean, da or ere bai, naiz Estebanekin, naiz Romanekin da naiz Anjelesekin, atzenean lo egitera ere Maritxu eraman araziz. Zer egin bear ziñenan Anjelesek? Egin zuana. Norabait ere erori. Nora? Konfiantzarik geiena zeukan lekura. Orain ederki bizi den ori.

— Bai, bai. Gero itzegingo diñagu.

Gauza zelebrea da, batzuek geiago, besteak gutxiago, gure barruan dagoan zikinkerri au. Gerok

oartu gabe, limak edo esterak burnia jaten duan bezela, barruan pakea jaten digu, ta beti urkoaren egiteak duten alderdi txarra azaltzen degu, ta ez degu ikusten gure barruan daukagun puzunia. Esaera zarrak diona: ikuste ona ta alkar ikusi ezin. Alako zerbait bazan an ere.

Permin, Joxe, Paulo ta Praisku eserita zeuden maian, zerbait edanez eta zigarroa errez. Paulok zion:

— Etxe ontan ez da giro. Baserria danik ez dirudi. Emengo sukalde ta komon, da ura ez txarrena. Len eder zalea dala, baiña orain ura ere ikuilluan, da ez dira gaizki jarri. Nunbait ere dirua ere bazuten.

Praiskuk:

— Ba ori gero ikusi bearako. Mielek dirua izatea arritu egiten al zerate? Badakizute zer baso saldu dituan?

Permiñek:

— Errez saldu zetik bestek jarritakoak.

Praiskuk:

— Egia. Baiña ostera jarri ditu berriz. Ez dago ezer esaterik.

— Ez. Ori langillea izango dek; baiña orrek andrea dik ordotxa eta bizkorra, bera ez baiña.

Paulok:

— Gaizki ibili zan, ba, alaba izan zuanean.

Praiskuk:

— Belar gaiztoa galtzen zailla da ta alakoren bat izango dek.

Joxek:

— Markarik aundiena orain egin die: neska ori orren ederra, ta orrek ezkontza ohea egin zezaken.

Permiñek:

— Txarra egin al dik, ba?

Joxek:

— Etzekiat ba nik. Dote ohea duana esan nai nin. Orrek, gizarajoak, zer izango dik? Mutilla bikaiña bai, ederrik baldin bada.

Praiskuk, algara eginda:

— Anka-galanta bai. Makal itxura ematen zioat nik. Orrekin Miel laister asarretuko dek.

Paulok:

— Oker zaude, Praisku. Nik, Gaztelun morroi egon zan etxeko nagusi-etxekoandreak nituan aurreko aldean bazkaltzekoan; da jaiotzen asi ere orrelakoak gutxi egiten dirala esan zidaten. Aundia, bizkorra, ziñezkoa, errespetokoa ta ona. Etzekiten biak ere nola famatu. Aitonak, Joxe gonbidatzera joan zitzaientean, jan bear zuala, ta ogei duro eman zizkiola, biak ikusi nai zituala esanez; ta aurrak eldu ta etzietela utzi nai aldegiten. Joxeri negarra irten zitzaiola, ta ia zortzi urte egin ditu an. Ez det uste aiek gezurra esan dutenik.

Praiskuk:

— Geroak itzegingo dik. Lantokia bazeukea, nai badu egin.

Joxek:

— Len ere bai, baiña orain geiago, Gazpio ere berea omen du ta.

Praiskuk:

— Ala dek itxura. Berak jakingo dik nola.

Permiñek:

— Bai noski. Gogoratzen zera, mezetatik gentozela, itz oiek berak esan da zer erantzun zizun? Zer-bait etzitzai ondo iruditu.

Praiskuk:

— Ez, noski. Barrenen daukan arra ikuitu nitxeuan, da ark salto egin.

Permiñek:

— Ez. Ez da orrelakorik. Nik badakit gauza ori nola izan dan. Gure koiñadoak ortan ere garbi jokatu du. Eskueta etorri zaiona, utzi egin bear al zuan?

Praiskuk:

— Ik nai dekena esan. Ni lengoan geldituko nauk.

Permiñek:

— Pentsatzen det.

Joxek:

— Bai. Orain, bi etxerekin da olako suia, auskalo zer saiatu naiko duan Mielek.

Praiskuk:

— Gauza al da? Planta ederra zeukak beiñepein.

Permiñek:

— Txarrak eta onak guretzat egiñak dira. Apur bat ari da bizkortzen.

— Obe, motell. Lenbailen bizkortu dedilla — Joxek eta Paulok.

Praisku ixilik gelditu zan. Martina etorri zitzaion Permiñi, esanez:

— Ikuillua zuzentzera joan bearko degu, ba, berriz apaltzera etortzeko.

Praiskuk:

— Gurea bakarrik joan den. Ik ere egin ezazken bakarrik.

Permiñi etzitzaion ondo iruditu Praiskuren ateraldia.

— Ez, gizona, ez —esan zion—. Nik nerekin ezkondu nai zuan galdetu nion. “Neskamea izatekotan ez” esan zidan. Beraz, ez da neskamea, ta batak besteari laguntzen oituak gaude, ta oso errez egiten ditugu. Zer gauza ederragorik? Askoz obeto bizitzen da.

Praiskuk:

— Ori, gizon emea izatea dek.

Martina ezin sufrituz zegoan izketa ori entzuten, da:

— Zure joera ori gizon ez izatea da —esan da aldegin zuan.

Bai Permin ere atzetik:

— Zaude, emakumea —esan zion.

Martinak:

— Ori beti orrelakoa. Ez luke nerekin egingo. Kontxi gaixoa! Zer infernu ote dauka?

Permiñek:

— Bueno, Martina, guk ez daukagu orrelakorik.

— Ez orixe. Gozoago bizi gera gu. Zu etzera izan modu ortakoa.

Gaiñerakoak etzuten orrelakorik. Bearbada, inbiri -izpiren bat, baiña gordean.

Ezkonberriak etxera itzuli ziranean, ia ogei egun kanpoan eginda, orduan bai, etzitzaien askori gustatu. Baiña bazan norbait, duda gabe onartzen zuana: Iturburuko Miel Martin aitona.

— Noiz egin bear die, ba? Lenengo, ezkontzak badik alako zerbait iñola ere berritu ez ditekena, batez ere, oiek bezela maitasunez ezkondu badira. Gerorako utzi? Gero etzeikek berdiñik. Orain, orain! Zenbat aldiz gogoratzen zaidan, baiña guk ez genin al izan. Orain etorri zaiek denbora lan egiteko, ta saiatuko dituk.

Gero, baiñu berria egin zutenean, orduan ia okerrago. Noraiño igo ote ziran? Da ori askoz geiegi zala, Praiskuk berealdiko sermoia egin zuan, denak lurpean sartuz.

— Azalduko dituk, bai, azalduko dituk. Egon lasai.

Kontxik erantzun zion:

— Ez dira guregana beartzen beintzat, eta utzi zaiezu.

Jo etzuan egin, baiña gaiñerakoak bai. Ezin det sinistu emazteari arek esan zizkionak pentsatu ere egin zitezkeanik. Len ere nunbait etzuan aurrenekoa, ta an egon zan ixil-ixilik. Bearko gaiñera.

Alaba Izaskunek, altxa ta aldegin zuan. Ezin eraman zuan ama ala tratatzerik, ta Bernardok esan zion aitari:

— Ez. Gure ama ez da orrelakoa izan. Ezta guxtiago ere, ez.

— Ez dek nik ainbat sufritu orren ondoan.

— Ez, aita. Zuk eta guk orri bai sufritu arazi diogu. Ama beti ona izan degu, ta eskerrak orri. Au Egileorke Paula ta Beristaingo Joxepa bezelakoa da: bere burua baztarrera utzi ta besteri on egitekoa.

— Bai, e? Beristaingoak ankaluze bat eraman dik, baiña oraingo zalaparta laister pasako dek. Ikusiko diagu zertan gelditzen diran.

— Gu baiño obeto. Aiek ura nai zuten, da pozik bizi dira. Antzematen zaie.

— Bai? Ori nai badek, Egileorren beste ankaluze bat bazegok. Ekar zak. Ara aukera.

— Ortan balego, pozik.

— Pozik etorriko dek beren etxeko nagusiaren etxera.

— Gure etxeko berriak jakinda, ura onera etorri? Duda egiten det.

— Aietan zer da, ba, gurean ez dana?

— Pakea, guk bein ere ezagutu ez degun bezelakoa. Gaur ere, zuk egin dituzun ojuak eta orroak! Auzo guziak badaki gure berri.

— Eskerrik asko.

Emaztea altxa zan, da:

— Praisku, siestara joango al naiz?

— Nai dezuna egin —Praiskuk; baiña zuka.

Kontxi altxa ta aurre-mantalarekin begiak garbituz irten zan. Atea ixterakoan Praiskuk deitu zion:

— Kontxi, ekatzu kafea.

— Bai. Oraintxe —erantzun zion.

Eltzetik kafea kazo batera bota, epeldu, ta aurrean jarriz:

— Beste ezer nai dezu?

— Ez, Kontxi. Zoaz.

Artu zuan kafea, baiña etzan gozatzen. Altxa ta armariotik patarra atera ta edaten asi zan, burua makur. Semeak esan zionak zer pentsatua jarri zion. Noizbait gelara joan zan.

Emaztea an zegoan, lo-paperean, baiña esna. Inguratzean begira egon zitzaion, da makurtu ta bekaiñean musu eman zion. Bai emaztea usu jira ta lepotik eldu ta beste musu luze bat eman ere. Pazientzian artu zuan gizonak. Bai; bururik etzuan makurtu nai, baiña naiko lanak bazituan, zein-da kaskaillua zan.

Mandatuia

EZKONBERRIAK beren etxean gozo bizi ziran. Ia Maritxu konturatu zan aurdun zegoala ziur. Beste munduan bizi zala zirudian. Aiek kontuak esaten zizkion Joxeri!

Gauza bat palta zitzaion: elizara joatea; ta igandean, besteak prestatu ziranean, ura ere jazten asi zan. Joxek, jantzi ta irten da Joxepari esan zion:

— Elizara joan nai du ta...

Au entzutean, *rau!*, gelara joan zan ama. Ia soinekoa jantzia zeukan.

— Ez, Maritxu, ez. Zu ez. Barruan daukazun ori zaindu bear dezu, ta ez jostatu. Geroko negarrak ez du balio.

— Bai. Orixe gauza guzien gaiñetik.

— Orduan elizara ez joan.

Anpolaiia ainbateko malkoak zeuzkan Maritxuk begietan.

— Orduan Joxeri esaiozu etortzeko —esan zion amari.

Onek irten da esan zionean, azkar zan an. Ordu-rako, oiaren gaiñean eseri ta negarrez zegoan. Bereganatu ta musu emanda:

— Zergatik zaude negarrez, gure aurraren jabe zera ta?

— Pozez, Joxe, pozez. Zorioneko zuk egin bainazu. Gaur Begoña-ta emen izango dira, ta ogi bat ekar ezazu.

Beste bi edo iru enkargu ere eman zizkion. Mezetatik Joxe dendara joan zan, beste irurei esanda. Mielek esan zuan:

— Goazen besteekin batean. Orrek atzetik errez arrapatuko gaitu.

Emaztearen aginduak betetzean, jira zan Joxe etxe aldera, ta Zelaiko Joxe Mari irten zitzaion:

— I, Joxe: irekin itzegin naian natxiok, ba.

— Ara ni emen buru ta belarri entzuteko.

Asi zitzaion esaten Maritxuren atzetik nola asi zan, da:

— Ori denak esan zizkidak, Joxe Mari.

— Bai. Pentsatzen diat. Ura fiña dek. Naigabe aundia izan nian, baiña aren kulpa ez dek. Geroztik ez nauk iñorengana joan. Baiña aitak ere estutu egiten natxiok, da naiko lanak bazeuzkeat. Etzekiat zer irudituko zaiken, baiña ire arreba Joxepa zeukeat begiz joa. Ia bi illabete ontan, jaiero aren atzetik natxebillek. Baiña beti bestek arrapatzen zidak. Nik etzekiat ni naizen motela edo berak propio egiten duan. Gustora itzegingo nitek berarekin.

— Motell, ori besterik ez badek nai, nik egingo diat modua.

— Ea, ba, orixe egiten dekan.

— Zer dan abisatuko diat.

— Abisatzen nola ariko aiz? Nai al dek ni biar illuntzean zuen atarira joatea?

— Nik naiago. Ordurako itzegingo diat arreba-ekin.

— Biar arte —esan da banatu ziran

Joxe irixterako besteak aldatzen ari ziran. Aldatu ta Maritxu zai zegoan. Bazkaldu ondoren, siestara. Maritxuk esan zion:

— Zoaz zu. Ni, ontziak jaso ta joango naiz.

— Biok egin da biok joan —erantzun zion senarrak.

Aita-amak eta Anjeles joan ziran, da Joxek emazteari dena esan ere bai.

— O! Joxe Mari? Badakizu, esan nizun da, nere atzetik nola ibili zan.

— Bai.

— Arantza bat daukat geroztik barruan: ez nintzan bear bezela portatu arekin. Ura mutil ona izango da. Nerekin ala izan zan beintzat, da oso gaizki banatu nintzan arengandik. Itz gutxi ta naiko samiñak esanda utzi nuan. Etxeratu nintzanean, atean sartzekoan, begiratu nuan da oraindik begira zegoan bide-gurutzetik. Geroztik, oroitzean, naigabea sortzen zait barruan.

— Zu orain siestara ta ni ara.

— Siesta egin gabe?

— Zer, ba?

— Ez, ez. Ni tuntuna naiz ta zu beti ondoan nai.

— Laister naiz emen. Arreba errira joan baiñolen nai nuke itzegin.

Ala, joan da arreba prestatzen ari zan erteteko. Al zuan polikiena esan zion zeukan enkargua. Tomatea bezela gorritu zan neska, ta ixilik zegoan.

— Zer egin nai den? —galdetu zion Joxek.

— Nik etzekiat, ba, motell. Oraindik bein ere ez nauk pentsatzen egondu. Bazeukeat bat etortzen zaidana. Baiña ez diat oso ondo ikusten. Aurrenetik txukun, baiña orain ikuitzen asten dek, eta euliak bialtzeko ez diat iñoren bearrik.

— Pikardian ote dabil?

— Ala badabil ere, alperrik nerekin.

— Ala bear beintzat.

Arrebak noizbait:

— Baten bati entzun nai nitxiokek olako zerbait.
Mutil ona bada, zergatik ez?

— Bai. Oso ona gaiñera, ta ik badakin.

Joxepa oso neska ederra zan: altua, lerdena ta arpegi ederrekoa, senide denak bezela. Illea, berriz, beor-isupu bat aiñeko zurde bat. Korapilloan atzeko aldean lotu ta oso apain jartzen zuan. Gogoak eman balio atzeko aldean bezela korapilloa buru gaiñean egitea, etzuan iturritik ura etxera suillean ekartzeko buruko tera bearrik izango.

Joxek, erterakoan, amari dena agertu zion, da esan:

— Baliteke biar illuntzean Joxe Mari etortzea, ta zuk itzegiten utzi.

Astelenean, illunabarrean, ikuilluko lanak egiten ari zirala, Maritxu peakiaren billa atera zan; da, artu ta barrenera zijoala:

— Gabon, Maritxu —intxaur ondotik.

Ikaratu egin zan.

— Joxe Mari naiz. Joxe inguruan al dago?

— Bai. Ementxe. Atoz —esan da ikuillura sartu ziran.

Joxe agurtu zuanean, Maritxuk:

— Joxe Mari, baneukan, ba, zurekin itze gin naia. Gogoratuko zera, or bide-gurutzean egon giñanean, zer arrazoi zakarrak eman nizkizun agurtzekoan.

— Nik esan arazi nizkizun.

— Ez, ez. Zu leial da ondo mintzatu ziñan. Nik egin nuan gaizki. Au zan tarteko, ta ni onengatik

sufritzen nengoan —Joxeri eskutik elduta—. Ta zurekin ustu nuan nere miña. Geroztik, askotan gogoratzen zait. Batez ere elizan, zu ikusterakoan. Gaizki egiñaren arantza sentitzen det barruan. Bar-katuko al didazu?

— Emakumea! Zer esaten didazu? Bai, baiña geiago ez berritzekotan.

— Eskerrik asko, Joxe Mari.

Eskua eman da arena estu-estu eginda, lanean asi zan. Bi gizonak itzegin zuten, da Egileorrera bakarrik etzuala nai esan zuan Joxe Marik:

— Beia baiño lenago zintzarria jotzerik ez nikek nai.

Mandioko ateetara joan, mutilla an utzi ta sukaldera joan zan Joxe. Illargia erditik gora zijoan. Neska anaiarekin irten zan.

— Ondo konpondu —esan, da etxera joan zan Joxe.

Joxe Mari bildurti asi zan, Baiña neskaren aur-pegia ikusiz, illargiaren argitan gorri-gorri eginda zegoala, lasaitu zan.

— Orrela itzegiteko, konturatu al zera Egileorko Joxepa naizela?

— Zer esan nai dezu orrekin?

— Ni, zure etxera eramateko, ez detala doterik. Nagoan bezela arropa auekin, besterik ez dedala.

— Gauza oiek denak aitarekin itzeginda nago. Neretzat geiegi ez baziña, utsa litzake.

— Erantzungo dizut, baiña denbora nai nuke, illabete bat-edo.

— Bai. Ondo dago. Baiña baietza eman nai badi-dazu, betikoa izan dedilla. Ezetza bada, lasai egon. Berriz etzaitut beartuko.

— Zaude lasai. Edozein dala ere, nere erantzuna ala izango da. Ezetza bada, Joxek esango dizu; ta,

ezeren berririk ez badezu, emendik ogei egunera nai dezunean etorri neregana. Baietza esan naiko du.

— Bai. Baiña nik ez dakit edo motela naizen edo zer gertatzen dan: beti atzena ni.

— Ez apuratu, Joxe Mari. Baietza bada, bilduko gera, ta betiko, zuk eta nik nai bezela.

— Ooo! Iritxiko ote da egun ori?

— Zergatik ez? Baliteke ezetz; ta baita ere ondo-ondoan egotea.

— Jainkoari nai dakiola.

— Joxe Mari, gu emen erdi ametsetan ederki gaude. Baiña onezkero gure ama kezkatuta egongo da. Apustu egingo nuke txeleta egin duala.

— Zaude oraindik apur bat.

Baiña laister banatu ziran.

Urrengo igandean, berriz ere Joxe Mariri aurea arrapatu. Joxepa, tartean etortzen zitzaion arekin joan zan; da Karmen Goikoetxekoa Iturburuko Teofilorekin. Len ere jakiñean zeukan, baiña ez eskarmentatzen. Berriz ere zirika asi zitzaion. Ia nazkatua zegoan neska, ta esan zion:

— Naikoa da. Aspertu nazu kokotzeraiño. Len prankotan esan dizut ez dedala iñor nai euliak kentzeko. Asko degu. Geiago ez neregana etorri.

Alde egiten asi zan, da:

— Zer nai den, ba, txoraa?

— Zu geiago neregana ez inguratzea.

Ta bakarrik abiatu zan. Baiña Karmenek:

— Ez, Joxepa, ez. I gurekin, da zu sobre zaude.

Estrata baztarreko zutikakoa bezela an gelditu zan mutil ura.

Aita-ama ta anaiarekin itzeginda zegoan Joxepa, ta garbi pentsatzen zuan. Neska bikaiña zala bazekian. Askok begiratzen zioten, baiña ipuietako

printziperik etzitzaion etorriko, eta etzuan nai ere. Ankak lurrean zeuzkan. Garbi jokatu nai zuala esan zion, ta berak gauza guzien gaiñetik orixe nai zuan. Mutil ederra zan, da nun bizia atera bazuan. Egileorko alabak zer geiago bear zuan? Ia artarako gurasoak ere onartu zuten.

Igandean, beti bezela, joan errira ta etxeruntz abiatzean, Joxe Mariri berriz ere aurea artu zion lengoak. Baiña Joxepak:

— Ez det nai zurekin joan. Onekin joan nai det —esan da Joxe Mariri eldu.

Eskutik tira ta berak Karmeneri eldu zion. Bestea seko moztuta gelditu zan, zer esan etzekiala.

— Zer: ez al dezu nai, Joxe Mari?

— Bai. Nik ziñez —erantzun zion, da laurak joan ziran, alai ala ere.

Banatu ziranean, galdetu zion:

— Egitan betiko, Joxepa?

— Bai. Izatezkeroz, nik ala nai zaitut: betiko.

Au entzutean, Joxe Marik eldu estu-estu ta bekaiñean musu eman zion. Laister zuan ordaiña. Askatu zan, da:

— Naikoa da. Orain zure andregaiia naiz, eta zuk nere izen ona gorde bear dezu.

— Agintzen dizut, zuk merezi bezelakoa izango naizela.

Maritxu edertzen ari zan. Kozkorra ere azi zitzaion. Ia zazpi illabetera zijoan, da aurra saltoka nabaritzen zuan. Joxe ta biak, bazkalondoan, sies-tarakoan, oiean zeuden, da Maritxuk:

— Ara: orain ere salto egin du.

Joxe, eskua tripa gaiñean jarri ta zai zegoan:

— Ara, ara: orain ere egin du. Au zoriona! —zion Maritxuk—. Geiago ez diteke. Zurekin lortu det.

— Au ala nai nuke. Baiña zuk, ni ta besteak, denak egiten gaituzu zorionekoak. Maritxu, zu denon erregiña zera.

Andik ondorengo igande batean, Joxe eta Maritxu, aita-amak berekin zituztela, laurak, Anjeles etxean utzita, mezetara joan ziran. Ertetean, beti etxean zerbait bear izaten baida, ama-alabak den-dara sartu ziran, da aita-suiak zai zeuden noiz aterako, artzen zutena Joxek eramateko etxera. Ta ara nun datorkien Zelaiko Martiuxe:

— Zer modu, Miel, zer modu? Obeto ikusten aut orain aurretik baiño.

— Etzekiat, ba, Martiuxe. Zerbait obeto bai, baiña askorik ez sobra ere. Gauzak okertu errezago egiten dituk zuzendu baiño. Zorioneko martxoko eguzkia. Permiñek esan zidaken, baiña nik kasorik egin ez, ain ederra zegoan da. Orain ondorenak nozitu egin bear. Au —Joxe erakutsita— suia diagu. Gure alabak au nai zin da ezkonduta jarri ituen, bai, ta zorionetan bizi gaituk. Au etorri bazan, etorri, asko zuzendu nauk.

Martiuxek:

— Bai. Bazekiat suia dekela. Lendik ezagutzen diat.

Urrena onela esan zion Joxeri:

— Ik ez dek usteko; baiña, aita-sembleak bear duten bezela, Joxe Marik, esku artean zer dabilkian, dena jakiñaren gaiñean jarri natxiok, eta zabal onartuak gatxeudek emaztea ta biok, eta lenbailen modua egiteko esana zeukagu. Presaka ibili bearrik etzeukea, baiña nik nai nitek. Ik ez dek usteko, baiña, Joxe, dena dakiat natxiok, ta eskerak ematen dizkiat Joxe Mariri orrela lagundu diokelako. Len pausoak dituk zaillenak. Orain ura fin jokatuko dek. Baietza artu zuanetik ezin dek inon kabit. Beste mutil bat dek. Zure gurasoak ezagunak dizkiat, baiña arreba ez.

— Au bezelakoxea, motell: aundia eta ederra —
esan zion Mielek.

Joxe lotsatu ta gorri-gorri egin zan. Une berean
agertu ziran ama-alabak. Joxepak:

— Zer modu, Martiuxe?

— Ondo, Joxepa. ondo. Zuen gizon auekin ari
nintzan kontutan, gure goraberak berritzen.

— Au alaba dek —Mielek.

— Bai. Pentsatu diat —Martiuxek—. Urte asko-
an alkarrekin pakean bizi zaitezte —esanez, agurtu
ta utzi zituan.

— Enkarguak zuk eramango al dituzu, Joxe? —
esan zion amak.

— Bai pozik. Orregatik geunden zuen zai.

Ala, gauzak artu ta lasai-lasai etxeratu ziran,
bidean Martiuxerekiko alkarriketa berrituz, zenbat
eskertu zuan Joxe Mariri egindakoa. Ta Joxek esan
zuan:

— Nik ez nuan ezagutzen asko, baiña Maritxuk
esan zidan zeinena ona ta garbia zan. Uste det, nere-
kin itz emana egon ez balitz, suia ura izango zendu-
tela.

Zimurtzi egiñez, besotik eldu zion Maritxuk
senarrari, ta:

— Ez, Joxe, ez. Eskol-ume zirtzil batzuk giñala
beartu nintzan zure babesez. Orduan eman zenid-
an, da geroztik nere begiak ez dute zu besterik
ikusi.


— Ara, nundik eta nola ez dakigula, bigarren
familia osatzen asteko modua. Martiuxe txoratzen
dago. Ez du noski nai orduko erraiña etxean ikusi-
ko. Ta ni —zergatik ez esan?— baita ere, arrebak
orren senargai jatorra dualako. Ezin ausartuz zego-
an, ta izan degu zuk berari zure ustez eman zenion
miña sendatzeko egokiera. Onez aurrera zer egin

bear degu? Ontarutzen lagundu digun Ari eskerrak emanaz, izan genezazken ondorengoak azi ta kristau bezela ezi, gure gurasoak, merezi duten bezela, ondo zainduz. Etxean da kanpoan on egiñez, al izaten degun artean pakean bizi.

Arkibidea

| | |
|----------------------------|-----|
| Izen-zerrenda..... | 7 |
| Beristaingo Miel..... | 10 |
| Maritxu | 16 |
| Eskolara | 22 |
| Joxe, morroi | 26 |
| Amonaren eriotza | 40 |
| Garia | 47 |
| Belarra | 49 |
| Beia umea egiten | 52 |
| Pagamuntegiko belazea..... | 55 |
| San Lorentzotan | 58 |
| Txekorrak..... | 62 |
| Abuztuko Ama Birjiñak..... | 65 |
| Agorreko Ama Birjiñak..... | 70 |
| Potxoloren ezbearra | 73 |
| Egileorko Joxinaxio..... | 77 |
| Tolosara | 80 |
| Jaia | 88 |
| Auzia..... | 94 |
| Gazpioko Esteban..... | 105 |
| Okerrago | 115 |
| Eriotza..... | 124 |
| Gazte-kontuak..... | 132 |
| Beste proportzio bat..... | 137 |
| Ustegabekoa | 145 |
| Soldaduskara | 151 |

| | |
|-------------------------------|-----|
| Anjelesen naia | 164 |
| Miel gaizkitu | 171 |
| Zeuta..... | 183 |
| Inaxio etxera..... | 186 |
| Odol ematea | 192 |
| Etxean..... | 198 |
| Zer itzegiña..... | 202 |
| Erabakia..... | 208 |
| Prestaketak | 218 |
| Maritxu, gaixo | 221 |
| Eztaiak | 225 |
| Zaragoza..... | 235 |
| Zeutan..... | 241 |
| Madrillen | 249 |
| Arantzazun eta Donostian..... | 251 |
| Etxean..... | 258 |
| Lan berriak..... | 266 |
| Aurdun..... | 274 |
| Auzoko kontuak | 279 |
| Mandatua..... | 288 |



Jose Azpiroz

Bi liburu ditu Azpirozek Auspoan leendik argitara emanak: bata, *Arbol zarraren kimuak*, bere familiaren istoria eskeintzen diguna; eta bestea, *Gogoz kontrako pausok*, bere gerra-ibillerak kontatzen dituana. Oroipen-liburuak, beraz, biak ere.

Irugarrengo au, berriz, nobela du. Alde batetik bi gazteren amodioa azaltzen digu; eta, bestetik, garai bateko baserri-giroa. Baiña baserritar baten ikuspegiz, izkeraz, sentimentuz eta irizpidez, bera ala degun ezkerro.

Azpiroz, irakurlea bereala oartuko denez, bere eguneroko bizitzan ikusia papere-ratzen aalegindu da, berak ezagutu duan nekazari-munduaren testigantza garbia emanaz. Ala, idazlan mardul onek, naiz-eta berez nobela izan, oroipen-liburua dala ematen du. Isteria irakurtzen ari gerala, alegia, asmakizuna baiño geiago.



Berastegiko Udalaren
laguntzarekin argitaratua

ISBN 84-89080-59-3



9 788489 080591